



ERREGELAMENDU OROKORRA

Liga Nacional de Fútbol Profesional



ERREGELAMENDU OROKORREKO XEDAPEN OROKORRAK

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen Xedapen Gehigarria

VI., VII., IX., X. eta XII. liburuak aldatu edo indargabetzeko, Batzar Nagusiaren onespena beharko da, Estatutu Sozialen 18.2 artikuluan ezarritako gehiengoarekin.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapeneko Lehena

Erregelamendu Orokor honetan sartzen diren aldaketak eta eduki berriak Kirol Kontseilu Gorenak onartu ondoren, Zirkularrean horretarako prestatzen den egunean sartuko dira indarrean.

Azken Xedapeneko Bigarrena

Estatutu Sozialen 30.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzorde Delegatuari dagokio Erregelamendu Orokor hau interpretatzea. Hala ere, Estatutu Sozialen testuarekin desadostasunik egonez gero, Estatutuen testuak izanen du lehentasuna.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iragankor Bakarra (COVID-19a)

Xedapen honek aldi baterako aldatzen ditu VIII. Liburuko 1. Eranskina eta X. Liburuko 13.1 eta 20.1 artikulua. 2019/2020 eta/edo 2020/2021 denboraldietarako indarraldia izango du, agindu bakoitzean aurreikusitako zehaztapenak kontuan hartuta. Zehaztapen horiek Batzorde Delegatuaren erabakiaren bidez aldatu ahal izango dira, osorik edo zati batean, Estatutu Sozialen 31. artikulua laugarren paragrafoan aurreikusita denari jarraituz bertaratuen bi herenen gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez, Covid-19aren ondorioen bilakaera kontuan hartuta.

Bat. Aldaketa iragankorra VIII. Liburuko 1. Eranskineko A.8 eta B.4 ataletan

Aldaketa honen bidez, aldi baterako aukera ematen da kategoriaz jaisteagatik konpentsazioa jasotzeko aurreikusitako egutegia aldatu ahal izateko, bereziki, 2020/2021 denboraldiaren hasierari dagokionez gertatzen diren inguruabarren arabera.

Horretarako, Erregelamendu Orokorreko VIII. Liburuko 1. Eranskineko A ataleko 8. puntuari eta B ataleko 4. puntuari, hurrenez hurren, azken paragrafo berri bat erantsi zaio. Hona hemen horren edukia:

LIGAREN diruzaintza-egoera aztertu ondoren, Korporazioko Zuzendari Nagusiak 2019/2020 denboraldian mailaz jaitsi diren klubei/KSAei konpentsazioa ordaintzeko egutegia aldatzea erabaki ahal izango du, batez ere aurreratzea, hori justifikatzen duten aparteko inguruabarrak gertatzen badira. Nolanahi ere, ordaindu ahal izateko, klub/KSA hartzaileek liburu honetan ezarritako izapide eta baldintza guztiak bete beharko dituzte, alde zuzenetik eta osorik.



Bi. X. Liburuko 13.1 artikulua aldaketa iragankorra

Aldaketa honen bidez, aldi baterako gaitzen da klubek/KSAek aurkeztu beharreko dokumentazio ekonomikoaren aldaketa, COVID-19ak klubetan duen eragin ekonomikoa identifikatu ahal izateko.

Horretarako, Erregelamendu Orokorreko X. Liburuko 13. artikuluko lehen atalak azken lerroalde berri bat izanen du, testu honekin:

1.- Klub eta KSA guztiek urteko kontu banakatu eta bateratuak aurkeztu beharko dituzte euren administratzaileen eskutik, ikuskapen-txostenekin lagundurik, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak erabakitzen duen epean eta moduan, beranduenez jota denboraldi hori amaitu eta hurrengo azaroaren 15a baino lehen. Egun horretan oraindik ez bada egin klubaren Bazkideen Batzar Orokorra edo KSAen Akziodunen Batzar Orokorra urteko kontuak onartzeko, dokumentazio hori aurkezteko azken eguna Batzarraren edo Batzordearen deialdi-erabakiaren eguna izango da, baina azaroaren 30a baino lehen, edonola ere.

Aldi baterako, COVID-19aren ondorioz 2019/2020 eta 2020/2021 denboraldietan eragina duten inguruabar bereziak direla-eta, klubek eta KSAek adostutako prozeduren auditorearen txosten bat (ISRE 4400) aurkeztu beharko dute aipatutako urteko kontuekin batera, Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoak ezartzen dituen irizpideei jarraituz. Txosten horretan, COVID-19ak urteko finantza-egoeretan duen eraginaren zenbateko osoaren kuantifikazioa eta 2019/2020 eta 2020/2021 denboraldien arteko diru-sarreraren eta gastuen lekualdatzean izandako eragina jasoko dira, baita COVID-19aren inpaktutik eratorritako beste edozein eragin ere: ordainketak atzeratzea, inbertsioak, etab.

Hiru. X. Liburuko 20.1 artikulua aldaketa iragankorra

Aldaketa honen bidez, klubek/KSAek aurkeztu beharreko dokumentazio ekonomikoaren aldaketa aldi baterako gaitzen da, COVID-19ak Oreka Puntuaren duen eragin ekonomikoa identifikatu ahal izateko, eta hori baloratzeko irizpide jakin batzuk ezartzen dira.

Horretarako, Erregelamendu Orokorreko X. Liburuaren 20. artikuluko lehen idatz-zatiak hiru paragrafo izanen ditu aldi baterako, eta honela idatzita geratuko da:

1. Klub eta KSA guztiek, gainera, Oreka Puntuaren adierazlea bete beharko dute, eta, beraz, hori betetzen ez badute etorkizunean desoreka ekonomiko-finantzarioa egon daitekeenaren adierazletzat joko da, diru-sarrera garrantzitsuen eta gastu garrantzitsuen arteko alde gisa ulertuta, Erregelamendu honen I. Eranskinean azaltzen den moduan.

2019/2020 denboraldian zehar COVID-19k eragindako egoeraren ondorioz, Oreka Puntuaren adierazlea kalkulatzeko, egoera horrek 2019/2020 denboraldirako eragindako inpaktua identifikatuko da, Erregelamendu honetako 13.1 artikulua aipatzen duen ikuskatzailearen txostenaren bidez. Txosten hori ez bada aurkeztu, ulertuko da eragina zero ("0") izan dela artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Aurrekoa deusetan galarazi gabe, LIGAREN Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoak Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari eskatu ahal izango dio klubetatik/KSAetatik informazio gehigarria edo osagarria jasotzeko, hala badagokio. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak modu arrazoituan doitu ahal izango du inpaktuaren kuantifikazioa.

Azkenean zehazten den eragina ez da kontuan hartuko Oreka Puntuaren kalkulatzeko -Erregelamendu honen I. Eranskinean ezarritakoaren arabera



definituta- ikuskatutako azken denboraldia 2019/2020 denean. Hala ere, ez da egokituko Aurrekontuak Egiteko Arauen ondorioetarako, bereziki, aurrekontu-orekaren ekuazioa eta 2020/2021 denboraldiko kirol-plantillaren kostuaren muga kalkulatzeko.



I. LIBURUA

BATZAR NAGUSIAREN ETA MAILAKO BATZORDEEN GARAPENA



I. LIBURUA.- BATZAR NAGUSIAREN ETA MAILAKO BATZORDEEN GARAPENA

I.1. ARTIKULUA.- BATZAR NAGUSIAREN ETA MAILAKO BATZORDEEN GARAPENA

Batzarra edo Mailako Batzordea hasi baino lehen, eta lehenengo edo bigarren deialdirako finkatutako ordua iritsi baino lehen, idazkariak eskubide osoko kide guztien berri emango dio Presidenteari, eta, hala badagokio, horrek Batzarra edo Mailako Batzordea balioz lehenengo edo bigarren deialdian eratu dela deklaratu du, dagokionaren arabera.

I.2. ARTIKULUA.- AKTAREN EGIAZTATZAILEAK ETA GAI-ZERRENDA

Batzarra edo Mailako Batzordea eratu ondoren, Presidenteak eskubide osoko kideei eskatuko die horietako bi hauta ditzatela egingo den aktaren egiaztatzaile izateko. Bi kide bakarrik aurkezten badira, beste izapiderik gabe hautatuko dira. Bestela, bertaratutakoen gehiengo soilez hautatuko dira aurkeztutako hautagaien artetik. Batzar Nagusia baldin bada, egiaztatzaileak Maila bakoitzetik hautatu beharko dira.

Ondoren, Presidenteak hasiera emango dio deialdian ezarritako gai-zerrendari. Hala ere, Presidenteak edo eskubide osoko kideen %75ek eskatuta, Batzarrak edo Mailako Batzordeak gehiengo erabaki ahal izango du gai-zerrendako puntuak izapidetzeko ordena aldatzea.

I.3. ARTIKULUA.-

1.- Batzar Nagusiko edo Mailako Batzordeko ezin kidek ezin izango du parte hartu Presidenteari hitza eskatu gabe eta horrek hitza eman gabe.

2.- Presidenteak bakarrik eten ahal izango ditu esku-hartzeak, interesdunari denbora agortu duela jakinarazteko, hitza kentzeko, gaira etor dadila esateko edo Batzarrari edo bere kideren bati agindua emateko.

I.4. ARTIKULUA.- ESKUBIDE OSOKO KIDEEN ESKU-HARTZEA

1.- Gai-zerrendako puntu bakoitzean esku hartu ahalko dute hala eskatzen duten eskubide osoko kideek. Presidenteak esku-hartze kopurua murriztu ahal izango du, edo eztabaida amaitutzat eman, gaia behar bezala eztabaidatu dela uste badu. Esku-hartze batean Batzarreko edo Mailako Batzordeko kideren bat aipatzen denean, hark hitza izateko eskubidea izanen du, kasuan kasuko adierazpenei erantzuteko.

2.- Esku-hartzeen iraupena ez da 5 minutu baino gehiagokoa izango, eta, haren argudioei ihardesten bazaio, gehienez jota 3 minutuko denbora erabiliz kontrajartzeko edo zuzentzeko eskubidea izango du.

I.5. ARTIKULUA.- BOZKETAK

1.- Bozketak isilpekoak izango dira, Batzarrak edo Mailako Batzordeak berak aho batez kontrakoa erabakitzen duenean izan ezik. Kasu horretan, idazkariak egingo du deia, kirol-sozietate anonimoen edo klubaren antzinasun-ordenaren arabera, EFEFren datu ofizialetan oinarrituta.

2.- Isilpeko bozketa boto elektronikoko sistemaren bidez egingo da, edo, nolahi ere, LIGAk emandako eredu ofizialaren bidez. Bertaratuek mahaian emango dituzte boto-txartelak, idazkariak botoa ematera deitu ahala.

3.- Batzarreko beste kide bati eskuordetu ahal izango zaio botoa, Liga Nacional de Fútbol Profesionalari jakinarazpen ofiziala bidalita. Jakinarazpen hori Legezko Zuzendaritzan egon beharko du bozketa hasi aurretik.



I.6. ARTIKULUA.-

1.- Bozketa amaitutakoan, dagokion boto-kontaketa egingo da, eta emaitzaren berri emango du Legezko Zuzendariak.

2.- Batzarreko kideek eskubidea dute beren boto partikularra aktan jasota gera dadin eskatzeko, bai eta abstenitzeko ere, baldin eta erabakia arrazoitua bada.





II. LIBURUA

LIGAREN PRESIDENTEA HAUTATZEA



II. LIBURUA.- LIGAREN PRESIDENTEA HAUTATZEA

II.1. ARTIKULUA.- HAUTESKUNDE BATZORDEA

1. LIGAre presidentetza hutsik geratuz gero, bost kidek osatuko duten Hauteskunde Batzordea eratuko da. Hiru kide hutsik geratzen den plaza betetzeko unean Lehen Mailan lehiatzen diren LIGAre afiliatuen artetik zozketatuko dira, eta beste bi hutsik geratzen den unean Bigarren Mailan lehiatzen diren LIGAre afiliatuen artetik aukeratuko dira.

Hauteskunde Batzordeko kideak izendatzeko zozketa LIGAre Legezko Zuzendariak egingo du, LIGAre presidenteordeen aurrean. Lehen presidenteordea kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari Lehen Mailako kirol-sozietate anonimoaren edo klub zaharrenaren ordezkari bat arituko da. Bigarren presidenteordea kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari Bigarren Mailako kirol-sozietate anonimoaren edo klub zaharrenaren ordezkari bat arituko da. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, antzinatek datuak Espainiako Futboleko Errege Federazioan daudenak izanen dira. Hauteskunde Batzordeko kide diren Kirol-sozietate anonimoek eta klubek beren ordezkariaren ahalmenak egiaztatuko dituzte, Administrazio Kontseiluaren edo Zuzendaritza Batzordearen ziurtagiriaren bidez, hurrenez hurren.

2. Hauteskunde Batzordeak presidentea eta presidenteordea hautatuko ditu bere kideen artetik, biak gehiago soiluz. Hauteskunde Batzordeko presidenteordeak presidentea ordeztuko du kargua hutsik dagoenean, gaixorik dagoenean edo kanpoan denean. LIGAre Legezko Zuzendaria batzordeko idazkari izango da.
3. Hauteskunde Batzordeko kideren batek edo haren ordezkariak hautagaien bati buruzko interes-gatazkaren bat baldin badu, horren berri eman beharko die Hauteskunde Batzordeko gainerako kideei eta kide izateari utzi beharko dio, beste kide bat izendatu dadin aurreko 1. paragrafoan ezarritako prozeduraren bidez. Ez badio kide izateari uzten, LIGAre edozein kide errefusatu ahal izango du.

II.2. ARTIKULUA.-

Hauteskunde Batzordea hiru eguneko epean bilduko da, plaza hutsik geratzen denetik kontatzen hasita, eta hauteskundeetarako deia egingen du. Hauteskundeak berrogeita bost egun baino lehenago izanen dira.

II.3. ARTIKULUA.- HAUTAGAIK AURKEZTEA

1.- Hauteskunde Batzordeak hauteskundeetarako deia egin ondoren, Estatutu Sozialen 34. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein hautagaik aurkeztu ahal izango du hautagaitza. Hautagaiak LIGAre Batzarreko eskubide osoko kideen %25en abala izan beharko du. LIGAre Batzarreko eskubide osoko kide bakoitzak hautagai-zerrenda bakarra abalatu ahal izango du hautaketa bakoitzean.

2.- Hautagai-zerrenda idatziz aurkeztu beharko zaio Hauteskunde Batzordeari, eta idatziz jasoko da LIGAre egoitzan, deialdian adierazitako epea amaitzen den eguneko 20:00ak baino lehen. Idazki horretan, hautagaiak bere izena, helbidea, auzotasuna eta jaioteguna adierazi beharko ditu, NANaren fotokopiarekin batera.

Era berean, idatziz jasoko dira, hala badagokio, hautagaiak bere gain hartzen dituen konpromiso ezeztuezinak, LIGAre Estatutu-etako 34. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan aurreikusitakoaren arabera hautatzen bada.



II.4. ARTIKULUA.-

Hautagaitzak aurkezteko epea amaituta, Hauteskunde Batzordea hiru eguneko epean bilduko da horiek aztertzeko, eta onartu edo baztertu egin ahal izango ditu. Erabakiak hartu eta berehala jakinaraziko zaizkie interesdunei, posta elektronikoaren bidez, jaso izanaren agiria duen posta ziurtatuaren bidez edo jakinarazpena jaso izan dela egiaztatzen duen beste edozein bitartekoren bidez.

Erabaki horien aurka errekurtsua jartzen ahal da Hauteskunde Batzordearen aurrean, hiru eguneko epean. Horretarako, idazkia aurkeztu beharko da haren egoitzan, epea bukatzen den eguneko 20:00ak baino lehen.

Epe hori iraganik, Hauteskunde Batzordeak hiru eguneko epea izanen du ebazpena emateko eta hartutako erabakia interesdunei jakinarazteko.

Erabaki hori behin betikoa izanen da bide sozialean.

II.4. BIS ARTIKULUA.-

Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta presidente izateko hautagai bakarra baldin badago, Hauteskunde Batzordeak LIGAREN Presidente izendatuko du, Ezohiko Batzar Nagusia egin beharrik gabe.

II.5. ARTIKULUA.-

LIGAREN Presidentea hautatzeko Ezohiko Batzar Nagusia hauteskundeen egutegian finkatutako egunean egingo da. Batzarra balio osoz eratzeko, lehenengo deialdian, eskubide osoko hogeita hamabi kidek egon beharko dute, eta, bigarren deialdian, gutxienez eskubide osoko hamabost kidek. Maila bakoitzean, gutxienez, bost talde egon beharko dira.

LIGAREN Presidentea hautatzeko egiten den Ezohiko Batzar Nagusiaren buru Hauteskunde Batzordeko presidentea izango da, eta gainerako kideak mahaiko kide izango dira. Idazkari gisa LIGAREN Presidente dena arituko da.

II.6. ARTIKULUA.-

1.- Mahaiburuak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratuei dei egingo die, eta interesdunek boto-txartela emango dute.

2.- Izapide hori betetakoan, boto-emaileak boto-orria emango dio mahaiburuari, eta hark hautestontzian sartuko du.

3.- Ondoren, mahaikideek bozkatuko dute, eta, azkenik, mahaiburuak.

II.7. ARTIKULUA.-

Bozketa bukatutakoan, botoak kontatuko dira, eta mahaiburua boto-orriak hautestontzitik atera ahala horietan azaltzen denaren izena esaten joango da.

II.8. ARTIKULUA.-

Presidentea Batzarrean hautatuko da, eta lehen itzulian gutxienez 32 boto lortu dituen hautatuko da.

Hautagaietako inork ez badu kopuru hori lortzen, bigarren itzulia egingo da, eta lehenengo itzulian boto gehien lortu dituzten bi lehenak izango dira hautagaiak. Boto



gehien jaso dituen postuan berdinketa egon bada, bigarren itzulian berdinketa izan duten hautagaiak baino ez dira arituko. Boto gehien jaso duen bigarren postuan berdinketa egon bada –eta lehenengoan ez bada egon-, bigarren itzulian parte hartuko dute, lehenengoan boto gehien jaso duen izangaiarekin batera, bigarren postuan berdinketa izan dutenak.

Bigarren itzulian boto gehien lortzen duena hautatuko da, baldin eta Maila bakoitzeko bertaratuei dagozkien botoen %35, gutxienez, lortu izan badu.

Bigarren itzuliari dagokion bozketa emaitza kontatu eta ordubetera egingen da.

Berdinketak jarraitzen badu, edo lehen aipatutako %35aren baldintza ez bada betetzen, beste batzar bat egingo da hurrengo hogeita hamar egunen barruan, eta bigarren bozketakoak izango dira hautagai bakarrak. Batzar hori arestian aipatutako irizpide eta quorum berberen arabera arautuko da.

II.8. BIS ARTIKULUA.-

Aurreko II.4.bis edo II.8. artikuluen arabera presidente izendatu behar denak, bere hautagaitza aurkeztean, Estatutuen 34. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan aurreikusitako baldintzak betetzeko konpromiso ezeztazinenaren bat hartzen badu, Hauteskunde Batzordeak konpromiso horiek betetzen dituela egiaztatu beharko du presidente izendatu ahal izateko.

Konpromiso horiek izendapena egin eta bost eguneko epe luzaezinean bete beharko dira. Epe hori igaro eta Hauteskunde Batzordearen arabera ez bada egiaztatu aipatu konpromisoak bete izan direnik, izendapena baliorik gabe geldituko da. Kasu horretan, presidente izendatuko da boto gehien jaso dituen hurrengo hautagaia, eta, halakorik ezean, Hauteskunde Batzordeak hauteskunde berrietarako deia egingen du, hiru eguneko epean.

II.9. ARTIKULUA.-

Presidenteak arrazoi hauetako batengatik emango dio amaiera agintaldiari:

- 1.- Hautatu zuten aldia amaitzea.
- 2.- Dimisioa.
- 3.- Karguan aritzea galarazten dion heriotza edo ezintasun fisiko edo psikikoa.
- 4.- Zentsura-botoa, LIGAREN Estatutuetan ezarritako moduan onartua.
- 5.- Diziplina-organo eskudunak ezarritako diziplina-zehapen irmoa, horretarako ezgaitzen duena.
- 6.- Zigor irmoa LIGAREN kontra egindako delituagatik edo kargu publikoa betetzeko etetea edo desgaitzea badakar.
- 7.- Kargurako bateraezintasuna izatea, Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren Legearen edo Estatutuen arabera.



III. LIBURUA

LIGAREN PRESIDENTEORDEAK ETA BATZORDE DELEGATUA HAUTATZEA



III. LIBURUA .- LIGAREN PRESIDENTEORDEAK HAUTATZEA

I. ATALA.- LIGAREN PRESIDENTEORDEAK HAUTATZEA

III-1. ARTIKULUA.- DEFINIZIOA

LIGAk bi presidenteorde izango ditu, eta honela izendatuko dira:

LIGAre lehen presidenteordearen kargua Lehen Maiako kirol-sozietate anonimoak edo klubak proposatutako hautagaia izango da, horretarako deitutako hautapenean Lehen Mailako Batzordeak hautatua izan dena, hain zuzen.

LIGAre bigarren presidenteordearen kargua Bigarren Maiako kirol-sozietate anonimoak edo klubak proposatutako hautagaia izango da, horretarako deitutako hautapenean Bigarren Mailako Batzordeak hautatua izan dena, hain zuzen.

Bi kasuetan, eta bi hautagai edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren datu ofizialen arabera kirol-sozietate anonimo edo klub zaharrena denak proposatutako hautagaiaren alde ebatziko da, eta dagokion presidenteorde izendatuko da.

Agintaldia bi urtekoa izanen da, eta hurrengo aldietarako berrautatzen ahalko dira.

Presidenteordeek, beren hurrenkeran, Estatutu Sozialetan Presidenteari emandako ahalmenak izanen dituzte hura ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo berariaz eskuordetzen duenean.

Halaber, presidenteordeak LIGAre Batzar Nagusietako mahaiko eta dagozkien Mailako Batzordeetako kide izango dira.

III-2. ARTIKULUA.- PRESIDENTEORDEEN HAUTAKETA

1.- LIGAre presidenteordetzaren bat hutsik geldituz gero, Legezko Zuzendariak Presidenteari eta kirol-sozietate anonimo eta klub guztiei horren berri emango die, eta hautagaiak aurkezteko epea irekiko da, zeina hamar egun geroago amaituko baita.

2.- Hautagaitzak idatziz aurkeztuko dira LIGAre egoitza sozialean, azken eguneko 20:00ak baino lehen.

III.3. ARTIKULUA.-

LIGAre presidenteorde izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adinez nagusia eta eskubide zibil guztiak izatea.
- b) Kargu publikoa edo kirol-kargua betetzeko etendura- edo desgaitzuntza-zigorrik edo -zehapenik betetzen ez egotea.
- c) Hautagaitza aurkezteko unean kargurik ez izatea, edo, hautatua izanez gero, kirol-federazio edo liga profesional bati uko egiteko konpromisoa, Espainiako Futboleko Errege Federazioan edo Emakumezkoen Futboleko Liga Profesionalean izan ezik.
- d) Kirol-sozietate anonimo batek edo klub batek LIGAre presidenteorde izateko proposatua izatea. Presidenteordearen kargua dagoen Maila berean parte hartuko du, eta bere administrazio-kontseiluko edo zuzendaritza-batzordeko kide izan beharko du, edo bietan erabakitzeke ahalmena duen goi-kargu bat.



III.4. ARTIKULUA.-

LIGAre presidenteorde izateko hautagai-zerrenda idatziz aurkeztuko zaio LIGAre Presidenteari, presidenteordetzarako hauteskundeetarako deia egiten denetik hamar eguneko epean. Bertan, honako hauek jasoko dira: izena, helbidea, auzotasuna, LIGAre presidenteorde izateko borondatea, kargu publiko edo kirol-kargu bat betetzeko etendura- edo desgaikuntza-zigorrik edo -zehapenik betetzen ez egotea, eta bere NANaren fotokopia.

Idazkiarekin batera, idazkariak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, Presidenteak ontzat emana, administrazio-kontseiluak edo zuzendaritza-batzordeak LIGAre presidenteorde izateko hautagai gisa aurkezteko hartutako erabakia egiaztatzen duena.

III.5. ARTIKULUA.-

Hautagaiak aurkezteko epea bete ondoren, Legezko Zuzendariak aztertuko du ea denbora baliodunean aurkeztu direnek estatutuan eta araudian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten, hautagai-zerrendak aurkeztu eta hurrengo bi eguneko epean.

Ondoren, epe berean eta telefax bidez, hautagai-zerrenda izendatu ala baztertu den jakinaraziko die interesdunei, eta, azken kasu horretan, baita baztertzeko arrazoiak ere.

Legezko Zuzendariak hautagaitza bat baztertzen duen erabakiaren aurka, interesdunak hiru eguneko epea izango du LIGAre Presidentearen aurrean errekurtsoa aurkezteko, idatziz eta egoki iruditzen zaizkion probak erantsiz. Presidenteak hiru eguneko epean ebatzi beharko du, gehienez ere. Erabaki horren aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu.

III.6. ARTIKULUA.-

Hautagaiak izendatzeko edo aurkeztutako errekurtsoak ebazteko epea amaituta, Legezko Zuzendariak kasuan kasuko Mailako kide diren klub edo kirol-sozietate anonimo guztiei jakinaraziko dizkie izendatutako hautagaiak.

III.7. ARTIKULUA.-

1.- Hautagai kopurua hutsik diren presidenteordetzen berdina bada, LIGAre lehen edo bigarren presidenteorde izendatuko dira, besterik gabe. Hautagai kopurua hutsik diren presidenteordetzen baino gutxiago bada, falta diren presidenteordetzak betetzeko beste hauteskunde-aldi bat irekiko da.

2.- Presidenteordetza hutsak baino hautagai gehiago badaude, Legezko Zuzendariak, aurreko artikuluan aipatutako jakinarazpenean, hautaketa egiteko eguna eta ordua adieraziko ditu. Hautaketa LIGAre egoitzan izango da, hautagaiak izendatu eta hurrengo hamar eta hogeit hamar egunen artean.

III.8. ARTIKULUA.-

Mailako Batzorderako deialdia presidenteordeak hautatzeko epearen barruan egin bada, hautaketa bilera berean egingen da; bestela, bozketa postaz egingen da.

III.9. ARTIKULUA.-



1.- Hautaketa-ekitaldia Mailako Batzordeak zuzenduko du. Bertan, Legezko Zuzendariak kirol-sozietate anonimo edo klub bakoitzari deituko dio, eta horrek elkartearen ordezkariak egiaztatuko du. Presidenteak dagokion kutxan utziko du egiaztapen hori.

2.- Bertaratutakoen bozketa amaitu ondoren, Presidenteak Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten boto-txartelak sartuko ditu postaz, eta ondoren dagokion boto-zenbaketa egingo du. Boto gehien lortzen dituztenak aukeratu edo hautatuko dira. Berdinketa izanez gero, kirol-sozietate anonimo edo klub zaharrenak aurkeztutako hautagaia hautatuko da, Espainiako Futboleko Errege Federazioan dauden datuetan oinarrituta.

III.10. ARTIKULUA.-

Bozketa postaz eginez gero, botoak LIGaren Legezko Zuzendaritzan egon beharko dira, hautaketarako eguna baino 20 ordu lehenagotik.

Hautapen-ekitaldia publikoa izanen da eta nahi duten bazkide guztiek parte hartu ahal izanen dute, Liburu honen 6. artikuluan aipatzen den jakinarazpenean aurreikusitako orduan. Presidenteak edo Estatutuen arabera haren ordezkaria dena izanen da batzordeburua, eta, halakorik ezean, Legezko Zuzendaria.

Unea iritsitakoan, mahaiburuak horretarako jarrita den hautestontzian sartuko ditu ezarritako epean eta eskatutako formalitateekin iritsi diren boto-txartelak, idazkariak egiaztatu ondoren boto-emailea Mailako kide gisa inskribatuta dagoela. Bozketa amaituta, mahaiburuak botorik gehien lortu duena kontatuko du eta LIGaren lehen edo bigarren presidenteorde izendatuko du, dagokionaren arabera. Berdinketa gertatuz gero, antzintasun handieneko kirol-sozietate anonimoak edo klubak aurkeztutakoa izendatuko da.

III.11. ARTIKULUA.-

Hauteskunde-egintzaren akta eginen du Legezko Zuzendariak, eta mahaiburuak edo haren ordezkariak sinatuko du. Akta horretan honako hauek jasoko dira: eguna, tokia, hautaketaren hasieraren eta amaieraren ordua, izendatutako hautagaien identifikazioa, hautesleen zerrenda, bozketaren emaitza, boto baliodunak, baliogabeak eta abstentzioak, eta hautagai bakoitzak lortutako boto kopurua.

III.12. ARTIKULUA.-

Hautagaiak kontu-hartzaile bat izendatu ahal izango dute. Kontu-hartzaile hori hautagaiaren kirol-sozietate anonimoko edo klubeko edo LIGaren beste klub edo kirol-sozietate anonimo bateko edozein pertsona izango da, eta hautagaiak izendatzeko eta aukeratzeko ekitaldian bertan egon ahal izango da. Egoki iruditzen zaizkien oharrak egingo ditu horretarako egingo den aktan.

III.13. ARTIKULUA.-

Erregelamendu honen ondorioetarako, posta bidezko botoa honela definitzen da: gutun-azal itxian Legezko Zuzendaritzara igortzen dena, ondoren adierazten diren formalitateekin, edozein bide erabiliz, izan posta bidezkoa, izan bestelakoa, aurrez ikusitako epean organo horren esku egongo dena.

Horretarako, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak bidaltzen duen boto-txartela sartu beharko da -aurkeztutako hautagaien izenak eta botoa eman nahi dutenak jasoko ditu-, horretarako LIGAk bidaltzen duen gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horretan ez da edukirik egongo agerian eta ez da identifikaziorik egongo. Gutun-azal hori klub edo kirol-sozietate anonimo boto-emailearen idazpurua duen beste gutun-azal batean



sartuko da. Gutun-azal horretan klubeko edo kirol-sozietate anonimoko idazkariak emandako ziurtagiria sartuko da, gutun-azal itxian kirol-sozietate anonimoaren edo klubaren botoa emateko asmoa dagoela adierazten duena.

III.14. ARTIKULUA.-

Hautaketarako izendatu baina hautatuak izan ez diren hautagaiek hauteskunde-egintzaren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute LIGArek Presidentearen aurrean, hiru eguneko epean, hautaketa egiten den egunetik kontatzen hasita. Horretarako, arrazoitutako idazki bat aurkeztu beharko dute, eta bidezkoztat jotzen dituzten probak erantsi. LIGArek Presidenteak ebazpen arrazoitua emango du hurrengo bost egunetan. LIGArek Presidentearen erabakien aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu.

III.15. ARTIKULUA.-

Presidenteordeek berehala hartuko dute kargua.

III.16. ARTIKULUA.-

Presidenteordeen agintaldia bi urtekoa izanen da, hautatuak izan diren egunetik hasita, eta hurrengo aldiatarako berrautatzen ahalko dira.

II. ATALA.- BATZORDE DELEGATUKO KIDEEN HAUTAKETA

III-17. ARTIKULUA.- BATZORDE DELEGATUA

Batzorde Delegatua LIGArek ohiko gobernu- eta administrazio-organoa da. LIGArek Presidente du buru, eta, gainera, bi presidenteordeek eta Mailako Batzordeek hautatutako kirol-sozietate anonimoei eta klubek osatzen dute, Araudi Orokorrean aurreikusitako moduan, era honetan:

- Sei, Lehen Mailako Batzordearen aldetik.
- Sei, Bigarren Mailako Batzordearen aldetik.

Batzorde Delegatuak lan-batzorde espezializatuak sortzen ahalko ditu bere barruan, bere eskumenekoak diren gaiak egoki prestatzeko. Batzordeaz kanpoko pertsonen parte hartu ahal izango dute batzorde horietan.

Batzorde Delegatuko eta sortzen den beste edozeinen idazkari lanetan LIGArek Legezko Zuzendaria arituko da, hitzarekin baina botorik gabe.

Batzorde Delegatuko kideen agintaldia bi urtekoa izanen da, eta beste bi urtez luzatzen ahalko da. Batzorde Delegatuko kideak Mailako Batzordeek hautatutako dituzte aurreko ekitaldi ekonomikoaren likidazioa onetsi eta hurrengo hilabetean. Estatutuaren 29. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kasuan izan ezik, kargua uzten duten kideek jardunean segituko dute beren ordezkari hautatzen diren kideen izendapena eraginkorra izan arte.

Hautatzen diren kirol-sozietate anonimoei eta klubek beren ordezkaria izendatuko dute Batzorde Delegatuan, baita ordezkari bat ere, Batzorde Delegatuko mahaikide karguari dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko.

III.18. ARTIKULUA.-



Klubek edo kirol-sozietate anonimoek Batzorde Delegatuan horiek ordezkaturiko pertsonak izendaturiko dituzte. Pertsona horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adinez nagusia izatea eta eskubide zibil guztiak izatea.
- b) Kargu publiko edo kirol-kargu bat betetzeko gabetasun- edo desgaitasun- edo -zehapenik betetzen ez egotea.
- c) Kirol-federazio edo liga profesional batean kargurik ez izatea, Espainiako Futboleko Errege Federazioan edo Emakumezkoen Futboleko Liga Profesionalean izan ezik.
- d) Aurkezten den Mailan parte hartzen duen klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren ordezkari izatea, eta horren zuzendaritza-batzordeko edo administrazio-kontseiluko kide izatea, edo kirol-sozietate anonimoak edo klubak berak egiaztatutako administrazio edo zuzendaritza kargua izatea.

III.19. ARTIKULUA.-

1.- Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren Estatutuen 29. artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik postua hutsik geratzen bada, Legezko Zuzendariak horren berri emango dio Presidenteari, eta, horrez gain, postuaren eraginpeko klub edo kirol-sozietate anonimo guztiak jakinaraziko die hautagaiak aurkezteko epea ireki dela. Epe hori hamar egun geroago amaituko da.

2.- Hautagaitzak idatziz aurkeztuko dira LIGAREN egoitza sozialean, azken eguneko 20:00ak baino lehen.

3.- Kirol-sozietate anonimoak edo klubak, hutsik dagoen edozein postu betetzeko hautagai bateratua aurkezteko, gutxienez hiru kide elkartu ahalko dituzte Lehen Mailan, eta gutxienez lau Bigarren Mailan. Talde horrekin automatikoki postu bat lortuko dute Batzorde Delegatuan. Taldeak hautagaitzarako aurkezten duen kirol-sozietate anonimoa edo kluba ezingo da ordezkatu hautatua izan den agintaldian.

Taldea osatzen duten kirol-sozietate anonimo edo klubaren batek taldea sortu zen kategoriakoa izateari uzten badiu, taldea desegin egingo da eta ordezkari galduko du, non eta ez duen hamar eguneko epean, denboraldi bakoitzeko ekainaren 30etik hasita, talde hori osatu zuten kideen kopuru berean ordezteko lortzen. Kasu horretan, ezingo dira talde horretako kide izan beste talde bateko kide direnak edo bakarka bozkatu dutenak.

4.- Nolanahi ere, talde bateko kirol-sozietate anonimoak edo klubak ez dira hautesle edo hautagai izango Batzorde Delegaturiko gainerako postu hutsen osatzeko bozketa egiten bada, hala badagokio.

5.- Estatutu Sozialen 29. artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik -1. paragrafoan aurreikusitakoagatik izan ezik- Batzorde Delegatuan postu bat hutsik geratzen bada, postu huts hori betetzeko hautatua den kirol-sozietate anonimoak edo klubak hutsik dagoen plaza hartuko du, hutsik lagatzen duen postuaren kirol-sozietate anonimoari edo klubari agintaldia amaitu arte geratzen zaion denborarako.

III.20. ARTIKULUA.-

Hautagaitzak, taldeka nahiz bakarka, idatziz aurkeztuko dira LIGAREN Presidenteari, aurkezteko epea irekitzen denetik hamar eguneko epean. Bertan, taldeen edo klubaren izena, helbideak, auzotasunak eta taldekatzeko edo Batzorde Delegaturiko kide izateko nahia adieraziko dira.



Idazkiarekin batera, presidentearen oniritziarekin idazkariak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, administrazio-kontseiluak edo zuzendaritza-batzordeak elkartzeari buruz edo kirol-sozietate anonimoaren edo klubaren hautagaitza Batzorde Delegatura aurkezteari buruz hartutako erabakia egiaztatzen duena.

III.21. ARTIKULUA.-

Taldeak eta/edo hautagaiak aurkezteko epea bete ondoren, Legezko Zuzendariak aztertuko du ea denbora baliodunean aurkeztutakoek Estatutuan eta Erregelamenduan eskatutako baldintzak betetzen dituzten, hori guztia epea amaitu eta hurrengo bi eguneko epean.

Ondoren, epe berean eta telefax bidez, interesa duten kirol-sozietate anonimoen eta klubei jakinaraziko die hautagai-zerrenda izendatu ala baztertu duten, eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak jakinaraziko dizkie.

Legezko Zuzendariak talde edo hautagaitza bat baztertzea erabakitzen badu, baztertutako kirol-sozietate anonimoak, klubak edo taldeak hiru eguneko epea izango du LIGAREN Presidentearen aurrean errekurtsioa aurkezteko, idatziz eta egoki iruditzen zaizkion probak erantsita. Presidenteak hiru eguneko epean ebatzi beharko du, gehienez jota. Erabaki horren aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu.

III.22. ARTIKULUA.-

Hautagaitzak izendatzeko edo aurkeztutako errekurtsioak ebazteko epea bukaturik, Legezko Zuzendariak klub edo kirol-sozietate anonimo guztiei jakinaraziko dizkie izendatu izan diren hautagai-zerrendak.

III.23. ARTIKULUA.-

1.- Taldeen edo kirol-sozietate anonimoen edo klubaren hautagai kopurua dagokion Mailak bete beharreko postuen kopuru bera edo txikiagoa bada, Batzorde Delegatuko kide izendatuko dira, beste izapiderik gabe, eta geratzen diren postuak betetzeko beste hauteskunde-aldi bat irekiko da.

2.- Taldeen edo kirol-sozietate anonimoen edo klubaren hautagai kopurua dagokion Mailak bete beharreko postuen baino handiagoa bada, Legezko Zuzendariak arestian aipatu jakinarazpen horretan adierazi beharko du hautaketa zein egun eta ordutan egingo den, hala badagokio. Hautaketa LIGAREN egoitza sozialean egingo da, hautagaiak izendatu eta hurrengo hamar eta hogeita egunen artean.

III.24. ARTIKULUA.-

Mailako Batzordearen deialdia hautaketarako ezarritako epean egiten bada, bilera berean hautatuko da. Bestela, bozketa ekitaldi berezian edo postaz egingo da, Presidenteak postua hutsik dagoela jakitean Mailako Batzordeari hautaketa egiteko deia egiten dion kasuan izan ezik.

III.25. ARTIKULUA.-

1.- Postu hutsak Mailako Batzordean aukeratuko dira. Legezko Zuzendariak boto-eskubidea duen klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzari deituko dio (taldekatutako kirol-sozietate anonimoak eta klubak baztertu egingo dira). Horien ordezkariak egiaztatu beharko du, eta Presidenteak dagokion kutxan utziko du egiaztapena.



2.- Bertaratutakoen bozketa amaitu ondoren, Presidenteak Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten boto-txartelak sartuko ditu postaz, eta ondoren dagokion boto-zenbaketa egingo du. Boto gehien lortzen dituztenak aukeratu edo hautatuko dira. Berdinketa izanez gero, kirol-sozietate anonimo edo klub zaharrena hautatuko da, Espainiako Futboleko Errege Federazioan dauden datuetan oinarrituta.

III.26. ARTIKULUA.-

Bozketa postaz eginez gero, botoak LIGaren Legezko Zuzendaritzan egon beharko dira, hautaketarako eguna baino 20 ordu lehenagotik.

Hautapen-ekitaldia jendeari zabalik egonen da eta nahi duten kide guztiak joan daitezke. Liburu honen 22. artikuluan aipatzen den jakinarazpenean aurreikusitako orduan egingo da. LIGaren Presidenteak, Estatutuen arabera haren ordezkoa edo Maila ordezkatzeko duen Batzorde Delegatuko kidea izango da batzordeburu. Batzorde Delegatuko kide bat baino gehiago bertaratuz gero, zaharrena izanen da batzordeburu.

III.27. ARTIKULUA.-

Posta bidezko botoari dagokionez, Liburu honen 13. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

III.28. ARTIKULUA.-

Hauteskunde egintzaren akta egingen du Legezko Zuzendariak, eta Presidenteak sinatuko du. Akta horretan honako hauek jasoko dira: hautapenaren eguna, tokia, hasteko ordua eta bukaera, izendatutako hautagaien identifikazioa, hautesleen zerrenda, bozketaren emaitza, boto baliogabeak, baliogabeak eta abstentzioak, eta hautagai den kirol-elkarte anonimo edo klub bakoitzak lortutako botoen kopurua.

III.29. ARTIKULUA.-

Hautagai diren kirol-sozietate anonimoek eta klubek kontu-hartzaile bat izendatu ahal izango dute. Kontu-hartzaile hori hautagaiaren kirol-sozietate anonimoko edo klubeko edo LIGaren beste klub edo kirol-sozietate anonimo bateko edozein pertsona izango da, eta hautagaiak izendatzeko eta aukeratzeko ekitaldian bertan egon ahal izango da. Egoki iruditzen zaizkien oharrak egingo dituzte horretarako egingo den aktan.

III.30. ARTIKULUA.-

Hautaketarako izendatutako kirol-sozietate anonimoek eta klubek, ez badira hautatuak izaten, hauteskunde-egintzaren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Batzorde Delegatuari, hiru eguneko epean, hautatzen diren egunetik kontatzen hasita. Errekurtsioa idatziz aurkeztu beharko dute, arrazoiak emanda, eta bidezkotzat jotzen dituzten probak erantsiko dizkiote. Batzorde Delegatua bost eguneko epean bilduko da aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebazpena emateko. Ebazpen hori arrazoitua izanen da. Batzorde Delegatuaren erabakien aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu.

III.31. ARTIKULUA.-

1.- Hautatuak izaten diren taldeek, kirol-sozietate anonimoek eta klubek beren ordezkaria izendatuko dute Batzorde Delegatuan, bai eta ordezkoko bat ere. Horiek Batzorde Delegatuko kide gisa hartuko dute kargua berehala.



2.- Kirol-sozietate anonimoek edo klubek beren ordezkaria kargutik kendu ahal izango dute, aldi berean beste ordezkari bat izendatuz, eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalari jakinarazi beharko diote, modu egiaztagarrian. Hori jakinarazi ezean, kargu-uzteak edo izendapenak ez du eraginik izango. Taldeen kasuan, ordezkaria jatorriz izendatu zuen kirol-sozietate anonimoko edo klubeko kidea izan beharko da, Liburu honetako 19. artikuluan xedatutako kasuan izan ezik.

3.- Batzorde Delegatuaren mahaikide izango dira klub edo kirol-sozietate anonimoak, bai Lehen Mailakoak bai Bigarren Mailakoak. Hautatuak izaten direnetik bi urteko agintaldia izanen dute, eta hurrengo aldietarako berrautatzen ahalko dira.





IV. LIBURUA LEHIAKETAK



IV. LIBURUA.- LEHIAKETAK

I. ATALA.- LEHIAKETA OFIZIALAK

IV.1. ARTIKULUA.- IZENA

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin koordinatuta antolatzen dituen lehiaketa nazional profesionalak dira honako hauek:

- 1.- LIGA PROFESIONALEKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALA.
- 2.- LIGA PROFESIONALEKO BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALA.

IV.2. ARTIKULUA.-

Urtero, abuztuko lehen hamar egunetan, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin koordinatuta, bere maila profesionaletan parte hartzen duten taldeen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Liga Profesionaleko Txapelketa Nazionallean parte hartzeak Espainiako Errege Kopan parte hartzeko betebeharra dakar.

IV.3. ARTIKULUA.-

LIGAk antolatzen dituen lehiaketak Espainiako Futboleko Errege Federazioak ezarritako sistemaren arabera jokatu dira, hau da, puntukako ligan.

IV.4. ARTIKULUA.-

Partiden iragarkietan, gutxienez, honako hauek adierazi beharko dira: lehiatzen duten kirol-sozietate anonimoen edo klubuen identifikazioa, norgehiagokari dagokion lehiaketa, "Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatua" esapidea berariaz aipatuta, eta, hala badagokio, horren babeslea, partidaren data eta ordua, sarreren prezioak, "BEZa barne" adierazpena, eta klubak edo kirol-sozietate anonimoak egoki irizitako gainerako inguruabarrak.

IV.5. ARTIKULUA.- PARTIDEN ORDUTEGIA

1.- LIGA PROFESIONALEKO TXAPELKETA

Mailako Batzordeek onartuko dituzte beren mailari eragiten dioten lehiaketa-ordutegiak, 2001/2002 denboraldiko 6. eta 20. zirkularretan ordutegiei dagokienez xedatutakoa errespetatuz.

2.- ESPAINIAKO ERREGE KOPA (FINALA IZAN EZIK)

Espainiako Futboleko Errege Federazioak ezarritako egunetan jokatu da, asteazkenetan, telebistan emandako emanaldiei buruz xedatutakoa izan ezik.

Asteazkenetik asteko beste egun batera aldatzeko, Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren eta Espainiako Futboleko Errege Federazioaren arteko akordioa beharko da.

IV.6. ARTIKULUA.-

1.- Partidak jokatzeko Espainiako Futboleko Errege Federazioak ezartzen duenaren arabera behar bezala eta erregelamenduz egokitutako eta seinaleztatutako



jokalekuak izan beharko dituzte klubek edo kirol-sozietate anonimoek, eta ez dituzte horien baldintza naturalak aldatuko.

2.- Baldintza naturalak ustekabeko arrazoi edo istripuren batengatik aldatu badira, eta horrek jokoaren garatzeko kalte nabarmena egiten badu, konpondu eta egokitu egin beharko dira.

3.- Jokalekua baldintza txarretan egoteagatik (bai aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra ez betetzeagatik, bai dolozko aldaketa batengatik) arbitroak partida bertan behera uzten badu, partida federazio-organo eskudunak adierazten duen egunean jokatu da, eta arau-hauslearen kontura izango dira kanpoko taldeari sortzen zaizkion gastuak. Organo horrek, hala badagokio, dagozkion zigorrak ezartzeko espedientea abiaraziko du.

IV.7. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalean afiliatutako klubek edo kirol-sozietate anonimoek partida ofizial guztiak Liga Nazionalak zehazten duen baloi ofizialarekin jokatu beharko dituzte, eta "International Board"en arauak errespetatuko dituzte beren joko-arauetan.

II. ATALA.- LIGA PROFESIONALEKO TXAPELKETA NAZIONALA

IV.8. ARTIKULUA.-

Lehen eta Bigarren Mailako Liga Nazionalaren egutegia Liga Nacional de Fútbol Profesionalak prestatu eta onartuko du, bere Mailako Batzordeen bidez, eta Espainiako Futboleko Errege Federazioaren presidentek berretsi beharko du. Zozketa Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Batzar Nagusiaren urteko ohiko bilkuran egingen da, eta LIGAK zehaztuko ditu beharrezko baldintzak, klubaren arteko kointzidentziak saihesteko.

Espainiako Futboleko Errege Federazioko presidentek hamar egun izanen ditu, jasotzen duenetik kontatzen hasita, egutegia berresteko edo atzera botatzeko, eta berretsiz joko da epe horretan ez badu ezer adierazten. Berrespena ukatzen badu, espresuki eta behar bezala arrazoituta egon beharko du.

Ez badu berresten, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak beste proposamen bat aurkeztuko du. Proposamen hori bost eguneko epean berretsi edo baztertu beharko da, arestian adierazitako baldintza beretan. Proposamen berri hori ez bada onartzen, Kirol Kontseilu Gorenak ebatziko du.

Eskumen hori LIGARI era eskusiboan esleitzen bazaio, horren Batzar Nagusiak onartuko du egutegia, gehiengo indartuarekin.

Klubak edo kirol-sozietate anonimoak horrako eskubidea izateko, Espainiako Futboleko Errege Federazioak aitortutako kirol-eskubideaz gain, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak bere Estatutuaren eta Erregelamendu honetan ezarritako baldintza ekonomikoak, sozialak eta azpiegiturakoak ere bete beharko dituzte.

LIGAK zehaztuko ditu segurtasunarekin zerikusia duten zozketaren baldintzak, LIGAREN ez diren beste lehiaketa batzuekiko bateraezintasunak, lehiaketaren balioaren optimizazioa, estadioetako lanak edo justifikatuz josten diren beste arrazoi batzuk.

IV.9. ARTIKULUA.-

Futbol profesionaleko lehiaketaren egutegiak zortzi (8) egun gordeko ditu denboraldi bakoitzean -Espainiako Futboleko Errege Federazioak horretarako izendatzen duen



Batzordeak zehaztuko ditu egun horiek, eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalak izendatutako ordezkari bat egongo da bertan- Selekzio Nazional Absolutuaren partidak jokatzeko, eta horien artean ez dira kontatuko Europako Txapelketei edo Munduko Txapelketei dagozkienak.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalak izenpetutako hitzarmenen bidez arautuko da Selekzio Nazional Absolutuaren partidengatik lehiaketa profesionala eteteko araubidea.

IV.10. ARTIKULUA.-

LIGAk kuota bat ezarriko du Liga Profesionaleko Txapelketa Nazionaleko lehiaketetan parte hartzeko, eta horren zenbatekoa Batzar Orokorrak zehaztuko du.

IV.11. ARTIKULUA.-

Kirol-sozietate anonimo edo klub guztiek uko egin diezaioke LIGAk antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzeari. Horretarako, elkarteko Presidenteari idazki bat bidali beharko dio, zeinak berehala jakinarazi beharko baitio Espainiako Futboleko Errege Federazioko presidenteari. Egutegi ofiziala federazio horren egoitza sozialean egon beharko du Batzar Nagusiak onartu baino hamabost egun lehenagotik.

IV.12. ARTIKULUA.-

Hori lehiaketa hasi ondoren gertatuko balitz edo kirol-sozietate anonimoa edo kluba LIGAk antolatutako lehiaketa profesionaletatik kanporatuko balitz, eta beste klub edo kirol-sozietate anonimo batzuei bisita egin behar balie, kalte-ordaina eman beharko lioke horiei, partidua jokatzeko bisita egitera beharturik egonik ez azaltzeagatik. Kalte-ordaina Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Erregelamendu Orokorrean partidura ez agertzearen kasuetarako ezarrita den eran eman beharko die.

IV.13. ARTIKULUA.-

Liga Profesionalaren Lehen eta Bigarren Mailako Txapelketa Nazionalean, lehiatzen duten klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzak lortutako puntuen arabera egingo da sailkapena: hiru puntu irabazitako partidu bakoitzeko, puntu bat berdinketa bakoitzeko, eta zero puntu galdutako bakoitzeko.

IV.14. ARTIKULUA.- IGOERAK ETA JAITSIERAK

Kategoriaz jaisten bada kirol arrazoiengatik, baldintza sozialengatik, azpiegitura kontuengatik, LIGAk bere Estatutuetan eta Erregelamenduan ezarritako betekizunengatik edo jokalariei ez ordaintzea ez den bestelako diziplina-zehapen batengatik, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren artean une bakoitzean sinatuta den koordinazio-hitzarmenean ezarritakoari lotuko zaio.

IV.15. ARTIKULUA.-

LIGAtik kanpo geratuko dira honako egoera hauetako batean dauden kirol-sozietate anonimoak edo klubak:

Uztailaren 31n jokolari profesionali zor zaizkien kopuruak ordaindu gabe izatea, xedapen hauei jarraituz:

a) Mugaeguna igarota duten eta jokolariaren arabera kirol-sozietate anonimoak edo klubak osorik edo behar bezala bermatu ez dituen betebeharrak dira.



b) Espainiako Futbolarien Elkarteak eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalak osatutako Batzorde Mistoaren akordio irmoaren bidez aintzatetsita daude.

c) Batzorde Mistoak horren berri eman dio Espainiako Futboleko Errege Federazioari, eta horrek kategoriaz jaisten dela deklaratu du.

IV.16. ARTIKULUA.-

Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuan, hutsik geratzen diren plazak honela beteko dira:

a) Kirol-sozietate anonimo edo klub batean aldi berean gertatzen badira kirol-arrazoiengatik eta jokalaria ez ordaintzeagatik kategoriaz jaitsi izana, lehen kasuan kirol-arrazoiengatik kategoria galtzeko arauak soilik aplikatuz ebatziko da, eta, bigarren kasuan, berriz, soldatak ez ordaintzeak eraginda hutsik geratutako plaza betetzeko ebazpena emango da, eta hurrengo arauak aplikatuko dira.

b) Kategoria horretan jarraitzeko kirol-eskubidea izanez gero, jaitsiera jokolari profesionali 15. artikuluan ezartzen diren zor mugaeguneratuak eta galdagarriak ez ordaintzeagatik gertatzen bada, eta soldatak bermatzeko funts bat ezartzen duen hitzarmen kolektiboa indarrean badago, plazak honela beteko dira:

1.- Hutsik geratutako plaza/k kategoriaz kirol arrazoiengatik bakarrik jaitsi izan direnen kategoriako kirol-sozietate anonimoei edo klubei eskainiko zai(zki)e, betiere ez-ordaintzeagatik jaitsi izan den klubaren zorrean subrogatzen bada, prozedura honi jarraituz:

a) Espainiako Futbolarien Elkarteak eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalak paritarioki eratutako Batzorde Mistoak jokalariei zor zaien zenbatekoa onartu eta kuantifikatu ondoren, 1. paragrafoan aipatutako kirol-sozietate anonimoei edo klubei aldi berean jakinaraziko zaie. Zor aitortua eta kuantifikatua ez da inoiz izanen hitzarmen kolektiboan ezarritako Soldatak Bermatzeko Funtsak bere gain hartu beharko lukeen zenbatekoa baino handiagoa.

b) Interesaturik dauden kirol-sozietate anonimoei edo klubek hutsik geratu den plaza betetzeko duten interesa adierazten duen idazki bat aurkeztu beharko dute, jakinarazi eta hurrengo bost egun balioduneko epean, a) idatz-zatian aipatutako jokalariei zor zaien zenbatekoa adierazten duen bankutxekearekin batera.

c) Hutsik geratu den postua betetzeko interesa duten kirol-sozietate anonimoak edo klubak bi edo gehiago badira, jaitsiera gertatu den denboraldian azken kirol-sailkapenik onena lortu duen klubak izango du lehentasuna. Egoera horren berri emango zaie hutsik geratutako plaza lortu ez duten kirol-sozietate anonimoei eta klubei, eta aurkeztu dituzten bankutxekeak itzuliko zaizkie.

2.- Aurreko paragrafoetan ezarritakoari jarraituz ez bada betetzen hutsik geratu den edo, hala badagokio, geratu diren plazak, beharagoko hurrengo kategorian mailaz igotzeko posturik lortu ez duten kirol-sozietate anonimoei edo klubei eskainiko zaie, kirol-sailkapenaren ordenari hertsiki jarraiki, betiere ez-ordaintzeagatik jaitsi izan den



klubaren zorrean subrogatzen badira, aurreko paragrafoetan ezarritako prozedurari jarraituta.

Hutsik dauden plazak betetzeko aurkeztu direnak Bigarren "B" Mailako taldeak baldin badira, Espainiako Futboleko Errege Federazioak ezarriko du kirol-merezimenduak zehazteko lehentasun-hurrenkera.

3.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako kirol-sozietate anonimorik edo klubik ez egoteagatik hutsik geratu den plaza ez bada betetzen, Liga Nacional de Fútbol Profesionaleko Batzorde Delegatuak plaza hori nola bete zehaztu ahal izango du, kirol-irizpideak kontuan hartuta eta ebazpen arrazoitu baten bidez –Bigarren "B" Mailako edo Hirugarren Mailako klubei eragiten badie, EFEFek onartu beharko du–, edo dagokion Mailan parte hartzen duten taldeak murriztu ahalko ditu.

4.- Soldatak Bermatzeko Funtza ezartzen duen hitzarmen kolektiborik ez balego edo indarrean ez bada, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin sinatutako Koordinazio Hitzarmenean ezarritako arauak aplikatuko dira. Hitzarmen hori ez balego edo indarrean ez bada, berriz, Espainiako kirol-federazioei buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian edo hori ordeztzen duen arauan xedatutakoari jarraituko zaio.

IV.17. ARTIKULUA.-

Aurreko artikuluetan ezarritako prozeduraren kontrola eta jarraipena Liga Nacional de Fútbol Profesionaleko Batzorde Delegatuari dagokio, eta ahalmen hori Legezko Zuzendaritzari eskuordetu ahal izango dio.

III. ATALA.- KIROL INSTALAZIOAK

IV.18. ARTIKULUA.-

1.- Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatutako partida ofizialak jokatzen diren estadioek, erakunde eskudunek ezarritako arauzko baldintzak betetzeaz gain, otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuan, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko erregelamendua onartzen duenak, edo hori ordeztzen duen arauan ezarritako baldintza eta betekizunak bete beharko dituzte.

Horrez gain, estadio horiek LIGAn Integritate eta Segurtasun Zuzendaritzak behar bezala eguneraturik eta egiaztatuta eduki beharko ditu elementu hauek:

- A) Irekitzeko eta jarduteko lizentzia
- B) Autobabes-plana
- C) Prebentzio- eta osasun-plana

2.- LIGAn hasi berriak diren kirol-sozietate anonimoek eta klubek, jokatzen hasten diren kirol-denboraldiaren hasieratik, epe hauek izango dituzte:

- A) bi urte, instalazioak eta esparruak egokitzeko, ikusle guztientzat eserleku zenbakidunak, telebista-zirkuitu itxiak eta antolaketa kontrolatzeko unitatea eta instalazioa izan ditzaten, eta
- B) urtebete, kirol esparruetara sartzeko eta sarreraren salmenta kontrolatu eta kudeatzeko sistema informatizatua instalatzeko.



IV.19. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten klubak edo kirol-sozietate anonimoen futbol-zelaiak, aurreko artikuluan adierazitako baldintzez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- a) EDUKIERA: Lehen Mailan 15.000 ikuslerentzako edukiera izan behar dute eta Bigarren Mailan 6.000 ikuslerentzako, gutxienez.
- b) IRRATI- ETA TELEBISTA-KABINAK: Lehen Mailan, gutxienez, 10 kabina izan behar dituzte irrati bidezko emankizunetarako, eta 3 kabina telebistarako, guztiak telefono-linearekin, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak onartutako lekuetan.

Bigarren Mailan, 4 eta 2 kabina izanen dituzte, hurrenez hurren.

IV.20. ARTIKULUA.-

Klubak edo kirol-sozietate anonimoek Liga Nacional de Fútbol Profesionalen Batzorde Delegatuari jakinarazi beharko diote beren zelaien egoera, neurriak, baldintzak, edukiera, eraikuntzak edo aldaketak. Aldaketaren bat egiten bada, horren berri eman beharko dute egiten diren obren ondoren, jokalekuaren eta bere instalazioen kokapenaren eskalako planoak erantsita.

IV.21. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak zelaiak ikuskatu ahal izango ditu, bere mailarako edo kategoriarako behar diren baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko. Urte bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen egin beharko du horri buruzko txostena.

Egindako ikuskapenaren ondorioz akatsik antzematen bada, klub edo kirol-sozietate anonimo titularri 10 eguneko epea emanen zaio akats horiek zuzentzeko. Ez baditu zuzentzen, LIGAREN Batzorde Delegatuari jakinaraziko zaio.

IV.22. ARTIKULUA.-

1.- Liga Profesionalen Liga Nazionaleko kide anitzeko organoetako kideek, Espainiako Futboleko Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kideek, talde lehiakideen lurralde federazioetako presidentek eta Batzorde Nazionala eta Espainiako Futbolari Elkartearen presidentek palko presidentzialera sartzeko eskubidea izango dute LIGAK antolatzen dituen lehiaketei dagozkien partidua jokatzeko zelaian. Palkoan lehentasuneko tokia gordeko zaie Espainiako Futboleko Errege Federazioaren eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren presidenteei, eta baita kanpoko taldearen presidenteari edo horren orde den pertsonari ere.

2.- Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatutako lehiaketetan eta Espainiako Txapelketako eta Espainiako Errege Kopako (finalean izan ezik) partiduetan erakunde horri afiliatutako taldeak parte hartzen dutenean, klub edo kirol-sozietate anonimo anfitrioiak palko presidentzialerako 5 gonbidapen, lehentasuneko eserlekuetarako 10 gonbidapen eta sarrera orokorrerako 15 gonbidapen, gutxienez, gorde beharko ditu kanpoko klub edo kirol-sozietate anonimoarentzat.

IV.23. ARTIKULUA.-

Era berean, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak egiaztatutako pertsonak ere sarbidea izango dute estadioetara.

Halaber, etxeko klub/KSA bakoitzak eserleku bat gorde beharko du, gutxienez, bere estadioan jokatzeko den partida bakoitzean LIGAREN datu estatistikoak ustatzen



dituen erakundea ordezkatzeko duen pertsonarentzat. Eserleku horrek baldintza hauek bete beharko ditu, gutxienez:

- a) Prentsaren palkoan egongo da eta zelaiaren ikuspegi ona eskainiko du, argia eta inolako trabarik gabea.
- b) Haririk gabeko edo kable bidezko Interneteko konexio itxi eta segururako sarbidea izango du (gutxienezko banda-zabalera [512Kb (256Kb up/down)] partidu osoan.
- c) Gainera, etxeko kluba/KSA ahaleginduko da eserleku horrek honako hauek izan ditzan:
 - i) idazmahai eta korrante elektrikoaren iturrirako sarbidea;
 - ii) bertatik argi ikusteko moduko telebista-monitore bat.

Etxeko klub/KSA bakoitzak jokalaria-zerrenden kopiak eman beharko dizkio bere estadioan jokatutako partidu bakoitzean LIGAn datu estatistikoak ustiari dituen erakundea ordezkatzeko duen pertsonari, ahal bezain laster eta, gutxienez, partidu hasi baino hogeita hamar (30) minutu lehenago.

IV. ATALA.- SARRERA KONTROLATZEKO ETA TXARTELAK ERABILTZEKO SISTEMA

IV.24. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak kontratatutako estadio eta sarreraren salmenta informatizatua kontrolatzeko sistema instalatuta eta martxan duten kirol-sozietate anonimoek eta klubek dute sistema hori osatzen duten elementuen funtzionamenduaren eta zaintzaren ardura.

IV.25. ARTIKULUA.-

LIGAn izena emanda dauden kirol-sozietate anonimoen eta klubaren kirol-esparruetan egiten diren eta horietako batzuk parte hartzen duten estatu-mailako partidu ofizialetan Liga Nacional de Fútbol Profesionalak horretarako ematen dituen txartelak bakarrik erabili ahal dira, eta berdina izango da guztientzat. Espainiako Errege Koparen finalerako txartelak Espainiako Futboleko Errege Federazioaren erantzukizuna izango da, eta hark nahitaez bete beharko ditu estadioko segurtasun-sistemen funtzionamendurako beharrezkoak diren baldintzak.

IV.26. ARTIKULUA.-

1.- Kirol-sozietate anonimoek eta klubek honako betebeharrak formal hauek dituzte estadioetarako sarbideak kontrolatu eta txartelak erabiltzerakoan:

- a) Sistema informatiko eta mekanikoen funtzionamenduari arduratzea, bere giza baliabide eta baliabide materialen bidez, baita haiek gorde eta zaintzeaz ere.
- b) Liga Nacional de Fútbol Profesionalari jakinaraztea sisteman gerta daitekeen edozein gorabehera edo narriadura.
- c) Liga Nacional de Fútbol Profesionalari PARTIDUARI BURUZKO TXOSTEN OROKORRA ematea hori jokatzen denetik 48 orduren barruan. Txostena horretarako instalatutako elementu informatikoen bidez egingo da, eta alderdi hauek jaso beharko ditu, nahitaez: sarreraren jaulkipenari buruzko txostena, abonatuaren bertaratze-okupazio orokorrari buruzkoa, sarrerak, paseak, gonbidapenak eta gorabeherak, sektoreen araberrako denborei buruzkoa, atezainen zerrenda eta diru-bilketaren txostena.



- d) Araudian aurreikusitako partidu guztietan LIGAREN txarteldegi ofizial bateratua erabiltzea, hark ematen dien sarrerak kudeatzeko programa informatikoaren bidez.
- e) Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren aurrean, klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzaren organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez, txartelak jaso eta eman izan direla egiaztatzea, emandako sarrerak, itzulitakoak eta edozein arrazoiengatik soberan geratu direnak adieraziz.

2.- Kirol-sozietate anonimoek eta klubek, Estatutu Sozialen 3.1 e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, betebeharrak formal hauek dituzte LIGAK antolatutako lehiaketan datu estatistikoaren merkataritza-ustiapenaren gainean:

- a) "Estadioen araudia" izeneko dokumentu ofizialaren behar beste kopia daudela bermatzea. Dokumentu hori LIGAK argitaratutako du dagokion unean, bere estadioan ikus daitezkeen tokietan.
- b) Sarrerak LIGAK une bakoitzean argitaratutako "sarreraren baldintzen" arabera emango direla bermatzea.
- c) LIGAREKIN lankidetzan aritzea lehiaketan osotasuna babestera eta/edo partiduei buruzko datuak baimenik gabe bildu eta ustiatzera bideratutako neurri orori dagokionez.

3.- LIGAK une bakoitzean onartuko dituen "estadioen araudiak" eta "sarreraren baldintzek", gutxienez, aurreikuspen hauek ezarri beharko ditu:

- a) Estadioan sartzen den pertsona orok, nolana ere, berariaz onartzen ditu LIGAK une bakoitzean estadioen araudiari buruz eta sarreraren baldintzei buruz unean-unean onartzen dituen zehaztapenak.
- b) Klubaren/KSAREN baimendutako edozein segurtasun-arduradunek edo langile batek ukatu diezaioteko pertsona bati estadiora sartzea edo kanporatu egin dezake hortik, sarrera bat eduki arren, LIGAK une bakoitzerako estadioen araudian eta sarreraren baldintzetan ezartzen duena ez betetzeagatik.
- c) Pertsona inork ezingo du estadioan sustapen- edo merkataritza-jarduerarik egin etxeko klubaren/KSAREN alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

V. ATALA.- ESTADIOETAN INDARKERIA PREBENITZEA ETA SEGURTASUNA

IV.27. ARTIKULUA.-

Debekaturik dago estadioetan indarkeriara bultzatzen duten pankarta, sinbolo, ikur edo idazkunak sartzea. Halaber, debekatuta dago edozein motatako armak eta arma gisa erabil daitezkeen jaurtizko tresnak sartzea, baita bengalak edo su artifizialak sartzea ere.

Edari alkoholduak sartu eta saltzea ere debekatuta dago.

IV.28. ARTIKULUA.-

Kirol-sozietate anonimoak eta klubak behartuta daude beren estadioetan ez uztera sartzen aurreko artikuluan zehaztutako objektu-motak edo antzekoak sartzen saiatzen diren pertsona guztiak, eta, arestian azaldutako pankartak edo sinboloak erakusten badituzte, berehala erretiratu beharko dituzte.

IV.29. ARTIKULUA.-



Estadioetan sartzea debekatzeko Erregelamendu honetan zehazten diren arrazoiak agerian jarriko dira txarteldegietan, sarreretan eta partiduetako iragarkietan.

IV.30. ARTIKULUA.-

Kirol-sozietate anonimoek eta klubek ez badituzte betetzen aurreko artikuluetan aipatutako xedapenak, horietan debekaturik dena egitea onartzen dutelako edo pasibotasunez edo axolagabekeriaz jokatzeko dutelako, zigorra ezarriko zaie, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean ezarritakoari jarraituta.

IV.31. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak zirkularren bidez jakinaraziko ditu Indarkeriaren aurkako Batzorde Nazionalak une bakoitzean ezarrita dituen eta hark antolatutako lehiaketetan eragina duten neurriak.

VI. ATALA.- LEHIAKETEN PUBLIZITATEA ETA USTIAPEN KOMERTZIALA

IV.32. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak bere lehiaketetan egiten duen ustiapen komertziala, soil-soilik, antolatzen dituen lehiaketen ondoriozko eskubideak eta produktuak merkaturatzean datza.

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak sortzen, fabrikatzen edo garatzen dituen eskubideak eta produktuak merkaturatu ahal izango ditu, eskumena duen organoaren bidez, bai zuzenean, bai lizentzia-kontratuak eta merchandising-kontratuak hirugarrenei lagata.

Merkaturatuko diren produktu edo eskubideak izango dira Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren marka, logotipo, anagrama, maskota ofizial eta beste batzuen bereizgarri korporatiboak. Horien babes juridikoa Jabetza Industrialaren Erregistroan inskribatzearen bidez egingo da, eta horiekin batera erabiliko dira Liga Nacional de Fútbol Profesionalean afiliatuta dauden klub edo kirol-sozietate anonimoen izen, armari, logotipo eta kolore ofizial guztiak.

IV.33. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionala da sailkapenen, estatistiken, trofeoen, sarien eta antolatzen dituen lehiaketei dagozkien sustapen literario, grafiko edo ikus-entzunezko guztien argitalpenaren titularra bere produktu edo eskubideen ustiapen komertzialaren esparruan, Kirolaren Legeak ezartzen dituen mugekin, Espainiako Futboleko Errege Federazioak aurreko artikuluan deskribatutako publizitate-elementuen bidez ematen duen LIGAREN Saria izan ezik.





V. LIBURUA

ALDEZ AURREKO BISA ETA FEDERAZIO-ESKUBIDEEN KARGA ETA ZERGEN ERREGISTRO-LIBURUA INSKRIBATZEA ETA LORTZEA



V. LIBURUA: ALDEZ AURREKO BISA ETA FEDERAZIO-ESKUBIDEEN KARGA ETA ZERGEN ERREGISTRO-LIBURUA INSKRIBATZEA ETA LORTZEA

HITZAURREA

Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 41.4 a) eta b) artikuluek eta Espainiako kirol-federazioei eta kirol-elkarteen erregistroari buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuaren 25. a) eta b) artikuluek ezartzen dutenez, liga profesionalen eskumenak dira, Espainiako kirol-federazioak eskuordetu diezazkiekeenez gain, (i) beren lehiaketak antolatzea, Espainiako dagokion kirol-federazioarekin koordinatuta eta Kirol Kontseilu Gorenak nazioko edo nazioarteko konpromisoak bermatzeko ezar ditzakeen irizpideen arabera, eta (ii) bazkideentzat tutoretza-, kontrol- eta gainbegiratze-eginkizunak betetzea.

Bestalde, 1835/1991 Errege Dekretuaren 7.1 artikulua xedatzen du estatu mailako kirol-jarduera edo lehiaketa ofizialetan parte hartzeko beharrezkoa izango dela Espainiako dagokion kirol-federazioak emandako lizentzia izatea, gutxieneko baldintza batzuen arabera. Gutxieneko baldintza horien artean, aipatu artikulua ezartzen du lehiaketa profesionaletan parte hartzeko lizentziak ikus-onetsi beharko dituela dagokion liga profesionalak, horiek behin betiko eman baino lehen.

Azkenik, 1835/1991 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak aurreikusten du Espainiako kirol-federazioen eta liga profesionalen artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak, hitzarmenak interpretatzearen ondoriozkoak barne, Kirol Kontseilu Gorenaren ebazpen bidez ebartziko direla.

I. ATALA.- LIZENTZIEN INSKRIPZIOA ETA TRAMITAZIOA

V.1. ARTIKULUA.- JOKALARI PROFESIONALAK INSKRIBATZEA

Jokalari profesional bat inskribatzea da klub edo kirol-sozietate anonimo batek bere diziplina eta erakundeko jokalaria profesional bati alta emateko ekitaldia, horretarako sinatutako eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalean behar bezala erregistratutako kontratu baten arabera.

Jokalari profesionalak inskribatzeko eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimo eskatzailearen lan-kontratua, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak ezarritako gutxieneko edukia izan beharko duena.

2.- Dagokion kopuruen gordailutzea, profesionalaren lehen inskripzioa baldin bada.

3.- Eskubideak eskualdatu edo lagatzeko kontratua edo jokalaria profesionalak beste klub edo kirol-sozietate anonimo batekin inolako konpromisorik ez duela egiaztatzen duen agiria, eskatzailearekin osorik edo partzialki bat datorren aldi baterako.

Kontratuaren xedea jokalaria eskubide profesionalak transferitzea denean, klub edo kirol-sozietate anonimo emaileak egiaztatu beharko du ez dagoela beste klub edo kirol-sozietate anonimo bati ordaindu gabeko zenbatekorik jokalaria profesional berarekin aurretik egindako kontratu baten ondorioz. Ordaindu gabeko betebeharrak ekonomikorik baldin balego, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak ez du behar den lizentzia izapidetuko betebeharrak horiek kitatu arte.

4.- Prestakuntza eta sustapen zerrendetan inskribatutako jokalaria profesionala izanez gero, dagozkion kopuruen gordailutzea, edo klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren uko agiria, halakorik badu.

5.- Atzerriko jokalaria profesionalak direnean:



- a) Espainiako Futboleko Errege Federazioak emandako ziurtagiria, inskripzioa baimentzen duen nazioarteko transferentzia jaso dela egiaztatzen duena.
- b) Pasaportearen fotokopia egiaztatua.
- c) Jokalariaren gaineko federazio-eskubideak lagatzeko edo transferitzeko agiria.
- d) Administrazio-kontseiluko edo zuzendaritza-batzordeko idazkariak emandako ziurtagiria, kirol-sozietate anonimoko edo klubeko presidentearen oniritziarekin, kontratazioak aurrekontuaren ehuneko hogeni (%20) ez duela gainditzen dioena.
- e) Bere herrialdea ordezkatzeko duen selekzioari jokalaria lagatzeari buruz FIFAk ezarritako arauak onartzen dituen agiria.
- f) Lan- eta egoitza-baimena eskatzeko eskabidea.

V.2. ARTIKULUA.-

Kirol-sozietate anonimo edo klub batek jokalaria profesional bat inskribatzen bada, hori ezeztatu egingo da inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimo titularrak aldeztatu ezeztatzea eskatzen duenean.

Klub edo kirol-sozietate anonimo batek aldeztatu ezeztatzea eskatu ahalko du arrazoi hauengatik:

- a) Inskripzioa eragin zuen kontratuko alderdiek nahita desagitea (idatziz egingo da beti).
- b) Izena emateko eskubideak aldi baterako lagatzea edo behin betiko transferitzea beste kirol-sozietate anonimo edo klub bati, jokalaria profesionalaren berariazko adostasunarekin.
- c) Kirol-sozietate anonimoak edo klubak inskripzioan atzera egitea, aldebakarrez. Kasu horretan, inskripzioa eragin zuen kontratua suntsituzat jotzen duen epai judizial irmoa egon behar da, edo administrazio-ebazpen irmoa kirol-sozietate anonimoen edo klubaren krisi ekonomikoaren kasuetan.

2.- Jokalaria profesionalak kontratua aldebakarrez hausteagatik. Kasu horretan, eta inskripzioa ekarri zuen kontratuan kalte-ordain klausularen bidez atzera egiteko asmoa baldin bada, bertan behera utziko da, Liga Nacional de Fútbol Profesionalean kalte-ordain gisa aurreikusitako zenbatekoa jarri ondoren.

Kalte-ordainik ez bada aurreikusten, inskripzioa ekarri zuen hitzarmena edo kontratua epai bidez suntsiarazi dela deklaratu ondoren deuseztatuko da.

3.- Inskribatzea ekarri zuen hitzarmenean edo kontratuan hasieran ezarritako epea edo izan litezkeen luzapenak bukatzeagatik.

V.3. ARTIKULUA.-

1.- Izena emateko inprimakian (lizentzia) honako hauek jaso behar dira:

- a) Jokalariaren izen-deiturak, nazionalitatea, jaioterria eta jaioteguna.
- b) Helbidea, egoitza eta lanbidea.



- c) NAN zenbakia.
- d) Izena eman nahi duen kirol-sozietate anonimoa edo kluba, eta jokalariaen identifikazio-zenbakia, zein taldetan sartuko den zehaztuta.
- e) Jokalaria azkena inskribatuta egon den kirol-sozietate anonimoa edo kluba.
- f) Data eta sinadura.
- g) Kirol-sozietate anonimoko edo klubeko idazkariaren sinadura eta zigilua.
- h) Osasun azterketa, fakultatiboaren sinadura eta zenbakia duela.

2.- Lizentzia-eskaeran datu hauek jaso beharko dira: filiazioa, jaioteguna, NANaren zenbakia eta jokalariaen sinadura, eta baita jokalaria lotuta geratzen den klubaren izena, zenbakia eta bereizgarria ere. Gainera, bi argazki aurkeztu beharko dira.

V.4. ARTIKULUA.-

1.- Inprimakiak behar bezala bete ondoren, kirol-sozietate anonimoei edo klubek Liga Nacional de Fútbol Profesionalean aurkeztuko dituzte, behar diren dokumentuak erantsita.

2.- Inskripzio-inprimakiak balioa galduko dute eta ez dira onartuko sinatu zirenetik hamabost egun baino gehiago igarotzen badira.

3.- Espainiako Futboleko Errege Federazioaren xedapenekin bat etorritik, ez zaie jokalariaen lizentziarik emango eta ez zaie jokalariaen berritzaile onartuko erakundeko kide diren pertsona fisiko edo juridikoekin zorrak dituzten kirol-sozietate anonimoei edo klubei, baldin eta zor horiek Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Erregelamenduan eta Erregelamendu honetan ezarritako moduan aintzatetsita badaude.

Erreklamazioa egin ondoren ez bada ebazpenik eman, haren zenbatekoa adierazi beharko da.

V.5. ARTIKULUA.- LIZENTZIEN TRAMITAZIOA

1. LIGARI dagokio lehiaketa profesionalean parte hartu ahal izateko eskatzen diren alderdiak egiaztatzeko funtzio materialak gauzatzean datzan lizentziak alde aurretik ikus-onestea.
2. Kirol-sozietate anonimo edo klub orok eskubidea du bere batzar nagusiak ezarritako aldietan LIGAn izena eman duten jokalariei dagozkien lizentzien alde aurreko ikus-onespena lortzeko, ez badute gainditzen onartutako lizentzien gehieneko kopurua, ikus-onespena lortzeko ezarritako eskubide ekonomikoak ordaintzen badituzte eta LIGAREN kide izateagatik bazkideei eska dakizkiekeen GAINERAKO baldintzak betetzen badituzte.
3. Liga Nacional de Fútbol Profesionalak, alde aurretik, jokalariaen lizentzia guztiak ikus-onetsiko ditu, haien eta jokalariaen kalifikazioa, izaera edo egoera edozein dela ere, lehiaketa profesionalean parte hartzeko. Jokalari batek ezin izanen du lehiaketa profesionalean parte hartu Espainiako Futboleko Errege Federazioak emandako behin betiko lizentzia baino lehen LIGAREN alde aurreko ikus-onespenik ez badu lortu. Lehiaketa profesionalean parte hartzeko jokalaria amateurrak edo maila apalagoko jokalariai inskribatu nahi dituzten kirol-sozietate anonimoei edo klubek dagokien eskubidea aurkeztu beharko dute atxikita dauden erkidego eremuko federazioan. Horretarako, Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren aldeko txostena beharko da, lizentzia



emateko aurretiazko eta beharrezko izapide gisa. Liga Nacional de Fútbol Profesionalak aldeztu aurretik ikus-onetsiko ditu taldeen, entrenatzaileen, entrenatzaileen laguntzaileen, prestatzaile fisikoen, medikuen, OLTen, fisioterapeuten, materialaren arduradunen eta partidu batean taldearen aulkia okupatu eta/edo lehiaketan edozein modutan parte har dezakeen beste edozein pertsonaren lizentziak.

V.6. ARTIKULUA.-

1. Bisa-eskaera osatugabeak, akastunak edo zuzenduak ez dira baliozkoak izango, ezta interesdunaren identitateari buruz zalantzak eragiten dituzten argazkiak ere.
2. Horrelako akatsak dituztenak itzultzen direnean, espresuki aipatuko dira, kirol-sozietate anonimoak edo klubak beste eskaera bat egin dezan, atzemandako akatsak zuzendu ondoren.
3. Lehiaketa profesionalean parte hartzeko gaitasuna ematen duten dokumentuen baliozkotasunari eta ondorioei buruz LIGaren eta EFEFren artean auziren bat izanez gero, Liburu honetako 5. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako profesionalak beren eginkizunak garatu ahal izango dituzte, LIGAk aldeztu aurretik ikus-onetsitako edo emandako aldeko txostena badute. Aurreikuspen horrek ez du ezertan galaraziko LIGaren eta EFEFren artean sor daitezkeen eztabaidak ebazteko eskumena duten agintari administratibo edo judizialek xedatzen dutena.

V.7. ARTIKULUA.- KONTRATUAK

Jokalari profesionalen kontratu-araubidea, kirolari profesionalen lan-harreman bereziari buruzko ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuaren xedapenez gain, lan-arau orokorrekin eta, hala badagokio, formalizatzen diren hitzarmen kolektiboekin arautuko dute.

V.8. ARTIKULUA.-

1.- Kontratuan berariaz aipatu behar diren alderdi hauek:

a) Ordainsariaren zenbatekoa, alderdi hauek bereizita direla: fitxaketaren prima, hileko soldata eta aldeak adostutako beste edozein sari edo ordainsari, hala nola sailkapenagatik edo partidagatik prima edo bestelakoak.

Hileko gutxieneko soldata une bakoitzean Liga Nacional de Fútbol Profesionalak eta Espainiako Futbolarien Elkarteak sinatutako Hitzarmen Kolektiboan maila ezberdinentzat ezartzen dena izango da.

b) Konpromisoaren iraupena; denbora jakin baterako izango da, eta urteko epea ekainaren 30ean amaituko da.

c) Adostutako zenbatekoak ordaintzeko daten eta epeen zehazpena.

2.- Jokalari batek futboleko edo soldadutza edo ordezkotza gizarte-zerbitzua betetzeko ezintasun iragankorra badu, indarrean dagoen legediak ezarritakoa bete behar du kontratuaren gorabeherei dagokienez.

Nolanahi ere, kirol-sozietate anonimoak edo klubak Liga Nacional de Fútbol Profesionalari eta kasuan kasuko federazio-organismoari jakinarazi behar du edozein arazoirengatik gerta litezkeen kontratu-etenaldiak.

V.9. ARTIKULUA.-



Aurreko artikuluko 1.b) atalean xedatutakoa gorabehera, alderdiek probaldi bat hitzartu ahal izango dute idatziz. Probaldiak ez du hiru hilabete baino gehiago iraungo, eta indarrean dauden lan-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

V.10. ARTIKULUA.-

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimoek Enpleguko Institutu Nazionalari aurkeztu beharko dizkiote jokalaria profesionalekin sinatzen dituzten kontratuak, boskoiztutako aleetan. Horietako bat Institutuaren beraren esku geratuko da, eta gainerakoak alderdiei, Liga Nacional de Fútbol Profesionalari eta Espainiako Futboleko Errege Federazioari dagozkie.

2.- Kontratuak kirol-sozietate anonimoko edo klubeko presidenteak edo horretarako gaitasun edo ahalmen nahikoa duenak sinatuta egongo dira.

3.- Legeetan eta araudietan ezarritakoaren aurkako xedapenak ez dira balioztat hartuko.

V.11. ARTIKULUA.-

Kirol-sozietate anonimoek eta klubek indarrean dagoen kontratutik eratorritako federazio-eskubideak transferitu ahal izango dituzte jokalaria batekin, baldin eta jokalariaren berariazko baimena badago, eta mota horretako hitzarmenek ez dute inolako araudi berezirik bete behar, baizik eta interesdunek ituntzen dutena, betiere, indarrean dauden legezko eta federazioko xedapenak errespetatuta.

V.12. ARTIKULUA.-

Adostasunaren ebazpena agiri bidez formalizatu beharko da, horretarako gaitasun edo ahalmen nahikoa dutenen sinadurekin, izan euren izenean, izan alde bakoitzaren izenean, boskoiztutako alean.

V.13. ARTIKULUA.- LAGAPENAK ETA TRANSFERENTZIAK

Kirol-sozietate anonimoek edo klubek beste batzuei aldi baterako laga ahalko dizkiete beren jokalaria profesionalen inskripzioaren ondoriozko eskubideak.

V.14. ARTIKULUA.-

1.- Lagapena egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Interesa duen jokalariai baimena ematea.

b) Kudeaketa bi kirol-klub edo -sozietate anonimoek zuzenean egitea.

c) Agiria formalizatzea, boskoiztutako ale batean, norberaren izenean edo alderdi bakoitzaren izenean egiteko gaitasun edo ahalmen nahikoa dutenek sinaturik.

Ale horiek lagatzaileari, lagapen-hartzaileari, jokalariai, Liga Nacional de Fútbol Profesionalari eta Espainiako Futboleko Errege Federazioari dagozkie.

2.- Lagapen-kasu guztietan, jokalariai-zerrenda bidegabeari buruzko kasuak arautzen dituen araudia bete beharko da.



V.15. ARTIKULUA.-

Lagapena kontraprestazio ekonomikoaren bidez egiten bada, jokalariak banakako itunean edo itun kolektiboan adostutako zenbatekoa jasotzeko eskubidea izanen du. Kirolariak elkarri lagatzen bazaizkio, hitzarmen kolektiboan xedatutakoari jarraituko zaio.

V.16. ARTIKULUA.-

1.- Jokalariak klub edo kirol-sozietate anonimo lagapen-hartzailean ematen duen denbora, lagatzailearekin duen kontratuaren iraupenaren ondorioetarako kontatuko da. Lagatzailearekin duen kontratuaren eskubide eta betebeharretan lehenengo klub edo kirol-sozietate anonimoa subrogatuko da, eta dagokion kontratuan itundutako kopuruak ordaintzeko erantzukizun subsidiarioa izango du. Horrek ez du galarazten alderdiek beste ordainketa-hitzarmen bat ezartzea.

2.- Jokalaria bere klubera itzultzen den egunean, hasierako kontratuak indarra hartuko du arauzko ondorio guztietarako, bai eta dagokion lizentziak ere, beste inskripziorik egin beharrik gabe.

V.17. ARTIKULUA.-

Klub edo kirol-sozietate anonimoek beste bati transferi diezazkiokete beren jokalari profesionalak inskribatzearen ondoriozko eskubideak, komeni diren baldintzetan, betiere jatorrizko kontratua suntsitu eta jokalariaren adostu ondoren.

V.18. ARTIKULUA.-

1.- Transferentzia kopuru jakin baten truke egitea komeni bada, dagokion dokumentuan adierazi beharko da hori.

2.- Ordainketa geroratua letraz eta beste banku-efektu batzuez ezartzen bada, transferitzen duen klub edo kirol-sozietate anonimoak kontratua ongi betetzeko neurriak hartu beharko ditu eta jokalariari dagozkion kopuruen erantzule subsidiarioa izango da.

V.19. ARTIKULUA.-

LIGAn izena emanda dauden klub edo kirol-sozietate anonimo guztiek hamabost eguneko epean erregistratu beharko dituzte jokalari batzuen aldi baterako edo behin betiko lagatzeari buruz edo jokalari baten federazio-eskubideak eskuratzeari buruz beste klub edo kirol-sozietate anonimo batzuekin hitzartzen dituzten dokumentu guztiak, edo beste klub edo kirol-sozietate anonimo batekin edozein edukiri buruz sinatutako edozein hitzarmen.

Klub edo kirol-sozietate anonimo batek jokalari batekin sinatutako kontratua erregistratzen badu baina jokalari horrek beste klub edo kirol-sozietate anonimo batekin kontratua indarrean baldin badu eta horren iraupena indarrean dagoenaren ezberdina bada, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak erregistro horren berri emango dio klub interesdunari.

Aurreko paragrafoaren kasuan, erregistratu nahi den kontratua indarrean dagoen kontratuaren iraupenarekin osorik edo zati batean bat baldin badator, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak ez du kontratu hori erregistratuko.

Hitzarmen edo kontratu bat ezarritako epearen barruan inskribatzen bada, hura inskribatzen duen klub edo kirol-sozietate anonimoak lehentasuna izango du gai horren beraren gainean inskribatu nahi diren hurrengo hitzarmenen aldean, baita data



horren aurrekoa bada ere. Dena dela, horrek ez du esan nahi haren edukia onartzen denik.

Epe horretatik kanpo inskribatzeak estatutu bidez ezarritako zehapen ekonomikoa ekarriko du.

V.20. ARTIKULUA.-

Jokalari profesionalen egoera zehazteko, Liburu honetan jasotako xedapenen arabera, eta urte bakoitzeko ekainaren 30etik uztailaren 10era bitarteko denboraldi berriari dagokionez, kirol-sozietate anonimoek eta klubek zerrenda bat aurkeztu beharko diote LIGARI, hurrengo denboraldirako indarrean dagoen kontratuarekin inskribatuta daudenena eta hilabete hori amaitzean beste kontratu bat sinatzen dutenena, bai eta konpromisorik gabe geratzen direnena ere. Azken kasu horretan, prestakuntzagatik eta sustapenagatik dagokien eskubidea gordeko zaie, hori hitzarmen kolektiboan jasota bada.

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak uztailaren 20a baino lehen bidaliko dio aipatu zerrenda hori Espainiako Futboleko Errege Federazioari.

V.21. ARTIKULUA.-

1.- Indarrean dagoen kontratua duen zerrendan agertzen diren jokalarien lizentziak hurrengo denboraldirako baliozkotuko dira, eta, besterik gabe, lizentzia hori Liga Nacional de Fútbol Profesionalen aurkeztu beharko da, Espainiako Futboleko Errege Federazioari dagozkion oharrak egin ondoren bidaltzeko.

2.- Alderdien artean adostutako luzapenak badira, edo beste kontratu bat sinatzen bada, jokalaria interesdunak lizentzia berria sinatu beharko du.

II. ATALA.- FEDERAZIO-ESKUBIDEEN KARGEN ERREGISTRO-LIBURUA

V.22. ARTIKULUA.- FEDERAZIO-ESKUBIDEEN KARGEN ERREGISTRO-LIBURUA

Jokalarien federazio-eskubideen gaineko edozein karga edo grabamen mota dagoela agerrarazteko, karga eta grabamenen erregistro-liburua sortzen da. Erregistro-liburu bana zabalduko da Liga Nacional de Fútbol Profesionalari atxikitako kirol-sozietate anonimo edo klub bakoitzarentzat, eta aipatu federazio-eskubideei eragiten dieten informazio, karga edo grabamen guztiak jasoko dira bertan.

V.23. ARTIKULUA.- ERREGISTRO-LIBURUA ZAINTEA ETA ERAMATEA

Erregistro-liburua zaintzea eta eramatea Liga Nacional de Fútbol Profesionalen Legezko Zuzendaritzaren ardura izango da, eta horri dagokio interes legitimoa duen edozein kirol-sozietate anonimo, klub edo erakundek eskatzen dituen informazio-oharrak eta ziurtagiriak ematea, aipatutako federazio-eskubideei eragiten dien eskuratze, salmenta, eskualdaketa edo beste edozein xedapen edo karga-egintzatan.

V.24. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMUA

Erregelamendu hau Liga Nacional de Fútbol Profesionalen afiliatutako kirol-sozietate anonimoen eta klubaren artean egiten diren federazio-eskubideen transferentzietan bakarrik aplikatuko da; izan ere, LIGAREN eta EFEFREN artean sinatutako Koordinazio Hitzarmenean eta federazioei buruzko errege dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak bakarrik izapidetuko ditu estatu mailako lehiaketa profesionaletako (Lehen Maila eta Bigarren Maila) behin-behineko lizentziak. Beraz, ez zaie aplikatuko atzerrira egin daitezkeen federazio-eskubideen



transferentziei, nazioarteko kirol-legeriaren arabera, Espainiako Futboleko Errege Federazioari baitagokio "Transfer" delakoa ematea.

V.25. ARTIKULUA.- LIGA NACIONAL DE FÚTBOL PROFESIONALARI EZAR DAKIZKIOKEEN KARGA EDO GRABAMENAK JAKINARAZTEA ETA HORIEN BERRI EMATEA

Liga Nacional de Fútbol Profesionalean kirol-sozietate anonimo edo klub bakoitzari irekitako erregistro-liburuetan dagokion idatzoharra egiteko, traspasoaren eskubide ekonomikoen gaineko edo kontratuaren aldebakarreko hutsaltze-klausularen zenbatekoaren gaineko kargen, bermearen edo bahituraren onuradun edo edukitzaile den erakundeak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Liga Nacional de Fútbol Profesionalari zergapetzen diren eskubideen norainokoa eta edukia, eta aipatutako agirian nahitaez jaso beharko da federazio-eskubideak traspasatzeko eskubide ekonomikoa laga duen kirol-sozietate anonimoak edo klubak inolako erreserbarik gabe eman duela horretarako baimena. Aldez aurretik jakinarazteko betebeharrak ez da beharrezkoa izango erakunde edo instituzio publikoek (epaitegiak eta auzitegiak, ogasun publikoa, tokiko ogasuna, foru-aldundiak, Gizarte Segurantzak eta abar) ezar ditzaketan enbargoetan edo trabetan, zeinak aplikatu beharreko legeria orokorrak ezarritako xedapenen arabera arautuko baitira.

V.26. ARTIKULUA.- TRASPASOAREN ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA ESKATZEA

Federazio-eskubideak eskuratzeko interesa duen edozein kirol-sozietate anonimok edo klubek, aldez aurretik, banakako informazioa eskatu beharko dio Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren Legezko Zuzendaritzari, federazio-eskubideei buruz LIGAK berak emango dion informazio-inprimakiaren bidez.

V.27. ARTIKULUA.- TRASPASOAREN ESKUBIDEEN TITULARTASUNA ALDATZEKO BAIMENA

Jokalariaren traspaso-eskubideei buruzko karga, grabamen edo idatzoharrik ez badago, federazio-eskubideak eskuratu nahi dituen kirol-sozietate anonimoak edo klubak eskubide horiek eskuratu ahal izango ditu beste izapiderik egin gabe. Horretarako, arauzko dokumentuak sinatu beharko ditu klub saltzailearekin, eta egokitzen jotzen duen ordaintzeko modua adostu.

V.28. ARTIKULUA.- FEDERAZIO-ESKUBIDEEN TITULARTASUN-ALDAKETA UKATZEA

Informazio horren ondorioz kargak edo grabamenak egongo balira federazio-eskubideen titulartasunaren gainean, ez litzateke lizentziarik izapidetuko klub eskuratzailaren alde, kargaren zenbatekoa klub horrek Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren esku jartzen duenean –ordaintzeko moduari eta gainerako gorabeherari buruzko jarraibideekin bat etorrita, zeinak informazio-eskaeraren oharrean jasoko baitira– edo kargaren idatzoharra eskatu duen erakundeak lizentzia klub eskuratzailaren alde izapidetzeko berariazko baimena ematen duenean izan ezik.

V.29. ARTIKULUA.-

Erregelamendu honetan ezartzen diren betebeharrak, mugak eta prozedura aplikatuko zaizkie futbolari profesionalak Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren egoitza sozialean gordailuan jartzen dituzten alde bakarreko desegite-klausulen zenbatekoei, baldin eta kontratuaren alde bateko suntsiarazpena egiten duen jokalaria federazio-eskubideen gaineko karga edo grabamenik bada.

V.30. ARTIKULUA.- DOAKO FEDERAZIO-ESKUBIDEEN ESKUALDAKETA



Federazio-eskubideak doan eskualdatzen badira, agiri bidez frogatu beharko da hori, eta, beraz, ez da aplikatuko aurreko artikuluetan ezarritako prozedura. Kasu horretan, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak berehala jakinaraziko dio kargaren, enbargoaren edo grabamenaren titularrari federazio-eskubideen eskualdaketa inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe egin dela.

V.31. ARTIKULUA.-

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak ez ditu bere gain hartuko jakinean egoteko jakinarazi ez zaion karga edo grabamenik.





VI. LIBURUA
OBREN ERREGELAMENDU OROKORRA



VI. LIBURUA: KIROL-ESPARRU ETA -INSTALAZIOETAKO SEGURTASUN NEURRIAK EGOKITZEKO OBREN ERREGELAMENDU OROKORRA

HITZAURREA

Kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeak eta hura garatzen duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuak xedatzen dutenez, LIGAk bere Estatutuetan jaso behar ditu kirolean indarkeria prebenitzeari buruzko araubideak eta arauak, eta, bereziki, kirol-esparruen jabeek eta klub eta kirol-sozietate anonimoek haien instalazioak egokitu behar dituzte, legez ezarritako neurriekin.

Horretarako, Estatutuen 3.1.c) eta d) eta 3.2.e) eta l) artikuluek, LIGAREN Erregelamendu Orokorren III. Atalaren 18. artikuluari eta hurrengoei dagokionez, LIGAk bere kideen estadioak aipatutako araudira egokitzeari buruzko funtzioak eta eskumenak ezartzen dituzte.

Estadioak indarkeriari aurrea hartzeko neurrietara egokitzeko beharrezkoak diren obrak egin bitartean, eta horiek gauzatu ondoren, hainbat gorabehera eta egoera sortu dira, jarduera-sistematika bat zehaztea eta xehatzea gomendatzen dutenak aurreikusitako helburuetarako, ezarritako bitartekoak hobeto garatuko direla eta horretarako ezarritako baliabide ekonomikoak hobeto administratzen direla ziurtatuz.

Obra horiek egiteko jarduketak homogeneizatzeko, LIGAREN Estatutuen eta Erregelamendu Orokorren aipatu artikuluek garatu behar dira. Artikulu horiek Obren Erregelamendu Orokor honekin osatzen dira eta kideek nahitaez bete behar dituzte.

ADIERAZPEN OROKORRAK

I

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak, Hezkuntza Ministerioarekin, Barne Ministerioarekin eta Kirol Kontseilu Gorenarekin 1995eko maiatzaren 16an sinatutako Hitzarmenaren ildotik, bere gain hartzen du hark antolatutako lehiaketa profesionalak egiten diren kirol-esparruetan eta -instalazioetan segurtasun-neurriak egokitzeko lanen gauzatzeari, kirol-ikuskizunetan indarkeria prebenitzeko beharrezko neurri gisa eta kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean adierazten den ikusleen segurtasuna bermatzeko azken helburuarekin. Neurri horiek kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuaren bidez zehaztu dira.

Horren haritik, Liga Nacional de Fútbol Profesionalak proiektu integral bateratu eta homogeneo bat garatu eta gauzatu du, lehiaketa profesionalean parte hartzen duten klub eta kirol-sozietate anonimoen kirol-esparruak eta -instalazioak egokitzeko.

II

Lehen eta Bigarren Mailako klub eta kirol-sozietate anonimoen kirol-esparruak eta -instalazioak egokitzeko proiektua esleitzeko Mahaiak, 1996ko apirilaren 2ko eta 1997ko uztailaren 30eko datetan, hurrenez hurren, SOCIEDAD ESPAÑOLA DE FÚTBOL PROFESIONAL SARI (SEFPSA) esleitu zizkion dagozkion eremuko obrak eta instalazioak, eta sozietate hori izendatu zuen egin beharreko obrak koordinatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko arduradun.

III

SEFPSAK obren zuzendaritza teknikoa egingo du, bere kabuz edo hirugarren baten bidez, LIGAREkin era askean hitzartzen dituen hitzarmenei jarraituz.



LEHEN KAPITULUA

OBRA OROKORRAK

VI.1. ARTIKULUA.- KLUB ETA KIROL-SOZIEKATE ANONIMO HASI BERRIAK

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimo bat LIGARA afiliatu ahal izateko, Estatutuen 55. artikuluan eskatzen diren gainerako agiriekin batera lehiaketa profesionala egingo den kirol-esparruari buruzko jabetza-titulua aurkeztu beharko dute, nahitaez; edo, hala badagokio, klub edo kirol-sozietate anonimo horren eta kirol-esparruaren jabearen artean sinatutako erabilera-hitzarmena. Jabetzaren titulu hori edo hitzarmen hori ez bada aurkezten, LIGAn inskribatzea ukatuko da.

2.- Kategoria profesionaletara igotzeagatik LIGAn sartzen den klub edo kirol-sozietate anonimoak, bere kirol-instalazioak eta -esparruak erregelamenduz aurreikusitako segurtasun-neurrietara egokitu beharko ditu LIGAn sartzen denetik bi urteko epean. Horrela, besteak beste, zenbakidun eserlekuak eta ikusle guztientzako eserlekuak izango dituzte, eta bigarren denboraldia hasi baino lehen aurkeztu beharko dute egin beharreko obraren proiektua. Obra horiek behin kontratatuta, lehiaketaren maila profesionalean emango duen hirugarren denboraldia hasi aurretik gauzatu beharko dira.

Obraren proiektuarekin batera, klubak edo kirol-sozietate anonimoak egiaztatu beharko du une horretan hark duela titulartasuna edo eskubidea obrak egingo direneko estadioari edo kirol-esparruari buruz, baldin eta titulartasun edo eskubide hori aldatu egin izan bada LIGAn inskripzioa egin zen egunetik.

Arestian ezarritako epe berean egin beharko dira Antolaketaren Kontrolerako Unitatearen (AKU) funtzionamendurako beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo euskarri finkoetako obrak, baita gainerako segurtasun-sistemenak ere.

Era berean, obraren proiektua tokiko edo erkidegoko administrazioak eskatutako lizentzia, aldeko txosten edo organo egokien baimenekin batera aurkeztu beharko da.

3.- LIGAREN bidez segurtasun-sistema teknikoak instalatu aurretik, kirol-estadio, -instalazio eta -esparru guztiek, eraikuntza berrikoak izan ala ez, aurreko zenbakian adierazitako obra zibila eginga izan beharko dute; bereziki, AKUren instalaziorako eta funtzionamendurako beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio eta euskarri finkoak, eta baita gainerako segurtasun-sistema teknikoak ere, horien jabeen kontura eta kargura izanik AKUK sortzen dituen gastu eta kostuak.

VI.2. ARTIKULUA.-

1.- Jabetzaren titularra ez bada kirol-esparruaren kluba edo kirol-sozietate anonimoa, nahitaez jaso beharko dira esparru horren jabearekin sinatutako erabilera-hitzarmenean edo -akordioan alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak, bai eta kirol-esparruaren jabe denak LIGAK ezarrita dituen segurtasun-sistemak sozietate horri eskuratzeko konpromisoa ere.

Konpromiso horri Erregelamendu hau erantsi beharko zaio, zeina horren zati izango baita, edo, hala badagokio, kirol-esparruaren jabe den klubak edo kirol-sozietate anonimoak haren onarpenari buruzko adierazpen berriazko eta idatzizkoa aurkeztu beharko du.

2.- Segurtasun-sistemen mantentze-lan integrala LIGAK/SEFPSAK edo haren filialak egingo du, kluba edo kirol-sozietate anonimoa sozietate horretako kide den bitartean.



3.- AVET sistema informatikoa ez da eskualdatuko. Izan ere, LIGA da sistema horren jabe eskusiboa.

4.- LIGAk finantzatu ahalko ditu kategoria profesionaletara igotzeagatik LIGArak atxikitzen diren klubak estadioen eta kirol-instalazioen segurtasuneko sistema teknikoak, baita horien garapena eta mantentze-lanak ere, interesik gabeko mailegu itzulgarrien bidez, hain zuzen, Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionalak kudeatutako estatuko kirol-apustuen eta bestelako jokoen diru-bilketaren eta sarien banaketa arautzen duen eta arau osagarriak ematen dituen 419/1991 Errege Dekretua partzialki aldatzen duen 258/1998 Errege Dekretuaren 3.1.b) artikuluan aipatzen den bilketa-ehunekotik datozen funtsen kargura.

Mailegu horiek itzultzetik sortzen diren zenbatekoak kirol-ikuskizunetan indarkeriari aurrea hartzearen arloan futbol profesionalari aplikatu beharreko araudian aurreikusitako helburu guztiei eta bakoitzari bakarrik aplikatuko zaizkie.

LIGAk aurreko paragrafoan aurreikusitako helburuetara zuzendu beharko ditu mailegu horien itzulketatik datozen funtsak, horiek jasotzen dituen ekitaldi ekonomiko berean edo, hala badagokio, ondorengo ekitaldian.

Kirol-instalazioaren titularra den hirugarrenaren eta LIGAREN artean maileguak sinatu aurretik, mailegu-motaren kontratu bat egin beharko da. Kontratu horrek Kinieletako Partaidetzaren Jarraipenerako Batzordearen onespina izan beharko du, eta bertan adieraziko dira epeari buruzko baldintzak, ez-betetzeagatik bermeak eta mailegu horiek arautzen dituzten gainerako xedapenak.

LIGAk Kinieletako Partaidetzaren Jarraipen Batzordeari eman beharko dio maileguetako bakoitzaren harpidetzaren berri.

Mailegu horien emakida, itzulketa eta saldoen kontabilitate-erregistroa banaka egingo da, LIGAREN kontabilitateko kontu berezi eta independenteen bidez, eta Kinieletako Partaidetzaren Jarraipenerako Batzordeak horretarako izendatutako pertsonak edo erakundeak kontabilitate-informazio hori eskuratzeko beharrezko mekanismoak ezarri beharko dira.

Segurtasun-sistema teknikoak mailegu bidez finantzatzen direnean, LIGAk Erregelamendu honen I. Eranskinean edo une bakoitzean ezartzen ahal duen prozeduran ezarritakoari lotuko zaio.

Segurtasun-sistema teknikoak erosi dituenak LIGAREkin libreki hitzartzen duen denboran eta moduan itzuliko du finantzatutako zenbatekoa, ezarritako prozeduraren arabera. Salerosketaren xede den segurtasun-sistema teknikoen erosleak ez badu ordaintzen ezarritako prezioa, LIGAk eska diezaioke ezarritako prezio osoa ordaintzeko edo, bestela, kontratua suntsitu dezake, instalatutako sistema teknikoen jabetza berreskuratuz.

VI.3. ARTIKULUA.-

SEFPSAk esleitu eta kontratatutako ditu segurtasun-sistema teknikoak instalatzeko obrak, lehiaketaren, gonbidapenaren edo zuzeneko esleipenaren bidez, klubak edo kirol-sozietate anonimoak edo kirol-esparruaren jabeak proposatutako enpresei edo SEFPSAk lanak egiteko egokitzat jotzen duen beste edozein eskaintza eskatu ahalko zaizkion. Erregelamendu honen II. Eranskinean edo une bakoitzean ezartzen ahal duen prozeduran oinarrituz eginen dira.

Klub eta kirol-sozietate anonimoek edo kirol-esparruaren jabeek, herriko edozein enpresari proposatu ahal izango diote instalazio hori egitea, baina enpresa horrek ez du inolako harreman komertzial, profesional edo pertsonalik izango klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren zuzendaritza-batzordeko edo administrazio-kontseiluko kideekin, ezta ere horien enpresekin. Enpresaren aurkezpenean, bai klubak edo kirol-



sozietate anonimoak, bai enpresak, enpresaren kaudimena eta profesionaltasuna, esperientzia eta kalifikazioa egiaztatu beharko dute, bai eta legez zehaztuta dauden merkataritza, zerga eta lan arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela ere.

VI.4. ARTIKULUA.- LIGARI ATXIKITAKO KLUB ETA KIROL-SOZIETATE ANONIMOAK

Erregelamendu hau indarrean sartu arte klubek eta kirol-sozietate anonimoek kontabilitatean aktibatu eta egin izan dituzten obra, instalazio eta ekipo guztiak kirol-ekitaldi ofizial bakoitzaren hasieran egin edo instalatu ziren helbururako behar diren baldintza egokiak bete beharko dituzte, eta, ez badituzte betetzen, klub edo kirol-sozietate anonimoa izango da egokitasun hori berrezartzearen arduraduna.

LIGAk/SEFPSAk edo haren filialak instalatutako instalazioak eta elementu teknikoak erabiltzeko, bai eta AVET sistema informatikoa (sarbideen kontrola) erabiltzeko lizentzia ere, kirol-esparruan egin beharreko edozein ekitalditarako, LIGArekin Txapelketa Nazionala edo LIGAK antolaketan parte hartzen duen izaera ofizialeko beste edozein ekitaldi izan ezik, horren laguntza eta mantentze-lanak egin beharko dituzte, antolatzailearen kontura ordainsariak eta kostuak ordaindu ondoren. Horretarako, LIGAK/SEFPSAk edo bere filialak dagokion aurrekontua egingo du aldeztu aurretik.

VI.5. ARTIKULUA.-

1.- Klubak edo kirol-sozietate anonimoak LIGArekin kide izateari uzten badio, LIGAk kendu egingo ditu bere jabetzakoak diren instalazioak, edo, bestela, instalazioak laga eta/edo eskualdatu egingo dizkio kirol-esparruaren jabe den erakundeari edo klubari edo kirol-sozietate anonimoari, ezartzen diren akordio ekonomikoen bidez.

2.- Klub batek LIGArekin kide izateari uzten dioenean, kirol-esparruan geratzen diren segurtasun-sistemen instalazio eta elementu guztiak babestu eta mantendu egin beharko dira, halako moldez, non, klub horrek izaera profesionalari berriro ekiten badio, kirol-esparruaren titularrarekin batera, horien egoeraren erantzule izango baita, eta konpontze- eta/edo berritze-kostuei aurre egin beharko dielako.

VI.6. ARTIKULUA.-

Kluba edota kirol-sozietate anonimoa LIGArekin kide den bitartean, klubak edo kirol-sozietate anonimoak eta kirol-esparruaren jabeak ezin izango dute egin LIGArekin jabetzakoak diren instalazioen eta egindako lanen edo egiten daudenen gaineko inolako erabilerririk, transmisiorik edo lagapenik, LIGARI/SEFPSARI edo haren filialari aldeztu aurretik idatzizko jakinarazpenik egin gabe, baldin eta horiek ez badituzte eskualdatu.

BIGARREN KAPITULUA

OBRAK EGIN, INSTALATU ETA ERABILTZEKO PROZEDURA

VI.7. ARTIKULUA.-

Obra-proiektuak gauzatzeko prozedura Erregelamendu honi, II. Eranskinari edo, hala badagokio, LIGAK onartutako jarduera-protokoloari lotuko zaio.

Bai segurtasun-sistema teknikoaren proiektuaren zuzenketa egitean, bai materialak bildu, jaso eta gordetzean, halakorik balego, akta bat egingo da, eta hauek sinatuko dute: Obraren Zuzendaritza Teknikoak –SEFPSAREN ordezkari gisa–, Tokiko Zuzendaritza Teknikoak –parte hartzen badu–, klubak edo kirol-sozietate anonimoak, obrak egingo diren kirol-esparruaren jabeak, eta hornitzaileak. Halaber, obrak non



gordailutu diren eta horien pertsona edo erakunde gordailuzainak zehaztuko dute. Horretarako eredia III. Eranskin gisa eranstean da.

VI.8. ARTIKULUA.-

Klub edo kirol-sozietate anonimoek eta kirol-esparruaren titular direnek ezin izango dute hitzarmenik edo itunik egin LIGAk/SEFPSAk edo haren filialak kontratatutako segurtasun-sistemak instalatzen edo mantentzen dituzten enprekin, azken horien berriazko eta idatzizko baimenik gabe.

Klub edo kirol-sozietate anonimoa eta kirol-esparruaren titular dena beharturik daude, segurtasun-sistema teknikoak instalatu ondoren eta hura LIGAk kide den bitartean, instalatutako elementuen gaineko aseguru poliza sinatzera eta horiek berritzera. Poliza horren onuraduna LIGA izango da, sistema horien mantentze-lanak bere gain hartzearen ondorioz, eta polizaren kopia eman beharko zaio LIGArri, sistema teknikoen instalazioa amaitu eta hogeita hamar eguneko epean.

VI.9. ARTIKULUA.-

Onartutako, egindako edo gauzatzen ari diren proiektua edo proiektuak ezin izango dira aldatu, nahastu, handitu edo lekuz aldatu LIGAk/SEFPSAk edo haren filialak aldeztatik azterketa teknikoak egin eta onartu ezean. Proiektua edo proiektuaren edozein zati aldatu, nahastu, handitu edo lekuz aldatzeak sortzen dituen gastu eta kostu guztiak, bai eta berekin dakartzaten obrak ere, klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren kontura izango dira, edo, hala badagokio, estadio edo kirol-esparruaren jabearen kontura, dagokion aurrekontua onartu ondoren.

VI.10. ARTIKULUA.- ELEMENTU TEKNIKOAK BERRITZEA

1.- Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, LIGArren segurtasun-sistema teknikoen proiektuak gauzatu ondoren, AVET sistema informatikoa izan ezik, klubak edo kirol-sozietate anonimoak edo kirol-esparruaren jabeak hirugarren batekin kontratatu ahal izango du sistemaren elementuen berritzea. Nolanahi ere, sistema edo elementu horiek bateragarriak izan beharko dute LIGAk ezarritako sistema bakar eta homogeneoarekin, eta LIGAk homologatuko ditu aurretik, bidezkoa bada.

Aurreko atalean aurreikusitako homologazioaren ondorioetarako, klubak edo kirol-sozietate anonimoak, kirol-esparruaren jabeak edo kontratatutako enpresak LIGArri/SEFPSArri edo haren filialari aurkeztu beharko dizkio birjarri nahi dituen sistemak edo elementuak, LIGAk azter dezan sistemaren funtzionamendu integral eta homogeneoari dagokionez egokiak ote diren. Helburu horretarako egokiak ez badira, LIGAk/SEFPSAk edo bere filialak klubari edo kirol-sozietate anonimoari, kirol-esparruaren jabeari edo kontratatutako enpresari jakinaraziko dio, erabaki horretarako kontuan hartu diren arrazoi teknikoak azaltzen dituen memoriarekin batera, eta horiek beste proiektu bat aurkeztu beharko dute.

2.- Klubak edo kirol-sozietate anonimoak hirugarren enpresa batekin kontratatzen badu segurtasun-sistema teknikoetako elementuen birjartzea, LIGAk finantzatuko ditu horiek, une bakoitzean bere hornitzaileekin ezarrita dituen aleko prezioen arabera.

VI.11. ARTIKULUA.-

Kategoriak jaisteagatik edo beste edozein arrazoiengatik LIGArren kide izateari uzten dion kluba edo kirol-sozietate anonimoa eta kirol-esparruaren titularra dena behartuta dago egindako obra eta instalazio teknikoak mantentzera eta berritzera LIGArren kide izaera berreskuratuz gero, erabiltzeko egoera ezin hobean egon daitezen.



Klubak edo kirol-sozietate anonimoak kirol-esparrua erabiltzeari uzten badio edo LIGAREN kide izateari uzten badio, LIGAK utzi egingo dio segurtasun-sistemen mantentze-lan integralak egiteari, salbu eta kirol-esparruaren jabeak mantentze-lan horiek egin jarrai dezala eskatzen badio, horko gastu guztiak bere gain hartuko dituelarik, hala badagokio, LIGAREkin adostu ondoren.

VI.12. ARTIKULUA.-

Klub edo kirol-sozietate anonimoak edo, hala badagokio, estadioaren jabeak bere plantillako pertsona bat izendatuko du, teknikoki kualifikatua izango dena, sarbideen segurtasun eta kontrolerako sistemez arduratzeko. Pertsona horrek sistemaren funtzionamenduaren egiaztapenak egingo ditu LIGAK/SEFPSAK edo bere filialak izendatutako langileekin batera, eta gorabeherai buruzko dagokion akta sinatuko du.

HIRUGARREN KAPITULUA

HOMOLOGAZIOA

VI.13. ARTIKULUA.-

Ez da homologatuko Erregelamendu honetan ezarritako epeetan legez aurreikusitako segurtasun-sistematik eta, bereziki, sarreren salmenta kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema informatizaturik, ezta barrutirako sarbiderik ere, ez duen kirol-esparrurik.

Homologazio falta horrek futbol profesionaleko lehiaketarako kirol-esparrua ixtea ekar dezake, agintari eskudunek hala erabakita.

VI.14. ARTIKULUA.-

Klub edo kirol-sozietate anonimo batek bere estadioa terrorismoaren aurkako neurrietara egokitze beharrezko lanak egin ondoren aldatu egiten badu bere kirol-esparrua, LIGAK/SEFPSAK edo haren filialak lekuz aldatuko ditu han instalatutako sistema guztiak, eta, beharrezkoa bada, sistema horiek handitu egingo ditu. Horretatik sortzen diren gastuak eta kostuak esparru horren jabearen kontura bakarrik izango dira, dagokion aurrekontua aldeztuz aurretik onartu ondoren. Sistema horiek handitzen badira, 9. artikulua aplikatuko da.

VI.15. ARTIKULUA.-

Kirol-esparruan LIGAK/SEFPSAK edo haren filialak instalatutako sistema teknikoei eragiten dieten obrak egiten badira horren jabeak edo titularrak edo klubak edo kirol-sozietate anonimoak hala erabakita, horiei jakinarazi beharko zaie obra, eta, hala badagokio, obra horiek desinstalatu eta instalatuko dituzte horiek izendatzen dituzten enpresen bidez. Horko gastuak jabearen edo titularraren edo klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren kontura bakarrik izango dira.

VI.16. ARTIKULUA.-

Onartu eta gauzatu den edo gauzatu ari diren proiektua osatzen duten kirol-esparruko sarbideen kontrol-sistema eta gainerako segurtasun-sistemak mantentzeko, klubek edo kirol-sozietate anonimoek eta, hala badagokio, kirol-esparruaren jabeak LIGARI/SEFPSARI edo haren filialari jakinarazi beharko dizkiote sortzen diren gorabeherak, eta ezin izango zaie, inola ere, jakinarazpena zuzenean egin mantentze-lanen enpresa esleipendunei.

Kirol-esparruan egiten den ekitaldi bakoitzeko gorabehera-agiri bat emango da, eta ekitaldiaren antolatzaileak, dela klubak edo kirol-sozietate anonimoak, dela hirugarren



batek edo horren jabe denak, sinatu beharko du nahitaez, LIGAK/SEFPSAK edo haren filialak izendatutako mantentze-lanetako enpresetako teknikariarekin batera.

VI.17. ARTIKULUA.-

Instalatutako sarbide- eta segurtasun-kontrolako sistemen konponketa, manipulazio, aldaketa, nahasketa edo lekualdaketa oro LIGAK/SEFPSAK edo haren filialak izendatutako teknikariek egingo dute. Kluba edo kirol-sozietate anonimoa eta, hala badagokio, kirol-esparruaren jabe dena izanen dira xedapen hau ez betetzeagatik sortzen diren kalte-galeren erantzuleak.

VI.18. ARTIKULUA.

Klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren eta kirol-esparruaren jabe edo titularra denaren artean sinatutako hitzarmena aldatu, ebatzi edo desegiten bada, LIGARI/SEFPSARI edo haren filialari jakinarazi beharko zaio, eta hark, era berean, Kirol Kontseilu Gorenari jakinaraziko dio.

ERANSKINAK

VI. LIBURUKO I. ERANSKINA: MAILEGU BIDEZKO SEGURTASUN-SISTEMA TEKNIKOAK FINANTZATZEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- FINANTZAZIO-MAILEGUA

LIGAK interesik gabeko mailegu itzulgarriak eman ahalko dizkie kategoría profesionaletara igotzeagatik LIGAREN kide egiten diren klub edo kirol-sozietate anonimoei eta kirol-esparruen jabeei, LIGAK antolatutako lehiaketa ofizialetako partidak egiten diren edo egingo diren tokietarako Obren Araudi Orokorrean zehaztutako segurtasun-sistema tekniko erogarriak eskura ditzaten.

BIGARRENA.- FINANTZAKETA APLIKATZEKO MODUA

Finantzaketa-mailegu hori osatzen duen zenbatekoa ez zaie emango, ez zaie ordainduko ezta ere zuzenean abonatuko segurtasun-sistema teknikoaren eskuratzailerei; aitzitik, obra eta instalazio ziurtagiriei dagozkien fakturak proiektua gauzatzeko kontratatutako enpresari ordaindu edo abonatuko zaizkio.

HIRUGARRENA.- FINANTZAKETAREN GEHIENENKO ZENBATEKOA

Eskualdaketa-aren xede den segurtasun-sistema teknikorako LIGAK alde aurretik onartutako aurrekontuak/proiektuak dakarren zenbatekoa izango da maileguaren gehieneko zenbatekoa.

LAUGARRENA.- FINANTZAZIO-ESKAERA

Mailegua eskatzeko eskubidea sortuko da klub edo kirol-sozietate anonimoa LIGAREN kide gisa inskribatuta dagoenean eta Obren Araudi Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen direnean, eta, bereziki, klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren eta kirol-esparruaren jabetzaren arteko Hitzarmena sinatzen denean.

Finantzaketa-mailegua eskatzearekin batera, eskatzaileak zerga, fiskalitate eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko da.



Eskatzailea tokiko edo erkidegoko administrazioa edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunde bada, organo eskudunaren erabakia egiaztatu beharko du, non segurtasun-sistema teknikoa erostea eta finantzaketaren zenbatekoa eta baldintzak onartzen dituen.

BOSGARRENA.-

Ez zaio inolako finantzazio-mailegurik emango klub edo kirol-sozietate anonimoari, ez eta kirol-esparruaren jabeari ere, eskaera egiten den unean horiek LIGArekin zorra baldin badute, edozein kontzepturengatik, non eta ez dagoen alde zuzeneko akordioarik zor hori itzultzeko edo amortizatzeko.

SEIGARRENA.- LAGUNTZAK EMATEKO ORGANOA

LIGAk Batzorde Delegatuaren edo izendatutako Obra Batzordearen bidez emango du finantzazio-mailegua, eta zenbatekoa eta itzultzeko baldintzak ezarriko ditu.

ZAZPIGARRENA.- FORMALIZAZIOA ETA ITZULTZEKO GEHIENEKO EPEA

Mailegua eman ondoren, dagokion kontratuaren bidez gauzatuko da. Kontratu horretan LIGAk ezarritako baldintzak jasoko dira, mailegu-hartzaileak alde zuzeneko akordioarik onartutakoak, Obren Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Mailegua itzultzeko gehieneko epea bost urte izanen da.

ZORTZIGARRENA.- BERRESKURAPEN FUNTSA

Finantzazio-maileguak itzultzeko zenbatekoa, LIGAREN Obren Erregelamenduaren 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, Obren Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako helburu guztiei bakarrik aplikatuko zaie, futbol profesionaletan egiten den kirol-esparruan indarkeria prebenitzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriei dagokienez.

VI. LIBURUKO II. ERANSKINA: OBREN BARNEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURA

I

Jarduteko printzipio orokorrak

LIGAk baliabideen kudeaketan egiten duen jarduera orok printzipio hauek izango ditu oinarri: gardentasuna, baliabideen gehieneko aprobetxamendua finantziazioen, laguntzen edo diru-laguntzen bidez, lehia libre, baliabideen jarraipenean eta kontrolean duten eraginkortasuna justifikazioaren bidez, eta berdintasuna, proportzionaltasuna, publikitate, gardentasuna, konfidentziasuna, diskriminaziorik eza, objektibotasuna eta lehia.

Prozedura honen xedea da SEFPsAk obra eta instalazio horien esleipendun izateko eta bere koordinazio, zuzendaritza eta kontrolaren arduradunak zuzenean edo filialaren bidez egin ezin dituen obra-kontratuen kontratista hautatzeko irizpideak arautzea.

II

Erabaki- eta kontrol-organok



Kontratazioei eta baliabideen inbertsioari buruzko kontrol-, ikuskapen-, segimendu-, baimen- eta erabaki-organoa horretarako izendatutako batzorde delegatua edo obren azpibatzailea izango da, eta Sociedad Española de Fútbol Profesional S.A. edo haren filialaren bidez gauzatuko du.

Dena den, kontrol-, ikuskapen-, jarraipen-, baimen- eta erabaki-organo horrek Eranskin honetan jasotako jarraibideak bete beharko ditu, barne-esparruan nahitaez bete beharrekoak direnak. Jarraibide horietan, kontratazio-prozedurak arautuko dira, aurreko paragrafoan adierazitako printzipioen eraginkortasuna bermatuta gera dadin eta kontratua kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena duen eskaintza aurkezten duenari esleitu dadin.

III

Indarkeriari aurrea hartzeko segurtasun neurriak hartu-aurreko baldintza

Kirol-esparru edo -instalazioetan segurtasun neurriak ezarri behar diren klub edo kirol-sozietate anonimo hasi berrien kasuan, aldez aurretik haien artean eta horien jabearen artean sinatutako hitzarmena aurkeztu beharko da.

IV

Esleitzeko prozedurak

- i) 50.000 euroko edo gehiagoko obra-kontratuak prozedura irekiaren bidez esleitu dira, kontratuaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu ondoren. V. atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten enpresaburu interesdun guztiek aurkez dezakete horretarako eskaintza.
- ii) 50.000 eurotik beherako obra-kontratuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu dira. Prozedura horretan, erabaki- eta kontrol-organoak gutxienez hiru enpresabururi egin behar die kontsulta eta horietako bakoitzarekin negoziatuko ditu kontratuaren baldintzak.
- iii) Hala ere, 10.000 euroko edo hortik beherako obrak kontratatzen direnean, erabaki- eta kontrol-organoak eskaintza bakar bat kontratatu ahalko du zuzenean.

V

Kontratisten baldintzak

1.- Proiektuak/Aurrekontuak aurkezten dituen enpresa orok, horiekin batera, legez eskatutako erregistro-betebeharrak, merkataritzakoak, fiskalak eta lanekoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, baita kaudimen tekniko eta ekonomikoa ere.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatzeko, bide hauetako bat edo gehiago erabil daiteke:

- a) Finantza-erakundearen adierazpen egokiak edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru bat dagoela frogatzen duen agiria.
- b) Merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Kontuak erregistro ofizialean aurkeztera beharturik ez dauden enpresaburuek kontabilitateko liburuak aurkezten ahalko dituzte, behar bezala legeztatutakoak.



c) Negozioen bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-eremuko negozio-bolumenari buruzkoa. Azken hiru ekitaldiei buruzkoa izango da, gehienez jota, enpresaburuaren sortze-dataren edo jardueren hasiera-dataren arabera, negozio-bolumen horren erreferentziak dauden neurrian.

Justifikatutako arrazoi batengatik enpresaria ez badago eskatutako erreferentziak aurkezteko moduan, bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko baimena emanen zaio, kontratazio-organoak egokitzat jotzen duen beste edozein agiriren bidez.

Enpresaburuen kaudimen teknikoak edo profesionala baloratzeko, kontuan hartuko dira haien ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna. Kontratuaren xedearen arabera, bitarteko hauetako bat edo gehiago erabil daiteke hori frogatzeko:

- a) Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horien hartzailea, publikoa edo pribatua, barne. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, subjektu pribatuak emandako ziurtagiri baten bidez edo, horren ezean, enpresaburuaren aitorten baten bidez; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritzak eskudunak kontratazio-organoari.
- b) Kontratuan parte hartzen duten langile teknikoak edo unitate teknikoak adieraztea, enpresan integratuak izan ala ez, bereziki kalitatearen kontrolaz arduratzen direnak.
- c) Instalazio teknikoak, enpresaburuak kalitatea bermatzeko erabiltzen dituen neurrien eta enpresak aztertu eta ikertzeko dituen baliabideen deskribapena.
- d) Zerbitzu edo lan konplexuak direnean, edo, salbuespen gisa, helburu berezi bati erantzun behar diotenean, edo kontratazio-organoak, edo, haren izenean, enpresaburuak finkatuta dagoen estatuko erakunde ofizial edo homologatu eskudun batek egindako kontrol bati, betiere erakunde horren akordioa badago. Kontrola enpresaburuaren gaitasun teknikoari buruzkoa izanen da, eta, beharrezkoa bada, eskura dituen azterketa- eta ikerketa-bitartekoei buruzkoa eta kalitatea kontrolatzeko neurriei buruzkoa.
- e) Enpresariaren eta enpresako zuzendarien titulazio akademiko eta profesionalak eta, bereziki, kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileenak.
- f) Kasu egokietan, enpresariak kontratua gauzatzean aplikatu ditzakeen ingurumen-kudeaketako neurriak adieraziko dira.
- g) Enpresaren urteko batez besteko plantillari buruzko aitortzea, eta azken hiru urteetan zuzendaritzako langileek izan duten garrantziari buruzkoa, behar diren frogagiriekin batera.
- h) Lanak edo prestazioak egiteko erabiliko den makineria, materiala eta ekipa teknikoak adierazten dituen aitortzea, eta behar diren egiaztapenak.
- i) Enpresaburuak azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia adieraztea.

Aurrekoa deusetan galarazi gabe, erabaki- eta kontrol-organoak aurkeztutako ziurtagiri eta agiriei buruzko argibideak eskatzen ahalko dizkie hautagaiei, edo, beharrezkotzat jotzen baditu, beste osagarri batzuk aurkezteko eskatzen ahalko die.

2.- Kontratu batean parte hartzetik salbuetsita daude honako hauek:



- (i) Aurreko baldintzak akreditatzen ez dituztenak.
- (ii) Konkurtso, likidazio, esku-hartze judizial eta jarduera uztearen egoeran daudenak.
- (iii) Epai irmo baten bidez zigortuak izan direnak bere zintzotasun profesionalari, iruzurrezko ustelkeriari, delituzko erakunde batean parte hartzeari edo legez kanpoko beste edozein jarduerari eragiten dion edozein deliturengatik.
- (iv) Edozein bitarteko justifikagarriren bidez egiaztatutako hutsegite profesional larria egin duena.

3.- Kontratua esleitzetik kanpo geratzen dira esleipen-prozeduran zehar:

- (i) Interes-gatazkan daudenak.
- (ii) Kontratuan parte hartzeko erabaki- eta kontrol-organoak eskatzen duen informazioa ematean gezurrezko adierazpenak egin dituztenak edo informazio hori eman ez dutenak.

VI

Publizitatearen printzipioa

1.- IV. atalean ezarritako irizpideen arabera publizitatea behar duten kirol-esparru eta -instalazioetan indarkeria prebenitzeko segurtasun-neurriei buruzko proiektu integralak edo globalak eta partzialak esleitzeko, hau hartuko da kontuan:

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta eskuragarritasun publikoa ziurtatzeko, eta borondatez hala erabakitzen den beste publizitate-bide batzuen erabilera galarazi gabe, erabaki- eta kontrol-organoek kontratatzaile-profila zabalduko dute Internet bidez. Kontratatzailearen profileraren sartzeko modua LIGAK zabalik dituen web-orrietan zehaztu beharko da.

Kontratatzailearen profilean erabaki- eta kontrol-organoaren kontratu-jarduerari buruzko edozein datu eta informazio sar daiteke, hala nola, alde aurreko informazio-iragarkiak, irekitako edo abian diren lizitazioak eta horiei buruzko dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak eta bestelako informazio erabilgarri orokor oro, hala nola, erabaki- eta kontrol-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen harremanetarako puntuak eta komunikabideak. Nolanahi ere, kontratuen esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Obra-proiektuek, gutxienez, agiri hauek izango dituzte:

- a. Memoria bat, obren xedea deskribatzen duena. Bertan, obren aurrekariak eta aurretiko egoera, bete beharreko beharrak eta hartutako konponbidearen justifikazioa jasoko dira, kontuan hartu beharreko alderdi guztiak zehaztuz.
- b. Obra behar bezala definituta geratzeko beharrezkoak diren multzo- eta xehetasun-planoak.
- c. Baldintza tekniko partikularren agiria, obrak deskribatu eta nola gauzatuko diren arautuko duena. Bertan, obrak egiteko modua, kontratistari dagozkion betebeharrak teknikoak, egindako unitateen neurketa eta erabilitako materialen eta exekuzio-prozesuaren kalitate-kontrola adieraziko dira.
- d. Aurrekontu bat, zenbait partzialek osatua ala ez, aleko prezioak eta, hala badagokio, banakatuak, neurketen egoera eta horiek baloratzeko behar diren xehetasunak adieraziz.
- e. Lanak garatzeko programa edo obra plan adierazgarria, denbora eta kostua aurreikusirik, halakorik bada.



- f. Obraren zuinketaren oinarri izango diren era guztietako erreferentziak.
- g. Segurtasun eta osasun azterlana edo, hala denean, segurtasun eta osasun arloko oinarriko azterlana, obretako segurtasun eta osasun arauetan aurreikusitako moduan.
- h. Legezko edo erregelamenduzko arauetan aurreikusitako dokumentazio guztia.

Hala ere, 350.000 eurotik beherako lehen ezarpeneko, berrikuntzako edo konponketa handiko obren proiektuetan, aurreko agirietako bat edo batzuk sinplifikatu, bateratu edo kendu ahal izango dira, baldin eta eskainia den dokumentazioa nahikoa bada obrak zehaztu, baloratu eta gauzatzeko. Hala ere, aurreko idatz-zatiko g) letran adierazitako dokumentazioa ez da beharrezkoa izanen hura arautzen duen berariazko araudian hala aurreikusita bada.

2.- Aurrekoa gorabehera, premiazko edo berehalako arrazoiak daudenean, LIGAREN irizpideen arabera, proiektua/aurrekontua zuzenean esleitu eta kontratatu ahal izango da.

Kontratua egitea beharrezkoa bada premia atzeraezin bati erantzuteko edo interes publikoko arrazoiak direla-eta esleipena azkartu behar bada, erabaki- eta kontrol-organoak presakoa dela adierazi ahal izango du, eta behar bezala arrazoitu beharko du esleipen-espedita prestatzeko dokumentazioan.

3.- SEFPSAK edo haren filialak, kirol-esparrua eta -instalazioak ikuskatu eta gainbegiratu ondoren, eta, bertaratzen bada, segurtasun-koordinatzailearekin batera, horietarako beharrezkoak diren segurtasun-neurriak zehaztu eta ezarriko ditu.

4.- Proiektuak/aurrekontuak SEFPSARI aurkeztu ondoren, SEFPSAK bakarka emango die txostena, eta hark LIGARI bidaliko dio, horren Batzorde Delegatuak edo horretarako izendatutako Obren Azpibatzordeak erabaki eta onar dezaten.

5.- Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomiko eta tekniko onuragarriena zehazteko, kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpideak hartu beharko dira kontuan, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerarekin edo zerbitzua ematearekin lotutako ordainsariak berrikusteko erabil daitekeen formula, prestazioa gauzatzeko edo emateko epea, erabileraren kostua (kontratuaren zehaztapenetan ezartzen dira), errentagarritasuna, balio teknikoak, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezkoko piezen erabilgarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoak, saldu ondoko zerbitzua edo antzekoak.

Esleitzeko irizpide bakarra erabiltzen denean, irizpide hori preziorik baxuena izan behar du, nahitaez.

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak erabaki- eta kontrol-organoak zehaztuko ditu, eta iragarkian edo dokumentu deskribatzailean zehaztuko dira.

6.- Aurkeztutako proiektua/aurrekontua onartu ondoren, izendatutako Batzorde Delegatuak edo Obren Azpibatzordeak SEFPSARI edo bere filialari bidaliko dio, eta hark dagokion kontratazioa egingo du enpresa esleipen-hartzailearekin, aldez aurretik klubari edo kirol-sozietate anonimoari jakinarazita.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta aldi berean argitaratuko da. Jakinarazpen horretan, betiere, baztertutako lizitatzaileari edo hautagaiari dagokion erreklamazioa aurkezteko behar den informazioa jaso beharko da.

Bereziki, alderdi hauek adieraziko ditu:



- a) Baztertu diren hautagaitzak ezesteko arrazoiaren azalpen laburtua.
- b) Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitzaileei dagokienez, labur-labur, beren eskaintza ez onartzeko arrazoiak.
- c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena, horren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, eskaintza aukeratua izan dadin erabakigarriak izan direnak onartutako eskaintzak dituzten gainerako lizitzaileek aurkeztutakoen aurretik.

Dena dela, erabaki- eta kontrol-organoak erabaki ahal izango du kontratuen esleipenari buruzko datu jakin batzuk ez jakinaraztea, baldin eta zabalkundeak legearen aplikazioa oztopatu badezake, interes publikoaren aurkakoa bada, edo eragile ekonomiko publiko edo pribatuaren bidezko merkataritza-interesak kaltetzen baditu, edo haien arteko lehia leiala kaltetzen badu.

Hartzaileari jakinarazpena hori jaso dela adierazteko bide ematen duen edozein bide erabiliz egingo da.

VII

Zuzendaritza tekniko eta ziurtagiriak

1.- SEFPSAk edo, hala badagokio, SEFPSAk kontratatutako hirugarren enpresak egingo du proiektuaren/aurrekontuaren zuzendaritza teknikoak, horretarako izendatutako batzorde delegatuak edo obren azpibatzaileak onartu ondoren.

2.- Proiektua gauzatzen duen enpresak proiektuaren zuzendari tekniko bat izan beharko du, eta hark egindako obra ziurtatuko du, proiektuaren eta SEFPSAren artean sinatutako kontratuaren arabera, edo, halakorik ez badago, enpresaren legezko ordezkariak. Ziurtagiri guztiek kapituluko kontzeptuak eta gauzatutako obra unitateak bildu beharko dituzte, baita bakoitzaren aleko prezioa ere.

Ziurtagiri horri proiektuaren garapenari buruzko txosten labur bat gehituko zaio, bai eta hartan eragina izan dezaketen jarduerak ere.

4.- Enpresa instalatzailearen zuzendaritza teknikoak edo haren legezko ordezkariak emandako edozein ziurtagiri jaso ondoren, SEFPSAren zuzendaritza teknikoak in situ egiaztatuko du egiaztatze hori benetakoa eta egiazkoa den, edozein ordainketa egin aurretik. Enpresa instalatzailea agertu beharko da ekitaldi horretara.

SEFPSAren zuzendaritza teknikoak, in situ ikuskapena egin ondoren, egiaztapen-akta eginen du, ziurtagiriek berekin dakartzaten lanak egin dituen enpresaren aurrean.

VIII

Obra-kontratuak formalizatzea eta gauzatzea

1.- SEFPSAk edo haren filialak eta enpresa esleipendunak sinatu behar dituzte kontratuak, bi aletan. SEFPSAri edo haren filialari dagokion kontratuaren jatorrizkoa SEFPSAn artxibatuko da, eta kontratuaren kopia bat LIGAren Administrazio Sailari emango zaio, eta Kirol Kontseilu Nagusiari helaraziko zaio.

Obra bakoitzerako kontratuetan ezarri beharreko prezioa onetsitako aurrekontuan ageri dena izanen da, eta ezingo desbideratzerik egon.

2.- Onartutako proiektuan aldaketak, nahasketak, zuzenketak edo bestelako gorabeherak direla eta, onartutako aurrekontuan edozein desbiderapen izanez gero, LIGAren Batzorde Delegatuak edo horretarako izendatutako azpibatzaileak baimendu eta onartu beharko du alde aurretik. Desbideraketa hori ez da inola ere



onetsitako hasierako aurrekontuaren EHUNEKO HOGEIA baino handiagoa izanen, Batzorde Delegatuak aparteko inguruabar edo arrazoiengatik baimentzen duenean izan ezik.

3.- SEFPSAren edo haren filialaren eta enpresa esleipendunen artean sinatu beharreko kontratuetan, jarduketa-protokolo hau jasoko da, egin beharreko ziurtagiriei, txostenei eta ordainketei dagokienez, eta horren parte izango da.

4.- Obraren kontratua garatzea/egikaritzea:

a) Materialen pilaketa:

Materialen pilaketa, hori hitzartuz gero, enpresa esleipendunak hogeita hamar eguneko epean egin ahal izango du, SEFPSAk obra hasteko ezarritako egunetik hasita. Horretarako, materialen bilketa- eta gordailu-akta egingo da, erantsitako ereduaren arabera, eta enpresa instalatzailearen zuzendaritza teknikoak, enpresa horrek berak eta SEFPSAren zuzendaritza teknikoak esku hartuko dute, baita klub edo kirol-sozietate anonimoren edota kirol-esparruaren jabearen ordezkariak ere.

b) Obraren garapenari buruzko txostenak eta ziurtagiriak:

Enpresa esleipendunaren zuzendaritza teknikoak, hilerro, proiektuaren garapenari eta obraren gauzatzeari buruzko txostena bidaliko du, baita dagokion ziurtagiria ere, egindako obra-unitateak adierazita, enpresa esleipendunak igorritako fakturarekin batera eramateko.

c) Obra amaierako akta:

Enpresa esleipendunak obra amaitu ondoren, SEFPSAren zuzendaritza teknikoak, klubaren edo kirol-sozietate anonimoren ordezkari batekin eta kirol-esparruaren jabearekin batera, obraren amaierako akta egingo du, proiektuaren eta funtzionamenduaren arabera egindako obraren errealitatea azaltzeko.

Obraren behin-behineko harrera-akta izanen da. Epe horretan dauden akats guztiak zuzendu eta urtebetera, bi aldeek obra behin betiko jaso izanaren akta eginen dute.

d) Fakturen ordainketak:

- Ez da ordainduko egikaritzen duen enpresaren zuzendari teknikoaren edo haren legezko ordezkariaren ziurtagiriarekin batera aurkezten ez den fakturarik, bere nahitaezko txostena erantsita duela.
- Faktura ordaindu baino lehen, SEFPSAren zuzendaritza teknikoak edo haren filialak islatzen dituen obra-unitateak ikuskatzeari eta in situ egiaztatzeari ekingo zaio, 4 b) atalean ezarritakoaren arabera, eta dagokion akta egingo da, enpresa esleipendunak ere sinatuta.
- Enpresa esleipendunak egindako faktura, bere zuzendaritza teknikoaren ziurtagiria eta SEFPSAren zuzendaritza teknikoaren edo bere filialaren aktarekin batera, azken horren gerentziara bidaliko da, eta hark, hala badagokio, adostasuna emango du eta ordaindu egingo du.
- SEFPSAren gerentziak edo bere filialak, ados daudela ezarrita, dokumentazio hori SEFPSAren administrazio sailera edo haren filialera eta LIGAren administrazio sailera bidaliko du, dagokion ordainketa egin dezan, LIGAren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi ondoren.

e) SEFPSAren informazioa LIGARI:



SEFPSAren gerentziak edo bere filialak, obra egin eta fakturatzeko den bitartean, beharrezko txostenak egingo dizkie LIGA osatzen duten dagokien organoei eta, bereziki, LIGAK horretarako izendatutako batzorde delegatuari edo azpibatzaileari.

VIII

Dokumentazioaren artxiboa

Edozein proiektu edo aurrekontu buruzko dokumentazio guztia SEFPSAren artxibatuko da, eta haren kopia LIGAren administrazio sailean, enpresa esleipendunaren artxiboetan jatorrizko bigarren alea gordetzearen kalterik gabe.

FUTBOL PROFESIONALEKO LIGA NAZIONALEKO MATERIALAK BILDU, JASO ETA GORDETZEKO AKTA.

.....(e)n,(e)koren(e)(a)n

Data honen(a)(k) d(ir)enean, hauek BILDU dira:

- a) jauna/andrea,
(HORNITZAILEA) enpresaren izenean.
- b) jauna/andrea, SEFPSA ren izenean, obraren zuzendari tekniko gisa.
- c) jauna/andrea, KLUBaren izenean.
- d) jauna/andrea,
(ESTADIOAREN JABEA)(r)en izenean.

Bertaratuek agiri honi erantsita doazen orrietan zehazten den materiala ikuskatu eta kontabilizatu dute. Material hori (HORNITZAILEA) enpresak bildu du SEFPSAren(e)(a)n sinatutako kontratuari jarraituz.

Material-bilketa hori egiaztatuta, SEFPSAK horren harrera egiten du eta (HORNITZAILEAK) enpresak material horiek egoera onean daudela bermatzen du.

Bildutako materialak Liga Nacional de Fútbol Profesionalarenak bakarrik dira, hori baita obraren jabea obra behin betiko jaso eta onuradunari entregatu bitartean, eta SEFPSAK jaso ditu eta (HORNITZAILEAREN BILTEGIAK, KLUBAREN EDO UDALAREN ESTADIOA) geratzen dira. Horien gordailuzaina izango da, eta hori arduratuko da materialak egoera ezin hobean egoteaz. SEFPSAK ez du inolako erantzukizunik izango pilatutako eta utzitako material horien gainean. Material horiek obran jarriko dira obrak hasi bezain laster eta dagozkien partidetan, estadiorako onartutako obra-proiektuarekin bat.

Material hori, bai eta aipatutako obra-proiektuari dagokion guztia ere, ezin izango da erabili, edozein arrazoiengatik, estadioaren obra-proiekturako ez den beste helburu baterako, horren jabearen, hots, LIGA NACIONAL DE FÚTBOL PROFESIONALaren berriazko onarpen idatzizkoa denean izan ezik, zeinak edozein unetan erabaki ahalko baitu hori beste toki batean gordailutzea eta instalatzea, baita libreki erabiltzea ere.

Eta horrela ager dadin, bertaratuek Akta hau sinatu dute, materiala adierazi eta zehazten duten eranskinekin batera, adierazitako tokian eta egunean.

SEFPSA KLUBA HORNITZAILEA ESTADIOAREN JABEA





VII. LIBURUA

PROTOKOLO, PUBLIZITATE ETA USTIAPEN KOMERTZIALARI BURUZKO ERREGELAMENDU OROKORRA



VII. LIBURUA: LEHIAKETAREN PROTOKOLO, PUBLIZITATE ETA USTIAPEN KOMERTZIALARI BURUZKO ERREGELAMENDU OROKORRA

HITZAURREA

Lehiaketa Profesionalak estatuan nahiz nazioartean lortutako garrantzia dela eta, klub eta kirol-sozietate anonimoen eta LIGArekin beraren marka korporatiboaren garrantzi komertzialeko politika bat ezarri behar da, aurrerantzean horien aprobetxamenduen ikuspegitik egin daitezkeen ekintzen burutzea ekarriko dutenak.

Era berean, LIGArekin eta EFEFren artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, non ezartzen baita zein den lehiaketaren publizitatearen arloan LIGArekin bere eremu guztietan lotzen zaion erregulazioa, haren Estatutuetan edo Erregelamenduan araudi bat txertatutako delarik, bai eta klub eta kirol-sozietate anonimo batzuek beren ekipamenduetan txertatutako publizitatearen ondorioz jazo diren gorabehera jakin batzuk ere, beharrezkoa da klub eta kirol-sozietate anonimo horien publizitate-ustiapenaren oinarriak zehaztea, haien eskubideak ahalik eta gehien errespetatuta.

Beraz, Erregelamendu honek, klub eta kirol-sozietate anonimoen eskubide indibidualak ahalik eta gehien errespetatzeko printzipioan oinarrituta, lehiaketa profesionaleko partiduak jokatzeko protokolo-arau orokorrak ezartzen ditu, eta marka korporatiboa sustatzen du, baita bertan parte hartzen duten klub eta kirol-sozietate anonimoen ekipamendu ofizialeko publizitate-espazioen aprobetxamendua ere.

Ildo horretan, Erregelamendu Orokorren IV. Liburuko VI. Atalaren 32. eta 33. artikuluetan xedatzen den araudia garatzen du, futbol profesionalaren helburuak lortu eta betetzeko asmoz, maila sozioekonomiko ezberdinetan, ez bakarrik estatu mailan, baita nazioartean ere.

LEHEN KAPITULUA

VII.1. ARTIKULUA.- APLIKAZIO EREMUA

Araudi hau Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatutako lehiaketa guztiei aplikatuko zaie, bereziki LIGArekin Txapelketa Nazionalari. Horrek honako hauek dakartzan berekin: lehiaketako protokolo-arauak, jokalarien ekipamenduak, haien fabrikatzaileen publizitatea, klub eta kirol-sozietate anonimoen babesleak eta jokalekuaren inguruan laguntzen duten langileak.

VII.2. ARTIKULUA.- ESTADIOETAKO PROTOKOLOA

1.- LIGArekin Txapelketa Nazionalako kirol-ekitaldi guztietan, eta Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatutako beste edozein ekitalditan, ekitaldia egiten den estadioaren titularra den klubak edo kirol-sozietate anonimoak, egoki baderitzo, Lehen Mailako eta Bigarren Mailako klubak edo kirol-sozietate anonimoen bandera guztiak igo ahal izango ditu, hurrenez hurren, ekitaldi horretako banderarekin batera.

Klubak, kirol-sozietate anonimoen eta LIGArekin banderak dagozkien Mailako estadio bakoitzaren goiko eraztunean jarriko dira.

2.- Jokalariak jokalekura irteten direnean, eta partida hasi baino lehen, partida jokatzen den estadioaren titular den klub edo kirol-elkarte anonimoak egoki baderitzo, talde parte-hartzaileen banderak erakutsi ahal izango dira Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren banderarekin batera. Azken horren bandera erdian jarriko da, haren eskuinaldean etxeko taldearen bandera egongo da eta ezkerrean kanpoko taldearena egongo da.

VII.3. ARTIKULUA.-



Kirol-esparruko leihatilak dauden lekuan, bai eta bertara sartzeko ate bakoitzean ere, kirol-ekitaldia iragartzeko kartelak jarriko dira. Kartel horietan, LIGAREN Erregelamendu Orokorren IV. Liburuko 4. artikuluan xedatzen diren manuak jasoko dira gutxienez, ondo ikusteko moduan.

VII.4. ARTIKULUA.-

Atezainaren atzean, ateen alboetan, dagoen eremu bakoitzean, ekitaldia egiten den estadioaren titular den klub edo kirol-sozietate anonimo titularrak egoki baderitzo, LIGAREN logotipoa jarri ahal izango du haien ezker aldean, eta etxeko klubaren armarrak eskuinaldean, gehienez ere 150 cm x 150 cm-koa.

LIGAK emango ditu elkarrearen eta klub bakoitzaren logotipoak, zelai artifizialean margotuta modu homogeneoan txertatzeko, horretarako ezarritako tokietan.

VII.5. ARTIKULUA.-

Estadio bakoitzeko prentsa-aretoa, ondo ikusteko moduan, ekitaldia egiten den estadioaren titular den klubak edo kirol-sozietate anonimoak egoki baderitzo, LIGAREN logotipoa jar daiteke.

VII.6. ARTIKULUA.-

Jokalekuaren inguruan dauden prentsako langile, TBko operadore eta argazkilari guztiek LIGAREN identifikazio-petoa eraman beharko dute. Peto hori LIGAK zehaztuko du une bakoitzean, baina klub edo kirol-sozietate anonimoek publizitatea sar dezakete bertan, ekitaldia egiten den estadioaren titularra den klubak edo kirol-sozietate anonimoak egokitzen jotzen badu.

VII.7. ARTIKULUA.-

Aldaketen taulek LIGAREN logotipoa eraman beharko dute ezker aldean, eta klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren armarrak eskuinaldean.

BIGAREN KAPITULUA

VII.8. ARTIKULUA.- EKIPAMENDUA

1.- Ekipamenduak ondoren aipatzen diren arropa eta artikulak guztiak biltzen ditu. Hauek dira:

- a) zelaiko jokalariek,
- b) atezainak,
- c) ordezkoak,
- d) entrenatzaileak,
- e) koadro teknikoetako eta zerbitzu-taldeko langileak: medikuak, masajistak eta taldearen laguntzaileak.
- f)

2.- Aipatutako pertsonak Erregelamendu honetako xedapenen mende egongo dira lehiaketako partidak jokatzen diren bitartean, baldin eta jokalekuan edo inguruetan badaude.

3.- Xedapen hauek ez zaizkie aplikatuko oinetakoei eta baloiei.

4.- Hauek dira ekipamendua osatzen duten jantziak:

- a) Klubaren kamiseta



- b) Galtzak
- c) Galtzerdiak eta zango-babesak
- d) Galtza termikoak
- e) Taldeko kapitainaren besokoa
- f) Txandal-jaka
- g) Txandal-galtzak
- h) Berotze-petoa
- i) Anoraka
- j) Zira

VII.9 ARTIKULUA.- PUBLIZITATEAREN ONARPENA

Klubek eta kirol-sozietate anonimoek lehiaketan erabiliko dituzten bi ekipamendu ofizialen eredu bat bidaliko diote LIGAREN Legezko Zuzendaritzari, publizitatea Erregelamendu honetako araudira egokitzen den aztertzeko.

Publizitatea Erregelamendu honetako xedapenetara egokitu beharko da beti, eta LIGAK ez badu hori onartzen, ezin izango da erakutsi.

Klub edo kirol-sozietate anonimo batek Erregelamendu honen aurkako publizitatea erabiltzen badu, zehapen espediente bat izapidetuko da LIGAREN Estatutuei jarraituz.

VII.10 ARTIKULUA.- ZELAIKO JOKALARIAK ETA ATEZAINAK

Joko-ekipamenduak (kamiseta, galtzak eta galtzerdiak) kluba edo kirol-sozietate anonimoa identifikatzeko koloreak izan beharko ditu jantzi horietako bakoitzaren azalera osoan.

Kirol-jantzietan agertzen diren jokalaria izena eta zenbakiak eta klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren, babeslearen edo publizitatearen izena izango dira klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren identifikazio-kolorea ez den bestelako kolore batekoak, eta ondo ikusteko moduan egon beharko dira.

Atezainaren ekipamenduaren koloreak argi eta garbi bereizi behar dira zelaian diren gainerako jokalariaengandik.

Klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren bigarren ekipamendu ofiziala argi eta garbi bereizi behar da lehenengotik. Kolore berberak erabil daitezke, baina alde nabarmena egon behar du bien artean.

VII.11. ARTIKULUA.- ZENBAKIAK

1.- Erraz irakurtzeko moduko zenbaki batek kamisetaren dortsalean zentratuta egon behar du. Zenbakiaren zifrek 25 cm izan behar dituzte.

2.- Erraz irakurtzeko moduko zenbaki bat jarri behar da prakaren aurreko aldeko eskuineko aldean. Zifrek 10 cm x 15 cm neurtu behar dute.

3.- Zenbakiaren koloreak argi eta garbi kontrastatu behar dira ekipamenduaren koloreekin, edo hondo neutro batean txertatuta egongo dira. Kolore hori zelaiko eta telebistetako ikusleek ezagutzeko modukoa izango da.

4.- Zenbakien diseinua librea da.

VII.12 ARTIKULUA.- JOKALARIAREN IZENA

1.- Jokalari-zerrendan agertzen den jokalaria izen-deiturak kamisetaren atzealdean agertu beharko du, zenbakiaren gainean, hori baino 7,5 cm gorago.



2.- Jokalariaren izen-deiturak 7,5 cm izan behar dute, gehienez, eta kolore berekoak izan behar dute.

3.- Jokalariaren izena kamisetaren koloreekin egiaztatu behar da argi eta garbi, edo hondo neutroan txertatuta agertuko da.

4.- Jokalariaren izen-abizenetako karaktereetan ez da publizaterik edo marka identifikatzen duen beste elementurik jarriko.

VII.13 ARTIKULUA.- ORDEZKOAK, ENTRENATZAILEAK ETA KOADRO TEKNIKOAK

Ordezko jokalariek, entrenatzaileak eta laguntzaile teknikoek ezin izanen dute beren klubeko joko ekipamendua erakutsi partidan zehar, arbitroen taldean nahasmendurik gerta ez dadin.

VII.14 ARTIKULUA.- KLUBAREN EDO KIROL-SOZIETATE ANONIMOAREN IKURRA ETA IZENA

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimoaren ikur edo armarri ofiziala behin bakarrik agertuko da kamisetaren gainean, behin bakarrik galtza gainean eta behin bakarrik galtzerdi bakoitzaren gainean.

2.- Klubaren armarriak edo ikur ofizialak ez du inolako publizaterik eramango bertan, eta kamisetaren aurrealdean, bularraren parean jar daiteke, erdian edo ezkerraldean; galtzaren eskuineko zangoaren aurrealdean, jokalariaren zenbakiaren gainean; galtzerdietan, berriz, libre aukeratutako ageriko leku batean jarriko da.

3.- Klub edo kirol-sozietate anonimoaren armarriaren edo ikur ofizialaren gehieneko azalera 100 cm²-koa izango da kamisetan, 50 cm²-koa prakaren eskuineko aldean eta 25 cm²-koa galtzerdietan.

4.- Ekipamenduaren gainerako jantzietan, (8.4 art.), klubaren armarriaren edo ikurraren kokalekua libre erabakiko da.

HIRUGARREN KAPITULUA

VII.15. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA

1.- Klub eta kirol-sozietate anonimoen, LIGAREN eta kirol-materialaren fabrikatzaileen izenak, laburdurak, siglak, armarriak, ikurrak edo logotipoak erakustea edo erreproduzitzea ez da publizitatetzat hartzen, nahiz eta Erregelamendu honetan ezarritako arauei jarraiki erabili beharko diren, Publizitateari buruzko Lege Orokorrean eta araudi osagarrian ezarritako xedapenekin bat etorrira.

2.- Ez da onartuko legearen, moralaren, ohitura onen, ordena publikoaren eta etikaren aurkako ideia politiko, erlijioso edo arrazistei buruzko publizaterik.

3.- Debekatuta dago indarrean dauden legeek baimentzen ez duen publizitate oro.

VII.16. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA JOKALEKUAN ETA INGURUAN

1.- Jokalekuaren inguruan, lurzoruan edo zelaian eta hura mugarriz duen lerrotik 100 cm-ra, publizitate horizontala jarri ahal izango da, horrek jokalarientzat arazo edo arrisku fisikorik ez badakar.

2.- Eremu teknikoko aukietan eta horien babesetan publizitatea jarri ahal izango da, ikusleei jokoa ikustea galarazten ez badie.

VII.17. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA EKIPAMENDUETAN



Erregelamendu honetan zehaztutako ekipamenduaren publizitate-espazio bakoitzean, babesle baten produktu identifikatzailearen izena, marka, logotipoa eta/edo izena txertatu ahal izango da.

Erregelamendu honetan zehazten diren publizitate-espazioetatik kanpo ezin izanen da inolako publizitaterik erakutsi edo eraman.

Partidu batean bi klubek babesle bera badute, kanpoko taldeak haren marka, logotipoa edo izena aldatu ahal izango du, eta haren ordeztu produktu identifikatzaile bat izendatu, betiere Erregelamendu honetan ezarritako arauak betez.

VII.18. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA JOKO-EKIPAMENDUAN

1.- Babesleak kamisetan publizitatea eraman ahal izango du zehazten den espazio bakoitzean, era honetan:

- a) Aurrean edo aurrealdean, 220 cm² gainditzen ez dituen espazioa, horizontalki eta bularrean zentratuta.
- b) Aurrean edo aurrealdean, 220 cm² gainditzen ez dituen espazioa, bertikalki kamisetaren alde batean.
- c) Kamisetaren bizkarrean, espazio bat, modu horizontalean eta zentratuta, jokariaren zenbaki identifikatzailearen azpitik, 220 cm²-tik beherako azalera duena.
- d) Kamisetaren lepoan, atzeko aldean, espazio bat, modu horizontalean eta zentratuta, 20 cm²-ko tartea gainditu gabe.
- e) Kamisetaren ezkerreko mahukan, 110 cm² gaindituko ez duen espazio batean, publizitatea jarri ahalko da.

Erabilitako karaktereek ez dute 10 cm-ko altuera gainditu behar a), b) eta c) letretan ezarritako espazioetarako, eta 2 cm-ko altuera d) letrako espaziorako.

Ezin izango da ez publizitaterik ez idazkunik erakutsi jokariak jokorako kamisetaren azpian eramaten duen barruko elastikoan.

2.- Jolas-ekipamenduko galtzak direnean, publizitatea jarri ahal izango da haren atzealdean eta gerriaren edo elastikoaren parean, zentratuta, 220 cm²-ko azalera gainditzen ez duen espazio batean.

Era berean, ezkerreko zangoaren aurrealdean, fabrikatzailearen logotipoaren edo markaren gainean, publizitatea sartzen ahalko da 120 cm² gaindituko ez duen espazio batean. Publizitate hori modu horizontalean edo bertikalean jarri daiteke.

VII.19. ARTIKULUA.-

1.- Kirol-ekipamenduaren fabrikatzailearen marka edo logotipoa galtzaren ezkerreko zangoaren aurrealdean txerta daiteke, 12 cm² gaindituko ez duen espazio batean; eta kamisetan, berriz, 20 cm² baino txikiagoa den azalera batean, babeslearen markaren gainetik, bularraren ezkerreko aldean.

2.- Fabrikatzaileak honela txerta dezake bere logotipoa ekipamenduan:

- a) Kamisetan:
 - mahukaren ertzeraino edo elastikoaren gainean; edo
 - mahuka bakoitzaren kanpoko josturan zehar, lepotik mahukaren ertzeraino; edo
 - kamisetaren kanpoko josturan zehar, mahuka elkartzen denetik haren beheko ertzeraino.



b) Galtzetan:

- zango bakoitzaren ertzaren edo elastikoaren gainean; edo
- kanpoko alboko josturetan zehar.

c) Galtzerdietan:

- horizontalki, galtzerdi bakoitzaren gainaldean; edo
- horizontalki, orkatilaren gainaldean.

3.- Fabrikatzailearen logotipoaren gehieneko zabalera, kamisetaren eta galtzaren ertzetan edo ertz elastikoetan eta josturetan, ezin izango da 10 cm baino handiagoa izan, eta 5 cm baino handiagoa galtzerdietan.

4.- Fabrikatzailearen marka edo logotipoa behin bakarrik sartu ahal izango da txano eta eskularruetan, eta publizitate-tartea ez da 25 cm² baino handiagoa izango.

5.- Fabrikatzailearen izena behin bakarrik jarri ahal izango da atezainaren eskularru bakoitzean, baita txapelean ere, gehienez ere 25 cm²-ko azalerarekin.

Fabrikatzailearen logotipoa, marka eta izena batera jarrita ez da 25 cm²-ko azalera gaindituko.

VII.20. ARTIKULUA.-

1.- Klub edo kirol-sozietate anonimoaren armarria edo ikurra behin bakarrik agertuko da kamisetan, eta ez du inolako publizitaterik izango bere karaktereetan, ezta galtzetan eta galtzerdietan ere.

- a) Kamisetan aurrealdeko ezker aldean jarri behar da, edo zentratuta da, bularraren parean, babeslearen markaren gainetik, eta gehienez ere 100 cm²-ko azalera izan behar du.
- b) Galtzetan eskuineko zangoaren aurrealdean egonen dira, jokalariaren identifikazio-zenbakiaren gainetik, 50 cm²-ko gehieneko azalerarekin, gehienez.
- c) Galtzerdietan, edonon koka daiteke, eta gehienez ere 25 cm²-ko azalera izango dute.

2.- Klubaren izena jar daiteke kamisetaren atzeko aldean, jokalariaren identifikazio-zenbakiaren gainetik (110 cm², gehienez).

3.- Jokalariaren izena kamisetaren atzeko aldean jarri behar da, kamisetaren identifikazio-zenbakitik 7,5 cm gorago, gehienez ere 200 cm²-ko azalerarekin.

4.- LIGAREN logotipoa edo anagrama kamisetaren eskuineko mahukan sartu behar da, Lehen eta Bigarren Mailako Liga Nazionaleko aurreko edizioko txapeldunaren kasuan izan ezik. Azken horrek horretarako berariaz diseinatutako logotipoa jarriko du. Anagrama edo logotipo horrek 70 x 100 mm-ko neurriak izanen ditu, eta LIGAK une bakoitzean ezartzen duen eskuliburu korporatiboaren arabera diseinatuko da. Ez du publizitaterik eramango.

VII.21. ARTIKULUA.-

Aurreko 8.4.a), b), c), d) eta e) artikuluetan aipatzen ez diren kirol-jantzietan, partida jokatu aurretik, jokatu bitartean eta jokatu ondoren, bertan sartu ahal izango da, fabrikatzailearen logotipoaz edo markaz gain, babesle bakar baten marka edo izena, publizitate-espazioaren azalera 220 cm² baino handiagoa izan gabe.



Arau hori jokalekuaren inguruan dagoen klubaren edo kirol-sozietate anonimoaren talde teknikoari aplikatuko zaie.

VII.22. ARTIKULUA.- EKIPAMENDUAREN ONARPENA ETA HORREN PUBLIZITATEA

LIGAK antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzen duten klubek eta kirol-sozietate anonimoek beren ekipamenduetan erakutsi beharreko babesleen diseinua edo publizitate-eredua aurkeztuko dute Legezko Zuzendaritzan, onetsia izan dadin, LIGAREN Estatutuen 23.15 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hala badagokio. Onartutzat joko da 5 eguneko epean erantzunik ez badago.

Lehiaketan zehar babeslea aldatzen bada, klubak edo kirol-sozietate anonimoak publizitatearen eredua edo diseinua aurkeztu beharko du, hala badagokio, onartua izan dadin.

LAUGARREN KAPITULUA

VII.23. ARTIKULUA.- LEHIAKETAREN USTIAPEN KOMERTZIALA

Kluben eta kirol-sozietate anonimoen banakako eskubideak kontratatzean, itun-askatasuna ukatu gabe, lizentziadunak edo lagapen-hartzaileak LIGAREN eskubideak erabat errespetatzeko klausula bat ezarri beharko da, Estatutuen 3. artikuluan eta Erregelamendu Orokorren 32. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraituz. Gauza bera egingo da LIGAK klubek eta kirol-sozietate anonimoen banakako eskubideak kontratatzen dituenetan.

VII.24. ARTIKULUA.-

LIGAREN lizentziadun produktu guztiek LIGAREN segurtasun-etiketa ofiziala izan beharko dute. Klubek eta kirol-sozietate anonimoen lizentziadun produktuek LIGAK ezarritako segurtasuneko etiketa ofiziala eraman ahalko dute, dagokion klub edo kirol-sozietate anonimoak egoki baderitzo.

VII.25. ARTIKULUA.-

Erregelamendu honetan ezarritako xedapenak urratuz gero, dagokion diziplina-espeditentea izapidetuko da, LIGAREN Estatutuetan eta Erregelamendu Orokorrean jasotako prozeduraren arabera.

INTERPRETAZIO-XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Erregelamendu honetako artikuluetan agertzen den "AHALKO DA" edo "AHAL IZANGO DA" terminoa "klubek eta kirol-sozietate anonimoen nahierara" interpretatu behar da.

BIGARRENA.- Erregelamendu honek aipatzen duen LIGAREN logotipoa instituzionala da, eta bertan ezin da inolako publizitaterik erakutsi.





VIII. LIBURUA

KLUBEN/KIROL-SOZIJETATE ANONIMOEN KATEGORIA- JAITSIERAREN ONDORENGO KONPENTSAZIO EKONOMIKORAKO ERREGELAMENDUA



VIII. LIBURUA: KLUBEN/KIROL-SOZIEATE ANONIMOEN KATEGORIA-JAITSIERAREN ONDORENGO KONPENTSAZIO EKONOMIKORAKO ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

Liga Nacional de Fútbol Profesionalean ("LIGA") afiliatutako klub/KSA gisa estatuko izaera profesionaleko futbol-lehiaketetan parte hartzeko eskubideak eskubide ekonomiko nabarmenkiro handiak sortzen ditu, eta, ondorioz, parte hartzen duen klubaren/KSAren baliabideak handitzen dira, lehiaketan parte hartzearen ondorioz.

Aitzitik, klub/KSA bat kategoriaz jaisten bada, galdu duen kategorian horretan egoteagatik zituen eskubide eta itxaropen ekonomikoak osorik edo zati batean galtzen ditu. Egoera hori arintze aldera, VIII. liburu honetan konpentsazio ekonomikoaren araubide bat erregulatu da urteetan zehar, kategoriaz jaisten diren klubei edo kirol-sozietate anonimoiei (KSA) emateko. Araubide horretan jasotzen dira konpentsazio horien zenbatekoa zehazteko arauak, eta han definitzen dira, orobat, haiek eskuratzeko prozedura eta baldintzak, baita errenboltoa egitekoak ere, hala badagokio.

Kategoriaz jaisteagatik klubek konpentsazio-funts batean ekarpena egiteko betebeharra lege bihurtu zen Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurri buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuaren bitartez. Ildo horretan, 5/2015 Errege Lege Dekretuak ezartzen du lehiaketetan parte hartzen duten entitateek nahitaezko ekarpen bat egin behar diotela konpentsazio-funts bati, ikus-entzunezko eskubideak batera merkaturatzeagatik diru-sarreraren kargura, futbol profesionaleko lehiaketan parte hartzen duten eta kategoriaz jaisten diren kirol-erakundeei laguntzeko. LALIGAk bere barne-araudian sartu du betebeharrak hori, estatutu sozialen eta LALIGAn Erregelamendu Nagusiaren XI. liburuaren bidez.

Ildo horretan, LALIGAk erregelamendu bidez arautzen du konpentsazio-funts horren banaketa, 5/2015 Errege Lege Dekretua garatzeko zenbait arau ematen dituen urtarrilaren 12ko 2/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedaturikoa betez. Hori horrela den heinean, Erregelamendu Nagusiaren VIII. liburu hau bereziki bideratua da manu hori errealitate bilakatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta inguruabarrak arautzera.

Aurrekoak aintzat hartuta, jarraian zehazten diren arauen helburua da prozedura bat ezartzea eta haien bidez zehaztea zer zenbateko ordaindu beharko zaion Konpentsazio Funtsetik denboraldi bakoitzean kategoriaz jaisten den klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzari, baldin eta kategoriaz jaisten badira, betiere liburu honen I. eranskinean aurreikusitako jaitsieragatik konpentsazioa kalkulatzeko prozedurari jarraikiz.

VIII.1. ARTIKULUA.- KATEGORIAZ JAISTEAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOKO FUNTSA

1.- Kategorian bat uzten duten klubek/KSAek kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango dute kategorian jaisteagatik, Liburu honetan arautzen diren baldintzetan, baldin eta hori kirol-arrazoiengatik bakarrik gertatzen bada.

2.- Estatutu Sozialetan eta LIGAn Erregelamendu Orokorren XI. Liburuan ezarritakoarekin bat etorritik, afiliatutako klub/KSA bakoitzak LIGAn aldetik ikus-entzunezko eskubideak batera komertzializatzearen ondorioz lortzen dituen diru-sarreraren %2,5 konpentsazio-funts hori finantzatzera bideratu beharko du, eta kategoriaz jaisten diren klubak/KSAk izango dira konpentsazio-funts horren onuradunak.

3.- Kopuru horren %90 Lehen Maila galtzen duten taldeentzat izango da, eta gainerako %10a Bigarren Maila galtzen dutenentzat.



4.- Behin klub/KSA bakoitzak konpentsazio-funtsera bideratu behar dituen diru-sarreraren %2,5eko zenbatekoa banakatuta, zenbateko hori LIGARI ordainduko zaio, egutegi honen arabera:

- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko irailaren 30ean.
- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko urriaren 30ean.
- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko azaroaren 30ean.
- Gainerako %25a, indarreko denboraldiko abenduaren 30ean.

5.- LIGAREN Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoak kopuru hori banatzea proposatuko dio Batzorde Delegatuari, parametro hauen arabera:

a) Bigarren "A" Mailara jaisten diren klubei/KSAei dagokienez, kontuan hartuko dira Lehen Mailan jarraian aritu izan diren urteak, azken denboraldietako aurrekontuak eta azken denboraldietan ikus-entzunezko eskubideen bidez jasotako zenbatekoak.

Igoerak eta jaitsierak elkarren segidan gertatzen badira, 1. Eranskinean zehazten diren murrizketak aplikatuko dira.

b) Klub/KSA bakoitzari ordaindu beharreko zenbatekoa Liburu honen 1. Eranskinean aurreikusitako egutegiaren arabera ordainduko da.

Artikulu honetan kategorია jaisteagatik aurreikusten den konpentsazio ekonomikoaren aplikazio praktikoa Liburu honen 1. Eranskinean arautzen da.

6.- LIGAREN Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoak ahalmena du hitzartutakoa interpretatzeko eta Liburu hau aplikatzeko behar diren egintzak gauzatzeko.

VIII.2. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOAREN ZENBATEKOA.

LIGAREN Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoak zehaztuko du zenbat jaso behar duen klub/KSA bakoitzak LIGAREN aldetik mailaz jaisteagatik. Horretarako, Liburu honen 1. Eranskinean aurreikusitako kalkulu-parametroak eta baldintzak erabiliko ditu.

Baldin eta, 1. eranskinean aurreikusitako kalkulu-prozedurari jarraikiz, kategoriaz jaitsitako klubei edo kirol-sozietate anonimoei ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa bada kategoría bakoitzerako aurreikusitako jaitsiera-datan Konpentsazio Funtsean metatutako zenbatekoa baino, aurreko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, LALIGAK egun horretara arte Konpentsazio Funtsean metatutako zenbatekoa bakarrik ordainduko du, eta hurrengo denboraldietan ordaintzeko utziko du klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzari legokiokeen soberakina, harik eta Konpentsazio Funtsek behar adina funts lortu arte. Aurrekoa gorabehera, aurreikus badaiteke Konpentsazio Funtsean behin-behineko defizita izango dela eskubideei aurre egiteko abian den denboraldiaren amaieran, LALIGAK ahaleginik handiena egingo du, 9. artikuluan adierazitako baldintzetan, Konpentsazio Funtsean zenbatekoa areagotzeko denboraldi horretan bertan eta, hartara, gerta litekeen defizita murrizteko.

Kategoriaz jaitsi den klub/KSA bakoitzari ordaintzeko geratzen den zenbatekoa zehazteko, jaitsi diren klub/KSAen konpentsazio-eskubideen guztizkoarekiko den konpentsazio-eskubidearen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Baldin eta Konpentsazio Funtsean ez badago nahikoa fondo metatuta kategoriaz jaitsitako klub edo kirol-sozietate anonimoen hurrengo denboraldietako ordainketa-eskubideak eta aurrekoetan jaitsitakoena ordaindu ahal izateko, lehenik eta behin aurreko denboraldietan jaitsitako klubei edo kirol-sozietate anonimoei egingo zaie ordainketa (denboraldirik zaharrenek izango dute lehentasuna), eta azken denboraldian jaitsitakoei, berriz, aurreko paragrafoan aipaturiko proportzionaltasun-



irizpide bera aplikatuko zaie, kontuan harturik betiere inplikaturiko klub edo kirol-sozietate anonimo guztiak eta haietako bakoitzak une horretan jasotzeke dauzkan zenbatekoak.

Aurreko guztia Estatutuetan eta Liburu honetan jasotako gainerako kobrantza-baldintzak betetzearen mende dago.

VIII.3. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOA ESKATZEA.

Kategoriaz egiazki jaitsi den klubak/KSAk konpentsazio ekonomikoa eskatu ahal izango dio LIGArri, Liburu honen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta:

- a) mailaz jaistearen arrazoia ez bada izan baldintza ekonomiko eta sozialak ez betetzea, jokalariei zorrak ez ordaintzea, azpiegiturak arautzen dituen araudiagatik, diziplina-zehapenengatik edo gisakoengatik.
- b) uztailaren 9ko 22/2003 Legean edo hura ordeztzen duen arauan ezarritako ondorioetarako, hartzekodunen konkurtsoan ez badago edo konkurtsoan sartzea ez badu eskatu.

Hemen aurreikusitako ondorioetarako, eta Liburu honen 1. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, mailaz jaitsi egin dela ulertuko da LIGAK lehiaketa bakoitzean inskribatutako klubuen/KSAen behin betiko zerrenda jasotzen duen zirkularra argitaratzen den unean.

VIII.4. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOAREN ESKAERAREN EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Kategoria galtzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoa lortu nahi duen klubak/KSAk LIGAREN Txapelketa Nazionalaren azken jardunaldia amaitu eta hurrengo egunean aurkeztu ahal izango du eskaera, eta inoiz ez kategoria utzi eta hurrengo 20 egun baliodunen ondoren.

Konpentsazio ekonomikoaren eskaera LIGAREN Batzorde Delegatuari aurkeztu beharko zaio, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuta:

- a) Baturen eta saldoen balantzea, eskaera egin baino 30 egun lehenago itxi izan dena.
- b) Hartzekodun guztien zerrenda, 10. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera ordenatuta, behar bezala identifikatuta, zorraren zenbatekoa eta arrazoia adierazita, bai eta zorraren galdagarritasuna ere, Erregelamendu Orokorren X. Liburuko 16. bis artikuluan sartzen direnak berariaz aipatu eta bereizita.
- c) Kirol Kontseilu Gorenari aldizka bidaltzen zaion kontabilitateko informazioaren kopia, eskaera egin aurreko denboraldian, kirol-sozietate anonimoei buruzko uztailaren 16ko 1251/1999 Errege Dekretuaren 20. artikuluan edo horren ordezkotik araudian ezarritakoa betez.
- d) Zerga Administrazioan, Gizarte Segurantzaren eta autonomia erkidegoetako ogasun publikoetan egon daitezkeen zor likidoak, mugaeguneratuak eta galdagarriak edo halakorik ez dutenak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Klubak/KSAk Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin izan ditzakeen zor likidoen, mugaeguneratuen eta eskagarrien ziurtagiria, edo halakorik ez dagoela egiaztatzen duena.



- f) Eskatzailearen kontra aurkezten diren erreklamazio judizial, administratibo, instituzional edo bestelakoen zerrenda eta horien egoeraren azalpena.
- g) Klubak/KSAk azken hamar urteotan Lehen Mailako eta Bigarren Mailako kategorietan zein denboralditan parte hartu duen adierazten duen ziurtagiria.

VIII.5. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSASIZIO EKONOMIKOAREN ESKAERAREN TRAMITAZIOA

Batzorde Delegatuak eskaera jaso ondoren, egokitzat jotzen dituen txostenak eta auditoriak eskatzen ahalko ditu, aurkeztutako dokumentazio eta informazioa egiaztatzeko.

Eskaera aurkezteko epea bukatu eta gehienez ere 30 eguneko epean, Batzorde Delegatuak eskatzaileari jakinarazi beharko dio, ebazpen arrazoitu baten bidez, kategoria jaistearen ondoriozko konpentsazio ekonomikorako eskubidea onartu edo ukatu zaion.

Kategoria galtzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikorako eskubidea onesten duen LIGArekin Batzorde Delegatuaren ebazpenean, konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa adieraziko da.

Kategoria jaistearen ondoriozko konpentsazio ekonomikorako eskubidea onartzeko, eskatzailea benetan jaitsi beharko da kategoriaz. Hemen aurreikusitako ondorioetarako, jaitsiera hori LIGArekin Batzorde Delegatuak dagokion lehiaketa profesionalean inskribatutako klubak/KSAen behin betiko zerrenda argitaratzen duen unean gertatzen dela ulertuko da.

Administrazio Publikoekin, LIGArekin, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin, X. Liburuko 16. bis artikuluan adierazitako finantza-eragiketak dituzten finantza-operadoreekin eta gainerako klubekin/KSAekin dituzten obligazioen ordainketan egunean egonez gero, klubak/KSAk aurrerakin bat eskatu ahal izango du kategoria jaisteagatiko balizko konpentsazio ekonomikoaren kontura, jaitsieragatiko konpentsazio ekonomikoaren eskaerarekin berarekin batera, baldin eta, salbuespenezko inguruabarrak direla eta, bere soldata-betebeharrak epe barruan bete ezin baditu.

Batzorde Delegatuak 15 egun balioduneko epean ebatziko du aurkeztutako aurrerakin-eskaera, eskaera aurkezten denetik kontaktzen hasita. Aldeko ebazpena eman ez gero, aurrerakinaren zenbatekoa ordainduko du, aurrerakina ordaintzeko eskaera onetsi dela jakinarazi ondoko 10 egun balioduneko epean.

Aurrerakina eman eta, azkenean, kategoria jaisteagatiko konpentsazio ekonomikoaren eskaera ukatzen bada, aurreratutako zenbatekoa zor likidotzat hartuko da, mugaeguneratutako zor likidotzat eta murrizketagatiko konpentsazio ekonomikoaren eskaera ukatu dela jakinarazten den egunetik eskatu beharrekotzat, eta klub/KSA zordunak berehala itzuli beharko dio LIGARI.

VIII.6. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSASIZIO EKONOMIKORAKO ESKUBIDEA FORMALIZATZEA

Kategoria galtzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikorako eskubidea LIGAK onartu duela jakinarazi eta hurrengo 30 eguneko epean, gehienez jota, aldeek dagokion kontratua sinatuko dute. Kontratu horretan, LIGArekin Batzorde Delegatuaren ebazpenean ezarritako baldintzak –lotesleak izango dira– jasoko dira, eta eman beharreko bermeak formalizatuko dira.

Epe berean, klubak/KSAk ordainketa jaso izanaren egiaztatzea emango du, aplikatu beharreko araudiaren arabera.



Artikulu honetan aurreikusten ez den orotan, Liburu honen 1. Eranskinean ezarritakoa aplikatuko da.

VIII.7. ARTIKULUA.- KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKORAKO ESKUBIDEA ORDAINTZEA

Kategoria galtzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa klubari/KSAri ordainduko zaio, baldin eta hartzekodunekiko betebeharrak ekonomikoak eguneratuta baditu, interesdunak eskaeran emandako datuen eta LIGAREN datuen arabera.

Bestela, LIGAK kendu egingo ditu klubak/KSAk zor dizkion zenbatekoak, eta zuzenean ordainduko ditu bere gain hartutako zor likidoak, mugaeguneratuak eta eskagarriak, indarrean dagoen legediak eta, hala badagokio, Estatutuaren aurreikusitakoak eragindako kobrantzaren lehentasun-ordenari jarraituta.

Legezko aurreikuspenak kontuan hartuta Estatutuak aplikagarriak badira, kobrantzan lehentasun-hurrenkera hau errespetatuko da:

- a. Administrazio publikoekin dituzten zorrak.
- b. LIGAREkin dituzten zorrak.
- c. Espainiako Futboleko Errege Federazioaren dituzten zorrak.
- d. LIGAREN kirol-sozietate anonimoekin edo klubekin dituzten zorrak.
- e. Espainiako Futbolarien Elkartearen - Futbol Profesionaleko Liga izeneko Batzorde Mistoak aintzatetsitako jokalariekin dituzten zorrak.
- f. X. Liburuko 16. bis artikuluko eremu subjektibo, material eta denborazkoan barne diren eragiketen ondoriozko zorrak.

Nolanahi ere, kluba/KSA Estatutuaren 59.4 artikuluan aurreikusitako lehiaketan parte hartzearen ondorioz eskubide eta emaitza ekonomikoak jasotzeko eskubiderik gabe geratzen bada, galdu egingo da kategoria galtzearen ondorioz konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

Artikulu honetan aurreikusten ez den orotan, Liburu honen 1. Eranskinean ezarritakoa aplikatuko da.

VIII.8. ARTIKULUA.- BESTE ALDERDI BATZUK

LIGAREN aurrekontuetan kategoria galtzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoaren aurreikuspena jaso beharko da, jokatu behar den denboraldiaren hurrengo denboraldiari dagokiona.

Liburu honetan jasotako konpentsazio ekonomikoaren ondorioetarako, LIGAK erregistro berezi bat eramango du klub/KSA bakoitzaren inguruabar guztien jarraipena eta kontrola egiteko.

VIII.9. ARTIKULUA.- LALIGAREN JARDUKETAK, KONPENTSAZIO-FUNTSEAN DEFIZITA IZANEZ GERO

2. artikuluan adierazitakoaren arabera, aurreikusten bada abian den denboraldiaren amaieran Konpentsazio Funtsean ez dela metatu behar adina fondo kategoria jaisteagatik konpentsazio ekonomikoak ordaintzeko —dela ordaintzeke daudenetarako, dela denboraldian bertan sor daitezkeenetarako—, LALIGA beharturik geratzen da ahalegin handiagoa egitera Konpentsazio Funtsean fondo gehiago emateko, ordainketa-obligazio horiei aurre egite aldera. Horretarako, estaldurako finantza-produktuak kontratatuko ditu (hala nola swap finantzarioak, aseguruak eta abar). Produktu horiek kontratatzeko zenbateko-mugari dagokionez, lku-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoak onetsitako Konpentsazio Funtserako azken zuzkiduraren % 15eko gehieneko kostua hartuko du bere gain gehienez LALIGAK. Salbuespen gisa, Batzorde Delegatuak ahalmena izango



du gehieneko zenbateko horri beste % 15eko igoera osagarri bat baimentzeko, baina merkatuaren egoerak hala eskatzen duenean bakar-bakarrik.

Funts-zuzkidura gehigarri hori, lehenik eta behin, ordaintzeke dauden zenbatekorik zaharrenak ordaintzeko erabili beharko da. Antzintasun berbera duten kasuetan, berriz, klub edo kirol-sozietate anonimo bakoitzaren artean banatu beharko da, 2. artikuluan aipatutako proportzionaltasun-irizpide berari jarraituz.

Amaitu berri den denboraldiko eta aurreko urteetako ordainketa-obligazio guztiak kitatu ondoren, Konpentsazio Funtsaren saldoa positiboa bada, LALIGArri aurretik ordaindutako zenbatekoa bueltatzeko baliatuko da —hau da, soberakin horrekin itzuliko zaio LALIGArri Konpentsazio Funtsa areagotzeko ordaindu duen zenbatekoa, baldin eta LALIGAk ildo horretako jarduerak egin baditu Konpentsazio Funtsari baliabide gehiago emateko defizit-urteetan eta itzultzeke dituenak itzultzeko—.

Merkatuaren egoera dela eta, LALIGAk ezin badu kontratatu estaldura bermatzeko finantza-produkturik artikulua honetan aurrez adierazitako baldintzetan denboraldiaren amaieran sor litekeen Konpentsazio Funtsaren defizita arintzeko, aurreko jarraiko denboraldian artikulua honetan zehaztutako estaldurako finantza-produktuak kontratatzeke erabilitako zenbatekoaren ekarpen baliokidea egingo dio Konpentsazio Funtsari. Edo, aurreko jarraiko denboraldian ezinezkoa izan bada estaldura bermatzeko finantza-produktuak kontratatzea, adierazitako aurreko denboraldian Konpentsazio Funtsari jarritako zenbatekoaren baliokidea den zenbateko bat bideratuko du Konpentsazio Funtsara.

VIII. LIBURURAKO XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Liburu honetan xedatutakoa Araudi honetako VIII. Liburuan jasotako Jaitsierako Laguntzen Erregelamendu indargabetuaren babesean sinatutako eta itzuli behar ez diren diru-laguntzak arautzen dituzten kontratuei dagozkien eskubideen eta betebeharren kalterik gabe izango da.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Bigarren Mailatik Lehen Mailara eta futbol ez-profesionaleko lehen kategoriatik Bigarren Mailara igotzen diren klubek/KSAek, igoera horren aurretik VIII. Liburu honetako 4. artikuluan adierazitako kategoria galtzeagatik konpentsazio ekonomikoa jaso izan badute 2015eko ekainaren 30a baino lehen, "Klubek/KSAek kategoriaz igotzeagatik eta jaisteagatik konpentsazio ekonomikoen erregelamendua" izenarekin 2016ko ekainaren 3ra arte indarrean egondakoa, kuota bat ordaindu beharko diote LIGArri lortutako igoeraren konpentsazio ekonomiko gisa, aipatu Liburuan ezartzen ziren zehaztapen eta baldintzekin bat.

Kategoria igotzeagatik konpentsazio ekonomiko horrek ez du zerikusirik LIGArri Estatutu Sozialen 55. artikuluko 3. atalean aipatzen den inskripzio kuotarekin.

Klubak/KSAk erabaki badu maila-igoeragatik konpentsazioaren ordainketa zatikatzea, VIII. Liburu honetako 3. artikuluan aurreikusitako zehaztapen eta baldintzen arabera, gorago adierazitako bertsioan, ez du beste konpentsazio ekonomikorik jasoko kategoria berriro uzteagatik, salbu eta dagokion eskabidean adierazten badu ados dagoela, artikulua horretan aurreikusitako etendura alde batera utzita, kategoria-jaitsieragatik konpentsazio ekonomiko berriaren xede diren zenbatekoak, edozeren gainetik, LIGArri bideratuak izan daitezten, aurreko kategoria-igoeragatik konpentsazioaren ordaintzeke dagoen zenbateko osorako, eta, horretarako, likidotzat, mugaeguneratutzat eta galdagarritzat jotzen badu.



Aukera hori ezin izanen da egin baldin eta kategoria jaisteagatiko konpentsazio ekonomiko berriaren zenbatekoa ez bada aski aurreko saldo ordaindu gabea osorik ordaintzeko. Kasu horretan, ez da konpentsazio ekonomiko berririk onartuko kategoria jaisteagatik.



ERANSKINAK

VIII. LIBURUKO 1. ERANSKINA: KATEGORIA GALTZEAGATIKO KONPENTSASIZIO EKONOMIKOAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA: KALKULU-PARAMETROAK ETA KONPENTSASIZIOAK ESLEITZEKO BALDINTZAK

Liburu honetan aurreikusitako ondorioetarako, "D" da Mailaz jaitsi diren klubek/KSAek LIGAtik hemen aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa jasotzen duten denboraldia.

Liburu honetan xedatutakoarekin bat, jarraian azaltzen dira kategorია galtzeagatik konpentsazio ekonomikoren aplikazio praktikoa arautzen duten printzipioak:

A.- Bigarren Mailara jaitsitako klubak/KSAk.

Bigarren Mailara jaitsitako klubek/KSAek honako konpentsazio ekonomikoa hau jasotzeko eskubidea izango dute jaitsieragatik:

1. Kopuru finko bat, Lehen Mailako guztizko ikus-entzunezko zenbateko garbien %0,315i dagokiona, klubek/KSAen ekarpenen betebeharrak kenduta, Estatutu Sozialen Bigarren Xedapen Gehigarrian 2015/2016 denboraldirako xedatutakoaren arabera, eta hurrengo denboraldietarako, berriz, Erregelamendu Orokorren XI. Liburuko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Kopuru aldakor bat, ikus-entzunezko eskubide garbiengatik –hau da, klubek/KSAek 2015/2016 denboraldirako, Estatutu Sozialen bigarren xedapen gehigarrian eta, hurrengo denboraldietarako, Erregelamendu Orokorren XI. Liburuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, egindako ekarpenak kenduta— azken bost denboraldietan klub/KSA bakoitzak jasotako ekarpenen %18koa izango dena, Lehen Mailan edo Bigarren Mailan edo futbol ez-profesionaleko lehen kategorian aritzen dela alde batera utzita.
3. Kopuru aldakor bat, klub/KSA bakoitzak lortutako diru-sarreraren arabera, ikus-entzunezko eskubideen ondoriozkoak barne. Kopuru horren batez bestekoaren %4,5 esleituko da, klub/KSA hori Lehen Mailan edo Bigarren Mailan edo futbol ez-profesionaleko lehen kategorian lehiatu den azken bost denboraldiak kontuan hartuta. Adibidez, D denboraldian jaso beharreko konpentsazioa kalkulatzeko, D-5etik D-1era bitarteko denboraldiak hartuko dira kontuan, biak barne.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira diru-sarrera guztiak, ezohikoak izan ezik —hurrengo paragrafoan aipatzen direnak kenduta—, jokalarien federazio-eskubideak besterentzearen ondoriozko gainbalio/minusbalio garbiarekin bat ez datozenak.

Horrenbestez, Kontabilitateko Plan Orokorra kirol-sozietate anonimoei egokitzeko arauak onartzen dituen 2000ko ekainaren 27ko Aginduaren terminologiaren arabera, negozio-zifraren zenbateko garbiarekin bat datozen diru-sarrerak soilik hartuko dira kontuan, gehi beste ustiapen-sarrera batzuetan sartutakoak, gehi, hala badagokio, ezohiko ibilgetu ukiezinaren besterentzeagatik edo bajengatik emaitza garbia. Ez dira zenbatuko beste ibilgetu batzuen besterentzearen ezohiko emaitzei dagozkienak.

4. Konpentsazio bat Lehen Mailan jarraian egoteagatik, Lehen Mailako guztizko ikus-entzunezko zenbateko garbien –hau da, klubek/KSAek 2015/2016 denboraldirako, Estatutu Sozialen bigarren xedapen gehigarrian eta, hurrengo denboraldietarako, Erregelamendu Orokorren XI. Liburuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, egindako ekarpenak kenduta— %0,0315 izango dena, kluba/KSA Lehen Mailara igo zenetik bertan egon izan den denboraldi bakoitzeko, gehienez ere 25 denboraldi kontuan hartuta.



5. Zenbateko finkoa eta kopuru aldakorrak aplikatuz, klub/KSA jakin batek Bigarren Mailara jaisteagatik jasoko duenaren balioa ez da izango Lehen Mailako ikus-entzunezko zenbateko garbi guztien %0,675 baino txikiagoa, klub/KSAren 2015/2016 denboraldirako, Estatutu Sozialen bigarren xedapen gehigarrian eta, hurrengo denboraldietarako, Erregelamendu Orokorren XI. Liburuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, egindako ekarpenak kenduta.
6. Klubei/KSAei ordaindu beharreko kopuruak konpentsazio-funtsaren zenbateko metatua gainditzen badu, Liburu honen 2. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.
7. Nolanahi ere, Liburu honen 7. artikuluan aipatzen diren murrizketak aplikatuko zaizkio konpentsazioa kobratzeko eskubideari.
8. Kategoriaz jaitsi diren klubek/KSAek egutegi honen arabera jasoko dute konpentsazioa:
 - Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko urriaren 30ean.
 - Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko azaroaren 30ean.
 - Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko abenduaren 30ean.
 - Gainerako %25a, indarreko denboraldiko urtarrilaren 30ean.

¹⁰ LIGAREN diruzaintza-egoera aztertu ondoren, Korporazioko Zuzendari Nagusiak klubei/KSAei konpentsatzeko ordainketa-egutegia aldatzea erabaki ahal izango du, batez ere hori aurreratzea, justifikatzen duten ezohiko inguruabarrak gertatzen badira. Nolanahi ere, ordaindu ahal izateko, klub/KSA hartzaileek liburu honetan ezarritako izapide eta baldintza guztiak bete beharko dituzte, aldez aurretik eta osorik.

9. Maiz jaitsi eta igotzen diren klubentzat/KSAentzat taula hauek aplikatuko dira:

D-1 DENBORALDIAREN AMAIERAN JAISTEN DEN "Y" KLUBA/KSA	
D denboraldia Bigarren Mailan	%100
D+1 denboraldia Lehen Mailan	-
D+2 denboraldia Bigarren Mailan	%66
D+3 denboraldia Lehen Mailan	-
D+4 denboraldia Bigarren Mailan	%100
D+5 denboraldia Lehen Mailan	-
D+6 denboraldia Bigarren Mailan	%66

*Eta horrela, hurrenez hurren

D-1 DENBORALDIAREN AMAIERAN JAISTEN DEN "Y" KLUBA/KSA	
D denboraldia Bigarren Mailan	%100
D+1 denboraldia Lehen Mailan	-
D+2 denboraldia Lehen Mailan	-
D+3 denboraldia Bigarren Mailan	%100

8. ataleko¹bigarren paragrafoa Xedapen Iragankor Bakarraren lehen idatz-zatiaren arabera sartu da Erregelamendu Orokorrean, eta aldi baterako indarra du.



B.- Futbol ez-profesionaleko lehen kategoriara jaitsitako klubak/KSAk.

1. Konpentsazio orokor bat ezarri da Bigarren Mailatik futbol ez-profesionaleko lehen kategoriara jaisten diren klubentzat/KSAentzat, denboraldi bakoitzean klubek/KSAek konpentsazio-funtsera egin beharreko ekarpenaren zenbateko osoaren %10 izango dena, Liburu honen 1. artikuluan eta Futbol Profesionaleko Ligaren Araudi Orokorren XI. Liburuan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Bigarren Mailatik futbol ez-profesionaleko lehen kategoriara jaisten diren klubek/KSAek arestian aipatutako "jaisteko laguntza" deitutakoa –bere garaian Lehen Mailatik Bigarren Mailara jaitsi delako– itzultzeko baldin badute, laguntza hori itzuli egingo dute berriro Lehen Mailara igotzen badira. Itzulketa klubak/KSAk Lehen Mailako kategoria horretan jokatzen duen lehen urtean egingo da.

Halaber, Lehen Mailatik Bigarren Mailara jaisteagatik diru-kompentsazioa jaso duten klubek/KSAek Liburu honetan aipatzen den konpentsazioa jasotzen jarraitu ahal izango dute, futbol ez-profesionaleko lehen kategoriara jaisten badira.

Hala badagokio, Lehen Mailara igotzen direnean ordainduko diote LIGARI VIII. Liburu honen 1. artikuluan, 2016ko ekainaren 3ra arte indarrean den bertsioan, "Klubek/KSAek kategoria igotzeagatiko eta uzteagatiko konpentsazio ekonomikoen erregelamendua" izenarekin aipatzen den konpentsazioa. Konpentsazio hori klubak/KSAk Lehen Mailako kategoria horretan jokatzen duen lehen urtean ordainduko da.

2. Diru kopuru hori zati berdinetan banatuko da kategoriaz jaitsi diren klubentzat/KSAentzat artean, eta ezingo da izan 1.250.000 euro baino gutxiago klub/KSA bakoitzeko.

Funts hori ez bada nahikoa aipatutako gutxienekoa ordaintzeko, Bigarren Mailara jaitsitako klubentzako/KSAentzako funtsera jo ahal izango da, edo, hala badagokio, aparteko ekarpena egin ahal izango da, LIGAK ezartzen duten irizpideen arabera. Edo, bestela, bi aukerak uztartu ahalko dira.

3. Nolanahi ere, Liburu honen 7. artikuluan aipatzen diren murrizketak aplikatuko zaizkio konpentsazioa kobratzeko eskubideari.

4. Klub/KSA bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa egutegi honen arabera ordainduko da:

- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko urriaren 30ean.
- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko azaroaren 30ean.
- Zenbateko horren %25, indarreko denboraldiko abenduaren 30ean.
- Gainerako %25a, indarreko denboraldiko urtarrilaren 30ean.

²() LIGAREN diruzaintza-egoera aztertu ondoren, Korporazioko Zuzendari Nagusiak kategoriaz jaitsi diren klubei/KSAei konpentsazioa ordaintzeko egutegia aldatzea erabaki ahal izango du, batez ere hori aurreratzeko, justifikatzen duten aparteko inguruabarrak gertatzen badira. Nolanahi ere, ordaindu ahal izateko, klub/KSA hartzaileek Liburu honetan ezarritako izapide eta baldintza guztiak bete beharko dituzte, aldez aurretik eta osorik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

4. ataleko²bigarren paragrafoa Xedapen Iragankor Bakarraren lehen idatz-zatiaren arabera sartu da Erregelamendu Orokorrean, eta aldi baterako indarra du.



Erregelamendu Orokorraren VIII. Liburua, orain arte indarrean egon den "Klubek/KSAek kategoria igotzeagatiko eta uzteagatiko konpentsazio ekonomikoen erregelamendua" izeneko, indargabetu egiten da.





IX. LIBURUA

**LEHIAKETA PROFESIONALEAN ARITZEKO BEHIN-BEHINEKO
LIZENTZIEN TRAMITAZIOAN EDO AURRETIAZKO BISAN
SORTZEN DIREN GATAZKAK EBAZTEKO ERREGELAMENDUA**



IX. LIBURUA: LEHIAKETA PROFESIONALEAN ARITZEKO BEHIN-BEHINEKO LIZENTZIEN TRAMITAZIOAN EDO AURRETIAZKO BISAN SORTZEN DIREN GATAZKAK EBAZTEKO ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

Kirol profesionalaren antolaketa, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen Zioen Azalpenean adierazten den bezala (urriaren 17ko BOE, 249. zk.), federazioek antolatzen duten kirolaren aldean tratamendu zehatz eta berariazkoa behar duen errealitatea da.

Jakina denez, lege horrek Liga Profesionalen figura ezartzen du lehen aldiz estatuko kirol-elkartegintzaren esparruan, 12. eta 41.4 artikuluen bidez, izaera profesionaleko eta estatu-mailako lehiaketa ofizialak antolatzeko erakunde arduradun gisa, eta autonomia organiko eta funtzional osoa dute parte diren federazio-erakundeekiko.

Lehiaketa profesionala jokatzeko lizentzien esparru juridiko zehatzera joz gero, aipatu legearen 32.4 artikulua honako hau adierazten du: *"Estatu mailako kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da dagokion Espainiako Federazioak emandako kirol-lizentzia izatea, erregelamenduz ezarriko diren baldintza eta betekizunei jarraituz"*.

Antolaketa- eta funtzionamendu-autonomiaren printzipio horiek garatzeko, Espainiako kirol-federazioei eta kirol-elkarteen erregistroari buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuak (abenduaren 30eko BOE, 312. zk.), lizentzien arloan liga profesionalei legez eta erregelamenduz esleitutako eskumenen barruan, hau ezartzen du: *"Estatu mailako kirol-jarduera edo -lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da dagokion Espainiako kirol-federazioak emandako lizentzia izatea, gutxienez baldintza hauei jarraituz: (...) Lehiaketa profesionaletan parte hartzeko, lizentziak ikus-onetsi beharko ditu dagokion liga profesionalak, horiek eman aurretik"*.

Horren guztiaren ondorioz, Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren ("LIGA") Estatutu Sozialen 3.2 h) artikulua indarreko idazketak (Kirol Kontseilu Gorenaren Zuzendaritza Batzordeak 2006ko urriaren 30ean onartu zuen) ezartzen du LIGAn funtzio eta eskumen eksklusiboa izango dela *"LIGAn kide diren sozietate eta klubetako futbolariak LIGAn inskribatzeko izapidea egitea, bai eta haien lizentzien eta taldeko ordezkarien, entrenatzaileen, entrenatzaileen laguntzaileen, prestatzaile fisikoen, medikuen, OLTen, fisioterapeuten, materialaz arduratzen direnen eta partida batean taldearen beste edozein pertsonaren alde aurreko ikus-onetsia ematea ere, izaera profesionaleko jardueraren edo lehiaketaren parte hartzeko aurretiazko eta beharrezko betekizun gisa"*.

Estatutuko agindu horren jarraipen gisa, Kirol Elkarte honen Erregelamendu Orokorreko V. Liburuko 5. artikulua (2006ko urriaren 30ean Kirol Kontseilu Gorenaren Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen) honako hau dio, besteak beste: *"LIGAn dagokio lizentzien alde aurreko ikus-onespina egitea, hau da, lehiaketa profesionaletan parte hartzeko eskatzen diren alderdiak egiaztatzeko funtzio materialak egitea. ... Liga Nacional de Fútbol Profesionalak jokalarien lizentzia guztiak ikus-onetsiko ditu alde aurretik, haien eta jokalarien kalifikazioa, izaera edo egoera edozein dela ere, lehiaketa profesionaletan parte hartzeko. Jokalariak ezin izango dute lehiaketa profesionaletan parte hartu, baldin eta, Espainiako Futboleko Errege Federazioak emandako behin betiko lizentzia baino lehen ez badu lortu LIGAn aurretik ematen duen ikus-onetsia..."*.

Halaber, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren (EFEF) Erregelamendu Orokorreko 129. artikuluko bigarren atalean, honako hau ezartzen du: *"Futbol-jokalariei baten lizentzia EFEFek emandako agiria da —LIGAn emandako ikus-onetsia edo behin-behineko lizentzia jaso ondoren, eta Lehen Mailako edo Bigarren Mailako klubetara atxikitako futbolariak badira—, eta kirol horretan federatu gisa aritzeko gaitzen du,*



baita partiduetan eta lehiaketetan, ofizialetan zein adiskidantzazkoetan, arauzko jokalarien zerrendan egoteko ere”.

Arestian aipatutako artikuluek ematen duten araubide juridikoaren esanahia behar bezala bete eta garatu ahal izateko, komenigarria da, Erregelamendu honen bidez, LIGA osatzen duten kideen artean sortzen diren gatazkak arautzeko arau-sorta onartzea, behin-behineko lizentzien izapidetzearekin edo Elkarte honek antolatzen dituen lehiaketen aurretiazko ikus-onespenarekin lotuta.

ATARIKO TITULUA. APLIKAZIO EREMUA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

IX.1. ARTIKULUA.- ERREGELAMENDUAREN XEDEA

Erregelamendu honen xedea da Liga Nacional de Fútbol Profesionalak antolatzen dituen lehiaketa profesionalean aritzeko behin-behineko lizentzien edo alde zuzeneko ikus-onespenaren tramitazioan klubak eta kirol-sozietate anonimoen sortzen diren gatazkak ebazteko prozedura ezarri eta arautzea.

IX.2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO EREMUA

Erregelamendu hau Liga Nazional honi atxikita dauden klubak eta kirol-sozietate anonimoak (“KSA”) aplikatuko zaie, eta, beraz, nahitaez bete beharko dute Liga Nazionalaren kide diren aldetik.

IX.3. ARTIKULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Erregelamendu honen xede diren gatazkak ebazteko, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legean, Kirol Federazioei eta Kirol Elkarteen Erregistroari buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuan, LIGAREN Estatutu Sozialetan eta Erregelamendu Orokorrean aurreikusitakoa eta, azkenik, Erregelamendu honetan aurreikusitakoa hartuko dira kontuan.

LEHEN TITULUA. LIZENTZIEN BATZORDEA

LEHEN ATALA.- BATZORDEKO KIDEEN IZAERA, OSAERA ETA IZENDAPENA.

IX.4. ARTIKULUA.- LIZENTZIEN BATZORDEA

Izaera profesionaleko lehiaketa jokatzeko LIGA osatzen duten kideen artean behin-behineko lizentzien tramitazioan edo horien aurretiazko ikus-onespenarekin lotuta sortzen diren gatazkak behin betiko izaerarekin eta Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituz konpontzeaz arduratzen den organoa da.

IX.5. ARTIKULUA.- BATZORDEAREN OSAERA

1. Batzordea hiru kide titularrek eta hiru ordezkok osatuko dute. Azken hiru denboraldietan ez dute zuzendaritza-kargurik izango, ez eta lan-harremanik edo zerbitzu-ematerik izango ere LIGAREN kide diren kirol-sozietate anonimoekin edo klubekin.

2. Zuzenbidean lizentziadunak izan beharko dute. Kide guztiak bost urte, gutxienez, arituak izan beharko dira profesionalki lanbidean.

IX.6. ARTIKULUA.- BATZORDEKO KIDEEN IZENDAPENA

1. Batzordeko kideak LIGAREN Batzorde Delegatuak izendatuko ditu, Presidenteak proposatuta. Agintaldiek bi kirol-denboraldi iraunen dute.



2. Batzordekideek, botoen gehiengo soilaz, presidente bat izendatuko dute beren artean.

3. Batzordeko idazkari gisa LIGAREN Legezko Zuzendaria edo hark eskuordetzen duena arituko da, baina botorako eskubiderik gabe.

BIGARREN ATALA.- BATZORDEAREN BILERAK ETA DEIALDIAK.

IX.7. ARTIKULUA.- BATZORDEAREN BILERAK

1. Lizentzien Batzordea Presidenteak, Batzorde Delegatuak, Legezko Zuzendariak edo Liga Nazional honi atxikitako klub edo KSA batek hala eskatzen duten bakoitzean bilduko da, Erregelamendu honen 10.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Lizentzien Batzordeak LIGAREN kide diren eta interesdun diren klubei eta KSAei eskatu ahal izango die, Erregelamendu honen 10.2 artikuluan zehazten den bezala, bileretara joan daitezen, Batzordeak planteatutako gaiei erantzun diezaieten eta, hala badagokio, Batzorde horri dagozkion alegazioak ahoz edo idatziz aurkez ditzaten.

IX.8. ARTIKULUA.- BILERETARAKO DEIALDIA

Bileren deialdia, eguneko aztergaien zerrenda barne, Batzordeko idazkariak bidaliko die batzordekide guztiei bilerarako eguna baino gutxienez bi egun lehenago, salbu eta presako arrazoiengatik deialdia epe laburragoan egin behar bada.

IX.9. ARTIKULUA.- BATZORDEA ERATZEA

1. Batzordea eratzeko, kideen gehiengoa bertan egon beharko da, eta erabakiak edo gomendioak botoen gehiengoz hartuko ditu. Bilera bukatutakoan aktan jaso beharko ditu.

2. Bozketetan berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du.

3. Kide titularrik ez badago, Batzordeko idazkariak izendatuko ditu ordezeko kideak, Batzordea behar bezala eratu arte, artikuluko honetako lehen lerroaldean ezarritakoarekin bat. Batzordeburua bertan ez badago, adin handieneko kide titularrak beteko ditu eginkizun horiek, edo, bestela, adinez nagusi den ordezeko kideak.

BIGARREN TITULUA. PROZEDURA

IX.10. ARTIKULUA.- GATAZKA BAT DAGOELA JAKINARAZTEA

1. Liga Nazional honetan afiliatutako KSAek eta klubek gatazka baten berri eman ahal izango diote LIGAREN Legezko Zuzendaritzari, bi baldintza hauek nahitaez betetzen badira:

a) Gatazkak merezimenduak egiten baditu LIGAK antolatzen dituen lehiaketa profesionalak egiteko behin-behineko edo alde aurreko ikus-onetsitako kirol-lizentzia izapidetzeko; eta,

b) Gatazka horrek LIGAREN bi klub edota KSA edo gehiagori eragiten badie.

2. Komunikazioak LIGAREN Legezko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira, artikuluko honetako 1. paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen duten agiriekin batera.

3. Komunikazioak gutun, telegrama, telex, fax edo beste edozein bideren bidez egingen dira, baldin eta horrek aukera ematen badu jaso izanaren berri izateko eta LIGAREN egoitza sozialera bidaliko dira.



4. KSA edo klub komunikatzaileek LIGAREN Legezko Zuzendaritzari eska diezaiokete jatorrizko agiriak itzultzeko, jakinarazpenarekin batera. Kasu horretan, agiri horiek itzuli egin beharko dituzte, beren eskuetan izango dituzten fotokopiekin erkatu ondoren, eta haietan eginbidea egin beharko dute, jatorrizkoarekin erkatuta.

5. Komunikazioak denboraldiko edozein unetan aurkezten ahalko dira.

6. Epeak kontatzeko, egun baliodunak LIGAREN egoitza sozialaren arabera betetzen direla ulertuko da, non eta ez den berariaz kontrakorik erabakitzen.

IX.11. ARTIKULUA.- PROZEDURAREN HASIERA

1. Prozedura LIGAREN Presidenteak, Batzorde Delegatuak, Legezko Zuzendariak edo Liga Nacional de Fútbol Profesional honetan afiliatuta dagoen edozein klubek edo KSAk eskatuta hasiko da, gaian zuzeneko interesa badu eta dagokion jakinarazpena egiten badu, Erregelamendu honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Hartutako ebazpenen ondorioekin zerikusia duten eskubide edo bidezko interesak dituzten afiliatu guztiak hartuko dira interesduntzat.

3. Horretarako, gatazka baten berri izatean, Batzordeak isilpeko informazio bat instruitzea erabaki ahal izango du prozedura hasi baino lehen.

IX.12. ARTIKULUA.- ERAGITEN DIEN GAINERAKO AFILIATUEI KOMUNIKAZIOAK JAKINARAZTEA

1. Lizentzien Batzordeak, Erregelamendu honen 10.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, gatazkaren hasiera jakinaraziko die klubak edo KSAen egoitza sozialari, eta, era berean, jakinarazpenaren kopia bidaliko die legez interesa duten gainerako KSAei eta klubei. Horiek, jakinarazpena jaso eta biharamunetik bost eguneko epean, egokitzen dituzten alegazioak eta frogabideak aurkeztu ahal izango dituzte.

2. Erregelamendu honen 11.2 artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe, bidezko interesa duten klubtzat eta KSAtzat joko dira, gutxienez, gatazka sortzen duten klubak edo KSAen kirol-kategoria bereko kirol-entitate guztiak.

IX.13. ARTIKULUA.- GATAZKAREN EBAZPENA

1. Legezko Zuzendariak prozedura hasi eta gehienez ere hamabost eguneko epean emango du gatazkari buruzko ebazpena.

2. Legezko Zuzendariaren ebazpenaren aurka errekurtsua jar daiteke Lizentzien Batzordean, gatazkaren ebazpena jakinarazi eta biharamunetik bi eguneko epean, gehienez jota.

3. Legezko Zuzendariaren ebazpenaren aurka ez bada errekurtsorik jartzen, EFEFri jakinaraziko zaio, erabaki horren eraginkortasuna ziurtatuko duen koordinazio egokia une oro lortzeko.

IX.14. ARTIKULUA.- LIZENTZIEN BATZORDEARI AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA

1. Dagokion errekurtsua epearen barruan eta behar den moduan jarri ondoren, Lizentzien Batzordeak, Araudi honen 10.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, klubak/KSAen egoitza sozialari jakinaraziko dio errekurtsua jarri dela, eta, era berean, haren kopia bidaliko die bidezko interesa duten gainerako KSAei eta klubei. Horiek, jakinarazpena egin eta biharamunetik bost eguneko epean, egokitzen dituzten alegazioak eta balia daitezkeen frogabideak aurkeztu ahal izango dituzte.



2. Horrez gain, Batzordeak, hala badagokio, gatazkaren alderdi batzuei buruzko txostena egiteko eskatu ahal izango dio LIGAREN Legezko Zuzendariari edo Lehiaketa Sailari. Txosten hori ez da inolaz ere aginduzkoa ez loteslea izanen.

3. Lizenzien Batzordeak ebazpena emanen du hilabeteko epean, errekurtsua aurkezten denetik hasita.

4. Prozedura hasi eta hilabeteko epean Lizenzia Batzordeak ez badu hartu erabakirik, erreklamazioa ezetsizat joko da.

5. Lizenzien Batzordeak emandako ebazpenak behin betikoak izanen dira.

6. Lizenzien Batzordearen erabakia EFEBri jakinaraziko zaio, erabaki horren eraginkortasuna ziurtatuko duen koordinazio egokia uneoro lortzeko.

IX.15. ARTIKULUA.- PROZEDURAREN TASAK

1. Prozeduran sortutako gastuak Batzorde Delegatuak kirol-denboraldi bakoitzerako zehazten duen tasaren bidez ordainduko dira.

2. Tasa hori ezezpena jasotako klub/KSA interesdunek ordainduko dute.

IX.16. ARTIKULUA.- BEHIN-BEHINEKO INSKRIPZIOA

Behin-behineko lizenzia baten tramitazioan gatazka sortzen bada erregelamenduz ezarritako futbolariak inskribatzeko eperen bat itxi aurretik, eta ezinezkoa bada Lizenzien Batzordeak ebazpena ematea aldi horiek amaitu baino lehen, inskripzio-eskaerak epearen barruan jaso direla ulertuko da, baina ez dira bideratuko Legezko Zuzendariak edo, hala badagokio, Lizenzien Batzordeak ebazpena eman arte.



X. LIBURUA

LIGAN AFILIATUTAKO KLUBEN ETA KIROL-SOZIJETATE ANONIMOEN KONTROL EKONOMIKORAKO ERREGELAMENDUA



X. LIBURUA: LIGAN AFILIATUTAKO KLUBEN ETA KIROL-SOZIEKATE ANONIMOEN KONTROL EKONOMIKORAKO ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeak kidegoekiko tutoretza, kontrol eta ikuskatze ekonomikoko eginkizunak betetzeko eskumen eskusiboa ematen die liga profesionalari.

Liga Nacional de Fútbol Profesionalak (aurrerantzean, "LaLiga", "LIGA" edo "Liga Nacional de Fútbol Profesional") tutoretza-, kontrol- eta ikuskatze-lanak egin izan ditu, oro har, bere gobernu- eta administrazio-organoen bidez, eta, bereziki, Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen bidez. Hori guztia, Kirolari buruzko Legearen 41.4 b) artikuluan, Estatutu Sozialetan eta Liga Nazional honen Araudi Orokorrean aurreikusitakoarekin bat.

2010eko maiatzean gauza garrantzitsu bat gertatu zen: UEFAk finantza-kontrolerako arau berriak onartu zituen erakunde horrek antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten taldeentzat. Hori pizgarri bat izan da kontinenteko futboleko liga guztientzat arlo horretako barne-araudiak berrikusi eta eguneratzeko.

Bere gobernu-organoen bidez, UEFA arau berrien helburuen eta Espainiako futbol profesionaleko kategorietako klubuen eta kirol-sozietate anonimoen ("KSA") helburuen arteko antzekotasuna onartu du LIGA honek, bai eta afiliatutako erakunde guztiei aplikatu dakizkiekeen kontrol ekonomikoko mekanismoak ezartzeko premia berezia ere, konkurtso-egoeran dauden ala ez zeharo kontuan hartu gabe.

Irizpen horren ondorioz, bi kategorietako Mailako Batzordeek Kontrol Ekonomikoaren Batzorde bana sortzea erabaki zuten, afiliatutako klub eta KSA guztiei aplikatu dakizkiekeen gainbegiratze ekonomikorako sistema bat aztertu eta proposatzeko.

Ondorioz, hasieran LIGAK eta, ondoren, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin ("EFEF") koordinatuta, Erregelamendu hau zehaztu dute, UEFAren finantza-kontrolerako araudi berrian oinarrituta.

2018an, UEFAk Klubuen Lizenziarako eta Fair Play Finantzariorako bere Araudiaren testu berritua onartu zuen, eta ekonomia- eta finantza-arloko adierazle, irizpide eta betekizun berriak ezarri zituen. Komenigarritzat jotzen da, modu berean edo antzekoan, hori LIGAREN kide diren klubei/KSAei aplikatzea.

"Ligan Afiliatutako Klubuen eta Kirol-sozietate Anonimoen Kontrol Ekonomikorako Erregelamendua" izeneko X. Liburu honetan hainbat aldaketa sartu dira, bai aipatutako UEFA araudia eguneratzeari, bai irizpide ekonomiko eta finantzarioen egokitzapen batzuei eta estilo-zuzenketei dagozkienak.

Jarraian, X. Erregelamenduaren testu osoa txertatu da, onetsitako aldaketak sartu eta bateratzen dituenak.



ATARIKO TITULUA. ERREGELAMENDUAREN XEDEA, ESPARRUA ETA APLIKAZIO- ARAUBIDE JURIDIKOA

X.1. ARTIKULUA. ERREGELAMENDUAREN XEDEA

1. Erregelamendu honen xedea da LIGAk EFEFrekin koordinatuta antolatzen dituen lehiaketa profesionalak eta estatu mailakoak jokatzeko klubei eta KSAei aplikatu beharreko ikuskatze eta kontrol ekonomiko-finantzarioaren arauak ezartzea.
2. Erregelamendu honen helburu orokorra da LIGAREN klubak eta KSAen kaudimena sustatzea, LIGAREN araudian estatutu eta erregelamendu bidez ezarritako ikuskatze-eta kontrol-parametro berriak ezarrita.
3. Erregelamendu honetan aurreikusitako sistemaren berriak helburuak hauek dira:
 - a. Klubak/KSAen gaitasun ekonomiko eta finantzarioa hobetzea, haien gardentasuna eta sinesgarritasuna areagotuz.
 - b. Hartzekodunen babesari behar bezalako garrantzia ematea, klubek beren zorrak garaiz kitatuko dituztela bermatuz, batez ere jokalariekin, teknikariekin eta beste langile batzuekin, Gizarte Segurantzarekin, estatuko eta/edo autonomia-erkidegoetako ogasunekin, 16. bis artikulua eremu subjektiboan, materialean eta denboran sartutako eragiketetan, EFEFrekin eta gainerako klubekin/KSAekin.
 - c. Futboleko klubak finantzetan diziplina eta arrazionaltasun handiagoa sustatzea.
 - d. Klubak/KSAk beren diru-sarrerak araberak lan egitera bultzatzea.
 - e. Gastu arduratsua sustatzea, epe luzerako futbolaren mesedetan.
 - f. LIGAREN eta klubak/KSAen epe luzeko bideragarritasuna eta jasagarritasuna babestea.

X.2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA

1. Erregelamendu hau Lehen Mailako kirol-kategoriei eta Liga Nazional honetako Bigarren "A" Mailako kirol-kategoriei atxikita dauden klubei eta KSAei aplikatuko zaie eta horiek nahitaez bete beharko dute, baita Bigarren "B" Mailako klubak/KSAk izanik kirol-merituengatik Bigarren "A" Mailara igotzea dagokienei ere, horien egoera juridikoa zein ondarekoa edozein dela ere, LIGARA afiliatzeko betekizun gisa aplikagarriak zaizkien alderdietan.
2. Bigarren "A" Mailan dabilten filial edo menpeko taldeei dagokienez, Erregelamendua betetzen duten ala ez lehenengo taldearekin batera ebaluatuko da, baldin eta klubak/KSAren finantza-egoerak edo urteko kontuek lehen taldearen eta talde filialaren zifrak barne hartzen badituzte. Ez badira barne hartzen, bereiz neurtuko dira.
3. Klubak/KSAk informazioaren edo baterakuntzaren perimetroaren berri emango dio LIGARI, hau da, erakunde juridikoa edo edozein eratako entitate juridikoen konbinazioa jakinaraziko dio, eta horri buruzko informazio finantzarioa eman beharko da (adibidez, erakunde bakar baten finantza-egoerak, kontsolidatuak edo konbinatuak).



4. Nolanahi ere, LIGArri eman beharreko informazioaren perimetroan barne izango dira hauek:
 - a) Kluba/KSA.
 - b) Klubaren/KSAren menpeko edo filial den edozein erakunde.
 - c) Taldearen legezko egituran sartuta dagoen beste edozein erakunde, baldin eta diru-sarrerak sortzen baditu eta/edo zerbitzuak ematen baditu eta/edo gastuak egiten baditu hurrengo paragrafoko c) idatz-zatitik j) idatz-zatira bitartean zehaztutako futbol-jarduerei dagokienez.
 - d) Hurrengo 5. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan zehaztutako futbol-jarduerei lotutako diru-sarrerak eta/edo zerbitzuak eta/edo gastuak sortzen dituen edozein erakunde, taldearen legezko egituran sartuta egon ala ez.

5. "Futbol jarduerak" terminoak, X. Liburu honen ondorioetarako, honako hauek bilduko ditu:
 - a) Langileak erabiltzea/kontratatzeko, kontratuzko edo legezko betebeharren ondorioz langileei era guztietako kontraprestazioak ordaintzea barne.
 - b) Jokalarien edo teknikarien federazio-eskubideak eskuratzea/saltzea (eskubide horien aldi baterako lagapenak barne).
 - c) Sarreren eta abonuen salmenta.
 - d) Babesletza eta publizitatea.
 - e) Edozein bitartekoren bidezko emankizun-eskubideak.
 - f) Merchandising-a eta abegikortasuna.
 - g) Klubaren/KSAren edo haren mendeko erakundearen berezko eragiketak (adibidez, administrazioa, partida-egunetako jarduerak, joan-etorriak, scouting-a, etab.).
 - h) Finantzaketa (klubeko/KSAko aktiboek bermatutako edo abalaturako finantziaketa barne).
 - i) Estadioaren eta entrenamenduko instalazioen erabilera, kudeaketa eta ustiapena.
 - j) Emakumezkoen futbola.
 - k) Harrobia eta oinarrizko futbola garatzeko eremua.

6. Entitate bat informazio-perimetrotik kanpo geldituko da baldin eta:
 - a) Horren jarduerak ez badu inolako loturarik aurreko 5. atalean zehaztutako futbol-jarduerekin eta/edo klubaren/KSAren kokapenarekin, aktiboekin edo markarekin; edo,
 - b) Kuantitatiboki ez badu garrantzirik informazio-perimetroa osatzen duten erakunde guztien aldean, eta ez badu egiten aurreko 5. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan zehaztutako futbol-jarduerarik; edo,
 - c) Egiten dituen futbol-jarduerak informazio-perimetroaren barruko beste erakunde batzuen finantza-egoeretan jasota eta osorik sartuta badaude.

7. Klubak/KSAk erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du baimendutako ordezkari baten bidez LIGAREN aurrean, honako hau berresten duena:
 - a) 5. paragrafoan adierazitako futbol-jarduera bakoitzarekin lotutako diru-sarrera eta gastu guztiak informazio-perimetroan sartu direla, eta, hala ez bada, ez sartzearren arrazoiei buruzko azalpen zehatza eman duela.



- b) Informazio-perimetrotik kanpo utzi izan bada klubaren/KSAren enpresataldearen legezko egituraren sartuta dagoen edozein erakunde, mota horretako edozein baztertze arrazoituen dela, 6. paragrafoan adierazitako erakunde bat baztertzeko arrazoiak aipatuta.

X.3. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1. Erregelamendu honetan xedatutakoa deusetan galarazi gabe, LIGaren eta EFEFren dagozkion estatutu sozialak eta erregelamenduak aplikatuko dira, eta, bereziki, Klubaren eta KSAren Aurrekontuak Egiteko Arauak.
2. Erregelamendu honetatik ondorioztatzen diren klubaren/KSAren betebeharrak betetzeari dagokionez, kontrakoa aurreikusten ez bada, gehienez ere hamar egun naturaleko epean bete beharko dira.

LEHEN TITULUA. KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEA ETA EFEF-REN UEFA LIZENTZIAREN BIGARREN AUZIALDIKO BATZORDEA

LEHENENGO ATALA.- KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEKO KIDEEEN IZAERA, OSAERA ETA IZENDAPENA

X.4. ARTIKULUA. KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEA

1. LIGaren organoa da eta LIGaren kide diren klubaren eta KSAren kontrol ekonomikoko arauak behar bezala betetzen direla behin betiko egiaztatzeaz arduratzen da, Estatutu Sozialetan eta Erregelamenduaren X. Liburu honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Horretarako, Erregelamendu honetan araututako gaiak ikuskatzeko, egiaztatze eta ebazteko eskumen zabalenak ditu.
2. Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen ebazpenen aurka errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio EFEFren UEFA Lizentziaren Bigarren Auzialdiko Batzordeari, ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean.

X.5. ARTIKULUA. KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

1. Kontrol Ekonomikoaren Batzordea ("Batzordea") bost edo hiru kidek osatuko dute. Azken hiru denboraldietan, kide horiek ez dute zuzendaritza-kargurik bete izango, ezta lan-harremanik edo zerbitzu-ematerik ere izango LIGara afiliatutako KSArekin edo klubekin.
2. Hiru kide edo biri dagokienez, ekonomialariak, kontuen zinpeko zentsoreak edo auditoreak izango dira, eta beste biei edo gainerako kideari dagokienez, Zuzenbideko lizentziatu edo graduatuak. Kide guztiek frogatu beharko dute, gutxienez, bost urteko lanbide jarduera.
3. Halaber, Batzordearen bileretan parte hartuko dute, ahotsarekin baina botorik gabe, Korporazioko Zuzendari Nagusiak eta LIGaren Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak, baita Batzordeak berak izendatu edo baimentzen duen beste edozein pertsona ere.
4. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:
 - a) Kirol-lehiaketan izena emateko eta/edo bertan egoteko baldintza gisa parte hartzen duten klubaren/KSAren kontu diren informazio ekonomiko-finantzarioen betebeharrak modu egokian eta zehatzean betetzen direla gainbegiratu, egiaztatu eta ebaztea, era loteslean, Estatutu Sozialen 60.3 eta 55.17 artikuluetan eta Erregelamendu honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.



b) Erregelamendu honetan ezartzen diren baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzea eta ezarritako epeetan ebaztea. Horretarako, klubei/KSAei egoki iriztitako dokumentazio osagarri guztia eska diezaiekete.

c) Parte hartzen duten klubei/KSAei eskatzen zaizkien neurri zuzentzaileak edo bideragarritasun-planak ezarri eta betetzen direla ikuskatzea, baldin eta araudi hau betetzen ez badute eta, beraz, finantza-arriskuan badaude.

d) Kontrol ekonomikoari edo aurrekontuak egiteari buruzko arauak eta/edo irizpideak betetzen ez badira, neurriak eta zehapenak ezartzea, estatutuetan, erregelamenduetan eta klubuen eta KSAen aurrekontuak egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

e) Behar diren jarraibideak ematea LIGaren Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruari, Erregelamendu honetan ezarritakoaren esparruan.

f) Klubarekin/KSAekin desadostasuna dakarten Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoaren egintzen aurkako errekurtsioak ebaztea, aurrekontuak egiteko arauen interpretazio teknikoaren ondorioz, estatutuetan, erregelamenduetan eta klubuen eta KSAen aurrekontuak egiteko arauetan ezarritakoaren arabera.

g) Klubuen eta KSAen aurrekontuak egiteko arauetan eta/edo klubuen/KSAen kontrol ekonomikoari buruzko beste edozein arauditan esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak.

h) Erregelamendu bidez esleitzen zaion beste edozein eginkizun.

X.6. ARTIKULUA. BATZORDEKO KIDEEEN IZENDAPENA

1. Batzordeko kideak LIGaren Batzorde Delegatuak izendatuko ditu, Presidenteak proposatuta. Agintaldiek bi kirol-denboraldi iraunen dute eta bata bestearen ondotik, espresuki edo isilbidez, berritzen ahalko dira, denbora-mugarik gabe. Kontrako erabakirik ez badago, ulertuko da aginduak isilbidez berritzen direla arestian aipatutako aldien bukaeran.

2. Batzordeak gutxienez bi bilera eginen ditu denboraldi bakoitzean, baita esleitutako eginkizunak egoki betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste guztietan ere.

3. Batzordekideek, botoen gehiengo soilaz, presidente bat izendatuko dute beren artean.

4. Batzordeko idazkari izango da, botorako eskubiderik gabe, LIGaren Legezko Zuzendaria eta/edo hark gaitutako edo izendatzen duen beste edozein pertsona.

BIGARREN ATALA.- BATZORDEAREN BILERAK ETA DEIALDIAK

X.7. ARTIKULUA. BATZORDEAREN BILERAK

1. 6.2 artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe, Batzordea bilduko da horren presidenteak, LIGaren Presidenteak, LIGaren Korporazioko Zuzendari Nagusiak eta/edo Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak –edozein arrazoiengatik– hala eskatzen duten bakoitzean.

2. Batzordeak LIGaren kide diren klubei/KSAei eskatu ahal izango die beren ordezkariak bileretara joan daitezen, Batzordeak planteatutako galderei erantzun diezaieten eta, hala badagokio, Batzordearen aurrean beren eskubideari dagozkion alegazioak ahoz edo idatziz aurkez ditzaten.



X.8. ARTIKULUA. BILERETARAKO DEIALDIA

Bileren deialdia, gai-zerrenda barne, batzordeko idazkariak bidaliko die batzordekide guztiei, bilera egiteko eguna baino gutxienez bost egun lehenago, presako arrazoiak direla eta deialdia epe laburragoan egin behar denean izan ezik.

X.9. ARTIKULUA. BATZORDEA ERATZEA ETA ERABAKIAK HARTZEA

1. Batzordea balioz eratzeko, gutxienez lau kide edo bi bertaratu beharko dira, bospasei lagunek osatzen duten heinean, eta botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak edo gomendioak, eta bileraren amaieran jaso beharko dira aktan. Bozketetan berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du.

2. Batzordeburua bertan ez badago, adin handieneko kide titularrak beteko ditu bere eginkizunak.

HIRUGARREN ATALA.- EFEF-REN UEFA LIZENTZIAREN BIGARREN AUZIALDIKO BATZORDEAREN BILERAK ETA DEIALDIAK

X.10. ARTIKULUA. EFEF-REN UEFA LIZENTZIAREN BIGARREN AUZIALDIKO BATZORDEA

EFEFren UEFA lizentziaren Bigarren Auzialdiko Batzordeak ebatziko ditu Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen ebazpenen aurka aurkeztutako errekursoak, erregelamendu honen 4.2 eta 5. artikuluetan aurreikusitakoak.

BIGARREN TITULUA. LIGAREN KLUBEI ETA KSA-EI APLIKAGARRIAK DIREN KONTROL EKONOMIKO ETA FINANTZARIOKO ARAUAK

LEHEN ATALA.- KONTROL EKONOMIKOAREN SAILEKO BURUA

X.11. ARTIKULUA. KONTROL EKONOMIKOAREN SAILEKO BURUA

1. LIGaren Batzorde Delegatuak, Presidenteak proposaturik, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buru bat izendatuko du.

2. Ekonomia Saileko burua LIGaren Korporazioko Zuzendari Nagusiaren mende egonen da organikoki, eta Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen mende, berriz, funtzionalki. Araudi honek ematen dizkion ahalmenak erabiltzeko behar diren langileak eta baliabideak izango ditu bere gain. Ahalmen horiek LIGaren Batzorde Delegatuak esleituko dizkio, Presidenteak proposatuta. Saileko egitura horren kostuak LIGaren urteko aurrekontuetan jasoko dira.

3. Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak ahalmen eta eginkizun hauek izanen ditu:

a) Afiliatutako klubak eta KSAen egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko txostenak aztertu eta egitea, Estatutu Sozialetan eta Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar dituzten agirien bidez.

b) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak xedatzen duenaren arabera, klubek/KSAek egiten dituzten tarteko finantza-egoeren urteko auditoretzak eta berrikuspen mugatuak gainbegiratzea, baita Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak agindu ditzakeen txostenak ere.

c) LIGaren Presidenteak edo Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak Erregelamendu honen esparruan horretarako emandako beste edozein.



4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak ahalmen eta ahalmen guztiak izango ditu, LIGArenekin izenean eta Estatutu Sozialen 60.3 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, aurreko paragrafoan deskribatutako helburu eta helburuak eta funtzioak betetzeko beharrezko informazioa biltzeko.

5. Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak bere ondorioak eta/edo proposamenak Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari helaraziko dizkio, hala badagokio eta bere eskumenen barruan dagokion ebazpena har dezan.

BIGARREN ATALA.- DOKUMENTAZIO EKONOMIKO-FINANTZARIOA

X.12. ARTIKULUA. LIGAN AFILIATZEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

1. Erregelamendu honek merezimenduak egiten dizkion LIGArenekin izateko, Estatutu Sozialen 55. artikuluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe, afiliatutako klubek eta KSAek ekonomia eta finantza arloko informazio eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute LIGAn, ondoren adierazten diren epeetan, eta egoera juridikoaren eta ondare-egoeraren kalterik gabe:
 - a. Banakako eta bateratutako urteko kontuak, Erregelamendu honen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.
 - b. Bitarteko finantza-egoera indibidual eta finkatuak, Erregelamendu honen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - c. Jokalarien eta teknikarien federazio-eskubideak transferitu eta eskuratzeko jarduerengatiko zorren zerrenda, 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 16. bis artikuluko eremu subjektibo, material eta tenporalean sartutako eragiketen zerrenda, biak ala biak X. Liburu honetakoak.
 - d. Langileekin dituzten zor eta kredituen zerrenda, Erregelamendu honen 17. artikuluan ezarritakoarekin bat.
 - e. Administrazio publikoekiko zorren zerrenda eta haiek emandako ziurtagiriak, Erregelamendu honen 18. artikuluan ezarritakoarekin bat.
 - f. Oreka Puntuaren adierazleen kalkulua, lehenengo plantillari lotutako gastuak eta diru-sarrera garrantzitsuei dagokien zorraren ratioa, Erregelamendu honen 20., 22. eta 23. artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoarekin bat.
2. Goian aipatutako agiriak aurkezteko epeak eta modua Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak eta/edo LIGArenekin Baliozkotze Organoak (aurrekontuak egiteko arauetan jasota eta araututa) denboraldi bakoitzerako ezarritakoak izango dira.
3. Nolanahi ere, artikuluko honetako 1. idatz-zatiko a)-tik f)-ra bitarteko paragrafoetan aipatzen diren agiriak idatz-zati horiek aipatzen dituzten artikuluetan ezarritako egunetan aurkeztuko dira.
4. Aurkeztu beharreko dokumentazio horrek ez du esan nahi klubek/KSAek aurkeztu behar ez dutenik dokumentazio hau: diru-sarrera eta gastuen aurrekontua, diruzaintzarena, inbertsio eta desinbertsioena, finantzaketarena eta gainerako dokumentazioak. Hori guztia, LIGArenekin Batzorde Delegatuak onartutako Klubek eta KSAen Aurrekontuak egiteko Arauetan ezarritakoaren arabera, eta Estatutu Sozialen 60. artikuluan ezarritako epeetan.

X.13. ARTIKULUA. URTEKO KONTUAK.



1. Klub eta KSA guztiek urteko kontu banakatuak eta finkatuak aurkeztu beharko dituzte, administratzaileek eta horien auditoretza-txostenek eginak, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak erabakitzen duen epean eta moduan, beranduenez ere kasuko denboraldia amaitzen denaren ondorengoaren azaroaren 15ean. Egun horretan oraindik ez bada egin klubaren Batzar Orokorra edo KSAren Akziodunen Batzar Orokorra urteko kontuak onartzeko, dokumentazio hori aurkezteko azken eguna Batzarraren edo Batzordearen deialdi-erabakiaren eguna izango da, beranduenez jota azaroaren 30ean.

(³) Aldi baterako, eta COVID-19aren ondorioz 2019/2020 eta 2020/2021 denboraldietan eragina duten inguruabar bereziak direla eta, aipatutako urteko kontuekin batera, klubek eta KSAek adostutako prozeduren auditorearen txosten bat (ISRE 4400) aurkeztu beharko dute, Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoak ezartzen dituen irizpideen arabera. Txosten horretan, COVID-19ak urteko finantza-egoeretan duen efektuaren zenbateko osoaren kuantifikazioa eta 2019/2020 denboraldiaren eta 2020/2021 denboraldiaren arteko diru-sarreraren eta gastuen lekualdatzean izandako eragina jasoko dira, baita COVID-19aren eraginetik eratorritako beste edozein ondorio ere: ordainketak atzeratzea, inbertsioak, etab.

2. Urteko kontuak Espainiako merkataritza legerian aurreikusitakoaren arabera formulatuko dira eta honako hauek izanen dituzte:

- a) Egoera-balantzea
- b) Galdu-irabazien kontua
- c) Diru-fluxuen egoera
- d) Ondare garbiaren aldaketaren egoera
- e) Memoria
- f) Kudeaketa-txostena.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, urteko kontuetan ez badira betetzen gutxieneko kontabilitate- eta eduki-baldintzak, klubak/KSAk informazio osagarria prestatu beharko du gutxieneko informazio-baldintza horiek betetzeko, eta informazio hori auditore independente batek ikuskatu beharko du.

4. Urteko kontuek ikuskatuta egon behar dute, legezko aginduek mugatutako kasuetan izan ezik. Horrez gain, ikuskapen-txostena ere izan behar dute, paragrafo honetan ezarritako betebeharra betetzat jo dadin, eta, beraz, LIGAren kide izateko baldintza, ikuskatzaileak iritzia eman dezan eta iritzia kontrakoa izan ez dadin. Auditoreak iritzia ukatuz gero, ez da baldintza hori bete dela ulertuko.

5. Urteko kontuak Kontabilitateko Plan Orokorrean xedatutakoaren arabera prestatu beharko dira, bai eta kirol-sozietate anonimoetarako egokitzapenaren arabera ere.

6. Klubek eta KSAk urteko kontuak aurkeztu ahal izango dituzte, indarrean dagoen merkataritza-legerian aurreikusitakoarekin bat. Hala ere, era independentean eta "Klubek eta KSAren aurrekontuak egiteko arauak" eskatzen duten banakapen-mailarekin aurkeztu beharko dituzte bai galdu-irabazien kontuak bai egoera-balantzeak.

13. artikuluko lehen ataleko³bigarren paragrafoa iragankorra da, eta Xedapen Iragankor Bakarraren bigarren idatz-zatiaren bitartez txertatu da.



7. Klubak/KSAk urteko azken informazio finantzario ikuskatua argitaratu beharko du bere web-orrian LIGArri informazioa aurkezteko nahitaezko eguna baino lehen. Informazio hori 2. atalean aipatzen diren dokumentuak eta ikuskatzailearen txostena izango dira.

X.14. ARTIKULUA. TARTEKO FINANTZA-EGOERAK

1. Klub eta KSA guztiek, dagokien denboraldi erdiko (6 hilabete) hurrengo martxoaren 31 baino lehen, abenduaren 31ko itxierako banakako eta bateratutako tarteko finantza-egoerak eta horien berrikuspen mugatuaren txostena aurkeztu beharko dituzte.

2. Bitarteko finantza-egoera indibidual eta finkatuak kontu-auditoreak mugatutako berrikuspen-prozeduren mende egongo dira.

Berrikuspen hori Auditoria eta Aseguramenduko Nazioarteko Arauen Kontseilua erakundeak emana duen Berrikuspen Lanen Nazioarteko 2410 Arauaren, "Bitarteko Finantza-informazioaren Berrikuspena, erakundeko auditore independenteak egina" izenekoarekin, edota ondorengo eguneratzeen arabera egin beharko da.

3. Berrikuspen mugatua duten tarteko finantza-egoerekin batera, legezko aginduek mugatutako kasuetan izan ezik, dagokion txostena aurkeztu beharko da. Txosten horretan, ikuskatzaileak klubaren/KSAren ondare-egoerari buruzko iritzia eman beharko du.

4. Bitarteko finantza-egoerak Espainiako merkataritza-legerian aurreikusitakoaren arabera formulatuko dira, eta honako hauek izango dituzte:

- a) Egoera-balantzea
- b) Galdu-irabazien kontua
- c) Diru-fluxuen egoera
- d) Ondare garbiaren aldaketaren egoera
- e) Memoria
- f) Kudeaketa-txostena.

5. Bitarteko finantza-egoerak Kontabilitateko Plan Orokorrean xedatutakoaren arabera prestatu beharko dira, bai eta kirol-sozietate anonimoetarako egokitzapenaren arabera ere.

6. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, bitarteko finantza-egoeretan kontabilitateari eta edukiari buruzko gutxieneko baldintzak ez badira betetzen, klubak edo KSAk informazio osagarria prestatu beharko du gutxieneko informazio-baldintza horiek betetzeko, eta informazio hori auditore independente batek berrikusi beharko du.

7. Klubek eta KSAek bitarteko finantza-egoerak aurkeztu ahal izango dituzte, indarrean dagoen merkataritza-legerian aurreikusitakoarekin bat. Hala ere, era independentean eta "Klubaren eta KSAren Aurrekontuak Egiteko Arauek" eskatzen duten banakatze-mailarekin aurkeztu beharko dituzte galdu-irabazien kontua eta egoera-balantzea.

8. Klubak/KSAk berrikusi beharreko tarteko finantza-egoerei buruzko azken informazioa argitaratu beharko du bere web-orrian, LIGArri informazioa aurkezteko nahitaezko eguna baino lehen.

X.15. ARTIKULUA. BESTELAKO DOKUMENTAZIO EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA



1. Klub guztiek, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak erabakitzen duen egunean eta moduan, adierazpen-gutun bat aurkeztu beharko dute -erantzukizunpeko adierazpena-. Bertan, garrantzi ekonomiko handiko gertakari edo baldintzarik izan den adierazi beharko da, Erregelamendu honen II. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, banakako tarteko egoera eta egoera finantzario berrituen itxiera-dataren eta tarteko egoeren Ligaren aurrean aurkeztutako dataren artean.

Garrantzi ekonomiko handiko gertaera edo baldintzak gertatu badira, ekitaldiaren edo baldintzaren izaera deskribatu beharko da, eta haren finantza-eragina zenbatetsi, edo, hala badagokio, zenbatespen hori egin ezina.

2. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak eskatuta, Erregelamendu honetan ezarritako arau edo adierazle batzuk ez badira betetzen, eta zehazki 16., 16. bis (aldi baterako indarrean dagoen bitartean), 17.,18., 19., 20., 21., 21. bis, 22., 23., 23. bis, 23. ter, 23. quater eta 24. artikuluetan jasotakoak, afiliatutako klubek eta KSAek bideragarritasun plan bat egin eta eman beharko dute, X. Liburu honen III. Eranskinean ezarritako baldintzetan.

3. 2. paragrafoan aipatzen diren arau edo adierazleetako edozein ez betetzeak (horiek osatzen dituzten artikuluei dagokienez) klubak/KSAk *etorkizunean finantza-desoreka izan dezakeenaren* adierazle da, goian adierazitako ondorio eta betebeharrekin, LIGAn gainerako estatutu- eta/edo araudi-arauei jarraiki bidezkoak direnak ukatu gabe.

4. Aurreko ataletan eskatutako dokumentazioaz eta/edo informazioaz gain, klubek Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruaren edo Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen iritziz klubaren edo KSAren egoera ekonomiko-finantzarioa zehaztasun handiagoz zehazten laguntzen duen beste edozein dokumentazio ere aurkeztu beharko dute.

HIRUGARREN ATALA.- IRIZPIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOAK BETETZEA

1. KAPITULUA. ZORRAK

X.16. ARTIKULUA. KLUBEKIN/KSA-EKIN DIREN ZORRAK

1. Beherago aipatzen diren datetako (denboraldi bakoitzeko) bakoitzean (erreferentzia-datak), ezein klubek/KSAk ordaindu gabeko zorrik izan, hau da, mugaeguneratuak eta likidoak eta galdagarriak direnak, legezko edo kontratuko betebeharr baten arabera, jokalarien federazio-eskubideak eskuratzeko eragiketengatik (Erregelamendu honen II. Eranskinean eragiketa eta zor horiei buruz egiten den definizioaren arabera), edo FIFAn federazio-arauen arabera sortutako prestakuntza-eskubideengatik edo/eta solidaritate-mekanismoagatik, eta LIGAn edo beste edozein liga edo federaziotara afiliatutako beste edozein klub/KSA hartzekodun direnengatik, zorraren kontzeptua edozein izanda ere, betiere jarraian adierazten diren epeetan mugaeguneratutakoak badira:

Erreferentzia-datak	Zorraren epemuga data honetan edo lehenago da
Martxoaren 31	Abenduaren 31 (erreferentzia-dataren aurrekoa)
Irailaren 30a	Ekainaren 30a (erreferentzia-dataren aurrekoa)

2. Klubek/KSAek jokalarien eta teknikarien federazio-eskubideen transferentzien eta eskuraketan eta aldi baterako lagapenen zerrenda bana bete eta aurkeztu beharko dute LIGAn eta adierazitako erreferentzia-datetan, eragiketa horiengatik



ordaintzeke dagoen zenbatekorik ez duten eragiketak barne direla, edozein kasutan.

3. Federazio-eskubideen transferentzien eta eskuraketen zerrenda (aldi baterako lagapenak barne) LIGAk ezartzen duen formatu edo ereduarekin eginen da. Zerrenda horretan, gutxienez, informazio hau jaso beharko da:
 - a) Jokalariaren edo teknikariaren izen-deiturak.
 - b) Federazio eskubideak transferitzeko edo aldi baterako lagatzeko kontratuaren data.
 - c) Jatorrizko klubaren/KSAren izena.
 - d) Federazio-eskubideen transferentziaren edo aldi baterako lagapenaren prezioa.
 - e) Eskuratzailleak edo lagapen-hartzaileak eskubideen transferentzia edo lagapena dela-eta bere gain hartutako beste gastu edo zor batzuk.
 - f) Likidatutako zenbatekoa eta ordaintzeko datak.
 - g) Ordaintzeko dauden jokalarien eskuratzeko bakoitzari dagokion saldoa eta ordaintzeko adostutako eguna.
 - h) Bete gabe dauden behin-behineko transferentziaren/eskuraketaren/lagapenaren kontratuan aurreikusitako baldintzazko zenbatekoak (helburuak betetzeagatik bonuak).
 - i) Eskualdaketaren edo lagapenaren ordainketan eragina izan dezaketen auziak edo bestelako egoera juridiko/legalak, konkurtsoari buruzko legerian jasotakoak barne.

4. Klub/KSA batek abenduaren 31n edo ekainaren 30ean, kasuan kasu, federazio-eskubideak kostu amortizatuan eskuratzegatik ordaindu gabe dituen zor aitortuak baldin baditu bere finantza-egoeretan, LIGAk emandako eredu horretarako dagoen zutabea betetzea aukeratu ahal izango da, edo deskontuaren efektua eredu horretan bateratze-partida gisa sartzea.

5. Zerrendako zor osoa, halakorik bada, tarteko finantza-egoeretako edo aurkeztutako urteko kontuetako kontu hartzekodunetan halakotzat agertzen denarekin bateratu beharko da.

6. Jokalarien federazio-eskubideen transferentzien eta eskuraketen zerrenda klubeko/KSAeko legezko ordezkariak sinatu eta ikuskatzaileek egiaztatu beharko dute, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

7. Informazio-zerrenda hori klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du, betiere, denboraldi bakoitzeko apirilaren 10a baino lehen, aurreko abenduaren 31 arteko mugaeguna duten zorretarako; eta azaroaren 15a baino lehen, aurreko ekainaren 30a arteko mugaeguna duten zorretarako.

X.16. BIS ARTIKULUA.- ZENBAIT FINANTZA-OPERADOREREKIN EGINDAKO FINANTZA-ERAGIKETA BATZUEN ARAUBIDE IRAGANKORRA

Artikulu honen 8. atalean ezarritako denborazko mugekin, finantza-operadore jakin batzuekin egindako finantza-eragiketa jakin batzuk zaindu, kontrolatu eta ikuskatzeko araubide hau ezarri da behin-behinekoz:



1. 6. atalean (erreferentzia-datak) adierazten diren datetako bakoitzean (denboraldi bakoitzekoa), klubak/KSAk ezin izango du ordaindu gabeko zorrik izan, hau da, mugaeguneratua eta likidoak eta galdagarriak izatea, lege- edo kontratu-betebehar baten arabera, artikuluko honetako 2. eta 3. paragrafoetan deskribatzen diren finantza-eragiketen ondorioz, eta 5. paragrafoan zehaztutako finantza-operadoreek hartzekodun izateagatik.

2. Artikulu honen ondorioetarako, **finantza-eragiketa** izanen da hau:

A) Edozein kontratu edo negozio juridiko, zeinaren bidez finantza-operadore batek, berme pertsonal edo errealekin ala gabe, funtsak ematen baitizkio klubari/KSAri, eragiketa eta helburu hauetako edozeinen bidez:

- a) FIFAKo Jokalarien Estatutuari eta Transferentziari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, klubaren/KSAren aldeko kobrantza-eskubideak dakartzaten fakturak faktorizatzea (factoring), baliabidez ala baliabiderik gabe, edo elkartasun-mekanismitik eta/edo prestakuntza-eskubideetatik eratorritakoak.
- b) Ordaindukoen, kanbio-letren edo merkataritza-igorpeneko beste edozein agiriren deskontua edo aurrerakina, beste klub/KSA batek ordaintzekoa (LIGAn afiliatua izan ala ez) eta kobrantza-eskubideak dakartzana, jokalarien edo jokalarien federazio-eskubide eta/edo eskubide ekonomikoak eskualdatzearen ondorioz, edo elkartasun-mekanismitik eta/edo prestakuntza-eskubideetatik eratorriak badira, FIFAKo Jokalarien Estatutuari eta Transferentziari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.
- c) Aurreko a) eta b) letretan aipatu xedea izan gabe, irizpide hauek guztiak batera betetzen dituztenak:
 - i. Mailegatutako/Finantzatutako printzipalaren EHUNEKO EHUNA (%100) berrordaintzeko epemuga ZORTZI (8) hilabetetik gorakoa da.
 - ii. Mailegatutako/Finantzatutako printzipalaren EHUNEKO HIRUROGEITA HAMARRAK (%70) baino gehiagok HOGEI (20) hilabete baino gehiagoko epemuga du berrordaintzetarako, eta
 - iii. Mailegatutako/Finantzatutako printzipalaren EHUNEKO HOGEITA HAMARRAK (%30) baino gehiagok HOGEITA HAMAR (30) hilabete baino gehiagoko epemuga du berrordaintzetarako.

Idatz-zati honetan adierazitako epeak finantza-operadoreak printzipala klubari/KSAri ematen dion egunetik hasiko dira kontatzen.

B) Finantza-operadore baten aldeko kredituak, baldin eta beste klub/KSA bati (LIGAKo kide izan ala ez) edo beste finantza-operadore bati erosi badizkio eta klubaren/KSAren aldeko kobrantza-eskubideak eragiten badituzte, jokalarien edo jokalarien federazio-eskubideak eta/edo eskubide ekonomikoak eskualdatzearen ondorioz, edo elkartasun mekanismitik eta/edo prestakuntzako eskubideetatik eratorritakoak badira, FIFAKo Jokalarien Estatutuari eta Transferentziari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.

3. LIGAKo Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoak finantza-eragiketatzat har dezake aurreko 2. paragrafoan azaldutako antzeko finantza-operadore batekin egindako beste edozein eragiketa, klubak/KSAk eta/edo finantza-operadoreak kontsulta egin ondoren, betiere kontsulta hori dagokion kontratua formalizatu aurretik egin bada.

4. Zorren kontzeptuaren barruan sartzen dira bai printzipala, bai kluba/KSA zordun den interes, komisio eta gainerako gastuak ere. Nolanahi ere, Liburu honen II. Eranskinean ezarritakoa aplikatuko da (definizioak, 1. idatz-zatia eta hurrengoak), artikuluko honetatik, hala badagokio, ondorioztatzen diren salbuespenekin.

5. Artikulu honen ondorioetarako, **finantza-operadoreak** dira hauek:



- a) Bankuak, aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak, bai espainiarrak bai haien atzerriko baliokideak; eta
- b) Kreditu eragiketak era ohiko eta profesionalean egiten aritzen diren beste entitate batzuk.

6.- Artikulu honetako 1. paragrafoan adierazitako betebeharra betetzeko erreferentzia-datak hauek dira:

Erreferentzia-datak	Zorraren epemuga data honetan edo lehenago da
Martxoaren 31	Abenduaren 31 (erreferentzia-dataren aurrekoa)
Irailaren 30a	Ekainaren 30a (erreferentzia-dataren aurrekoa)

7.- Klubek/KSAek zorra duten finantza-eragiketen zerrenda bete eta aurkeztu beharko dute aipatu erreferentzia-datetan LIGAREN aurrean (eragiketa likidotzat, mugaeguneratutzat eta galdagarritzat jotzen dena), zeina arau hauei jarraituz egina izango baita:

a) Zerrenda hori LIGA ezartzen duen formatuarekin edo ereduarekin aurkeztuko da, eta finantza-eragiketa bakoitzerako informazio hau jaso beharko du:

- i) Finantza-operadorearen identifikazioa.
- ii) Zorraren zenbatekoa, hura osatzen duten kontzeptu guztiak edo ordaintzeko aurreikusitako egunean sartu behar direnak barne.

b) Zerrenda hori klubaren/KSAREN legezko ordezkariak sinatu eta ikuskatzaileek egiaztatu beharko dute, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilaren berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

c) Informazio-zerrenda hori klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du, betiere, denboraldi bakoitzeko apirilaren 10a baino lehen, aurreko abenduaren 31 arteko mugaeguna duten zorren kasuan, eta azaroaren 15a baino lehen, aurreko ekainaren 30a arteko mugaeguna duten zorren kasuan.

Zor hori duen finantza-eragiketarik ez badago, klubak/KSAk klubaren legezko ordezkariak emandako ziurtagiri bat baino ez du bidali beharko, data horietan bertan, inguruabar hori jasota, auditoreak b) atalean ezarritako moduan egiaztatuta.

8.- Artikulu honetan ezarritako betebeharrak ez dute atzeraeraginik, eta, beraz, ez zaizkie aplikatuko Kirol Kontseilu Goreneko Zuzendaritza Batzordeak onartu aurretik formalizatutako finantza-eragiketei (zirkular bidez zabalduko da).⁴ Era berean, betebeharrak aldi baterakoak dira, eta ez zaizkie aplikatuko 2024/2025 denboraldia amaitu ondoren egiten diren finantza-eragiketei. Horrek ez du esan nahi epe horretan formalizatutako finantza-eragiketei buruzko informazioa eman behar ez denik, denbora-mugarik gabe, eragiketa horien ondoriozko betebeharrak guztiak osorik bete arte.

Era berean, artikulu honetan jasotako eragiketek sortutako zorrak kobratzeko LIGAREN estatutu- eta/edo erregelamendu-arauetan aurreikusita dagoen babesa Kirol Kontseilu Gorenak hura onartzen duen unean formalizatutakoei soilik aplikatuko zaie (ez dute atzeraeraginik izango), eta 2024/2025 denboraldia amaitzen denean bukatzen da. Hala ere, babes-neurri horiek bere horretan jarraituko dute, denbora-mugarik gabe, aldi horretan formalizatutako finantza-eragiketak erabat iraungi arte.

X.17. ARTIKULUA. LANGILEEKIN DIREN ZORRAK

⁴Kirol Kontseilu Goreneko Zuzendaritza Batzordeak 2020ko uztailaren 9an⁴onetsi zuen artikulu hau sartzea.



1. Beherago adierazten diren (denboraldi bakoitzeko) datetako bakoitzean (erreferentzia-datak), klub edo KSA batek ezingo du beren langileekin ordaindu gabeko zorrik izan, hau da, mugaeguneratuta eta likidoak eta galdagarriak direnak, lege- edo kontratu-betebehar baten arabera, bi kontzeptu horiek II. Eranskinean zehazten diren bezala eta ondoren adierazten diren epeetan amaitu badira:

Erreferentzia-datak	Zorren epemuga data honetan edo lehenago da
Martxoaren 31	Abenduaren 31 (erreferentzia-dataren aurrekoa)
Irailaren 30a	Ekainaren 30a (erreferentzia-dataren aurrekoa)

2. Klubek eta KSAek beren langileekin zerikusia duen betebehar ekonomikoen zerrenda bete beharko dute erreferentzia-data bakoitzean, LIGAk emandako ereduari jarraituz. Zerrenda horretan, besteak beste, alderdi hauek jasoko dira:

a) Langilearen izena.

b) Langilearen kargua/funtzioa.

c) Kontratazio-data.

d) Kargutik kendutako eguna (hala badagokio).

e) Aurreko abenduaren 31 arteko epemugarekin eta martxoaren 31ra arteko epearekin den zorraren zenbatekoa eta aurreko irailaren 30era arteko epemugarekin eta ekainaren 30era arteko epearekin den zorraren zenbatekoa, kasuaren arabera, ordaintzeko dagoen elementu bakoitzaren mugaeguna barne, azalpen batekin batera.

f) Dagokion zorra betetzeari zuzenean edo zeharka eragiten dion beste edozein gorabehera.

3. Zerrendan dagoen zor guztia, halakorik bada, aurkeztutako finantza-egoeren kasuan kasuko kontu hartzekodunetan halakotzat agertzen denarekin bateratu beharko da.

4. Langileekiko betebehar ekonomikoen zerrenda erakundeko legezko ordezkariak sinatu eta klub/KSA bakoitzeko ikuskatzaileek egiaztatu beharko dute, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

5. Informazio-zerrenda hori klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du, betiere, denboraldi bakoitzeko apirilaren 10a baino lehen, aurreko abenduaren 31ra arteko mugaeguna duten zorretarako; eta azaroaren 15a baino lehen, ekainaren 30a arteko mugaeguna duten zorretarako.

X.18. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN DIREN ZORRAK

1. Behean adierazten diren (denboraldi bakoitzeko) datetako bakoitzean (erreferentzia-datak), ezein klubek edo KSAk ezin izango du ordaindu gabeko zorrik izan, hau da, mugaeguneratutako zor likido eta galdagarriak, Gizarte Segurantzarekin eta kasuan kasuko agintari fiskalekin, lege- edo kontratu-betebehar baten arabera, Erregelamendu honen II. Eranskinean zehazten diren moduan, ondoko epeetan mugaeguneratutakoak badira:



Erreferentzia-datak	Zorren epemuga data honetan edo lehenago da
Martxoaren 31	Abenduaren 31 (erreferentzia-dataren aurrekoa)
Irailaren 30a	Ekainaren 30a (erreferentzia-dataren aurrekoa)

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta horrez gain, klub eta KSA guztiek kasuan kasuko agintari publikoek emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan berariaz adierazi beharko da, hil bakoitzaren amaieran, ez dagoela zorrik dagokion erakunde edo organismo publikoarekin. Ziurtagiri hori hilero aurkeztuko da, hilabete bakoitzeko lehen bost egunetan, aurreko hilabeteari dagokiona.

3. Klubek eta KSAek erreferentziako data bakoitzean Gizarte Segurantzarekiko eta kasuan kasuko agintari fiskalekiko betebeharrak ekonomikoen zerrenda bete beharko dute –LIGAk emandako ereduaren bidez–, eta bertan, besteak beste, honako hauek agertuko dira:

a) Erakundea.

b) Ordaindu gabeko zorra, zenbateko nagusiak, berandutza-interesak eta zehapenak bereiziz. Halaber, partida bakoitzaren mugaegunak zehaztu beharko dira.

c) Mugaeguneratutako epeak.

d) Zorra betetzeari zuzenean edo zeharka eragiten dion beste edozein gorabehera.

4. Abenduaren 31 edo ekainaren 30a baino lehen Ogasun Publikoari edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari eskatutako geroratze edo zatikatzeei dagokienez, hala badagokio, klubak/KSAk eskabideari buruzko administrazio-ebazpena eman bezain laster jakinarazi beharko dio Batzordeari, ondorengo gertaera garrantzitsu gisa.

5. Atzeratzea edo zatikatzea abenduaren 31 edo ekainaren 30a baino geroago eskatzen bada, kasuan kasu, ez da kontuan hartuko Batzordeak aztertu ahal izateko, eskatzen den data horretan dagokion administrazioak onartua duenean izan ezik.

6. Zerrendako zor osoa, halakorik bada, aurkeztutako tarteko finantza-egoeretako kontu hartzekodunetan halakotzat erregistratutakoarekin bateratu beharko da.

7. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ekonomikoen zerrenda eta kasuan kasuko agintari fiskalak, erakundearen legezko ordezkariak sinatu eta klub/KSA bakoitzeko ikuskatzaileek egiaztatu beharko dute, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako 319 Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

8. Informazio-zerrenda hori klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du, betiere, denboraldi bakoitzeko apirilaren 10a baino lehen, aurreko abenduaren 31ra arteko mugaeguna duten zorretarako; eta azaroaren 15a baino lehen, ekainaren 30a arteko mugaeguna duten zorretarako.

2. KAPITULUA. KLUBEK ETA KSA-EK BETE BEHARREKO ARAU EKONOMIKO-FINANTZARIOAK

X.19. ARTIKULUA. ORDAINDU GABEKO ZORRAK



Ezein klubek edo KSAk ezingo du ordaindu gabeko zorrik izan, hau da, mugaeguneratuta dauden eta lege- edo kontratu-betebehar baten arabera likidoak eta galdagarriak diren zorrik, aurkeztutako bitarteko finantza-egoeraren orrien datan. Beraz, horiek ez betetzeak esan nahi du desoreka ekonomiko-finantzarioa egon daitekeela etorkizunean, Erregelamendu honen 16.,17. eta 18. artikuluetan bere II. Eranskinarekin lotuta zehazten diren moduan, Sozietatearen Estatutuetako 63. eta 64. artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

3. KAPITULUA.- ETORKIZUNEAN DESOREKA EKONOMIKO-FINANTZARIOA EGON DAITEKEENAREN ADIERAZLEAK BIDERAGARRITASUN PLANA

X.20. ARTIKULUA. OREKA-PUNTUAREN ADIERAZLEA

1. Klub eta KSA guztiek, gainera, Oreka Puntuaren adierazlea bete beharko dute, eta, beraz, hori betetzen ez badute **etorkizunean desoreka ekonomiko-finantzarioa egon daitekeenaren** adierazletzat joko da, diru-sarrera garrantzitsuen eta gastu garrantzitsuen arteko alde gisa ulertuta, Erregelamendu honen I. Eranskinean azaltzen den moduan.

⁵⁽⁾ 2019/2020 denboraldian zehar COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, Oreka Puntuaren adierazlea kalkulatzeko 2019/2020 denboraldirako egoera horrek eragindako inpaktua identifikatuko da, Erregelamendu honetako 13.1 artikulua aipatzen duen ikuskatzailearen txostenaren bidez. Txosten hori ez bada aurkeztu, ulertuko da eragina zero ("0") izan dela artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Aurrekoa deusetan galarazi gabe, LIGaren Aurrekontuak Baliozkotzeko Organoak Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari eskatu ahal izango dio klubetatik/KSAetatik informazio gehigarria edo osagarria jasotzeko, hala badagokio. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak modu arrazoituan doitu ahal izango du inpaktuaren kuantifikazioa.

Azkenean zehazten den eragina ez da kontuan hartuko Oreka Puntua kalkulatzeko -Erregelamendu honen I. Eranskinean ezarritakoaren arabera definituta- ikuskatutako azken denboraldia 2019/2020 denean. Hala ere, ez da egokituko Aurrekontuak Egiteko Arauen ondorioetarako, bereziki, aurrekontu-orekaren ekuazioa eta 2020/2021 denboraldiko kirol-plantillaren kostuaren muga kalkulatzeko.

2. Adierazle horri buruzko informazioa klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du Erregelamendu honek urteko kontu ikuskatuak LIGari entregatzeko ezartzen duen data berean, eta edozein egoeratan, azaroaren 30a baino lehen.
3. Oreka Puntua kalkulatzeko arauetan egiten diren gastu garrantzitsuei buruzko aipamenak, betiere, gastu handiagoaren eta gero itzultzearen ondorioaren arabera doitu dira, klubak/KSAk kontsumitutako kirol-plantilla inskribagarriaren kostuaren adinako zenbatekoan, Aurrekontuak Prestatzeko Arauetan berariaz jasotako kasu bereziren baten babesean, baldin eta bi inguruabar hauek batera gertatzen badira:
 - a) Gastu garrantzitsua Baliozkotze Organoak alde aurretik eta berariaz baimendutako klausula, akordio edo kontratuei dagokie.

⁵ 20. artikuluko lehen ataleko azken hiru paragrafoak Xedapen Iragankor Bakarraren hirugarren paragrafoaren arabera sartu dira Erregelamendu Orokorrean, eta iragankorrak dira.



- b) Baliozkotze Organoaren iritziz, gastu garrantzitsu horren eragina itzuliko den denboraldia segurtasunez aurreikus daiteke, denboraldi horretan klubaren/KSAren kirol-plantillaren kostuaren muga murriztuta.

Argibiderako, neutralizatuko den kostua kasuan kasuko jokalaria izena emateko denboraldiari dagokiona bakarrik izango da.

X.21. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDUAN DAGOEN ENPRESAREN PRINTZPIOAREN ADIERAZLEA

Klubak/KSAk ezin izango du funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa bete gabe utzi, eta, beraz, hori ez betetzeak etorkizunean ekonomia- eta finantza-desoreka egon daitekeela adierazten du. Egoera hori ulertuko da finantza-egoerei erantsitako ikuskapen-txostenak edo berrikuspen-txosten mugatuak printzipio hori betetzeari buruzko ziurgabetasunagatik enfasi-paragrafo bat jasotzen duenean, edo salbuespenezko edo kontrako iritzia dagoenean.

Ikuskapen-txostenak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioari buruzko enfasi-paragrafo bat baldin badu, Batzordeak, klubaren/KSAren egoera ekonomikoaren azterketa bateratua eta eskatutako informazio gehigarria kontuan hartuta, adierazle hori betetzen den ala ez erabakiko du.

X.21. bis ARTIKULUA. ONDARE GARBIAREN NARRIADURAREN ADIERAZLE NEGATIBOA

Adierazlea ez dela bete adierazten duen adierazletzat hartuko da klub/KSA baten urteko finantza-egoerek ondare garbi negatiboaren narriadura adierazten dutenean, aurreko urteko finantza-egoeretako edo aurreko urteko azken finantza-egoeretako zifra konparatiboarekin alderatuta.

Adierazle hori kalkulatzeko, ondare garbi konputagarriaren zenbatekoa doituko da, galera edo irabazi txikiaren eragin negatiboa zenbatu gabe, ezta haren ondorengo itzulketak ere, klubak/KSAk kontsumitutako kirol-plantilla inskribagarriaren kostuaren adinako zenbatekoan, Aurrekontuak Egiteko Arauetan berriaz jasotako kasu bereziren baten babesean, betiere bi inguruabar hauek batera gertatzen badira:

- a) Galera edo irabazi txikiaren baliozkotze-organoak alde aurretik eta berriaz baimendutako klausula, akordio edo kontratuei dagokie.
- b) Baliozkotze Organoaren iritziz, ziur aurreikus daiteke zein denboralditan itzuliko den galera edo irabazi hori, denboraldi horretan klubaren/KSAren kirol-plantillaren kostuaren muga murriztuta.

Argibiderako, neutralizatuko den kostua kasuan kasuko jokalaria izena emateko denboraldiari dagokiona bakarrik izango da.

X.22. ARTIKULUA. LEHEN PLANTILLARI LOTUTAKO GASTUAK

1. Etorkizuneko desoreka ekonomiko eta finantzarioaren adierazletzat hartuko da lehenengo plantillari lotutako gastuen urteko zenbateko ekonomikoa, afiliatutako klubetako/KSAetako jokalaria eta teknikaria denboraldiko diru-sarrera garrantzitsuen ehuneko hirurogeita hamar (70) baino handiagoa denean, Erregelamendu honen II. Eranskinean zehazten den moduan.

2. Klubak/KSAk dokumentu bat bete beharko du, LIGAk emandako ereduari jarraituz, eta bertan zehaztuko ditu lehen plantillari lotutako gastuak osatzen dituzten partidak, bai eta haien diru-sarrera garrantzitsuak ere.



3. Lehen plantillari lotutako gastuak eta diru-sarrera garrantzitsuak urteko kontu ikuskatuetan erregistratuta dauden kontu edo epigrafeekin bateratu beharko dira.

4. Bai kontzeptuak, bai egindako kalkuluak, sozietatearen ikuskatzaileak egiaztatu beharko ditu, eta horri buruz adostutako prozeduren txostena egin beharko du, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

5. Klub/KSA bakoitzak ikuskatutako urteko kontuak emateko Erregelamendu honetan aurreikusitako data berean aurkeztuko du adierazle horri buruzko informazioa, baina, edozein egoeratan, azaroaren 30a baino lehen.

6. Adierazle hori kalkulatzeko arauetan lehenengo plantillari lotutako gastuei buruz egiten diren aipamenak gastu handienaren eta gero itzultzearen ondorioaren arabera doituko dira beti, klubak/KSAk kontsumitutako kirol-plantilla inskribagarriaren kostuaren adinako zenbatekoan, Aurrekontuak Prestatzeko Arauetan berariaz jasotako kasu bereziren baten babesean, betiere bi inguruabar hauek batera gertatzen badira:

- a) Lehen plantillari lotutako gastuak Baliozkotze Organoak alde aurretik eta berariaz baimendutako klausula, akordio edo kontratuei dagozkie.
- b) Baliozkotze Organoaren iritziz, seguru aurreikus daiteke zein denboralditan itzuliko diren lehen plantillari lotutako gastu horiek, denboraldi horretan klubaren/KSAren kirol-plantillaren kostuaren muga murriztuta.

Argibiderako, neutralizatuko den kostua kasuan kasuko jokalaria izena emateko denboraldiari dagokiona bakarrik izango da.

X.23. ARTIKULUA. DIRU-SARRERA GARRANTZITSUEN GAINEKO ZOR GARBIAREN RATIOA

1. Klubaren/KSAren etorkizuneko desoreka ekonomiko eta finantzarioaren adierazletzat hartuko da ekainaren 30eko zor garbia denboraldi horretako diru-sarrera garrantzitsuen ehuneko ehuna baino handiagoa denean, Erregelamendu honen I. Eranskinean zehazten den moduan.

2. Zor garbiaren kalkulatik kanpo geratuko dira kirol-instalazioak (estadioa edo kirol-hiria) eraikitze, eraberritzeko, berritzeko edo nabarmen hobetzeko aktibo finkoetan egindako inbertsioengatik ordaindu gabe dauden zorren zenbatekoa. Kasu horretan, hurrengo 3. atalean eta klubaren/KSAren Aurrekontuak Egiteko Arauetan ezartzen diren arauak aplikatuko dira:

3. Inbertsioak

3.1. Kasuaren definizioa

a) Klubak/KSAk inbertsioak egin ditu aktibo finko ukigarrietan edo ukiezinetan, kirol-instalazioak eraikitze, hobetzeko edo berritzeko, estadioa edo kirol-hiria edo entrenamendurako instalazioak barne, baldin eta kluba/KSA horien jabe bada edo epe luzera erabil badezake, baliozko edozein tituluren arabera. (inbertsioak).

b) Berezko edo kanpoko baliabideak dituzten inbertsioak finantzatzeko metodoak ez du garrantzirik.

c) Nolanahi ere, eta idatz-zati honetan araututako ondorioetarako, inbertsioen zenbatekotik kenduko dira diru-laguntza publiko gisa jasotako edo konprometitutako zenbatekoak, inbertsioak finantzatzeko, edo estadioaren edo kirol-instalazioaren jabearengandik berreskura daitezkeen inbertsioen kostua.



d) Inbertsioak funtzionamenduan jarri direla ulertuko da haien xede diren aktibo finko ukigarriak kirol-instalazioetan erabiltzeko moduan daudenean eta, gainera, horien zenbatekoa klubak/KSAk behar bezala erregistratu duenean kontabilitatean.

e) Nolanahi ere, idatz-zati honetan jasotako kasutik kanpo geratzen dira amaitutako azken denboraldiko abenduaren 31 baino hamabi (12) hilabete lehenagotik edozein arrazoirengatik egikaritzen geldituta egon diren inbertsioak. Inbertsioak geldituta daudela ulertuko da aurrera egiten jarraitu ez denean eta abian jartzeko arrazoizkoak diren obra edo instalazioak egiten jarraitu ez denean, mantentze-lanak edo inbertsio ez-esanguratsuak egin arren, hasieran aurreikusitako eta abian jartzeko behar den inbertsio osoaren bolumenari dagokionez. Inbertsioak geldirik daudela ulertuko da hamabi hilabeteko epe horretan inbertitutako zenbatekoa inbertsioen aurrekontu osoaren ehuneko hogeira (20) ez denean iristen.

3.2. Inbertsioen zenbatekoaren kalkulua artikuluko honetan aurreikusitako ondorioetarako

a) Artikulu honen ondorioetarako, honako hau hartuko da inbertsioen zenbatekotzat: 3.1. paragrafoan deskribatutako aktiboetan erabiltako inbertsioen batura, klubak/KSAk Baliozkotze Organoaren aurrean egiaztatzen badu klubak/KSAk adierazitako helburu espezifikoarekin benetan gauzatu duela eta klubaren/KSAren kontabilitatean eta balantzean ibilgetutako aktibo finko gisa erregistratuta geratu dela, klubak/KSAk inorenganatzean lortutako aktibo finkoen ("Ordezkatutako Aktiboak") guztizko prezioaren zenbateko bereko zenbatekoan murriztuta, aktibo horiek beherago adierazten den epean besterendu ez badira.

Ordezkatutako aktiboak ez badira inorenganatu hamabi (12) hilabeteko epean, inbertsioen xede diren aktiboak funtzionamenduan sartzen direnetik kontaktzen hasita, inbertsioak murriztu egingo dira, 12 hilabeteko epea amaitu den denboraldian ordezkatutako aktiboen merkatuko balioaren adinako zenbatekoan.

Ordezkatutako aktiboen merkatu-balioa Baliozkotze Organoak zehaztuko du, eta klubak/KSAk zehaztaper horretarako egokitzat jotzen dituen informazio eta frogabide guztiak eman ahal izango ditu.

Azken murrizketa hori aktibo ordezkatuak besterendu ondoren edo aktibo ordezkatuak besterendu diren denboraldian hamabi (12) hilabeteko epea amaitu ondoren eta inbertsioak funtzionamenduan jarri ondoren egin beharreko ratio ekonomiko eta finantzario onargarrien lehen kalkulurako aplikatuko da.

b) Artikulu honek arautzen dituen doikuntzetarako, inbertsioen zenbatekotzat hartuko da amaitutako azken denboraldiko ekainaren 30ean itxitako finantza-egoeretan erregistratu eta kontabilizatutakoa, dagozkion murriztapenekin.

c) Inbertsioa denboraldi bateko lehen egunean ez bada martxan jarri, inbertsioen zenbateko konputagarria denboraldiaren guztizko iraupenaren arabera proportzioan murriztuko da.

d) Ekainaren 30ean inbertsioak ez badira oraindik martxan jarri, inbertsioen zenbatekoa ekainaren 30eko data horren aurreko hogeita hamasei (36) hilabeteen barruan inbertsioak gauzaten hasteko benetan inbertitutako zenbatekoen berdina izango da, betiere inbertsioak geldiarazteko kasua ez bada gertatzen.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako epea beste 12 hilabete luzatu ahal izango da, klubak/KSAk LIGAREN Baliozkotze Organoari arrazoitutako eta justifikatutako eskaera egin ondoren, betiere, lehen 36 hilabeteetan gauzaten den inbertsioaren zenbatekoaren zatidura (36 hilabete) 4 baino handiagoa bada. (Exekuzioaren lehen 36 hilabeteetan egindako inbertsio metatua/36 > 4).

3.3. Zor garbia doitzeko arauak

a) Inbertsioak D denboraldiaren ekainaren 30ean edo lehenago jarri izan badira martxan.



Zor garbiaren zenbatekoa murriztu egingo da batuketa batean, inbertsioen zenbatekoari (3.2 paragrafoan zehaztutakoaren arabera) hurrengo taulan ezarritako koefizienteak aplikatzearen emaitza izango dena. Koefiziente horiek aldatu egingo dira D denboraldia inbertsioak lehen aldiz martxan jarri direnekoa edo martxan jarri ostekoa den kontuan hartuta, gehienez ere hamar denboraldi hartuko direlarik kontuan.

Inbertsioak martxan jartzen diren denboraldia eta hurrengo denboraldiak	Inbertsioen gainean aplikatu beharreko koefiziente zuzentzailea
D lehengoa da	1
D bigarrena da	0,9
D hirugarrena da	0,8
D laugarrena da	0,7
D bosgarrena da	0,6
D seigarrena da	0,5
D zazpigarrena da	0,4
D zortzigarrena da	0,3
D bederatzigarrena da	0,2
D hamargarrena da	0,1

b) Inbertsioak D denboraldiaren ekainaren 30ean edo hori baino lehen ez badira martxan jarri eta azken data horretan gauzatzen ari badira.

D denboraldiaren ekainaren 30a baino lehen oraindik ez badira martxan jarri inbertsioak, aurreko a) letran aurreikusitako doikuntzak aplikatuko zaizkie 3.2.d) idatz-zatian aurreikusitakoari jarraituta kalkulaturako eta aurreko hogeita hamar hilabeteetan metaturako inbertsioei, adierazitako denbora-mugekin.

3.4. Informazio-betebeharrak

3. atal honetan araututako inbertsioak egiteagatik doikuntzak aplika daitezela eskatzen duen klubak/KSAk informazio hau emango dio Baliozkotze Organoari eskaera egiten duen unean:

- Inbertsioen deskribapena.
- Egindako edo egiten ari diren inbertsioen zenbatekoa.
- Inbertsioak abian jarri izan diren eguna, hala badagokio.
- Funtzionamenduan hastea aurreikusten den data.
- Inbertsioek ordezkaturako dituzten aktiboen deskribapena.
- Klubak/KSAk ordeztutako aktiboiei ematen dien balorazioa.

4. Klubak dokumentu bat bete beharko du LIGAk emandako ereduari jarraituz, eta bertan zehaztuko ditu zor garbia osatzen duten partidak eta diru-sarrera garrantzitsuak.

5. Zor garbia eta diru-sarrera garrantzitsuak ikuskatutako urteko kontuetan erregistratuta dauden kontu edo epigrafeekin bateratu beharko dira.

6. Bai kontzeptuak bai egindako kalkuluak sozietatearen ikuskatzaileak egiaztatu beharko ditu, eta horri buruz adostutako prozeduren txostena egin beharko du, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako



ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

7.- Adierazle horri buruzko informazioa klub/KSA bakoitzak aurkeztuko du ikuskatutako urteko kontuak emateko Erregelamendu honetan aurreikusten den data berean, baina, edozein egoeratan, azaroaren 30a baino lehen.

X.23. BIS ARTIKULUA. ZOR GARBIAREN RATIOA

1. Etorkizuneko desoreka ekonomiko-finantzarioaren adierazletzat hartuko da Liburu honen 14. artikulua arabera aurkeztutako tarteko finantza-egoerek zor garbiaren egoera azaldu ondoren aurreko urteko tarteko finantza-egoeretan zen kopuru balioakidearen aldean okerrera egin duela adierazten dutenean, aurreko ekainaren 30eko zor garbiak aurkeztutako tarteko finantza-egoeren aurreko kirol-denboraldiari dagozkion sarrera garrantzitsuen ehuneko laurogei gainditzen badu, betiere.

2. Ez zaie artikulu honen edukia aplikatuko **Kluben eta KSAen Aurrekontuak egiteko Arauen II.** Tituluko Lehen Kapituluako Bosgarren Atalean zehazten diren finantza-egoera onargarriei buruzko ratio ekonomiko eta finantzarioak betetzen dituzten klubei edo KSAei.

X.23. TER ARTIKULUA. D DENBORALDIKO ZOR GARBI JASANGARRIAREN RATIOA

1. D denboraldiaren ekainaren 30ean zor garrantzitsua HOGEITA HAMAR MILIOI (30.000.000,00) EURO baino handiagoa bada eta hori D eta D-1 denboraldietako irabazi garrantzitsuen batez bestekoa baino zazpi (7) aldiz handiagoa bada, desoreka ekonomiko posible baten adierazletzat hartuko da.

2. Horren harira, zorra eta diru-sarrera garrantzitsuak honela kalkulatu dira:

- (i) Zor garrantzitsua da zor garbiaren emaitza ken aktibo finko ukigarrietan edo ukiezinetan egindako inbertsioak, kirol-instalazioak eraikitzeko, hobetzeko edo berritzeko, kirol-estadioa edo kirol-hiria edo entrenamendu-instalazioak barne, baldin eta klub/KSA horien jabe bada edo epe luzera horien erabilera izan badezakete, baliozko edozein tituluren arabera eta Erregelamendu honen 23. artikuluko 3) ataleko irizpideei jarraituta.
- (ii) Informazio-aldi bateko irabazi garrantzitsuak kalkulatzeko, diru-sarrera garrantzitsuak (Oreka Puntuaren emaitzarako kalkulatuak) batu eta gastu garrantzitsuak (Oreka Puntuaren emaitzarako kalkulatuak) kentzen dira.

3. Adierazle horri buruzko informazioa klub/KSA bakoitzak ikuskatutako urteko kontuak emateko Erregelamendu honetan aurreikusitako data berean aurkeztuko da, baina, edozein egoeratan, azaroaren 30a baino lehen.

X.23. QUATER ARTIKULUA. D+1 DENBORALDIAREN ZOR GARBI JASANGARRIAREN RATIOA

Desoreka ekonomiko posible baten adierazletzat hartuko da D+1 denboraldiko ekainaren 30ean zor garrantzitsua (arestian zehaztu da) HOGEITA HAMAR MILIOI (30.000.000,00) euro baino handiagoa bada eta hori D+1, D eta D-1 denboraldietako irabazi garrantzitsuen batez bestekoa baino zazpi (7) aldiz handiagoa bada.

Klub/KSA bakoitzak ikuskatutako urteko kontuak emateko Erregelamendu honetan aurreikusitako data berean aurkeztuko du adierazle horri buruzko informazioa, baina, edozein egoeratan, azaroaren 30a baino lehen.

X.24. ARTIKULUA. JOKALARIEN ETA TEKNIKARIEN FEDERAZIO-ESKUBIDEEN TRANSFERENTZIEN SALDOA



1. Betekizuna ez betetzearen adierazletzat hartzen da klub/KSA batek EHUN MILIOI (100.000.000,00) eurotik gorako defizita duenean jokalarien eta teknikarien federazio-eskubideengatik transferentziengatik jokalariai inskribatzeko denboraldiko edozein garaitan.
2. Ildo horretan, inskripzio aldi bati dagokion jokalarien federazio-eskubideen transferentzien saldoa honako hauen arteko aldearen zenbateko garbia da:
 - (i) jokalaria bakoitzaren federazio-eskubideak eskuratzeko kostu agregatuak, klubeko/KSAeko jokalaria berrien eta jokalaria guztien federazio-eskubideen kostuen zenbateko agregatuari dagokionez –kostu horiek guztiak ordainduta eta/edo ordaintzeko moduan egongo dira–; eta,
 - (ii) jokalarien federazio-eskubideen transferentziaren ondoriozko diru-sarrera agregatuak –diru-sarrera horiek guztiak kobratuak eta/edo kobratzekoak eta garbiak izango dira transferentzia-eragiketaren zuzeneko edozein kostuaren gainean.
3. Jasandako kostu agregatuak inskripzio-aldi batean sortutako diru-sarrera agregatuak baino handiagoak badira, klubak/KSAk defizita izango du jokalarien federazio-eskubideen transferentziengatik; beraz, irizpide hori ez da beteko, eta kluba/KSA etorkizunean finantza-desorekan egon daitekeela ulertuko da.

HIRUGARREN TITULUA.- DIZIPLINA ARAUBIDEA ETA KONTROL EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ARAUAK EZ BETETZEA

X.25. ARTIKULUA. KONTROL EKONOMIKOAREN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Kontrol ekonomiko-finantzarioko arauak ez badira betetzen, Estatutu Sozialetan jasotako diziplina-erregulazioa aplikatuko da, eta, ondorio horietarako, 78. bis artikulua aplikatu beharko da aplikatu daitezkeen beste agindu batzuen gainetik.

ERANSKINAK

X. LIBURUKO I. ERANSKINA - OREKA PUNTUA ARAUTZEA

1. APLIKAZIO EREMUA

Klub/KSA guztiek Oreka Puntuaren araua bete beharko dute.

2. OREKA PUNTUAREN EMAITZAREN NOZIOA.

1. Diru-sarrera garrantzitsuen eta gastu garrantzitsuen arteko aldeak, ikuskatzailearen txostenean kuantifikatutako salbuespenen arabera doituar, Oreka Puntuaren emaitza



osatzen du, eta kontabilitate-aldi bakoitzerako aurrerago xedatutakoaren arabera kalkulatu behar da.

2. Gastu garrantzitsuak kontabilitate-aldi bateko diru-sarrera garrantzitsuak baino txikiagoak badira, klubak/KSAk superabita izango du Oreka Puntuan.

3. Klubaren/KSAren gastu garrantzitsuak kontabilitate-aldi bateko diru-sarrera garrantzitsuak baino handiagoak badira, Oreka Puntuan defizita izango du.

4. Oreka Puntuaren emaitza osoa izango da jarraipen-aldiak estaltzen duen kontabilitate-aldi bakoitzeko Oreka Puntuaren emaitzen batura, hau da, D, D-1 eta D-2 kontabilitate-aldien batura, D izanik urteko kontabilitate-aldia, Erregelamendu honetako araudiaren arabera ikuskatutako urteko kontuak eskatu diren aldiari dagokiona.

5. Oreka Puntuaren emaitza osoa positiboa bada (zero edo handiagoa), klubak/KSAk erabateko superabita izango du Oreka Puntuan jarraipen-aldi horretarako. Oreka Puntuaren emaitza negatiboa bada (zero baino txikiagoa), klubak/KSAk erabateko defizita izango du Oreka Puntuan, jarraipen-aldi horretarako.

6. Jarraipen-aldirako Oreka Puntuan erabateko defizita izanez gero, klubak/KSAk frogatu ahal izango du defizit hori superabit batek murrizten duela (halakorik badago), D-2ren aurreko bi kontabilitate-aldietako Oreka Puntuaren emaitzen baturaren ondorioz (hau da, D-3 eta D-4 kontabilitate-aldiei dagokiena, eta betiere, LIGAk ezarritako araudiaren arabera ikuskatuta badaude).

3. DIRU-SARRERA ETA GASTU GARRANTZITSUEN NOZIO LABURTUA

1. Eranskin honetan jasotako xedapenen kalterik gabe, hauek dira diru-sarrera garrantzitsuak, labur-labur azalduta (baina ez dira, halere, horiek bakarrik izango): leihatilako diru-sarrerak, emankizun-, babes- eta publizitate-eskubideak, merkataritza-jarduerak eta bestelako ustiapen-sarrerak, jokalariai besterentzetik edo lagaztetik sortutako irabaziak, ibilgetu materiala eta finantza-sarrerak besterentzeagatiko gainbalioak, eta futbolarekin zerikusirik ez duten eragiketen ondoriozko diru-sarrerak, 7.1.l puntuan ezarritako salbuespenekin.

2. Ez dira sartzen 7.1.j) atalean zehazten diren eta diruzkoak ez diren kontu-sailetatik sortutako diru-sarrerak, atal horretako azken lerroaldean aipatzen diren diru-laguntzak izan ezik.

3. Eranskin honetan jasotako xedapenen kalterik gabe, hauek dira gastu garrantzitsuak, labur-labur azalduta –baina ez dira, halere, horiek bakarrik izango–: salmenten kostua, langileen soldadak eta lansariak, ustiapen-gastuak, ibilgetu materialaren amortizazioa (aldi berean ibilgetu horrekin lotutako diru-sarrera bat egotzi denean), jokalarien federazio-eskubideen amortizazioa eta finantza-kostuak.

4. Ez dira sartzen ibilgetu ukiezinaren amortizazioa/narriadura, harrobiaren garapenari zuzenean egotz dakizkiokeen jardueretako gastuak, garapen komunitarioari zuzenean egotz dakizkiokeen jardueretako gastuak, eta diruzkoak ez diren beste zordunketa edo karga batzuk, ibilgetu materiala eraikitzeari egotz dakizkiokeen finantza-kostuak, gastu fiskalak edo futbolarekin zerikusirik ez duten eragiketetatik eratorritako gastu batzuk.

5. Klubak/KSAk urteko kontuekin kalkulatu eta bateratu beharko ditu diru-sarrera eta gastu garrantzitsuak.

6. Diru-sarrera eta gastu garrantzitsuak sakonago definitzen dira Eranskin honen amaieran.

4. JARRAIPEN-ALDIAREN NOZIOA



Jarraipen-aldia da kluba/KSA Oreka Puntuaren arauaren ondorioetarako baloratzen den aldia. Arau gisa, elkarren segidako hiru kontabilitate-aldi betetzen ditu:

- a) D izanik urteko kontabilitate-aldia, Erregelamendu honetako arauen arabera ikuskatutako urteko kontuak eskatu direna (aurrerantzean, D kontabilitate-aldia),
- b) D-ren aurreko urteko kontabilitate-aldia D-1 izango da, eta horrela hurrenez hurren, D- 4ra arte.

Adibide gisa, 2018ko abenduko amaierako tarteko finantza-egoera aztertzen bada:

- D izango da 2018ko ekaineko itxierari dagokion finantza-informazioa.
- D-1 izango da 2017ko ekaineko itxierari dagokion finantza-informazioa.
- D-2 izango da 2016ko ekainaren itxierari dagokion finantza-informazioa.
- D-3 izango da 2015eko ekainaren itxierari dagokion finantza-informazioa.
- D-4 izango da 2014ko ekaineko itxierari dagokion finantza-informazioa.

5. DESBIDERATZE ONARGARRIAREN NOZIOA

1. Desbideratze onargarria da klub/KSA batek Oreka Puntuaren baldintza betetzen duela ulertzeari begira Oreka Puntuan onar daitekeen gehienezko defizit osoa.

2. Desbideratze onargarria

- (i) BOST MILIOI (5.000.000,00) eurokoa izango da Lehen Mailako klubentzat/KSAentzat; eta,
- (ii) Baliozkotze Organoak onartutako negozio-zifraren azken zenbateko garbiaren EHUNEKO HAMARREKOA (%10), baina gehienez jota 2 milioi euroko desbideratzea gaindu gabe, Bigarren "A" Mailako klubentzat/KSAentzat. Hala ere, maila hori 30 milioi eurokoa izan daiteke kopuru hori akziodunen edo lotutako alderdien ekarpenek estaltzen badute eta horiek klubak eta KSAen aurrekontuak egiteko arauetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

3. Akziodunen edo lotutako alderdien ekarpenak kontuan hartuko dira desbideratze onargarria zehazteko orduan, baldin eta honako aldi hauetan eman eta onartu izan badira:

- a) D, D-1 edo D-2 kontabilitate-aldietako bateko finantza-egoeretan; edo,
- b) Erregelamendu honen eskakizunen arabera aurkeztutako bitarteko azken finantza-egoeran, edo, bestela esanda, kontabilitate-aldiaren urteko abenduaren 31ra arteko (D+1) kontabilitate-erregistroetan.

4. Ondare garbiari egiten zaizkion kapital eta bazkideen ekarpenak bakarrik hartuko dira kontuan, baldin eta sozietatean dirua sartzea badakarte edo ekarri badute.

Partaidetzako maileguak ekarpenentzat hartuko dira soilik indarra duen araudiaren arabera entitatearen ondare garbiaren parte direnean.

5. Desbideratze onargarria Erregelamendu honek aztertzen duen denboraldian jokatu izan den kategoriari aplikatuko zaio.

6. OREKA PUNTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Klubak/KSAk honako hauek prestatu eta aurkeztu beharko ditu:

- a) D-1 kontabilitate-aldiari dagokion Oreka Puntuari buruzko informazioa, aldeztu aurretik bidali ez bada;



b) D-2 kontabilitate-aldiari dagokion Oreka Puntuari buruzko informazioa, aldez aurretik bidali ez bada;

c) D kontabilitate-aldiari dagokion Oreka Puntuari buruzko informazioa.

2. Oreka Puntuaren kalkuluari buruzko informazioa honako hau izango da:

a) Klubak/KSAk prestatua eta ikuskatzaileek egiaztatua, horri buruz adostutako prozeduren txostena eginez, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

b) Zuzendaritzak onetsia. Horretarako, aitorpen labur bat aurkeztu beharko da, informazioa zehatza eta osoa dela eta klubeko administrazio-organoaren izenean sinatuta dagoela egiaztatzeko.

7. DIRU-SARRERA GARRANTZITSUAK

7.1. Diru-sarrera garrantzitsuen definizioa

a) Diru-sarrerak - Leihatilako diru-sarrerak

Barne hartzen ditu lehiaketa nazionaletan (Liga eta Kopa), UEFAREN klubean arteko lehiaketetan eta beste partida batzuetan (lagunartekoak eta birak) izaten diren onarpen orokorraren eta enpresak partidetara joatearen ondoriozko diru-sarrerak, bai partidaren egunean saldutako abonuenak, bai sarrerenak. Leihatilako diru-sarreren barruan sartzen dira bazkideen kuotak ere.

b) Diru-sarrerak - Babesletza eta publizitatea

Barne hartzen ditu babesle nagusiaren, beste babesle batzuen, futbol-zelaiaren perimetroko publizitatearen eta bestelako kartelen nahiz beste edozein babesleren diru-sarrerak.

c) Diru-sarrerak - Emankizun-eskubideak

Barne hartzen ditu lehiaketa nazionaletan (Liga eta Kopa), UEFAREN klubean arteko lehiaketetan eta beste partida batzuetan (lagunartekoak eta birak) telebistei, irratiei, baliabide berriei eta beste hedabide batzuei emankizun-eskubideak saltzearen ondoriozko diru-sarrerak.

d) Diru-sarrerak - Merkataritza-jarduerak

Barne hartzen ditu merchandising jardueretatik, janari eta edari salmentatik, hitzaldietatik, zozketetatik eta beste kategoria batzuetan sartzen ez diren bestelako jarduera komertzialetatik datozen diru-sarrerak.

e) Diru-sarrerak - Elkartasuna eta UEFA sariak

Barne hartzen ditu UEFAK antolatutako klubean arteko lehiaketa batean parte hartzeagatik erakunde horrek ematen dituen eta/edo elkartasun-mekanismoaren arabera jasotako banaketetatik eratorritako diru-sarrerak.

f) Diru-sarrerak Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk

Barne hartzen ditu beste modu batera azaldu ez diren beste ustiapen-sarrera batzuk, puntu honetako k) letran bazterturik ez dauden eta futbolarekin zerikusirik ez duten eragiketarako beste jarduera batzuen ondoriozko diru-sarrerak barne.



g) Jokalarien federazio-eskubideak besterentzeagatiko irabaziak

Klubek/KSAek kapitalizazio- eta amortizazio-metodoa erabili beharko dute jokalariai erosteko gastuak kontabilizatzeko. Jokalari baten federazio-eskubideak besterentzeagatiko irabaziak kalkulatzeko, traspassoaren unean jokalariaren fitxaren kontabilitateko balio garbia, jasotako zenbateko garbia eta besterentzeagatik kobratu beharrekoa kenduko dira.

Federazio-eskubideak besterentzeagatiko irabaziak (harrobiko jokalarienak barne) kontuan hartuko dira besterentzearen zenbateko garbiak transferentziaren unean jokalaria eskuratzeko eskubideen kontabilitate-balio garbia gainditzen duenean.

Jokalarien federazio-eskubideen transferentziaren ondoriozko irabaziak dira. Transferentziaren unean jokalaria dituen federazio-eskubideen kontabilitate-balio garbia, transferentziari lotutako gastuak eta kobrantza atzeratuaren ondoriozko interes implizituak, jasotako zenbateko garbia eta besterentzeagatik kobratu beharrekoa kenduz kalkulatu da.

Barne hartzen ditu, halaber, prestakuntzagatiko kalte-ordainaren diru-sarrerak eta elkartasun-mekanismoa, FIFAREN Jokalarien Estatutuaren eta Transferentziari buruzko Araudiaren arabera kalkulatu.

Irabazi horiek Oreka Puntuaren emaitza kalkulatzeko diru-sarrera garrantzitsuetan sartu beharko dira.

h) Ibilgetu materiala besterentzeagatiko gainbalioak

Ibilgetu materiala kontabilitateko aldi batean besterentzeagatiko irabaziak Oreka Puntuaren emaitzan sartuko dira, irizpide hauei jarraituta:

1. Estadio bat edo entrenamendu-instalazio bat ez den beste ibilgetu bat besterentzen bada, eta haren ordez beste ibilgetu material bat ez bada jartzen, besterentze horrek lortutako gainbalioa hartuko da diru-sarrera garrantzitsu gisa.

2. Ibilgetu material bat besterentzen denean, haren ordez beste ibilgetu bat jarri behar denean, diru-sarrera garrantzitsu gisa kontatuko den zenbatekoa hau izanen da:

a) besterentzeak lortutako gainbalioaren eta balantzearen ibilgetuaren dagokion partidan jasotako ordezkapen-aktiboaren kostu totalaren arteko aldea. Ondorio horietarako, ordezkapen-aktiboaren kostu osotzat hartuko da, indarrean dagoen kontabilitate-araudiaren arabera, aurreko elementua besterendu aurreko edo ondorengo urtean erosten diren aktiboek dagokien balio osoa, baldin eta, beren izaeragatik, egungo baldintzengatik eta aurreikusitako xedeagatik, besterendutako elementua ordezkatzen duela adierazten duen ebidentzia objektiboa badago.

b) besterentzeak lortutako gainbalioaren eta 50 urteko errentamendugatiko gutxieneko ordainketen egungo balioaren arteko aldea, klubak errentamenduko/alokairuko akordio baten bidez erabiliko duen ordezkapen-aktiboari dagokionez.

3. Horren harira, klubak ez badu ordezkatzen ibilgetu material hori, Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruari jakinarazi beharko dio, dagokion txostenarekin batera, diru-sarrera garrantzitsu gisa zenbatu beharreko gainbalioaren zenbatekoa onartzeko ala ez onartzeko, bai aztertutako aldian, bai hurrengo aldietan.

4. Estadio bat edo entrenamenduko instalazio bat den ibilgetu bat besterentzen denean eta hura ez denean ordezten, ondoriozko gainbalioa ez da sarrera garrantzitsu gisa kontatuko.

i) Finantza-sarrerak



Diru-sarrera finantzarioak interesak sortzen dituzten entitateko aktiboak hirugarrenek erabiltzearen ondoriozko interesekin lotuta daude.

j) Diruzkoak ez diren kontu-sailetatik sortutako diru-sarrerak

Oreka Puntuaren emaitzatik kanpo geratzen dira diruzkoak ez diren kontu-sailetatik datozen diru-sarrerak, hau da, legez onartutako errebalorizazioetatik datozenak, baldin eta ez badute diruzaintzan diru-sarrerarik edo kobratzeko eskubiderik sortzen besterentzea egin arte.

Sarrera garrantzitsuen kalkulutik baztertutako diruaz bestelako kontu-sailen artean, honako hauek daude:

- Ibilgetu materialaren eta ez-materialaren balio-handitzeak;
- Inbentarioen balio-handitzeak;
- Balio-galtzearen edo amortizazioaren kostuak berriz kalkulatzea aktibo finkoei dagokienez (jokalarien federazio eskubideak barne); eta,
- Finantza-kostuen ondoriozko irabaziak/galerak, diruaz bestelako kontu-sailekiko kanbio-tasarengatik.
- Klubak/KSAk jasotako diru-laguntzak, eskudiruzko sarrerarik ekarri ez dutenean.

Diru-laguntza bat diruzko kontu-sail bat izanen da, kobratu izan bada eta hura emateko adostutako baldintzak ez badira betetzen ez dela itzuli beharko zehazten bada.

Aktibo baten emakidari lotutako diru-laguntzen kasuan, diru-laguntza diru-sarrera garrantzitsutzat jo ahal izango da baldin eta aktibo horren amortizazioa gastu garrantzitsutzat jotzen bada eta sortzapenaren arabera gertatzen bada; diru-laguntzari lotutako ondasunaren amortizazioa ez bada gastu garrantzitsutzat hartzen, orduan ez da diru-sarrera garrantzitsua izango.

k) Lotutako alderdiekin arrazoizko baliotik gora egindako errenta-eragiketak

Oreka Puntuaren emaitzaren ondorioetarako, lotutako edozein alderdiren transakzioen arrazoizko balioa zehaztu beharko du klubak. Arrazoizko balio zenbatetsia eta erregistratutako balioa bat ez datozenean, diru-sarrera garrantzitsuak doitu egin beharko dira, kontuan hartuz, hala ere, diru-sarrera garrantzitsuetan ezin izanen dela goranzko doikuntzarik egin.

Lotutako alderdien artean transakzioa eginik klub bati transakzioaren arrazoizko balio zenbatetsia frogatzeko eska diezaioketen adibideen artean, hauek daude:

- Klub batek lotutako alderdi bati babesletza-eskubideak saltzea;
- Klub batek lotutako alderdi bati sarrera korporatiboak saltzea edo klub batek enpresa-palko bat erabiltzea; eta,
- Lotutako alderdi batekin klubari produktuak hornitzeko edo zerbitzuak emateko egindako transakzio oro.

Diru-sarrera garrantzitsuetatik beti kanpo utzi beharko direlako doitu egin beharko diren lotutako alderdien transakzioen adibideen artean, honako hauek daude:

- Dohaintza modura lotutako alderdi bateko klub batek jasotako kopuruak; eta,



- Lotutako alderdi batek klub baten izenean likidatutako obligazioak.
- Lotutako alderdi baten ekarpenak Oreka Puntuaren baldintzaren balorazioaren zati gisa desbideratze onargarria (5. puntuaren zehazten den moduan) zehazteko bakarrik hartu ahalko dira kontuan, Eranskin honen 9. puntuan sakonago azaltzen den bezala.

Eranskin honen 10. puntuan ageri dira lotutako alderdiaren, lotutako alderdien transakzioen eta lotutako alderdi baten transakzioen arrazoizko balioaren definizioak.

Nolanahi ere, ez dira diru-sarrera garrantzitsutzat hartuko klubak/KSAk erregistratutakoak LIGAREN Baliozkotze Organoak edo Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak ebazten badu merkatuaren gainetik daudela edo ez dutela zentzu ekonomikorik.

l) Futbolarekin eta klubarekin zerikusirik ez duten eragiketen diru-sarrerak

Futbolarekin zerikusirik ez duten eragiketen diru-sarrerak diru-sarrera garrantzitsuen kalkulatik kanpo geldituko dira futboleko klubaren jardueri, kokapenei edo marketinei argi eta garbi eta eskusiboki lotuta ez daudenean.

Urteko kontuetan futbolarekin zerikusirik ez duten eta diru-sarrera garrantzitsuen kalkuluan sartuko diren jardueren artean, honako hauek daude, adibide gisa:

- Klub baten estadioan edo estadiotik hurbileko eta entrenamenduko instalazioetan egindako eragiketak, esaterako hauetan: hotela, jatetxea, hitzaldi-zentroa, enpresa-instalazioak (alokairurako), osasun-laguntza zentroa, beste kirol-ekipo batzuk; eta,
- Beren eragiketen zati gisa klub baten izena/marka argi eta garbi erabiltzen duten eragiketak.

m) Lehiaketetan egindako kitatzeen ondoriozko diru-sarreren eta gastuen tratamendua.

Konkurtso prozesuetako kitatzeen ondoriozko diru-sarrera eta gastuak ez dira kontuan hartu behar diru-sarrera eta gastu garrantzitsuak kalkulatzeko.

8. GASTU GARRANTZITSUAK

8.1 Gastu garrantzitsuen definizioak:

a) Gastuak - Salmenten/Materialen gastuak

Barne hartzen du jarduera guztien salmenta-kostua, adibidez catering-a, merchandising-a, laguntza medikoa, kirol-ekipoak eta -materiala.

b) Gastuak - Langileen ordainsarietako gastuak

Kontabilitateko aldian langileek, kontseilariak, zuzendariak eta kudeaketaz arduratzen diren guztiek emandako zerbitzuen kontraprestazio guztiak biltzen ditu.

Langileen ordainsarien gastuek kontraprestazio mota guztiak estaltzen dituzte, besteak beste, epe laburreko ordainsariak (soldatak, lansariak, gizarte-prestazioak, onuren eta primen banaketa), gauzako ordainsariak (osasun-laguntza, ostalua, autoak eta doako edo diruz lagundutako produktuak edo zerbitzuak), erretiroko ordainsariak (enplegu-aldia amaitu ondorengo ordaindukoak), epe luzeko beste ordainsari batzuk, kargua uzteagatiko kalte-ordainak eta akzioetan oinarritutako ordainketa bidezko transakzioak.



c) Gastuak - Bestelako ustiapen-gastuak

Barne hartzen dira ustiapeneko gainerako gastuak, adibidez partidetakoko gastuak, alokairuaren kostuak, gastu administratibo eta orokorrak eta futbolarekin zerikusirik ez duten eragiketen gastuak. Aktibo finkoen balio-galera, amortizazioa eta balio-galtzea ez dira sartuko beste ustiapen-gastu batzuetan, eta bereizita jakinarazi behar da galdu-irabazien kontuan.

d) Jokalarien gaineko federazio-eskubideak amortizatzea/narriatzea.

Kontabilitate-aldi batean jokalarien gaineko federazio-eskubideak eskuratzeko kostuen amortizazioa edo narriadura Kontabilitateko Plan Orokorrean ezarritako Erregistro eta Balorazio Arauetan eta kirol-sozietate anonimoetarako dagokion egokitzapenean xedatutakoaren arabera kalkulatu behar da.

e) Jokalarien federazio-eskubideak besterentzeagatiko galerak

Jokalarien federazio-eskubideen transferentziaren ondorioz sortutako galerak dira. Transferentziaren unean jokalariaren fitxaren kontabilitate-balio garbia, transferentziari lotutako gastuak eta kobrantza atzeratuaren ondoriozko interes implizituak, jasotako zenbateko garbia eta besterentzeagatik kobratu beharrekoa kenduz kalkulatu dira. Prestakuntzako eta elkartasun mekanismoko kalte-ordainen gastuak ere sartzen dira, FIFAren Jokalarien Estatutuari eta Transferentziari buruzko Araudiaren arabera kalkulatu.

Galera horiek Oreka Puntuaren emaitza kalkulatzeko gastu garrantzitsuetan sartu beharko dira.

f) Finantza-kostuak eta dibidenduak

Finantza-kostuak barne hartzen dituzte funtsen maileguarekin lotutako interesak eta bestelako kostuak, banku-zorpeko edo -gainkargen interesak, banku-maileguen interesak eta bestelakoak, eta finantza-errentamenduei dagozkien finantza-kargak.

Ondare-tresnen edukitzaileei egindako banaketak dira dibidenduak. Dibidenduak urteko kontuetan aitortzen direnean, galdu-irabazien kontuaren saldoaren zati izan arren, dibidenduen zenbatekoa gastu garrantzitsu gisa sartu beharko da Oreka Puntua kalkulatzeko.

g) Lotutako alderdiekin zentzuzko balioaren azpitik egindako gastuen eragiketak

Oreka Puntua kalkulatzeko, lotutako edozein alderdiren transakzioen arrazoizko balioa zehaztu beharko du klubak. Arrazoizko balio zenbatetsia eta erregistratutako balioa bat ez datozenean, gastu garrantzitsuak doitu egin beharko dira, kontuan hartuz, hala ere, gastu garrantzitsuetan ezin izanen dela beherantz doikuntzarik egin.

h) Harrobia garatzeko jardueretako gastuak

Harrobiaren garapeneko gastuak Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulutik kanpo garatzeko behar diren doikuntzak egin ahalko dira.

Harrobia garatzeko jardueren gastuak dira klub batek harrobia garatzeko programaren barruan jokalariai entrenatzeko, hezteko eta trebatzeko jardueri zuzenean egotz daitezkeen gastuak (hau da, ez ziren egongo klubak harrobia garatzeko jarduerarik egin ez balu). Gastu horien artetik kenduko dira klubak harrobia garatzeko programarengatik zuzenean jaso dituen diru-sarrerak guztiak.

Oreka Puntuaren betekizunak erakunde informatzaile bati aukera ematen dio harrobiaren garapeneko jardueretan egindako gastuak gastu garrantzitsuetatik



kanpo uzteko, horren helburua baita klubaren epe luzerako irabaziei begira inbertsioa eta instalazioetan eta jardueretan egindako ordainketak sustatzea.

h.1.- Harrobia garatzeko jardueren artean, besteak beste, honako jarduera hauek sartzen dira:

- i) Gazte-sektore baten antolaketa;
- ii) Nazio-, eskualde- edo toki-mailako lehiaketa ofizialetan edo programetan, kide deneko federazioak onartuak direnekoetan, parte hartzen duten gazte-taldeak;
- iii) Hainbat adin-talderentzako futboleko heziketa-programak (adibidez, jokalarien prestakuntza taktikoa, fisikoa edo teknikoa);
- iv) "Jokoaren arauai" buruzko hezkuntza-programa;
- v) Harrobiko jokalarientzako laguntza medikoa; eta,
- vi) Futbolaz kanpoko prestakuntza-akordioak.

h.2.- Zuzenean egotz daitezkeen eta, beraz, gastu garrantzitsuak kalkulatzeko orduan kontuan hartuko EZ diren gastuen artean, hauek daude:

- i) Harrobia garatzeko jardueretan erabilitako edo kontsumitutako materialen eta zerbitzuen kostuak, hala nola, ostatu-gastuak, gastu medikoak, hezkuntza-gastuak, bidaia- eta mantenu-gastuak, ekipoak eta arropa, instalazioen alokairua;
- ii) Harrobiaren garapenean erabat inplikaturik dauden langileentzako ordainsarien kostuak, jokalaria izan ezik, adibidez harrobiaren garapen-programaren arduraduna eta harrobiko entrenatzaileak, baldin eta klubak harrobiaren garapeneko jardueretarako soilik kontratatu baditu;
- iii) Harrobiko jokalaria diren eta sozietatearen ekitaldia ixten den egunean 18 urte baino gutxiago dituzten langileen ordainsarien kostuak. Harrobiko jokalaria diren eta sozietatearen ekitaldia ixteko egunean 18 urte edo gehiago dituzten langileentzako ordainsarien kostuak ezin izanen dira gastu garrantzitsuetatik kanpo utzi.

h.3.- Informazioa ematen duen erakunde batek ezin baditu bereizita identifikatu harrobi-garapeneko jardueretan egindako ordainketak bestelako ordainketetatik, ordainketa horiek ez dira harrobiaren garapenerako jardueretatik eratorritako gastutzat hartuko, eta beraz, gastu garrantzitsutzat hartuko dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, gastu garrantzitsutzat hartuko dira honako hauek, besteak beste:

- i) Jokalarien ikuskatzaileen kostuak;
- ii) Harrobiko jokalaria baten fitxa lortzeko primak, adibidez agente bati edo beste klub bati ordaindutako primak;
- iii) Salmenta-gastuak, administrazio-gastuak eta gastu orokorrak, non eta ez diren zuzenean esleitu harrobiaren garapen-jarduerari;
- iv) Harrobiaren garapeneko jardueretan zati batean bakarrik aritzen diren langileen ordainsarien kostuak (adibidez, harrobiaren garapenerako jardueretan lanaldi partzialean aritzen den entrenatzaile bat);



v) Jabetzen, estadioaren eta ekipamenduaren kostua edo horien balio-galera (ibilgetu materialaren balio-galera, eta, adibide gisa, harrobiaren garapeneko jarduerekin zerikusia duten aktibo horietako edozein barne, bereizita geratzen da gastu garrantzitsuetatik).

i) Garapen komunitarioko jardueretako gastuak

Garapen komunitarioko gastuak Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulutik kanpo geratzeko behar diren doikuntzak egiten ahalko dira. Garapen komunitarioko jardueren gastuak kirolean parte-hartzea sustatzeari eta gizarte-garapena indartzeari begira egiten diren onura publikoko jardueri zuzenean egotzi ahal diren gastuei dagozkie (hau da, klubak garapen komunitarioko jarduerarik egin ez balu, saihestu egingo lirateke).

i.1.- Garapen komunitarioko jardueren artean, besteak beste, hauek daude:

- i) Hezkuntza sustatzea;
- ii) Osasuna sustatzea;
- iii) Berdintasuna eta gizarteratzea sustatzea;
- iv) Pobreziari aurre hartzea edo gutxitzea;
- v) Giza eskubideak sustatzea, gatazkak konpontzea edo harmonia, erlijio- edo arraza-berdintasuna eta aniztasuna sustatzea;
- vi) Kirol amateurra sustatzea;
- vii) Ingurumenaren babesa edo hobekuntza sustatzea; edo,
- viii) Gaztetasuna, adina, osasuna, ezgaitasuna, egoera ekonomikoa edo beste gabezia batzuk direla-eta behar dutenei emandako laguntza.

i.2.- Zuzenean egotz daitezkeen eta, beraz, gastu garrantzitsuak kalkulatzeko orduan kontuan hartuko EZ diren gastuen artean, hauek daude:

- i) Garapen komunitarioko jardueretan erabilitako edo kontsumitutako materialen eta zerbitzuen kostuak;
- ii) Garapen komunitarioko jardueri erabat emanda dauden langileentzako ordainsarien kostuak;
- iii) Kirolean parte hartzea sustatzeko edo gizartearen garapena sustatzeko beste erakunde batzuei egindako dohaintzak.

i.3.- Erakunde informatzaile bat ez bada gai garapen komunitarioko jardueretan egindako ordainketak eta gainerako ordainketak bereiz identifikatzeko, ordainketa horiek ez dira komunitatearen garapenerako jardueren gastu gisa hartuko, eta, beraz, gastu garrantzitsutzat HARTUKO DIRA.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, gastu garrantzitsutzat hartuko dira honako hauek, besteak beste:

- i) Salmenta-gastuak, administrazio-gastuak eta gastu orokorrak, baldin eta gastu horiek komunitatearen garapenerako jardueri zuzenean egotzen ahal bazaizkie;



ii) Garapen komunitarioko jardueretan partzialki bakarrik parte hartzen duten langileei (adibidez, garapen komunitarioko jardueretan nolabaiteko inplikazioa duen jokalaria) emandako lansarien kostuak;

iii) Jabetzen, estadioaren eta ekipamenduaren kostua edo horien balio-galera (ibilgetu materialaren balio-galera, batzuk aipatzearen, harrobiaren garapeneko jarduerekin zerikusia duten aktibo horietako edozein barne dela, bereizita geratzen da gastu garrantzitsuetatik).

j) Emakumezkoen futboleko jardueren gastuak

Doikuntza egokia egin ahalko da emakumezkoen futboleko gastuak Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulutik kanpo gera daitezen.

Emakumezkoen futbol-jardueretan egindako gastuak klubaren/KSAren gastuak dira, zuzenean emakume-taldeetan parte hartzen duten jokalariai prestatzeko, hezteko eta garatzeko jardueri dagozkienak (hau da, saihestu egingo lirateke klubak/KSAk emakumezkoen futbol-jardueri ez ekitea erabaki izan balu).

Emakumeen futboleko jardueren artean, zehaztasunez azaltzeko asmorik gabe, honako hauek sartzen dira:

- (i) Emakumezkoen futboleko berariazko arlo baten antolaketa.
- (ii) Emakumezkoen taldeen parte-hartzea kasuan kasuko federazioak edo ligak onartutako estatu, eskualde edo toki mailako lehiaketa edo programa ofizialetan.

Zuzenean egozten ahal diren gastuen artean, hauek sartzen dira, besteak beste:

- (i) Emakumezkoen futbol-jarduerak egiteko erabilitako materialen eta zerbitzuen kostuak, ostatu-gastuak, mediku-ordainsariak, matrikula-, joan-etorri- eta mantenu-gastuak, kirol-ekipamendua eta -arropa eta instalazioen alokairua barne.
- (ii) Emakumezkoen futbol-jardueretan erabat engaiatuta dauden langileentzako (jokalariai eta teknikariai, esaterako) mozkin- eta prestazio-kostuak, baldin eta klubera/KSAerako lana emakumezkoen futbol-jardueretan soilik egiten bada.

Klub/KSA batek ezin baditu argi bereizi emakumeen futboleko jardueren gastuak eta beste gastu batzuk, gastu horiek ez dira emakumeen futboleko jardueretako gastutzat hartuko.

Baldintza honen ondorioetarako, honako hauek ez dira emakumeen futbol jardueren gastutzat hartuko:

- (i) Jokalarien scouting-aren kostuak.
- (ii) Jokalari baten federazio-eskubideak eskuratzeko kostuak, adibidez agente/bitartekari bati edo beste klub bati ordaindutako komisioak.
- (iii) Salmenta gastuak, gastu administratiboak eta bestelako gastu finko eta orokorrak, salbu eta gastu horiek zuzenean emakumezkoen futbol jardueri egozten ahal bazaizkie.
- (iv) Emakumezkoen futbol-jardueretan partzialki bakarrik engaiatuta dauden (adibidez, emakumezkoen futbol-jardueretan lanaldi partzian lan egiten duen entrenatzaile bat) langileentzako irabazien eta prestazioen kostuak.

k) Diruzkoak ez diren zordunketak/kargak

Behar diren doikuntzak egin ahal izango dira diruzkoak ez diren zordunketak/kargak Oreka Puntua kalkulatzaren ondorioetarako gastu garrantzitsuetatik kanpo gera daitezen.

l) Ibilgetu materiala eraikitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen finantza-kostuak



Klubaren futbol-jardueretan erabiltzeko aktibo bat eraikitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen finantza-kostuak, aztergai den kontabilitate-aldian izan badira eta justifikatutako arrazoi batengatik kapitalizatu ez badira, Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulatik kanpo geratuko dira, aktiboa funtzionamendu-baldintzetan egon arte.

Salbuetsitako zenbatekoa izango da interesengatik gastu erreala ken maileguan hartutako eta interesa dagokion zenbatekoa aldi baterako inbertitzeagatik lortutako edozein diru-sarrera.

Aktiboa eraikitzea amaitu ondoren, finantza-kostu guztiak Oreka Puntuaren emaitzaren kalkuluan sartu behar dira.

m) Futbolarekin eta klubarekin zerikusirik ez duten eragiketen gastuak

Gastu garrantzitsuen artean ez dira sartzen futbolarekin argi eta garbi zerikusirik ez duten eragiketen gastuak horiek ez dutenean zerikusirik futboleko klubaren jarduerarekin, kokapenarekin edo marketinarekin.

8.2. Gastu mota hauek Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulatik kanpo utz daitezke:

a) Ibilgetu materialaren amortizazioa/narriadura

Balio-galtzea esaten zaio aktibo batek bere balio-bizitzan zehar, hau da, aktibo hori entitate batek erabili ahal izatea espero den aldian, gal dezakeen balioaren esleipen sistematikoari. Narriaduragatik galera da aktibo ukigarri baten liburu-balioak bere zenbateko berreskuragarria gainditzen duen kopurua, hau da, aktibo baten arrazoizko baliotik handiena ken salmenta-kostuak eta erabilera-balioa.

Kontabilitateko aldi batean ibilgetu material batek izandako balio-galera edo narriadura Oreka Puntuaren emaitzaren kalkulatik kanpo utz daiteke, baldin eta ibilgetu horrekin zerikusia duen diru-sarrera baten egozpena ere bazterten bada.

b) Jokalarien federazio-eskubideen bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazioa/narriadura.

Amortizazioa esaten zaio aktibo batek bere balio-bizitzan zehar izan dezakeen balio-galtzearen esleipen sistematikoari. Narriaduragatik galera esaten zaio aktibo baten liburu-balioak salmenta-kostuak kenduta bere arrazoizko balioa gainditzetik sortzen den kantitateari.

Kontabilitateko aldi batean jokalarien federazio-eskubideak eskuratzeko kostuarekin zerikusia ez duen ibilgetu ukiezinaren amortizazioa edo narriaduragatik galera ez da sartzen Oreka Puntuaren emaitzaren kalkuluan.

Zalantzarik ez izateko, jokalarien federazio-eskubideak eskuratzeko kostuen amortizazioa/narriadura Oreka Puntuaren kontabilitate-aldi baterako emaitzaren kalkuluan sartu beharko da.

c) Gastu fiskalak

Gastu fiskalak dira sozietateen gaineko zergari dagozkionak, bai Espainian, bai atzerrian sortutakoak.

Gastu fiskala izango da kontabilitatean "Sozietateen gaineko zerga" gisa adierazten dena, eta ez dira hor sartuko balio erantsiaren gaineko zergak, ezta ere kontribuzio fiskalak edo langileen Gizarte Segurantzako prestazioak.

9. AKZIODUNEN EDO LOTUTAKO ALDERDIEN EKARPENAK



1. Desbideratze onargarria Eranskin honen 5. puntuan adierazitako zenbatekoraino gainditu ahal izango da jarraipen-aldi batean, baina, betiere, soberakin hori akziodunen edo lotutako alderdien ekarpenen bidez osorik estaltzen bada. Klubak/KSAk ekarpenaren eskudirua edo horren baliokide dena jaso izan beharko du, ez kapital sozialeko partaidetzen titularrek eta/edo lotutako alderdiek horretarako emandako promesa edo konpromiso hutsa bakarrik.

2. Akziodunen ekarpenak kapital sozialaren bidez edo jaulkipen-primen erreserba-kontuaren bidez akzioengatik egindako ordainketak dira, hau da, akziodun gisa ondare-tresnetan inbertitutakoak. Era berean, horrelakotzat hartuko dira funtsak sartzea edo sozietatearen zorra murriztea dakarten edo ekarri izan duten ekarpenak ere, entitatearen ondare garbiaren kalkuluaren parte badira.

3. Lotutako alderdi baten ekarpenen artean, hauek sartzen dira:

Lotutako alderdi baten kapital-ekarpenak: erakunde informatzaileari egindako baldintzarik gabeko dohaintza da, eta, horren ondorioz, erakunde informatzailearen ondare garbia handitu egiten da, berriro ordaindu beharrik gabe, eta ez da ezer egin behar jasotzearen truke. Adibidez, bi entitateen edo lotutako alderdi baten arteko zor bati uko egitea kapital-ekarpena da, horren ondare garbia handitu egiten delako;

4. Transakzio-mota hauek ez dira akziodunen edo lotutako alderdien ekarpenentzat hartzen:

a) Berriz ebaluatzearen ondorioz aktibo/pasibo garbian egindako mugimendu positiboa;

b) Akziodunen ekarpenik gabe beste erreserba batzuk sortzea edo balantzean gehitzea;

c) Erakunde informatzaileari erantzukizun bat sortzen dion transakzio bat, erakundeak gaur egun modu jakin batean jarduteko edo esku hartzeko betebeharra duen heinean;

d) Jabeen ekarpenak pasibo gisa sailkatutako tresnetan, partaidetzako maileguetan izan ezik, baldin eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, erakundearen ondare garbiaren parte badira.

10. LOTUTAKO ALDERDIA, LOTUTAKO ALDERDI BATEN TRANSAKZIOAK ETA LOTUTAKO ALDERDIEN TRANSAKZIOEN ARRAZOIZKO BALIOA

1. Lotutako alderdia da bere finantza-egoerak prestatzen ari den pertsona fisiko edo juridiko bat ("erakunde informatzailea").

2. Pertsona bat erakunde informatzaile batekin egongo da lotuta, baldin eta pertsona horrek:

a) erakunde informatzailea banaka edo beste batzuekin batera kontrolatzen badu;

b) erakunde informatzailean eragin nabarmena badu; edo,

c) erakunde informatzailearen edo erakunde informatzailearen erakunde nagusiko zuzendaritza taldekoa bada.

Egoera horiek berdin aplikatuko dira lotutako pertsonaren hurbileko ahaideen kasuan.

3. Pertsona juridiko bat entitate informatzaile bati lotuta egonen da baldintza hauetako bat betetzen denean:



- a) Erakundea eta informazioa ematen duen entitatea talde berekoak dira (horrek esan nahi du matrize, filial eta sozietate afiliatu bakoitza besteekin lotuta dagoela);
- b) Erakunde bat bazkidea da edo beste entitatearen partaidetza duen enpresa bat da (edo bazkidea edo beste entitatea kide den talde baten partaidetza duen enpresa bat);
- c) Bi erakundeak hirugarren enpresa berean partaidetza duten enpresak dira;
- d) Erakunde bat hirugarren entitate baten partaidetza duen enpresa bat da, eta beste erakundea hirugarren entitatearen bazkidea da;
- e) Erakundea 2. atalean identifikatutako pertsona batek kontrolatzen du, bakarka edo taldean; edo,
- f) 2.(a) puntuan identifikatutako pertsona batek eragin nabarmena du erakundearen edo entitateko (edo entitateko matrize bateko) funtsezko zuzendaritza-taldeko kide da.

4. Aurreko 1. idatz-zatitik 3.era bitartekoetan, definizio hauek aplikatuko dira:

- a) Pertsona baten hurbileko ahaideak dira pertsona horrek entitatearekin egiten dituen transakzioetan eragina izan dezaketenak edo transakzioak eragin diezaioketenak; Barne hartzen dira pertsona horren seme-alabak, ezkontidea edo bikotekidea, pertsona horren ezkontidearen edo bikotekidearen seme-alabak eta pertsona horren edo haren ezkontide edo bikotekidearen kargura dauden pertsonak.
- b) Kontrola da entitate baten finantza- eta eragiketa-politikak zuzentzeko ahalmena, horren jardueretatik onura lortzeko.
- c) Partaidetzako enpresa bat (joint venture) kontratu-hitzarmen bat da, eta, haren bidez, bi alderdik edo gehiagok jarduera ekonomiko bat egiten dute, elkarren artean kontrolatuta.
- d) Kontrol bateratua jarduera ekonomiko bat kontratu bidez adostu denaren arabera banatzean datza, eta bere jarduerari buruzko erabaki finantzario eta operatibo estrategikoei kontrola partekatzen duten alderdien (enpresaburu bateratuak) aho bateko adostasuna eskatzen dute.
- e) Zuzendaritzako funtsezko langileak dira erakundearen jarduerak zuzenean edo zeharka planifikatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko agintea edo erantzukizuna duten pertsonak, baita entitate horretako edozein kontseilari ere (exekutiboa edo bestelakoa).
- f) Eragin garrantzitsutzat hartzen da entitate baten finantza eta eragiketa politikei buruzko erabakietan parte hartzeko gaitasuna, baina horien gainean kontrolik izan gabe. Eragin nabarmena lor daiteke aukeren titulartasunaren bidez, estatutuen bidez edo kontratu bidez.
- g) Elkartekidea entitate bat da, nortasun juridikorik gabeko entitateak barne, esaterako elkarte bat, non inbertitzaileak eragin nabarmena baitu filiala edo partaidetzako enpresa bat izan gabe. Lotutako alderdiaren definizioan, elkartekide batek elkartekidearen filialak ditu, eta partaidetzan den enpresa batek partaidetzako enpresaren filialak ditu. Hori dela eta, elkartekide baten filiala eta elkartekidearengan eragin nabarmena duen inbertitzailea elkarrekin lotuta daude, esate baterako.



5. Lotuta egon daitezkeen aldean arteko harremanak baloratzeko orduan, harremanaren funtsean jarri behar da arreta, ez soilik izaera juridikoan. Ez dira lotutako alderdiak honako hauek:

- a) Bi entitate, baldin eta kontseilari bat edo zuzendaritzako beste kideren bat badute elkarrekin, edo zuzendaritzako funtsezko kide batek beste entitatean eragin nabarmena badu.
- b) Bi enpresaburu elkartu, partaidetzako enpresa baten kontrola partekatzen dutelako.
- c) Finantzaketa-hornitzaileak, sindikatuak, zerbitzu publikoen enpresak eta erakunde informatzailea kontrolatzen ez duten, batera kontrolatzen duten edo eragin esanguratsua duten gobernuko agentzia eta ministerioak, erakundearekin harreman normalak izate hutsagatik (nahiz eta erakunde baten ekintza-askatasunari eragin diezaioketen edo erabakitze-prozesu batean parte har dezaketen).
- d) Erakunde batekin negozio-bolumen esanguratsu bat burutzen duen bezero, hornitzaile, frankizia-emaile, banatzaile edo agente orokor bat, mendekotasun ekonomiko eratorria izate hutsagatik.

6. Lotutako alderdi baten transakzioa da lotutako alderdien arteko baliabideen, zerbitzuen edo betebeharren transferentzia, preziorik kobratu den ala ez kontuan hartu gabe.

7. Lotutako alderdi baten transakzioa arrazoizko balioan egin daiteke edo ez. Arrazoizko balioa da informatutako alderdiek, berdintasunean egindako transakzio baten bidez, aktibo bat trukatzeko edo zor bat likidatzeko ezartzen den zenbatekoa. Akordio edo transakzio bat 'berdintasunean egin gabekotzat' jotzen da horren zehaztapenak alderdietako baten aldekoagoak badira lotutako alderdien artean harremanik ez egotekotan baino.

8. Oreka Puntua kalkulatzeko, klubak/KSAk doikuntza hauek aplikatu beharko ditu, elkarri lotutako alderdiak diren klubaren/KSAren arteko jokalaria baten federazio-eskubideen transferentziari dagokionez (aldi baterako lagapenak barne):

a) Jokalariaren federazio-eskubideen transferentzia etengabea bada, eskubide horien transferentzia jaso duen klubak/KSAk amortizazio-kostu bat kalkulatu beharko du denboraldirako, jokalariaren federazio-eskubideak eskuratzeko kostu gisa kopuru bat erabiliz. Kopuru hori honako hauetako handiena izango da:

(i) Jokalariaren federazio-eskubideak eskuratzeko transakzioaren benetako kostua.

(ii) Eskubide horiek transferitu dituen klubaren/KSAren finantza-egoeretan jokalariaren federazio-eskubideak eskuratzeko diren kostu historikoak.

(iii) LIGAREN Balorazio Batzordeak egindako eskuratzeko-transakzioaren merkatu-balorazioaren ondoriozko kostua. Aukera hori balorazioa erosketa-transakzioa egin eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean eskatzen bada bakarrik aplikatuko da.

Aurreko (i)-tik (iii)-ra bitarteko irizpideen arabera klub/KSA eskuratzailerak kalkulaturako amortizazio-kostu erregistraturako amortizazio-kostu baino handiagoa bada, klub/KSA eskuratzailerak doikuntza egoki bat egin beharko du, kalkulaturako balioaren eta erregistraturako balioaren arteko aldea gastu garrantzitsu gisa sar dadin Oreka Puntuaren kalkuluan.

Jokalariaren federazio-eskubideak transferitu dituen klubak/KSAk besterentzeagatiko irabazi/galera kalkulatu beharko du, salmentako produktu gisa zenbateko bat erabiliz. Kopuru hori honako hauetako txikiena izango da:

(i) Salmenta-transakzioaren benetako produktua.



(ii) Jokalariaren federazio-eskubideak eskuratzeko kostuek beren finantza-egoeretan duen kontabilitate-balio garbia.

Eskubideak besterentzen dituen klubak/KSAk kalkulaturako irabazia, besterentzearen ondorioz, erregistraturako irabazia baino txikiagoa bada, eskubideak transferitzen dituen klubak/KSAk doikuntza egoki bat egin beharko du, kalkulaturako balioaren eta erregistraturako balioaren arteko diferentzia Oreka Puntuaren kalkuluan sarrera garrantzitsu gisa baztertzeko. Kopuru baliokide baterako diferentzia hori lotutako alderdi batek klubari/KSAri egindako ekarpen gisa har daiteke.

b) Jokalari baten federazio-eskubideak aldi baterako aldatuz gero.

Jokalariaren federazio-eskubideak aldi baterako lagatzen dituen klubak/KSAk zenbateko bat kalkulatu beharko du, jokalaria informazio-aldian egiten duen gastu gisa, kopuru hauetako handiena erabiliz:

(i) Informazio-aldian transakzioak duen kostu erreala.

(ii) Jokalariaren federazio-eskubideei dagokien amortizazio-kostuaren zenbateko metatua, eta lagapen-aldian jokalaria dagozkion langileentzako ordainsari, onura edo prestazioetako gastuak, jokalariaren federazio-eskubideak aldi baterako laga dituen klubaren/KSAren finantza-egoeretan erregistratuta dagoen bezala.

(iii) LIGAREN Balorazio Batzordeak egindako aldi baterako transferentziaren merkatu-balorazioaren ondoriozko kostua. Aukera hori balorazioa aldi baterako transferentziatik gehienez ere bi hilabeteko epean eskatzen bada bakarrik aplikatuko da.

Aurreko (i)-tik (iii)-ra bitarteko irizpideen arabera klubak/KSAk kalkulaturako gastua erregistraturako gastua baino handiagoa bada, orduan klubak/KSAk doikuntza egoki bat egin beharko du, kalkulaturako balioaren eta erregistraturako balioaren arteko aldea gastu garrantzitsu gisa sar dadin Oreka Puntuaren kalkuluan.

Jokalariaren federazio-eskubideak aldi baterako laga dituen klubak/KSAk kopuru bat kalkulatu beharko du, federazio-eskubide horien gastu gisa, informazio-aldirako. Horretarako, kopuru hau erabiliko du:

(i) Informazio-aldian transakzioak dituen diru-sarrera errealak.

(ii) Jokalariaren federazio-eskubideei dagokien amortizazio metatuaren eta lagapen-aldian jokalaria dagozkion mozkin-ordainsarien edo enplegatuentzako prestazioen batura, jokalaria aldi baterako transferitutako klubaren/KSAren finantza-egoeretan erregistratuta dagoen bezala.

Klub/KSA lagatzaileak kalkulaturako diru-sarrera erregistraturako diru-sarrera baino txikiagoa bada, klub/KSA lagatzaileak doikuntza bat egin beharko du, kalkulaturako balioaren eta erregistraturakoaren arteko aldea Oreka Puntuaren kalkuluan sarrera garrantzitsu gisa baztertzeko egokia.

X. LIBURUKO II. ERANSKINA – DEFINIZIOAK

Hona hemen Erregelamendu honetan biltzen diren termino nagusiei buruzko definizioak.

Hala ere, definizio horiek aldatu ahal izango dira Liga Nacional de Fútbol Profesionalak etorkizunean zabaldutako zirkularren bidez edo aztertu beharreko denboraldi bakoitzaren kontrol ekonomikoari buruzko erregelamenduaren azalpen-dosierren bidez.



1. LANGILEEKIN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIN DIREN ZORRAK FEDERAZIO-ESKUBIDEAK ESKUALDATZEKO JARDUERENGATIK.

1. Federazio-eskubideak transferitzeko jarduerengatik ("transferentziak") zortzat hartuko dira Futbol Liga Nazionaleko edo beste edozein liga edo federaziotako kide den beste edozein klubaren edo KSaren alde ordaintzeko dauden zenbatekoak, jokalarien federazioen eskubideak, prestakuntza-eskubideak eta solidaritate-mekanismoa kostu bidez eskuratzeagatik sortuak, FIFAREN *Estatutu eta Jokalarien Transferentziari buruzko Araudian* definitzen denaren arabera, jokalaria batek kontratua deuseztatzearen ondorioz agintari eskudun batek zehazten duen edozein erantzukizun solidario, bai eta baldintza jakin batzuk betetzera lotuta dagoen edozein zenbateko ere.

2. Ondorio horietarako, zorra ordaindu gabe dagoela ulertuko da mugaeguneratua, likidoa eta lege- edo kontratu-betebehar baten arabera galdagarria denean. Nolanahi ere, Erregelamendu honen ondorioetarako, mugaeguneratutzat hartuko dira epaileak klub/KSA eskatzaileak aurkeztutako hartzekodunen lehiaketa onartzen duen egunean ordaintzeke dauden zorrak. Halaber, ez dira mugaeguneratutzat hartuko klubaren/KSaren hartzekodunen lehiaketaren hitzarmen-fasea hasten den egunean ordaindu gabe dauden zorrak.

3. Hartzekodunak mugaeguneratutako zenbateko bat ordaintzea ez badu eskatu, ez du esan nahi ordainketa-epea luzatzen denik.

4. Zor bat ez da ordaintzeko egongo, baldin eta klubak/KSAk frogatzen badu Erregelamendu honen arabera aurkeztutako tarteko finantza-egoeren ondoko martxoaren 31n:

a) Mugaeguneratutako zorra osorik ordaindu duela.

b) Atzeratu egin izan dela, hartzekodunarekin ados jarrita sinatutako idazki baten bidez.

Hartzekodunak mugaeguneratutako zenbateko bat ordaintzea ez badu eskatu, ez du esan nahi ordainketa-epea luzatzen denik.

c) Estatuko legearen arabera eskumena duten agintarien aurrean prozedura judicial bati hasiera eman bazaio eta izapideak egiteko onartu bada, edo, zor horiei dagokienez, Espainiako edo nazioarteko futbol-agintariak edo Arbitraje Auzitegiak espedienteak ireki badituzte. Erakunde erabakitzaileek uste badute prozedura edo espediente hori zorretan dauden kopuruengatik gatazka-egoera bat sortzeko helburu bakarrarekin hasi dela, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak frogatzea eskatu ahal izango ditu eztabaida hori arrazoizkoa dela ziurtatzeko.

d) Hartzekodun batek bere aurka irekitako erreklamazio edo prozedura bat inpugnatu badu, mugaeguneratutako zorren gainekoa, eta gai izan bada Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari modu arrazoizkoan erakusteko aurkeztutako erreklamazioa edo irekitako prozedurak funtsik gabeak direla.

5. Klubak edo KSak agiri fede-emaileak aurkeztu beharko ditu, aurreko lerroaldean ezarritako kasuetan oinarrituta.

2. LEHEN PLANTILLARI LOTUTAKO GASTUAK.

1. Lehen plantillari lotutako gastutzat hartzen dira "*Klubaren eta KSaren aurrekontuak egiteko arauen*" 23. eta 24. eredu normalizatuetan (VI. Eranskina) jasotako ordainsari eta kostu guztiak, amortizazio-kostua izan ezik. Halaber, lehen taldearekin zerikusia duten eta Eranskin horretan ageri ez diren gainerako langileen ordainsarien kostuak ere sartu beharko dira.



2. Lehen taldearekin zerikusia duten langileen artean, idazkari teknikoa edo kirol zuzendaria, medikuak, fisioterapeutak, tresnak eta delegatua sartzan dira.

3. Langile horiek klubeko beste talde batzuetan lan egiten badute, klubaren edo KSaren iritziz lehen taldearentzat egiten duen lanaren soldataren zatia egotziko zaio. Kluba edo KSA ez bada gai bereizketa hori egiteko, soldata osoa egotziko da.

3. ZOR GARBIA.

1. Honako hauek batzearen emaitza da: jokalarien federazio-eskubideen behin betiko edo aldi baterako transferentzien ondoriozko zor garbia (transferentzia horiengatik kobratu eta ordaindu beharreko kontuen zor garbia), finantza-erakundeetatik, jabeetatik, lotutako alderdietatik edo hirugarrenetatik jasotako finantzaketen ondorioz ordaintzeke (mugaeguneratuta egon ala ez) dauden zenbatekoak (adibide gisara: *banku-zorpekoak, maileguak, kreditu-polizak, zor-agiri deskontatuak, factoring-a, finantza-errentamenduak, konkurtso-zor arrunta, pribilegiatua eta menpekoa, administrazio publikoekiko ordainketa-geroratzeak, urtebetetik gorako epeetan sortu beharreko diru-sarreraren kobrantza aurreratuak*), diruzaintzak, aktibo likido baliokideek eta aldi baterako finantza-inbertsioek murriztuta eta ibilgetuaren hornitzaileekin edo hartzekodunekin ordaintzeke (mugaeguneratuta egon ala ez) dauden zenbatekoekin gehituta.

2. Zor garbiak ez ditu barne hartzen zor komertzialak edo ordaindu beharreko beste kontu batzuk, aurreko atalean sartutakoak izan ezik.

3. Klubak edo KSAk kategoriaz igo delako ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoen ondoriozko zenbatekoa zor garbitzat hartuko da.

4. Aipatu behar da zor garbia kalkulatzeko barne hartu beharko direla klubak bere akziodunei edo lotutako alderdiei emandako kredituak, guztiak batuta.

5. Zor garbian ez dira zenbatuko D+5eko ekainaren 30eko edo hortik gorako mugaeguna duten balantzearen pasiboko partidak. Informazio hori zor garbia kalkulatzeko balio izan duten D denboraldiko finantza-egoeretan zuzenean ikusten ez bada, auditorearen txostena edo egiaztapena beharko da.

4. HARROBIA.

1. Harrobiko jokalaritzat hartuko dira ekitaldia ixteko egunean 18 urte baino gutxiago dituztenak. Klubak edo KSAk jokalaria horiek identifikatzeko zailtasunak baldin baditu, liga ez-profesionaletan aritzen diren jokalariai harrobikotzat hartu ahalko dira.

2. Definizio hori erabiliko da bai ordainsarien gastuak, bai harrobia garatzeko jardueretan erabili edo kontsumitutako material eta zerbitzuen kostuak zenbatzerakoan.

5. LANGILEAK.

“Langileak” hitzak pertsona hauek biltzen ditu:

1. Jokalari profesionalak eta ez-profesionalak (lehen taldeko jokalariai, gainerako taldeetako edo beheragoko kategorietako jokalariai).

2. Beste edozein klubi/KSAri aldi baterako laga zaizkion federazio-eskubideak dituzten jokalariai.

3. Administrazioari, teknikariari, medikuari eta segurtasunekoari, honako kargu hauek betetzen dituztenak barne:

a) Zuzendari nagusia



- b) Finantza-zuzendaria
- c) Prentsa-burua
- d) Medikua
- e) Fisioterapeuta
- f) Segurtasun-arduraduna
- g) Zaleentzako ofizial bitartekaria
- h) Lehen taldeko lehen entrenatzailea
- i) Lehen taldeko bigarren entrenatzailea
- j) Harrobia garatzeko programaren arduraduna
- k) Harrobiko entrenatzaileak

6. GERTAERA GARRANTZITSUAK.

LIGArri aldez aurretik aurkeztutako dokumentazioaren gainean garrantzitsutzat jotzen den jazoera, dokumentazioa aurkeztu aurretik gertatu izan balitz beste aurkezpen bat beharko lukeena.

X. LIBURUKO III. ERANSKINA – BIDERAGARRITASUN PLANA

1. Bideragarritasun Plana.

Klub edo KSA batek ez baditu betetzen 16., 16.bis (indarrean dagoen bitartean), 17., 18., 19., 20., 21., 21.bis, 22., 23., 23.bis, 23.ter, 23.quer eta 24. artikuluetan jasotako arau edo adierazle bat edo gehiago, bideragarritasun plan bat aurkeztu beharko du Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak edo Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak eskatuta, eta ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- a) Banakakoa nahiz finkatua izango da.
- b) Emandako finantza-egoerak itxi ondorengo 48 hilabete jasoko ditu.
- c) Balantzea, galdu-irabazien kontua eta eskudiru-fluxuen egoera aurkeztuko dira.
- d) Memoria, honako hauek zehaztuta:
 - i) Atzemandako ez-betetzearen izaera, kuantifikazioa eta horrek erakundearen bideragarritasunean dituen ondorioak.
 - ii) Ez-betetzea zuzentzeko hartu beharreko neurriak.
 - iii) Neurriak gauzatzeko epeak.
- v) Atzemandako egoera zuzentzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio.

Bideragarritasun planak Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruaren aldeko txostena izan beharko du eta Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak berretsi beharko du. Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruak aldeko txosten hori lortzen ez badu, egoki iruditzen zaizkion doikuntzak proposatu ahalko ditu.



2. Bideragarritasun Plana betetzeari buruzko txostena.

Onartutako Bideragarritasun Plana klubak/KSAk bete beharko du.

Bideragarritasun Plana exekutatu ahala, hurrengo kontabilitate-itxieretan (ekainaren 30ean, abenduaren 31n eta hurrengoetan), klubak/KSAk txosten bat aurkeztu beharko dio Kontrol Ekonomikoaren Saileko buruari, horretarako finkatutako epeetan. Txosten hori legezko ordezkariak sinatu eta klubaren/KSAren ikuskatzaileek berrikusi beharko dute, eta adostutako prozeduren txostena egin beharko du Bideragarritasun Plana betetzeari buruzko txostenean jasotzen diren kontularitza-zenbatekoei buruz, 2008ko uztailaren 19an emandako eta 2012ko apirilean berrikusitako Gidan jasotako ISRE 4400 araudia eta horren ondorengo eguneratzeak betez, Kontu Azterlarien Institutuak emana.

Txosten horrek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- a) Balantzea, galdu-irabazien kontua, benetako diru-fluxuen egoera bideragarritasun-planeari sartutakoarekin alderatuta.
- b) Balantzea, galdu-irabazien kontua eta hurrengo aldiarako eskudiru-fluxuen egoera berriz zenbatestea, beharrezkoa bada.
- c) Memoria, honako hauek zehaztuta:
 - i) Denboraldian benetan hartutako neurriak.
 - ii) Klubaren/KSAren bideragarritasunaren eta finantza-egoeraren gainean azkenean izan duen eraginkortasuna.
 - iii) Atzemandako desoreka-egoera gainditzeko beharrezkoak diren beste guztiak.

Ikuskatzaileak prozedura hauek egin behar ditu, gutxienez:

- a) Finantza-informazioa aritmetikoki zehatza den egiaztatzea.
- b) Bideragarritasun-planaren zuzendaritzarekin eta berrikuspenarekin eztabaidatu ondoren, Bideragarritasun Plana deklaraturako onarpenen eta arriskuen bidez egin den zehaztea.
- c) Bideragarritasun Planeari jasotako hasierako finantza-egoerak aurreko urteko kontuekin edo berrikusitako azken finantza-egoerekin bat datozela egiaztatzea (horiek aurkeztu badira).
- d) Bideragarritasun Plana klubeko/KSAeko administrazio-organoak formalki onartu duela egiaztatzea.

3. Kontrol Ekonomikoaren Sailak Bideragarritasun Plana betetzeari buruzko txostena baloratzea.

- a) Bideragarritasun Plana Betetzeari buruzko Txostena LIGaren Kontrol Ekonomikoaren Sailak baloratu beharko du, eta, txosten hori ikusita, tarteko kontabilitate-itxituren azterketa partzialaren ondorioz bideragarritasun-plan hori eskatzeko arrazoi izan ziren ez-betetzeak edo ez-betetzeak dagozkien adierazleak arintzen eta/edo hobetzen ez badira, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari helaraziko zaio, horrek, bere aldetik, aurreikusitako neurriak har ditzan.
- b) Era berean, Kontrol Ekonomikoaren Sailak egindako tarteko kontabilitate-itxituren azterketa partzialetik ondorioztatzen bada Bideragarritasun Plan horren eskaera eragin zuten ez-betetzeak edo ez-betetzeak zuzendu direla, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari helaraziko zaio, honek erabaki dezan Bideragarritasun Plana aztertzen jarraitu behar den ala ez hurrengo kontabilitate-itxieretan.







XI. LIBURUA

IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEI BURUZKO ERREGELAMENDUA



XI. LIBURUA: IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEI BURUZKO ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

LIGAn Estatutu Sozialetan ezarritako araubide juridikoaren arabera, Liga Nazional honen helburu asoziatiboa eta gaitasun materiala, hurrenez hurren, Lehen eta Bigarren Mailako Liga Nazionaleko eta Espainiako Errege Txapelketako –finala izan ezik, azken txapelketa hori Espainiako Futboleko Errege Federazioak ez badu merkaturatzen– futbol profesionaleko lehiaketetako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeari buruzkoa izango da (2. eta 3. artikulua, hurrenez hurren), merkatu nazionalen eta nazioarteko merkatuetan ustiatzeko.

Ikus-entzunezko eduki horietan sartzen dira jokalekuan eta bertatik ikusten diren kirol-esparruetan egiten diren ekitaldiak, kirol-ekitaldia hasteko aurreikusitako ordua baino bi minutu lehenagotik amaitu eta hurrengo minutura arte. Eduki horietan sartzen dira zuzenean nahiz aurrez grabatuta, osorik eta bertsio laburtu edo zatikatuetan emateko eskubideak, merkatu nazionalen eta nazioarteko merkatuetan ustiatzeko.

Era berean, Estatutu Sozialen 6. artikuluekin bat etorritik, LIGAn gobernu- eta ordezkartza-organoen artean "Ikus-entzunezko eskubideen kudeaketa kontrolatzeko organoa" deritzona aurreikusten da, eta 55. artikulua, klubak/KSAk LIGAn afiliatzeko betekizunei buruz, lehen aipatutako klubek/KSAk eskubideak batera komertzializatzeko dituzten ahalmenak LIGAn lagatzeari dagokiona ezartzen du. Horrez gain, Estatutu Sozialen Xedapen Gehigarri Bakarrak hainbat xedapen ezartzen ditu futbol profesionaleko lehiaketetako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideen komertzializazio horren ondorioz afiliatutako klubak/KSAen artean diru-sarrerak banatzeko irizpideei buruz.

Arestian aipatutakoarekin bat etorritik, Erregelamendu honen helburua da aurrez aipatutako estatutu-aginduen edukia garatzea, eta, hartara, bertan aurreikusitako estatu mailako futbol-lehiaketa profesionalen ikus-entzunezko eskubideen komertzializazioa arautzea.

ATARIKO TITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

XI.1. ARTIKULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. Erregelamendu honen xedea da (i) erregelamendu bidez garatzea antolatzen dituen futboleko lehiaketa profesionalen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeko arauak, bai eta merkaturatu edo laga dakizkiokeen futbol-lehiaketen gaineko ikus-entzunezko eskubideak ere; eta, (ii) lortutako diru-sarrerak LIGAn eta horri afiliatutako klubak/KSAen artean banatzeko irizpideak ezartzea, Estatutu Sozialetan eta Erregelamendu honetan aurreikusitakoari jarraituz.

2. Ikus-entzunezko eduki horietan sartzen dira jokalekuan eta bertatik ikusten diren kirol-esparruetan egiten diren ekitaldiak, kirol-ekitaldia hasteko aurreikusitako ordua baino bi minutu lehenagotik amaitu eta hurrengo minutura arte. Eduki horietan sartzen dira zuzenean nahiz aurrez grabatuta, osorik eta bertsio laburtu edo zatikatuetan emateko eskubideak, merkatu nazionalen eta nazioarteko merkatuetan ustiatzeko.

I. TITULUA. IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEI BURUZKO ERREGELAMENDUA

XI.2. ARTIKULUA. IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEI BURUZKO ERREGELAMENDUA



1. Estatu mailako futboleko lehiaketa profesionalen ikus-entzunezko eskubideen titulartasuna LIGArekin kide diren klubei/KSAei dagokie.

2. Estatutu Sozialen 55.19 artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatu mailako futbol-lehiaketa profesionaletan parte hartzeak nahitaez dakar LIGARI afiliatutako klubek/KSAek ikus-entzunezko eskubideak batera merkaturatzeko ahalmenak lagatzea, antolatzen dituen futbol-lehiaketetako topaketak zuzenean eta/edo geroraturata, osorik edo bertsio laburtuetan edo zatikatuetan emateko, bai eta merkaturatzea agindu edo laga dakiekeen futbol-lehiaketei buruzko ikus-entzunezko eskubideak ere, merkatu nazionalen eta nazioarteko merkatuetan ustiatzeko, Estatutu Sozialen 3.1 m) artikuluan eta XI. Liburu honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

3. LIGArekin eskubideei kalterik egin gabe, klubei/KSAei erreserbatuko zaie eskubide hauen ustiapena:

- a) Kirol-jardunaldia amaitzen denetik partida aurrez grabatzea, baldin eta zuzenean ematen badu klubaren/KSAren kirol-jarduerari buruzko banaketa-kanal baten bidez.
- b) Partida jokatzen den instalazioen barruan, gertaera horri dagokion telebistako ikus-entzunezko seinalea zuzenean ematea.

4. Estatu mailako futboleko lehiaketa profesionaletako partida bat jokatzen duten instalazioetan afiliatutako klubek/KSAek, Erregelamendu honetako 1. artikuluan definituta dauden bezala, lankidetzara osoa eskaini beharko diete erakunde antolatzaileari (LIGA) eta ikus-entzunezko edukia ekoitzi eta garraiatzeaz arduratzen diren erakundeei, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten, eta ezingo dute kontraprestaziorik edo konpentsaziorik eskatu kirol-esparrua edo haren instalazioak eginkizun horietarako erabiltzeak eragin ditzakeen gastu arruntengatik.

Nolanahi ere, ikus-entzunezko edukien ekoizpenak eta garraioak ez dute eraginik izango ez ikuskizun horretan bertan, ez afiliatutako klubak/KSAk artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako eskubideen ustiapenean, ez eta kirol-esparruan edo bere instalazioetan egiten den beste edozein merkataritza-jardueratan ere.

XI.3. ARTIKULUA. IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEAK MERKATURATZEA

1. Estatutu Sozialetan eta XI. Liburu honetan ezarritakoaren arabera, LIGA arduratzen da antolatzen dituen futboleko lehiaketa profesionaletako ikus-entzunezko edukia ustiatzeko eskubideak merkaturatzeaz, bai eta merkaturatu edo laga dakizkiokeen futbol-lehiaketen gaineko ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzeaz ere, eta lortutako diru-sarrerak LIGArekin eta klubek/KSAren artean banatzeko irizpideak ezartzeaz, Estatutu Sozialetan eta Erregelamendu honetan aurreikusitakoari jarraituz.

2.- Ikus-entzunezko eskubideak komertzializatu eta ustiatzeko sistema enpresa-askatasunaren printzipioaren arabera arautuko da, lehiari buruzko Europako eta Espainiako araudiak ezarritako ebaluazio-sistemaren esparruan.

3. LIGAK ezarriko ditu estatu mailako futboleko lehiaketa profesionalen ikus-entzunezko eskubideen komertzializazioa arautuko duten baldintza orokorrak, merkatu nazionalen eta komunitarioan ustiatzeko eskaintzen konfigurazio-arauak, lotekako taldekatzeak eta esleitzeko eta ustiatzeko baldintzak barne, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako mugak eta printzipioak errespetatuta.



4. Afiliatutako klubek/KSAek, zuzenean edo hirugarrenen bidez, banaka ustiatu eta merkaturatu ahal izango dituzte LIGAk ustiatzen edo merkaturatzen ez dituen ikus-entzunezko eskubideak.

II. TITULUA. DIRU-SARRERAK BANATZEKO IRIZPIDEAK.

XI.4. ARTIKULUA. DIRU-SARRERAK AFILIATUTAKO KLUBETAN/KSA-ETAN BANATZEKO IRIZPIDEAK

1. Estatu mailako futboleko lehiaketa profesionalen ikus-entzunezko eskubideak batera ustiatu eta merkaturatzearen ondorioz lortutako diru-sarrera garbiak LIGARI afiliatutako klubetan/KSAen artean banatuko dira, artikuluko honetan ezarritako irizpideen arabera.

2. Diru-sarreraren %90 Lehen Mailan parte hartzen duten klubetan/KSAei esleituko zaie, eta gainerako %10a Bigarren Mailako klubetan/KSAei.

3. LIGAK kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak banatuko ditu, adostutako irizpideen arabera, betiere arau eta muga hauek errespetatuz:

a) Portzentaje bat kategoria bakoitzeko parte-hartzaileen artean banatuko da, zati berdinetan. Banatu beharreko zenbatekoa %50 izanen da Lehen Mailan eta %70, gutxienez, Bigarren Mailan.

b) Gainerakoa, a) letran adierazitako kontu-saila kendu ondoren, kategoria bakoitzeko klubetan/KSAren artean banatuko da, modu aldakorrean. Kopuru horren erdi bakoitza banatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.. Lortutako kirol emaitzak. Lehen Mailan azken bost denboraldietako kirol emaitzak hartuko dira kontuan, eta azkenekoan lortutakoak %35ean haztatuko dira, azkenurrekoan %20an eta aurreko hiru denboraldietako bakoitzean, berriz, %15ean. Bigarren Mailan azken denboraldia bakarrik hartuko da kontuan.

Irizpide horiek aplikatzeko, banatu beharreko zenbatekoa kontuan hartutako denboraldi bakoitzari esleituko zaio, aurreko lerroaldean ezarritako haztapen-irizpideen arabera. Denboraldi bakoitzari esleitutako zenbatekoa honela banatuko da parte-hartzaileen artean:

- 1. sailkatua: %17.
- 2. sailkatua: %15.
- 3. sailkatua: %13.
- 4. sailkatua: %11.
- 5. sailkatua: %9.
- 6. sailkatua: %7.
- 7. sailkatua: %5.
- 8. sailkatua: %3,5.
- 9. sailkatua: %3.
- 10. sailkatua: %2,75.
- 11. sailkatua: %2,5.
- 12. sailkatua: %2,25.
- 13. sailkatua: %2.
- 14. sailkatua: %1,75.
- 15. sailkatua: %1,5.
- 16. sailkatua: %1,25.
- 17. sailkatua: %1.
- 18. sailkatua: %0,75.
- 19. sailkatua: %0,5.



- 20. sailkatua: %0,25.

Lehiaketak 20 parte-hartzaile edo gehiago baditu, portzentaje horiek hurrengo atalean xedatutakoaren arabera doitu beharko dira, emaitzen arabera progresibotasuna errespetatuta.

- 2.. Ezarpen soziala. Irizpide honen balorazioaren herena azken bost denboraldietan abonuetan eta leihatilan bildutako diruaren batez bestekoak zehaztuko du, eta beste bi herenak telebistako emankizunak merkaturatzeagatik baliabideak sortzen parte hartzeagatik lortutakoak.

Ezarpen sozialerako irizpideak aplikatzeko, banaketa proportzionaleko sistema ezarriko da, eta ezein entitatek ezin izanen du kontu-sail honen %20 baino gehiago jaso. Klubak/KSAk muga hori gainditzen badu, soberakina proportzioan banatuko da gainerakoan artean.

Klubak/KSAk ezin izango du kontzeptu honengatik partida honen %2 baino gutxiago jaso.

4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako banaketarako aplikatu beharreko irizpideak kategoria bakoitzeko Mailako Batzordeek onetsi beharko dituzte, botoen bi hereneko gehiengo kualifikatuz, LIGArekin eskubideak merkaturatzeko kontratu bakoitza sinatu ondoren. Horretarako deitutako bileran inork ez badu lortzen gehiengo hori hiru bozketaren ondoren, aurreko aldiko irizpideei eutsiko zaie. Halakorik ez badago, Kirol Kontseilu Gorenak erabakiko ditu banaketa-irizpideak.

5. Bi kategorietan, artikulua honetan adierazitako irizpideen arabera dagozkien kopuruak banatu ondoren, diru-sarrera gehien eta gutxien dituzten klubak/KSAen arteko aldea ezin izango da 4,5 aldiz baino handiagoa izan. Halakorik gertatuz gero, entitate guztien kuota proportzionalki murriztuko da, diferentzia maximo horretara iristeko behar dutenak gehitzeko.

Gutzizko banaketa mila milioi eurotik gorakoa bada, gehiago eta gutxiago jasotzen dutenen arteko diferentzia hori gutxituz joango da, pixkanaka, 3,5 eta 1 arteko proportziora iritsi arte. Proporzio hori mila eta bostehun milioi euroko edo gehiagoko diru-sarrerarekin lortuko litzateke.

Bi kasuetan, muga horiek betetzen direla egiaztatzeko, Liburu honen 6.1 artikuluan aurreikusitako konpentsazio-funtsetik jasotzen diren zenbatekoak zenbatuko dira, bai eta ikus-entzunezko eskubideen ustiapen eksklusiboaren esleipendunek beste edozein harreman komertzialen kontraprestazio gisa jasotzen dituzten diru-sarrerak ere.

6. Ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzearen truke parte hartzen duen klub/KSA bakoitzari dagozkion zenbatekoen likidazioa denboraldia egingo da, bakoitza hasten den urte naturala amaitu baino lehen. Denboraldi baten amaieran mailaz igotzeak eta jaisteak ez du eraginik izanen denboraldiari dagokion likidazioan, eta hurrengo denboralditik aurrera bakarrik izanen dituzte ondorioak.

XI.5. ARTIKULUA. ESPAINIAKO ERREGE KOPAKO ETA SUPERKOPAKO IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEAK MERKATURATU ETA BANATZEKO BEREZITASUNAK

LIGA ados jarriz gero EFEFrekin eta afiliatutako klubekin/KSAekin, Espainiako Errege Koparen ikus-entzunezko eskubideak merkaturatu ahal izango ditu, arau hauek errespetatuta:

- a) Merkaturatze horretatik kanpo geratzen dira Espainiako Errege Koparen finala eta Espainiako Superkopa, horiek Espainiako Futboleko Errege Federazioak zuzenean merkaturatu edo ustiatuko baititu.



- b) Banaketa Liburu honetako 4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat egingen da, b) letrako 1. araua aplikatzerakoan espezialitate hauek kontuan hartuta, kirol emaitzei dagokien zenbatekoaren %25 era honetan banatzen duena:
- 1.. %22 LIGAREN Txapelketa Nazionalako kirol emaitzen arabera esleituko da, Erregelamendu honen 4. artikuluan aurreikusitako arauari jarraituta.
 - 2.. Gainerako %3a Errege Kopako kirol-emaitzen arabera esleituko da, artikulua honen 1. paragrafoan aurreikusitako irizpideen arabera.
- c) LIGAREN kide diren entitateek lehiaketaren funtzionamendu gastuak ordaintzen lagundu beharko dute, Liburu honen 6. artikuluan ezarritako moduan.

III. TITULUA. KLUBEN/KSA-EN BETEBEHARRAK

XI.6. ARTIKULUA. KLUBEN/KSA-EN BETEBEHARRAK

1. Lehiaketaren sustapena eta funtzionamendua hobetzeko eta, oro har, kirola sustatzen laguntzeko, LIGAREN klub/KSA bakoitzak, edozein kategoriatan, betebehar hauek bete beharko ditu urtero, ikus-entzunezko eskubideak batera merkaturatzeagatik lortzen dituen diru-sarreraren arabera:

- a) %3,5 konpentsazio-funts bat finantzatzeko erabiliko da. Funts horren onuradun izan daitezke futbol profesionaleko lehiaketan kategoriaz jaisten diren klubak/KSAk. Kopuru horren %90 Lehen Mailatik jaisten diren taldeentzat izanen da, eta gainerako %10a Bigarren Mailatik jaisten direnentzat.
- b) %1 LIGARI emango zaio, zeinak Espainiako eta nazioarteko merkatuetan lehiaketa profesionala sustatzeko erabiliko baitu.
- c) %1 Espainiako Futboleko Errege Federazioari emango zaio, futbol amateurren garatzeko ekarpen solidario gisa. Zenbateko hori handitu ahalko da Koordinazio Hitzarmenaren esparruan.
- d) %1,5era arte Kirol Kontseilu Gorenari emango zaio.

2. Zerga Administrazioari Estatu Agentziari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari zor likido, mugaeguneratu eta galdagarri direnak ordaintzeak lehentasuna izanen du aurreko atalean aurreikusitako betebeharrak betetzeko.

IV. TITULUA. KIROL KONTSEILU GORENAREN ARBITRAJEA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin DIREN ZORREN ORDAINKETA

XI.7. ARTIKULUA. KIROL KONTSEILU GORENAREN ARBITRAJEA

1. Klub/KSA batek futbol-lehiaketa profesional batean parte hartzeko erabakitzen duenean, berekin dakar ikus-entzunezko eskubideen komertzializazioari eta ustiapenari buruzko desadostasunak Kirol Kontseilu Gorenaren arbitrajearen mende jartzeko onarpena.

2. Arbitraje prozedura LIGAREN Estatutu Sozialen VI. Tituluan eta une bakoitzean aplikagarria den gainerako araudian aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

XI.8. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin DIREN ZORREN ORDAINKETA



1. Liburu hau indarrean sartzan denetik aurrera, LIGAk finantzazioa eskuratzeko berme gisa legez esleituta dituen eskubide guztiak erabili ahal izango ditu, bera osatzen duten klubei/KSAei administrazio publikoekin dituzten zorrak kitatzeko baliabideak eskaintzeko helburu bakarrarekin.
2. LIGA dagokion zenbatekoa jasanaraziko dio finantza-baliabide horiekin erabat edo partzialki kitatutako zorrak dituen klub/KSA bakoitzari, eta horren itzulketa bermatuko da.

V. TITULUA. LIGA NACIONAL DE FÚTBOL PROFESIONALEKO IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEN KUDEAKETA KONTROLATZEKO ORGANOA

XI.9. ARTIKULUA. IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEN KUDEAKETA KONTROLATZEKO ORGANOAREN DEFINIZIOA, OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Liga Nacional de Fútbol Profesionaldeko ikus-entzunezko eskubideen kudeaketa kontrolatzeko organoa denboraldi bakoitzean berrituko da, eta kide hauek osatuko dute:

- a) Azken 5 urteotan Espainiako ikus-entzunezko eskubideen bidez diru-sarrera gehien jaso dituzten bi klubak edo KSAk.
- b) Lehen Mailako bi klub/KSA, aurreko atalean xedatutakoaren arabera Batzordeko kide ez diren kategoria horretako taldeek bozketa bidez aukeratuak.
- c) Bigarren Mailako klub/KSA bat, kategoria horretako klubek/KSAek hautatua.
- d) Liga Nacional de Fútbol Profesionaldeko Presidentea.

2. Kirol Kontseilu Gorenari eta Espainiako Futboleko Errege Federazioari organo horren bileretarako dei eginen zaie, eta ahotserako eskubidea erabiliz baina botorik gabe parte har dezakete.

Era berean, organo horren bileretara deituko zaie Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari, eta ahotsa izango dute baina botorik ez, hartzekodun publiko gisa, baldin eta afiliatutako klub/KSaren batek administrazio horietako baten aurrean ordaindu gabeko zenbatekoak baditu.

3. Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoaren buru LIGAREN Presidentea izango da, eta haren botoak bozketan gerta litezkeen berdinketak ebatziko ditu.

4. Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoko kideak Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoak berak klub/KSA bakoitzari ikus-entzunezko eskubideak ustiatu eta merkaturatzeagatik jaso beharreko zenbatekoak behin betiko likidatzen dituen egunetik kontatzen hasi eta hurrengo hilabetean hautatuko dira, edo, horrelakorik ezean, legean edo LIGAREN barne araudian likidazio hori egiteko aurreikusitako azken mugaegunaren hurrengo hilabetean. Kargutik kentzen diren kasuetan izan ezik, organoa uzten duten kideak jardunean egonen dira beren karguan horiek ordeztzeko hautatzen diren kideen izendapena eraginkorra izan arte.

5. Hautatzen diren kirol-sozietate anonimoek eta klubek beren ordezkaria izendatuko dute Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organorako, bai eta ordezeko bat ere, Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoko kideari dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko.

Kirol-sozietate anonimoen eta klub/sozietate ordezkariak pertsonalki joan behar dute organo horren bileretara, eta euren berek beteko dituzte beren karguari dagozkion eginkizunak. Ordezkariak ahaleginduko dira bileretara joateko hutsegiteak



ezinbesteko kasuetara murrizten. Ordezkarria edo haren ordezkoa pertsonalki bertaratu ezin direnean, lehenengoak organoko beste kide bati eskuordetzen saiatuko da, eta botoa emateko jarraibide zehatzak emango dizkio hari. Ordezkaritza hori idatziz eta bilera bakoitzerako eman beharko da, fisikoki edo elektronikoki. Eskuordetze hori bilera baino lehen egiten ahalko da, edo bilera egiten den bitartean, edozein unetan.

Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoaren bileretara ordezkari iraunkorra, haren ordezkoa edo biak joan daitezke. Biak agertzen badira, ordezkari iraunkor titularrak izanen ditu ahots- eta boto-eskubideak.

6. Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoaren bileretarako deialdia, garapena eta funtzionamendua (erabakiak hartzeko araubidea barne) Batzorde Delegatuarentzat ezarritako arauetara lotuko zaizkie.

XI.10. ARTIKULUA. IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEN KUDEAKETA KONTROLATZEKO ORGANOAREN ESKUMENAK

Hauek dira Liga Nacional de Fútbol Profesionalaren Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoaren eskumenak:

- a) Ikus-entzunezko eskubideen komertzializazioa eta ustiapena kudeatzea, estatutuetako eta erregelamenduetako arauak errespetatuta.
- b) LIGAREN gobernu-organoei liburu honetan ezarritako banaketa-irizpideei buruzko erabakiak proposatzea.
- c) Ikus-entzunezko eskubideak batera ustiatzearen eta merkaturatzearen ondoriozko merkataritza-kudeaketa eta emaitza ekonomikoak kontrolatzea, berrikustea eta ikuskatzea, eta egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartzea, afiliatutako klubetara/KSAei merkaturatze horri eta emaitza ekonomikoei buruzko datu guztiak eta parte hartzen duen klub/KSA bakoitzari kontzeptu bakoitzarengatik jaso beharreko zenbatekoak lortzeko erabilitako datu guztiak gardentasun osoz ezagutzeko.
- d) Estatu mailako futbol-lehiaketa profesionaleko partiden ikus-entzunezko grabazioaren produkzioarako eta errealizazioarako patroia ezartzea, lehiaketaren osotasuna, partiden ospakizunari buruz indarrean dagoen araudia betetzea eta produktuaren balioa sustatuko dituen estilo komuna bermatzeko.
- e) Estatutu Sozialetan eta XI. Liburu honetan ezarritakoari jarraituz klub/KSA bakoitzari ikus-entzunezko eskubideak ustiatu eta merkaturatzeagatik dagozkion zenbatekoa zehaztea, estatutuetako eta erregelamenduetako arauetara jarraituta.
- f) Afiliatutako klubetara/KSAren ezarpen soziala baloratzeko behar diren datuak lortzea eta egiaztatzea, baita klub/KSA bakoitzari kontu-sail aldakorretatik dagozkion diru-sarrerak zehazteko behar den beste edozein datu ere.
- g) Denboraldia hasi den urte naturala amaitu baino lehen webgunean argitaratzea ikus-entzunezko diru-sarrerak banatzeko irizpideak, parte hartzen duen erakunde bakoitzari dagozkion zenbatekoak eta, halaber, Estatutu Sozialetan eta Liburu honetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko emandako zenbatekoak.
- h) Estatutu Sozialek edo Liburu honek esleitzen dioten beste edozein eginkizun, edo LIGAREN organoek eskuordetzen dioten beste edozein.

VI. TITULUA. ESKUBIDEAK ESKURATU ETA SALTZEKO SISTEMA EZARTZEA. KLUBENTZAKO/KSA-ENTZAKO GUTXIENEN BERMEAK



XI.11. ARTIKULUA. AFILIATUTAKO KLUBEN/KSA-EN DIRU-SARREREN MAILAREN BERMEA

1. Ikus-entzunezko eskubideak batera merkaturatzeko sistema abian jarri eta hurrengo sei denboraldietan, afiliatutako klub/en/KSAen diru-sarrerren maila bermatzen da kasu hauetan:

- a) Liburu honetako 4. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, klub/en/KSAen artean banatzeko dagoen kopurua txikiagoa bada 2014/2015 denboraldian ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzeagatik eta ustiatzeagatik afiliatutako klub/KSA guztiek lortutako diru-sarrerren batura baino, ez dira aplikatuko aurreikusitako banaketa-irizpideak, ezta Liburu honetako 4.3 artikuluko mugak ere, eta, partaide bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, denboraldi hartan bakoitzak jasotako zenbatekoa bildutako guztizko diru-sarrerren murrizketaren proportzioan murriztuko da.
- b) 2014/2015 denboraldian ikus-entzunezko eskubideak merkaturatu eta ustiatzeagatik afiliatutako klub/KSA guztiek lortutako diru-sarrerren batura baino handiagoa bada klub/en/KSAen artean banatzeko zenbateko erabilgarria, baina banaketa-irizpideak aplikatzeagatik afiliatutako klub/en/KSAen bati dagokion zenbatekoa klub edo erakunde horrek denboraldi horretan egiazki jarri duena baino txikiagoa bada, ez dira aplikatuko Erregelamendu honen 4.3 artikuluko mugak, eta banaketan saldo positiboak dituzten klub edo erakundeek jaso beharreko zenbatekoak murriztuko dira, diru-sarrerren gehikuntza globalean duten partaidetzaren proportzioan. Horrela murriztutako kopuruekin handitu egingo dira saldo negatiboak dituzten klub/en/KSAen zenbatekoak, 2014/2015 denboraldian horietako bakoitzak lortutako diru-sarrerren %100eraino iritsi arte.

2. LIGAn Ikus-entzunezko Eskubideen Kudeaketa Kontrolatzeko Organoari dagokio afiliatutako klub/KSA bakoitzak 2014/2015 denboraldian jaso dituen zenbatekoak egiaztatzea.

VII. TITULUA. BIGARREN A MAILAKO KLUBEI/KSA-EI IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEN AURRERAKINAK EMATEA ARAUTZEKO ARAUAK

XI.12. ARTIKULUA. XEDEA ETA HELBURUA

Bigarren "A" Mailako kirol-kategorian parte hartzen duten klubei/KSAei aurrerakinak eman ahal izango zaizkie ikus-entzunezko eskubideen prezio gisa jaso behar dituzten zenbatekoen kontura, futbol profesionaleko lehiaketetan ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak aurreratzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera. LIGAn dagokio eskubide horiek banatu eta ordaintzea, arau hauetan (Aurrerakina) ezarritako zehaztapen eta baldintzei jarraituta.

Klubek/KSAek liburu honetan araututako aurrerakina eskatzeko eskubidea izango dute, eta LIGAn aldetik horren aldeko edo aurkako erantzuna jasotzeko eskubidea. Aurrerakina eman ahal izateko, hurrengo manuetan jasotzen diren baldintzak jaso beharko dira, aurrerakina eskatzen den unean LIGAk behar adinako likidezia izan beharko du eta eskaera egiten duen klubaren/KSAren benetako behar bat izan beharko da eta LIGAn Kontrol Ekonomikoaren Sailak egindako arriskuen aldeko txostena egongo da.

XI.13. ARTIKULUA. KLUB/KSA ONURADUNAK



Aurrerakina indarreko denboraldian (D) Bigarren "A" Mailan parte hartzen duten klubek/KSAek eska dezakete.

XI.14. ARTIKULUA. AURRERATU DAITEZKEEN ZENBATEKOAK

1. Aurrerakina jaso ahal izango dute klubek/KSAek D+1 denboraldiagatik ikus-entzunezko eskubide gisa jaso behar dituen zenbatekoengatik, eskubide horiek ordaintzeko egutegiaren arabera D+1en urtarriletik D+2ren uztaileko azken ordaintetara bitartean egin behar diren kopuruan, eta, betiere, Erregelamendu honen 16. artikuluan zehazten den gehieneko zenbatekoaren mugarekin.
2. Aurrerakina aurreko 12. artikuluan adierazitako aldiari dagozkion ordainketei proportzioan aplikatuko zaie.
3. Nolanahi ere, aurreratu beharreko gutxieneko zenbatekoa milioi bat (1.000.000,00) eurokoa izango da denboraldi bakoitzeko, LIGaren 12. artikuluan adierazitako likideziaren arabera.

XI.15. ARTIKULUA. AURRERAKIN BAT ESKATU ETA ONARTU AHAL IZATEKO KLUBAK/KSA-K BETE BEHARREKO ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

1. Aurrerakin-eskaera bat onartu eta aztertzeko, klubak/KSAk betekizun eta baldintza zehatz hauek guztiak bete beharko ditu:
 - a) Indarrean den D denboraldiko abenduaren 31n, edo aurrerakina eskatu den egunean, aurrerakina baino geroagokoa bada, zor mugaeguneratu, likido eta galdagarrien ordainketa eguneratua izatea, edozein titulu edo kontzepturengatik, administrazio publikoekin, LIGaren afiliatuekin, Espainiako Futboleko Federazioarekin eta Espainiako Futboleko Liga Profesionalarekin.
 - b) Halaber, klubak/KSAk ordainduta izan beharko ditu indarreko D denboraldiko lehen seihilekoan sortutako jokalarri profesionalen ordainsari guztiak, eta ordainsari horiei dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipena ordainduta izan beharko da.
 - c) Taldeko jokalarrien ordainsari gisa prima kolektiboak ematea hitzartu bada eta horiek ez badira ordaindu, ordainsari horien mugaeguna D+1 denboraldiko uztailearen 31 baino geroagokoa dela frogatzen duen dokumentu-euskarria aurkeztuko da.
 - d) Aurrerakina eskatzeko unean edo, halakorik ezean, indarreko D denboraldiaren abenduaren 31tik ekainaren 30era bitartean jarraian azaltzen diren hartzekodunekin izan ditzaketen zor mugaeguneratu, likido eta galdagarrien zerrenda izendun nola eguneratu eta banakatua aurkeztea, dagokion kontzeptua identifikatuta delarik:
 - (i) Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia eta beste administrazio publiko batzuk.
 - (ii) Liga Nacional de Fútbol Profesional erakundea.
 - (iii) Espainiako Futboleko Errege Federazioa.
 - (iv) LIGaren kide diren klubak/KSAk.
 - (v) Aurrerakina eskatzen duten klubekin/KSAekin lan-kontratua indarrean duten edo izan duten futbol-jokalarri profesionalak, aurrerakina



eskatzen den egunean klubean edo KSAn aritzen diren ala ez kontuan hartu gabe.

- e) Klubaren/KSAren erantzukizunpeko adierazpena, horren kontu-ikuskatzaileak hurrengo puntuan azaltzen den Adostutako Prozeduren Txostenaren –nahitaezko izaera du– bidez egiaztatu zuenetik inolako kontratu, akordio edo hitzarmenik ez duela sinatu jasotzen duena.

Erantzukizunpeko adierazpen horrek administrazio publikoekin, LIGArekin, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin, klubekin/KSAekin eta jokalariekin edo teknikariekin egindako edozein kontratu, akordio edo hitzarmen berriri egingo die erreferentzia, edozein motatako ordainsariak barne, baita lehendik izenpetutako kontratuen edozein aldaketei ere, baldin eta kontratu berri horien ondorioz betebeharrak sortzen badira klubaren/KSAren kargura, eta betebeharrak horiek aurrerakina eskatzen den unetik edo, halakorik ezean, indarreko denboraldiaren abenduaren 31tik D+1 denboraldiaren uztailaren 31ra bitartean sortzekoak edota klubari/KSAri eskatzekoak baldin badira.

2. Aurreko baldintzak klubaren/KSAren kontu-ikuskatzaileak egiaztatu beharko ditu Adostutako Prozeduren Txosten baten bidez. Txosten horren edukia LIGAREN Kontrol Ekonomikoaren Sailak (edo, hala badagokio, Batzorde Delegatuak erabakitzen duen sailak) onartuko du, eta horretarako berriazko baimena ematen zaio, eduki hori zehazteko, eskatutako informazioa finkatzeko eta, hala badagokio, aldatzeko ahalmen handienekin.

3. Horrez gain, beharrezkoa izango da hau ere:

- a) Aurrerakinaren xede izan daitezkeen ikus-entzunezko eskubideak ez izatea hirugarrenei lagatakoak, berme gisa utzitakoak edo edozein titulu edo arazoirengatik zergapetutakoak.
- b) LIGAREN Erregelamendu Orokorraren VIII. Liburuan araututa dagoen kategoriazko uzteagatik konpentsazio ekonomiko gisa eta kontabilitate-partaidetzaren itzulketa gisa, hala badagokio, klubaren/KSAren alde sor daitezkeen etorkizuneko kredituak ez izatea hirugarrenei lagatakoak, ezta ere bermean utzitakoak edo edozein titulu edo arazoirengatik zergapetutakoak.

XI.16. ARTIKULUA. AURRERAKINAREN GEHIENEN ZENBATEKOA

1. Nolanahi ere, klubak/KSAk eska dezakeen aurrerakinaren gehieneko zenbatekoa hurrengo ataletan ezarritako prozedura aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

2. Kontu-sailei dagozkien kopuruak kalkulatu eta zehaztuko dira, ondoren aipatzen diren kontzeptuengatik:

- a) (A kontu-saila) Aurrerakina formalizatzen den egunetik kobratzeko dauden ikus-entzunezko eskubideen zenbatekoa, abian den D denboraldiari dagozkionak.
- b) (B kontu-saila) Aurrerakina formalizatzen den egunaren edo, halakorik ezean, klubaren/KSAren hartzekodunei D denboraldiko abenduaren 31tik ekainaren 30era bitarteko epearen barruan eman beharrean diren eta edozein titulu edo kontzeptuengatik sortzea aurreikusten den zorren zenbatekoa, hartzekodunak hauek direnean:
- (i) LIGAREN kide diren klubak/KSAk.
 - (ii) Liga Nacional de Fútbol Profesional erakundea.
 - (iii) Espainiako Futboleko Errege Federazioa.



- (iv) Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia eta beste administrazio publiko batzuk.
 - (v) Aurrerakina eskatzen duten klubekin/KSAekin lan-kontratua indarrean duten edo izan duten futbol-jokalari profesionalak, aurrerakina eskatzen den egunean klubean edo KSAan aritzen diren ala ez kontuan hartu gabe.
 - (vi) Aurreikusten den X. Liburuko 16.bis artikuluko eremu subjektiboan, materialean eta denbora-eremuan sartzen diren eta epe horretan sortzea aurreikusten diren finantza-eragiketak.
- c) (C kontu-saila) Kluba/KSA Bigarren "A" Mailatik Bigarren "B" Mailara jaisten bada kategoria uzteagatik konpentsazio ekonomiko gisa dagokion zenbatekoa.
- d) (D kontu-saila) LIGAk klub/KSA eskatzaileari itzuli beharko liokeen kontabilitate-partaidetzaren zenbatekoa hori Bigarren "B" Mailari jaisten bada.
- e) (E kontu-saila) KSA partaidetza duten akziodunek edo lotutako alderdiek zor dituzten edo klubaren/KSAren kapital sozialaren EHUNEKO HIRU (%3) edo gehiagoko partaidetza duten klubaren/KSAen aldeko kobrantza-eskubideen zenbatekoa. Eskubide horiek klubaren/KSAren balantzearen aktiboan jasota egongo dira edo egon behar lirateke.

3. Klubari/KSAri eman ahal izango zaion aurrerakinaren gehieneko zenbatekoa formula hau aplikatuz aterako da (letrek lehen deskribatutako kontu-sailak identifikatzen dituzte):

$$\text{Aurrerakinaren gehieneko zenbatekoa} = A + C + D - E.$$

Aurrerakinaren gehieneko zenbatekotik arestian zehaztutako B kontu-sailaren zenbatekoa atxikiko da, partida horretan deskribatutako zorrak klubaren/KSAren izenean eta kontura ordaintzeko. Horretarako, prozedura bat prestatuko da.

4. Klubak/KSAk B kontu-saila zehazteko ematen duen informazioa kontu-ikuskatzaileak egiaztatuta egongo da.

5. Aurrerakinaren gehieneko zenbatekoa aurreko arauekin bat etorritik finkatu ondoren, klub/KSA berak bigarren eskaera egiten badu, kopuru hori %20 murriztuko da. Murrizketaren ehuneko hori gehituz hurrengo eskaera bakoitzean, eta gehieneko zenbateko horren gainean metatutako da; beraz, bosgarren aldiz eskatzen bada, eman beharreko gehieneko kopurua gehieneko zenbatekoaren gaineko %20a izango da. Kasu horretan, eman beharreko gehieneko zenbatekoa %20 (D+1) izan den denboraldiaren hurrengo denboraldian ezingo da aurrerakinik eskatu, eta bigarren denboralditik aurrera (D+2), aurrerakin-eskaeren beste ziklo bat hasiko da. Orduan, lehenengoan gehieneko zenbatekoa emango da, bigarrean %80, eta horrela hurrenez hurren, lehenago adierazi bezala. Ondorio horietarako, zenbateko murrizketa metatua tramitatutako eskaeren gainean aplikatuko da, elkarren segidako denboraldiei dagozkien ala ez kontuan hartu gabe.

6. Eskatutako aurrerakina klubaren eta KSAren Aurrekontuak Egiteko Arauen eta, zehazki, II. Tituluko Laugarren Kapituluko Bigarren Atalean jasotakoaren arabera onartu denean, aurrekontuaren Oreka Puntua kalkulatzeko eta, beraz, klub/KSA eskatzailearen kirol-plantillaren kostuaren muga zehazteko, aurrerakinaren zenbateko osoaren %20 hartuko da kontuan, batura aljebraikoan zeinu negatiboa duen kontu-sail gisa, edo sortu beharreko baliabide gehigarri gisa, kasuaren arabera.

XI.17. ARTIKULUA. AURRERAKINAREN FINANTZA-KOSTUA



1. Emandako aurrerakinagatik, klubaren/KSAren kontura eta LIGAren alde sortuko dira ondoren zehazten diren finantza-kostuak:

2. Irekiera-komisioa:

- a) Emandako aurrerakinaren %0,25 izanen da, gutxienez 3.000,00 euro.
- b) Irekiera-komisioaren zenbatekoa aurrerakinaren zenbatekotik kenduko da ordainketa egiten denean.

Berriztatze-komisioa:

- a) Emandako aurrerakinaren %0,25 izanen da, gutxienez 3.000,00 euro.
- b) Berriztatze-komisioaren zenbatekoa aurrerakinaren zenbatekotik kenduko da ordainketa egiten den unean.

3. Deskontu-mota

- a) Aurrerakinaren zenbatekoari deskontu bat aplikatuko zaio. Deskontu hori kalkulatzeko, urteko tasa aplikatuko da aurreratutako zenbatekoen eta aurrerakinaldien gainean, 12 hilabeterako euriborra gehi HIRUREHUN (300) oinarritzko punturi dagokiona.
- b) Nolanahi ere, deskontu-mota ez da izanen EHUNEKO HIRU PUNTU KOMA BOST (3,5) baino txikiagoa urtean.
- c) Deskontuaren zenbatekoa hura ordaintzeko unean emandako aurrerakinaren zenbatekotik kenduko da.

XI.18. ARTIKULUA. KLUBAREN/KSA-REN ALDEKO KREDITUA IRAUNGITZEA

Aurrerakina ematean, iraungi egingo da ikus-entzunezko eskubideen kontzeptuagatik klubaren/KSAren aldeko ordainketa aurreratuei dagokien etorkizuneko kreditua.

XI.19. ARTIKULUA. AURRERAKIN BAT JASO DUEN KLUBA/KSA KIROL KATEGORIAZ JAISTEAN DEN KASU BEREZIA

1. Aurrerakin bat jaso duen kluba/KSA Bigarren "B" Mailara jaisten bada, horren ondorioz D+1 denboraldian ikus-entzunezko eskubiderik jasoko ez duela kontuan hartuta, aurrerakina mailegu baten bidez berrituko da, eta mailegu hori artikulu honetan (mailegua) ezarritako arauen arabera arautuko da.

2. Beraz, maileguaren kapitala aurrerakinaren zenbatekoaren adinakoa izango da.

3. Aurrerakina mailegu bidez berritzeko, aurrerakina jasotzen duen kluba/KSA kirol-sailkapenaren ondorioz Bigarren "B" Mailara jaitsi beharko dela jakiten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

4. Maileguaren kapitala itzuli egin beharko da, Bigarren "B" Mailara jaisten diren klubei/KSAei kategoria uzteagatik konpentsazioa eta kontabilitate-partaidetza itzultzeagatik konpentsazioa dela-eta klubaren/KSAren alde sorrarazten diren zenbatekoekin konpentsatuz. Kontzeptu horiek une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera ordaindu beharko dizkie LIGAk Bigarren "B" Mailara jaisten diren klubei/KSAei.

5. Konpentsazio horiekin ez bada guztiz ordaintzen maileguaren kapitala, soberakina D+1 denboraldiko ekainaren 30ean edo egun hori baino lehen ordainduko da.



6. Maileguaren interes-tasa 17.3 artikuluan finkatutako deskontu-motaren berdina izango da.

7. Deskontu-mota aplikatzeagatik deskontatutako aurrerakinaren batura handiagoa bada maileguaren interesak sortutakoa baino, soberakina maileguaren kapitalaren amortizazioari aplikatuko zaio.

8. Bermeak

a) Klub/KSA mailegu-hartzaileak maileguaren ondorioei aurre egiteko betebeharrak guztiak bermatu beharko dira lehen mailako bahitura-eskubide erreal baten bidez, edo, bestela, kluba/KSA kategoria uzteagatik konpentsazio kontzeptuengatik eta kontabilitateko partaidetza itzultzeagatik titular den edo izan daitekeen etorkizuneko kredituen lagapen-bermearen bidez, LIGAk kasu bakoitzean berme gehigarriak eskatzearen kalterik gabe.

b) Nolanahi ere, LIGAk edozein kontzeptuengatik klubari zor diezaiokeen edozein kopuru mailegu horren amortizazioaren zerbitzura dago, eta nahikoa izango da aplikazio horren berri ematearekin.

XI.20. ARTIKULUA. AURRERAKINA ESKATZEKO EPEA ETA MODUA

1. Aurrerakin-eskaerak klubak/KSAk egin ahal izango ditu indarreko D denboraldiko urtarilaren 31ra arte, 2016/17 denboraldian izan ezik. Denboraldi horretan, aldi baterako epea ezartzen da, eta 2017ko apirilaren 20ra arte izango da.

2. Aurrerakin-eskaerarekin batera, jarraian adierazten diren agiriak aurkeztu behar da. Agiri horiek indarrean dagoen D denboraldiko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira, 2016/17 denboraldian izan ezik. Denboraldi horretan, eta aldi baterako, epea 2017ko maiatzaren 20ra arte izango da. Agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Klubaren/KSAren adierazpena, aurrerakinaren xede diren ikus-entzunezko eskubideen kredituak ez zaizkiela hirugarrenei laga, ez direla utzi berme gisa eta ez dutela karga eta zergarik, eta klubak/KSAk ez duela horiek erabiltzeko mugarik edo murrizketarik jasotzen duena.

b) Klubaren/KSAren adierazpena, aurrerakina berritzeko aukera ematen duen maileguaren ondoriozko betebeharrak betetzeko pignoratu edo laga behar diren kategoria uzteagatik konpentsazioagatik eta kontabilitateko partaidetza itzultzeagatik konpentsazioagatik jasoko diren etorkizuneko kredituak ez zaizkiela hirugarrenei laga, ez direla berme gisa utzi eta klubak/KSAk ez duela horiek erabiltzeko mugarik edo murrizketarik jasotzen duena.

c) Aurreikusten diren zorren 16.2.b) artikuluan aurreikusitako zenbatekoen egiaztagiria, aurrerakina formalizatzen den egunetik, edo, bestela, indarrean dagoen D denboraldiko abenduaren 31tik ekainaren 30era bitartean ordainduko zaizkiela aurreikusten dena administrazio publikoei, LIGARI, Espainiako Futboleko Errege Federazioari, LIGAREN kide diren klubei eta KSAei eta soldata eta gainerako ordainsari-kontzeptuengatik zor zaizkien jokalariei eta teknikariei.

d) Auditoreak emandako prozedura adostuen txostena eta arau hauetako 15. artikuluan aipatzen den erantzukizuneko aitorpena.

3. Eskaerak Kontrol Ekonomikoaren Sailak, hala badagokio, onesten duen eredu normalizatuan aurkeztuko dira.

4. LIGAk, Kontrol Ekonomikoaren Sailaren bidez, egoki irizten dituen justifikazio-agiriak edo bestelakoak eskatzen ahalko ditu.



XI.21. ARTIKULUA. HITZARMENA ETA GASTUAK

1. Aurrerakin-eskaera onartu ondoren, LIGArek eta klub/KSA onuradunaren arteko hitzarmena formalizatuko da.
2. Dagokion hitzarmena Estatutuetan ahalmena duten pertsonak sinatuko dute, askatasun handienarekin adostutako eduki eta klausulekin, eta, bereziki, maileguaren ondorioz klubaren/KSAREN kargurako betebeharrak betetzeko bermeak artikulatzeko, berme horiek hirugarrenetik eta horien mailarekiko eraginkortasuna bermatzen duten baldintzetan.
3. Hitzarmenetik eta negozio juridikoetatik eratorritako gastu eta zerga guztiak klubaren/KSAREN kontura izango dira, baita erregistro publikoetako inskripzioak ere.

XI.22. ARTIKULUA. ONURADUN DIREN KLUBEN/KSA-EN KOBRATU GABEKO IKUS-ENTZUNEZKO ESKUBIDEEN ATXIKIPENA ETA AURRERAKINAREN BETEBEHAR OSAGARRIAK

1. LIGAK aurrerakina lortu duten klubei/KSAei atxiki egingo die D denboraldiko ikus-entzunezko eskubideen zenbatekoa baldin aurrerakina emateko unean horiengandik kobratzeko zorrik badu.
2. Atxikitako zenbatekoak klubaren/KSAREN zorrak ordaintzeko erabiliko dira, hurrengo ataletan aurreikusitakoarekin bat.
3. Aurreko atalaren arabera atxikitako zenbatekoarekin, LIGAK klubaren/KSAREN kontura ordainduko ditu klub/KSA horrek adierazitako zor mugaeguneratu, likido eta galdagarriak, edo klubaren/KSAREN hartzekodunek –hurrengo atalean aipatzen dira– LIGARI jakinarazten dizkietenak, LIGAK libre aukeratuko duelarik. LIGAK behar bezala jakinaraziko dio hori klubari/KSARI.
4. Aurreko atalean aipatzen diren zorrak hauekin dituztenak dira:
 - a) Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia eta beste administrazio publiko batzuk.
 - b) Liga Nacional de Fútbol Profesional erakundea.
 - c) Espainiako Futboleko Errege Federazioa.
 - d) LIGAREN kide diren klubak/KSAk.
 - e) Aurrerakina eskatzen duten klubekin/KSAekin lan-kontratua indarrean duten edo izan duten futbol-jokalari profesionalak, aurrerakina eskatzen den egunean klubean edo KSAN aritzen diren ala ez kontuan hartu gabe.
 - f) Finantza-operadoreekin, X. Liburuko 16.bis artikuluko eremu subjektibo, material eta tenporalean sartutako zorrak direnean.
5. Aurreikusitakoari jarraituz LIGAK dagozkion zenbatekoen gainean egindako atxikipenak ez du behartzen klubeko/KSAeko hartzekodunen aldeko kreditu jakin bat ordaintzera edo bermatzera.
6. Aurrerakina ematen zaien unetik aurrera, klubek/KSAek LIGAREN alde aurretiko baimena beharko dute, Kontrol Ekonomikoaren Sailaren bidez, kontratu izaerako betebeharrak ekonomiko berriak hartu ahal izateko jokalariei eta teknikariek, administrazio publikoekin, Espainiako Futboleko Errege Federazioarekin, klubekin/KSAekin eta LIGAREKIN, erakunde horien legezko, estatutuetako eta erregelamendu arauetatik eratorritako ez direnean eta hurrengo abuztuaren 1a baino



lehen ordaindu beharrekoak direnean.

XI.23. ARTIKULUA. ERREGULAZIOAREN INDARRALDIA

Gaur egun, edukirik gabe.

XI.24. ARTIKULUA. LIGAREN ORGANO ESKUDUNA

1. Aurrerakin eskaerak onetsi edo ukatzeko eskumena Batzorde Delegatuak izanen du, Kontrol Ekonomikoaren Sailak adostasun txostena eman ondoren.
2. Kontrol Ekonomikoaren Saila arduratzen da eta ahalmen handia ematen zaio eskabideak aztertzeko, kudeatzeko, txostenak egiteko eta horien jarraipena egiteko, baita horiek betetzeko ere, ahalmen handienekin.

XI.25. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUN PERTSONALAREN KLAUSULA

1. LIGAre eta aurrerakinaren onuradun den klubaren/KSAre artean sinatu beharreko hitzarmenean klausula bat sartu beharko da. Klausula horren arabera, klubaren/KSAre izenean Arau hauetako 15.1.e) artikuluan aipatzen den Erantzukizunpeko Adierazpena egin duen pertsona fisikoa klubarekin/KSArekin solidarioki eta modu pertsonalean edozein betebeharrak edo erantzukizun ordaintzera behartuko da, hain zuzen ere klubak/KSAk LIGAre aurrean, maileguaren ondorioz, eta, bereziki, haren kapitala itzultzeari dagokionez, baldin eta erantzukizunpeko adierazpena egiazkoa ez dela edo okerra dela eta errealitateari ez diola erantzuten egiaztatzen bada.
2. Era berean, klubaren/KSAre izenean aurrerakin-hitzarmena sinatu duen pertsona fisikoak, klubarekin/KSArekin betebeharrak solidario eta pertsonala hartzen du bere gain aurrerakina onartzen denetik eta Arau hauen 22.6 artikuluan ezartzen denari jarraituz LIGAre aurretiko onarpenik gabe kluba/KSA zordun den edozein betebeharrak edo erantzukizunen aurrean.
3. Betebeharrak pertsonal hori aipatutako izaera solidarioarekin hartuko du bere gain, eta erantzuleak uko egingo dio edozein motatako onurari edo ondasunen eskusioa egina izango du alde aurretik.

XI.26. ARTIKULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

1. LIGAre Estatutu Sozialek ezartzen duten zehapen-erregimena aplikatuko da, tipifikatutako beste edozein arau-hauste egitearen kalterik gabe, bereziki, aipatu Estatutu Sozialen 69.3.b) (Datu ekonomiko zehaztugabeak nahita ematea) eta 69.3.c) (Kirolerakundeekin, jokalariekin eta abarrekin itunak edo akordioak egitea, horiek LIGAre aurkeztuta direnak aldatzen badituzte, LIGAre horren berri eman gabe) artikuluetan ezartzen dena.
2. Estatutuen arau-hausteak egiteagatik bidezkoak diren zehapenak ezarriko dira aipatu adierazpen pertsonala sinatu duenaren erantzukizun ekonomikoaren kalterik gabe, aurreko 25. artikuluan jasotako kasua gertatzen bada.

VIII. TITULUA. KREDITU ESKUBIDEEN GAINEN KARGEN ETA BESTELAKO ERAGIKETEN ERREGISTRO-LIBURUA

XI.27. ARTIKULUA. KREDITU-ESKUBIDEEN GAINEN KARGEN ETA BESTELAKO ERAGIKETEN ERREGISTRO-LIBURUA

Klub edo kirol-sozietate anonimo afiliatuen titulartasuneko kreditu-eskubideei buruz eta, bereziki, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuarekin bat etorritik LIGAk



ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzetik eratorritakoen edo konpentsazio funtsetik eratorritakoen gainean LIGArean aurrean kargak, grabamenak eta bestelako xedapen-egintzak daudela jasota uzteko (izaera mugatzailerik gabe, premiamenduak, enbargoak, bermeak, salmentak edo lagapenak eta hirugarrenen aldeko xedapen-mugak eratzea barne hartuta), kargen, grabamenen eta kreditu-eskubideei buruzko bestelako xedapen-egintzen erregistro-liburu bat sortzen da. Liburu-erregistro bat irekiko zaio LIGArean kide den kirol-sozietate anonimo edo klub bakoitzari. Bertan, kreditu-eskubide horiei eragiten dieten kargak, grabamenak eta gainerako xedapen-egintzak jasoko dira, klubak edo kirol-sozietate anonimoak hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinarazi badizkio.

Eskaeraren prozedura eta ohar eta ziurtagirien edukia zirkular bidez arautzen ahalko dira.

XI.28. ARTIKULUA. ERREGISTRO-LIBURUA ZAINTEA ETA ERAMATEA

Erregistro-liburua formatu elektronikoan gorde eta eraman ahal izango da, eta LIGArean Legezko Zuzendaritzaren kargura egongo da. Legezko Zuzendariari dagokion informazio-oharrak eta ziurtagiriak ematea. Ohar eta ziurtagiri horiek dagokion erregistro-liburuaren arabera klubak edo kirol-sozietate anonimoak bakarrik eskatu ahal izango ditu.

XI.29. ARTIKULUA. LIGAK KREDITU-ESKUBIDEEN GAINEKO KARGAK ETA BESTE ERAGIKETA BATZUK JAKINARAZTEA ETA IDATZIZ JASOTZEA

Liga Nacional de Fútbol Profesionalean kirol-sozietate anonimo edo klub bakoitzari irekitako erregistro-liburuetan egindako inskripzioen ondorioetarako, afiliatutako klub edo kirol-sozietate anonimoek LIGARI modu frogagarri jakinarazi beharko diote LIGArean aurrean afiliatutako klub edo kirol-sozietate anonimoen titulartasuneko kreditu-eskubideen gainean duten edozein karga, grabamen edo hirugarrenen aldeko edozein xedapen-egintza, edozein izaerakoa. Jakinarazpen horrekin batera, LIGAK inskripzioa formalizatzeko eskatzen duen beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Komunikazio fede-emailea da komunikazioaren edukia eta LIGAn hori zein datetan sartu den adierazten duena.

Klubak edo dagokion kirol-sozietate anonimoak emandako informazioa liburu-erregistro irekian inskribatu eta eguneratuko du LIGAK, eta jakinarazpenaren sarrera-data adieraziko du.

Era berean, afiliatutako klub edo kirol-sozietate anonimoek Kargen Erregistro Liburuan aldez aurretik inskribatutako kreditu-eskubideen gaineko kargak, grabamenak eta gainerako xedapen-egintzak iraungi edo kendu direla jakinarazi beharko diote LIGARI, eguneratu ahal izateko.

Artikulu honetan eta berau garatzen duen araudian aurreikusitako moduan komunikazio fede-emailek ez badago, LIGAK ez du inolako idazpenik egingo Kargen Erregistro Liburuan sar daitezkeen gertaerei buruz, ezta horien iraungitze edo altxatzeari buruz ere, nahiz eta horien berri izan edo eraketa-dokumentutik eratorri. LIGAK ez du ere inolako idazpenik egingo juridikoki hori desegokia denean.

Judizialki edo izaera publikoko erakunde edo instituzioen alde eraturako karga, grabamen edo eskubideen kasuan, LIGARI egiten zaion jakinarazpena horretarako aplikagarri den legeria orokorrak ezarritako xedapenen arabera egingo da.

XI.30. ARTIKULUA. LIGAREN ERANTZUKIZUNA



1. Klub eta kirol-sozietate anonimoei eragiten zaien kalteen eta galeren aurrean, LIGA kasu hauetan bakarrik izango da erantzule:

- a) dagokion klubak edo kirol-sozietate anonimoak eskatutako idazpena ez denean egiten edo oharra edo ziurtagiria ez denean ematen, baldin eta idazpena egitea edo ematea, kasuan kasu, Liburu honetako xedapenen arabera bidezkoa bada; edo,
- b) idazpenaren, oharraren edo ziurtagiriaren edukian akatsa dagoenean edo zehaztugabea denean, batean zein bestean omisioa, akatsa edo zehaztasunik eza LIGARI egotzi ahal bazaio dolo edo erru gisa. Bereziki, hutsegiteak eta zehaztasunik ezak ez zaizkio LIGARI egotziko horien jatorria klubak edo kirol-sozietate anonimoak aurkeztutako dokumentazioan baldin badago.

2. Aurkeztutako dokumentuetan, LIGAK ez du kalifikatuko inguruabar hauetako bat bera ere:

- a) kanpoko formen legezkotasuna;
- b) egilesleen ahalmena edo ahalmen hori baimentzen duten epaile, auzitegi edo funtzionarioen eskumena; edo,
- c) dokumentuen edukiaren legezkotasuna.

LIGA aurkeztutako dokumentuko informazioa dagokion erregistro-liburura eramatera mugatuko da.



XII. LIBURUA

ABONUAK ETA SARRERAK SALTZEKO ARAUDIA



XII. LIBURUA: ABONUAK ETA SARRERAK SALTZEKO ARAUDIA

HITZAURREA

I.- LIGArekin helburu nagusien artean dago Espainiako futbol profesionalean edozein ekintza bortitz, arrazista, xenofobo edo intoleranteren aurkako zero tolerantziaren politika mantentzea, eta, horretarako, hainbat eskumen material ditu estatuko kirol-legegileak agindutako jarduera horien prebentzioaren inguruan. Eskumen horien esparruan, LIGArekin Estatutu Sozialen 3.2 l) artikulua ezartzen du estadioetako kirol-instalazioek zer baldintza bete behar dituzten lehiaketa profesionalak egiteko, bai eta segurtasunerako eta sarbideak kontrolatzeko zer arau ezarri behar diren ere.

II.- Gaur egun, argi dago abonua eta sarrerak saltzeko politika eta kudeaketa egokia, bere edozein modalitatetan, prebentzio-elementu garrantzitsua dela futbol profesionalean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia sustatzen duten jokabideen aurka borrokatzeko. Hori dela eta, Erregelamendu honen helburu nagusiak dira, alde batetik, sarrerak eta abonua saltzeko irizpide uniformeak ezartzea afiliatutako klub/KSA guztientzat. Hortaz, elementu garrantzitsua da portaera horiek prebenitzeko, eta, bestetik, kirol-elkarte horrek antolatutako futbol-lehiaketa profesionaletako partidetan parte hartzen duten zaleen eta parte-hartzaileen segurtasun-maila handitzeko.

III.- Erregelamendua kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeak eta kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuak ezarritako esparru juridikoaren arabera egin da, eta klub/KSA bakoitzaren egoerara egokitu behar da, horren barne-araudiaren bidez, zeina inolaz ere ez baita izango estatuko araubide juridikoaren eta LIGArekin Estatutuen eta Erregelamenduaren aurkakoa. Era berean, horren idazketan kontuan hartu dira hauek: (i) *European Professional Football Leagues* erakundeari elkartutako beste liga profesional batzuetako nazioarteko araudiak; (ii) afiliatutako zenbait klub/KSAren parte-hartze aktiboa; (iii) Aficiones Unidas elkarteak futbolzaleen ordezkartzean egindako ekarpenak; eta, (iv) kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako Estatu Batzordeak gai horri buruz ezartzen dituen irizpideak.

IV.- Hala, Erregelamenduan hainbat baldintza ezartzen dira elkarteko kide diren klubek/KSAek denboraldiko abonua saltzeko, eta aipamen berezia egiten zaie animazio-harmailak deiturikoetan dauden abonuei, dituzten ezaugarri arkitektoniko bereziengatik eta bertan egoten diren ikusleengatik (denboraldiko ikusleak). Era berean, betekizun gehigarri batzuk aurreikusten dira leihatiletan sarrerak saltzeko eta kanpoko klubaren/KSAren zaleentzako. Aipamen berezia merezi du Internet bidezko sarreraren salmentaren erregulazioak. Fenomeno berri samarra da, eta ohiko kanalen bidezko salmenta bezala arautu behar da. garapena mugatu edo zaildu beharrean, salmenta-bide berri gisa hartu behar da, eta, gutxienez, kirol-esparrura sartzeko beste modalitate batzuetarako ezarritako segurtasun-irizpide berak izan behar ditu. Azkenik, kortesiazko sarrerak edo gonbidapenak arautzen dira. Oro har, klubetako/KSAetako langileen, talde teknikoaren eta jokalarien artean banatzen dira, eta baita laguntzaileen, babesleen edo instituzioen artean ere.

XII.1. ARTIKULUA. DENBORALDIKO ABONUAK SALTZEKO BALDINTZAK

1. Afiliatutako klubek/KSAek denboraldiko abonua saltzeko, alde aurretik eta behar bezala identifikatu beharko dituzte horien erosleak. Horretarako, abonua eskuratzen duenak jarraian azaltzen diren datu pertsonal hauek eman beharko dizkio, gutxienez, klubari/KSAri abonua eskuratzen duen unean. Datu horiek



tratatu egingo dira, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera. Hauek dira eman beharreko datuak:

- a) filiazio datuak (izen-deiturak eta nortasuna egiaztatzen duen agiria)
- b) harremanetarako datuak (jakinarazpenetarako helbidea, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa).

Klubaren/KSAren politikaren arabera abonua ezin direnean laga, titularraren argazkia eskatu eta abonuan sartzea gomendatzen da.

2. Klubak/KSAk abonua kudeatu eta erabiltzeko politikak haiek lagatzeko aukera ekarriko du. Lagapena aurreikusiz gero, eta lagapen-hartzaileak bere jokabideengatik izan dezakeen erantzukizuna alde batera utzita, ordainketaren lagatzailea erantzule izan daiteke, klubaren/KSAren barne-araudiak hala erabakitzen badu.
3. Abonua formalizatzen denean, baldintza hauek onartu eta betetzeko klausula gehituko da:
 - (i) kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 6. eta 7. artikuluetan ikusleentzat ezarritako sarbide- eta iraupen-baldintzak;
 - (ii) aipatutako legearen 2.1 eta 2.2 artikuluetan aurreikusitako ekintza edo jarduerarik ez egiteko konpromisoa; eta,
 - (iii) kirol esparruko barne araubideko arauak errespetatzea.

Ikusleak ez badu betetzen klausula hori, dagokion zehapen-espeditentia irekiko da, klubaren/KSAren diziplina-erregimenaren arabera, eta horrek ez du eragotziko ez-betetze horrek izan dezakeen erantzukizun administratiboa eta/edo penala.

XII.2. ARTIKULUA. ABONUAK ANIMAZIOKO HARMAILETAN SALTZEKO BALDINTZAK

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, animazioko harmailatzat (edo eman daitekeen beste edozein deituraz) hartzen da klubak/KSAk berak edo LIGAK, ofizioz, hala zehaztutako kirol-esparruaren sektorea, eremua edo harmailak, ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenean:
 - (i) Etxeko taldeko ohiko zaleentzat bakarrik izatea;
 - (ii) Sektorizatuta eta gainerako edukieratik bereizita egotea, sektore, eremu edo harmailetarako sarbide eskusiboekin; eta,
 - (iii) Azterketa biometriko bidezko sarbide-sistema instalatuta izatea.
2. Denboraldi bateko edo denboraldi erdiko tituluak edo agiriak 1. paragrafoan deskribatutako ezaugarriak dituzten animazio-harmailetan saltzen badira, izena edozein dela ere, Erregelamendu honen 1. artikuluan adierazitako datuekin batera zehazten den datu biometrikoa ere eman beharko du zaleak. Horretarako, interesdunaren baimena jaso beharko da, datu pertsonal horiek tratatzeko helburu zehatzen berri argi eta garbi emanez, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera. Afiliatutako klubak/KSAk sarbide-titulua



ematen duenean, adierazitako filiazioarekin eta datu biometrikoarekin lotuko da zalea.

3. Denboraldi bateko edo denboraldi-erdiko animazio-harmailen sarbide-tituluak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, edozein dela ere klubak/KSAk gainerako kirol-esparrurako duen politika. Horretarako, klubak/KSAk ezarriko du, bai sarbide-titulua eskuratzeko agirian, bai dagokion barne-erregelamenduan, ikusleek une bakoitzean indarrean dauden nortasun-egiaztapenen kontrol guztiak bete beharko dituztela, sistema biometriko automatikoei dagozkienak barne, bai eta sarbide-titulua erakustekoak ere, beren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuarekin batera.
4. Animazio-harmailetan sartzeko, eremu horretan sartzeko titulua lortu duten zaleek soilik erabili ahal izango dute, eta horra sartzan direnean bere datu biometrikoa irakurriko zaie. Datu biometrikoarekin batera zale bati eskatzen bazaio bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat aurkeztea, datu biometrikoarekin eta sarbide-tituluarekin lotutako filiazioarekin bat datorrena, eta ez badu hori aurkezten, sarrera ukatu egingo zaio.
5. Harmaila horretako kideek, gutxienez, betebeharrak onartu beharko dituzte:
 - a) Sartzeko agiria pertsonala eta besterenezina da, eta horren titularra da hura behar bezala erabiltzearen arduraduna.
 - b) Kirol-esparrura sartzean eta, partida aurrera doan bitartean, behar diren nortasun-kontrolak egingo dira, klubeko/KSAko langileek edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoek hala eskatzen dutenean.
 - c) Sartzeko agiria hirugarren batek erabiltzen badu, debekatu egingo zaio esparrura sartzea edo kanporatu egingo da hortik, baita horren titularra ere, klubaren/KSAren diziiplina-araubidea aplikatuz sor daitezkeen beste diziiplina-ondorioez gain.
 - d) Sartzeko titulua formalizatzen denean, Erregelamendu honen 1.3 artikuluan zehazturiko onarpen eta betetze klausula sartuko da.
 - e) Harmaila horretan erakusten diren animazio-materialek, dagozkien lege-baldintzak betetzeaz gain, klubak/KSAk aldeztu aurretik onartuak izango dira. Material horiek zaleen lagunarte, elkarte edo talde bati buruzkoak direnean, talde hori klubaren/KSAren jarraitzaileen jardueren erregistro-liburuan behar bezala inskribatuta egon beharko da, eta hori erabiltzeaz arduratzen den pertsona bat egon beharko du.
6. Azterketa biometrikorik ez dakarren eremu horretara sartzeko beste edozein sistema ohiz kanpoko eta puntuala izango da, eta, hala badagokio, kluba/KSA behartuta egongo da kontrol biometrikotik kanpo sartzan diren guztiak identifikatzeko prozedura bat izatera. Klubak/KSAk prozedura hori LIGaren Segurtasun eta Segurtasun Zuzendaritzara bidali beharko du sistema abian jartzen denean, jakinean egon dadin eta baliozkotu dezan.

XII.3. ARTIKULUA. SARRERAK LEIHATILAN SALTZEKO BALDINTZAK

1. Sarrerak leihatilan salduko dira estadioko edozein eremutarako, identifikazio biometriko bidezko sarrera duten etxeko animazioko harmailei eta kanpoko zaleei esleitutako eremuari dagozkienak izan ezik. Horien salmenta Erregelamendu honetako 4. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera egingo da.



2. Arau orokor gisa, ez da onartuko pertsona bakoitzeko 6 sarrera baino gehiago erostea, abonatuari sarrerak erosteko kanpainak edo sustapenak barne, salbu eta klubek/KSAek edo segurtasun-koordinatzaileak, arrazoituta eta, gutxienez, partida egin baino 7 egun lehenago, pertsona bakoitzeko sarrera-kopuru hori murrizten badute segurtasun-arrazoiengatik, edo muga hori ezartzen duen Erregelamenduan jasotako oinarrietako bat betetzen bada.
3. Partida arrisku handikotzat jotzen bada, indarrean dagoen legediaren arabera, honako neurri hauek aplikatuko dira, Kirol eremuko Indarkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordeak ezar ditzakeen neurri gehigarriak ukatu gabe:
 - a) Pertsona bakoitzak 4 sarrera erosi ahal izango ditu, eta sarrerak 6raino gehi daitezke klubak/KSAk hala eskatzen badu eta segurtasun-koordinatzaileak baimena eman ondoren.
 - b) Partida jokatzen den egun berean ez da sarrerarik salduko estadioko txarteldegietan, dagokion segurtasun-koordinatzailearekin aldez aurretik ados jarri ezean.
 - c) Estatuko Batzordeak sarrerak jaulki eta saltzeko sistemak ezartzen baditu sarreren erosleen identitatea kontrolatzeko, klubak/KSAk dagozkion jarduerak egingo ditu kirol-esparrura sartzeko unean beharrezko nortasun-kontrolak egin ahal izateko. Era berean, sarrera erosten den unean jakinarazi egingo da sarrera hori erosketaren unean esleitzen zaion pertsonaren erabilera pertsonal eta besterenezinerako dela.
4. Estadioaren sektore batean kanpoko klubaren/KSAren zaleek sarrerak modu metagarrian eros ditzaketela hautematen bada, inguruabar hori lehenbailehen jakinaraziko zaio dagokion klubaren/KSAren segurtasun-zuzendariari, eta hark neurri egokiak hartuko ditu eta, edonola ere, segurtasun-koordinatzaileari horren berri emango dio berehala.
5. Pertsona batek 6 sarrera baino gehiago eskuratzeko, klubak/KSAk berariazko prozedura bat ezarriko du. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko ditu:
 - a) Sarrerak etxeko zaleentzat edo zale neutralentzat izango dira.
 - b) Taldeko arduradun bat egongo da behar bezala identifikatua klubaren/KSAren aurrean, horien filiazio datuak eta harremanetarako datuak emanez.
 - c) Erregelamendu honetako 3.3 artikuluan arrisku handiko partidutzat jotzen direnei buruz ezarritako eskakizunak beteko dira.

XII.4. ARTIKULUA. SARRERAK KANPOKO TALDEAREN EREMUAN EDO SEKTOREAN SALTZEKO BALDINTZAK

1. Estadioek kanpo taldearen zaleentzako eremu bat izango dute (klubaren/KSAren artean trukatzeko diren protokolozko/kortesiako sarrerak kanpo dira), etxeko taldearen zaleengandik behar bezala berezia, eta, ahal dela, sarbide ezberdina eta eskusiboa izango dute.
2. Etxeko klubak/KSAk erabakiko du zenbat eserlekuk osatzen duten sektore hori, eta kanpoko klub/KSA bakoitzarekin elkarrekotasun-akordioak egiten



ahaleginduko da sarreren esleipen kopuruari eta prezioari dagokienez. Kanpoko klubak/KSA arduratuko da kanpoko zaleen eremuko eserlekuak saltzeaz, artikuluko honen 5. atalean jasotzen den bezala.

3. Nolanahi ere, kanpoko klubak/KSAk etxeko klubari/KSAri eskatu beharko dizkio sarrerak, partidua jokatu baino gutxienez 7 egun natural lehenago.
4. Kanpoko klubak/KSAk partidua hasi baino, gutxienez, 48 ordu lehenago jakinaraziko dio etxeko klubari/KSAri eta segurtasun-koordinatzaileari zenbat sarrera saldu edo itzuli izan dituen. Era berean, sarrera erosi duten ikusleen datuak emango dizkio.
5. Kanpoko klubari/KSAri esleitutako sarrera-kopurua erabakitakoan, sarrera horiek erakunde horren kanalen bidez bakarrik salduko dira, eta, gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Klubaren/KSAren lagunarteen federazioaren bidez edo lagunarteen bidez egiten bada, zaleen jardueren erregistro-liburuan inskribatuta egon beharko dute.
 - b) Salmenta izenduna izango da, eta zerrenda bat sortuko da, saldutako sarreren zerrenda eta erosleak identifikatzeko datu pertsonalak jasoko dituen (izena, abizenak eta nortasuna egiaztatzen duen agiriaren zenbakia). Datu pertsonalen tratamendua datuak babesteko araudiarekin bat etorritik egin beharko da, eta, zehazki, kalitatea, segurtasuna eta adostasuna/informazioa emateko betebeharrak betetz, datuak etxeko klubaren/KSAren segurtasuneko helburu zehatzetarako lagatzeari dagokionez. Kirol-esparrura sartzekoan eta partiduan zehar, ikuslearen identitatea eta berarekin dakarren sarrerarekin bat datorren egiaztatuko ahalko da.
 - c) Kirol-esparrura ez zaio sartzen utziko eserlekua esleitu izan zaiona ez den beste pertsona bati, eta, inguruabar hori kirol-esparruaren barruan egiaztatzen bada, berehala kanporatuko da hortik. Etxeko klubak/KSAk behar diren nortasun-egiaztapenak egingo ditu kirol-esparrura sartzekoan.
 - d) Saldutako sarreren zerrenda eta eroslearen identitatea segurtasun-koordinatzaileari bidaliko dizkio beti kanpoko klubak/KSAk, artikuluko honetako 4. paragrafoan aurreikusitako moduan, eta, betiere, zaleen joan-etorrien planei eta antolaketari buruz eskura dauden datu guztien berri emango du, aplikatu beharreko legerian aurreikusitakoarekin bat etorrita.
 - e) Kanpoko eroslearen zerrenda, era berean, etxeko klubaren/KSAren segurtasun-zuzendariari bidaliko zaio, behar diren egiaztapenak egin ahal izateko esparrura sartzekoan, baita partida egin bitartean egin behar diren kontrolak ere.
 - f) Ekitaldia bukatutakoan, kirol-esparrura sartu diren pertsonen datuak ezabatu egingo dira. Alde horretatik, datuak babesteari buruzko legeriarekin bat etorritik, datuak ezabatzea datuak blokeatzea ekarriko du, hau da, datuak gorde, identifikatu eta gordetzea, datuok tratatzea eragozteko, datuok administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku jartzeko izan ezik, datuon tratamendutik sor daitekeen edozein erantzukizuni erantzuteko. Kasu horietako bat, azalpen gisara eta izaera murriztailerik gabe, honako hau izango da: indarkeriazko ekintzak edo jokabideak egin dituztenak edo indarreko legeriak kirolean debekatutako indarkeria, arrazakeria, xenofobia



edo intolerantzia eragiten dutenak identifikatzeko beharrezkoak diren datuak gordetzea, erantzukizun-egoeren barruan.

6. Debekatuta dago kanpoko taldearen sarrerak saltzea etxeko klubaren/KSAren estadioko txarteldegietan. Kanpoko klubak/KSAk sarrerak itzuliz gero, eta horiek salmentan jarri nahi badira, beharrezkoa izango da eserleku horien eta saldutakoen artean etxeko klubaren/KSAren zaleak eta kanpoko zaleak behar bezala berezita egongo direla bermatuko duten neurriak ezartzea. Neurri horiek segurtasun-koordinatzaileak alde aurretik ezagutu eta onetsi beharko ditu.
7. Jarraitzaileen jardueren erregistro-liburuan inskribatuta ez diren jarraitzaile-talde edo -kolektiboek sarrerak eskuratu nahi dituztela uste bada, kanpoko klubaren/KSAren segurtasun-zuzendariak bere taldearen segurtasun-koordinatzaileari eta etxeko klubaren/KSAren segurtasun-zuzendariari jakinaraziko die, jarduera horiek egiaztatu eta prebenitzeko neurri egokiak har daitezzen, hala badagokio.
8. Talde edo kolektibo antolatu eta ezezagun horietako kideek sarrerak beste bide batzuetatik erosi badituzte, ez zaie estadioan sartzen utziko.

XII.5. ARTIKULUA. SARRERAK INTERNET BIDEZ SALTZEKO BALDINTZAK

1. Internet bidez sarrerak saltzeko (online salmenta, hirugarren kanalen bidez, etab.), Erregelamendu honetan aurreikusitako baldintzak bete behar dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa deusetan galarazi gabe, eta sarrera Internet bidez erostean sortu den kirol-esparrura sartzeko modua eta titulua edozein izanda ere, baldintza gehigarri hauek bete beharko dira:
 - a) Estadioko eremu hauetarako ezingo da sarrerarik saldu Internet bidez:
 - i. Identifikazio biometrikoaren bidez sartzeko sistema duten animazio harmailak. Inguruabar horretatik kanpo geldituko dira denboraldiko aktibazio-prozedurak edo antzekoak, baldin eta ikusleak alde aurretik eman badu bere datu biometrikoa eta eremu, sektore edo harmaila horretako baldintzak eta betebeharrak onartzen baditu.
 - ii. Kanpoko taldearen zaleak kokatzen diren tokiak, kanpoko klubak saltzen dituen izan ezik, eremu horretako txarteldegian saltzeko ezarrita diren identifikazio-baldintza berberak beteta.
 - b) Ordainketa-modu berarekin ezingo dira 6 sarrera baino gehiago erosi, eta, indarrean dagoen legediaren arabera partida arrisku handikotzat jotzen bada, gehienez 4 sarrera besterik ez dira erosiko. Dena dela, 6 sarrera eskuratu ahalko dira klubak/KSAk hala eskatuta eta segurtasun-koordinatzaileak baimena eman ondoren.
 - c) Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordeak sarrerak jaulki eta saltzeko sistemak ezartzen baditu, sarreren erosleen nortasuna kontrolatzeko, Internet bidezko salmentari ere aplikatuko zaio.
 - d) Eskuratze-prozesuan zehar, erosleak berretsi egin beharko du legez eskatzen diren sarbide- eta iraupen-baldintzak irakurri eta onartzen dituela, bai eta datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiarekin bat



datozen datu pertsonalen tratamendua ere, bai eta etxeko klubak/KSAk parte-hartzaile bakoitzari ezar diezazkiokeen beste edozein datu ere. Salmenta-sistemak baldintza horiek eta estadioan sartzeko araudia inprimatzeko aukera eman behar du.

- e) Erosleak, eserlekua erosi izana eta ikusleak kirol-esparruan sartzeko eta egoteko bete behar dituen baldintzak onetsi ondoren, dokumentu fisiko edo birtual bat inprimatuko edo deskargatuko du, sarreraren antzekoa, besteak beste, eserlekurako sarbidea eta kokalekua eta legez eskatzen diren sarrera-baldintzak eta kirol-esparruan egoteko baldintzak jasoko dituena.

XIII. 6. ARTIKULUA.KORTESIAZKO/GONBIDAPEN BIDEZKO SARRERAK BANATZEKO BALDINTZAK

1. Oro har, ez da kortesiazko edo gonbidapen bidezko sarrerarik banatuko sarbideen kontrolerako prozedura indartuak dituzten eremu edo sektoreetan eta animazio-harmailetan. Salbuespen gisa eremu horietan sarrerak banatzen badira, artikuluko honetako 2. puntuko b) eta c) letretan ezarritakoa bete beharko da.
2. Kanpoko taldearen zaleen eremurako mota horrelako sarrerak ematen badira (kluben eta KSAren arteko truke-sarrerak izan ezik), prozedura honi jarraituko zaio, betiere partidu horretarako segurtasun-neurri orokorrek horretarako aukera ematen badute:
 - a) Kanpoko klubaren/KSAren bidez bakarrik egingo da.
 - b) Erregelamendu honetako 4.5 artikuluan ezarritako segurtasun-irizpide berak beteko dira ikuslearen izen identifikazioari dagokionez, eta datuak sektore horretako kanpoko zaleen zerrendan sartuko dira.
 - c) Kontrolpean egingo da, eta klubak/KSAk kanporatuta dituen pertsonen eta/edo hark abonamendua kentzeko neurriren bat betetzen ari direnen eta/edo dagokion gobernu-agintaritzak kirol-esparrura sartzeko ezarritako debeku-zehapen bat betetzen ari direnen eskuetara iristea saihestuko da.
3. Klubak/KSAk sarrera horien hartzaileei jakinaraziko die sarrerak hirugarrenei saltzea debekatuta dagoela.
4. Horrelako sarreraren banaketa laguntzaileen eta babesleak, klubarekin/KSArekin lankidetzan diharduten enpresen, ongintzako entitateen edo erakundeen eta gisakoen bidez egiten denean, horiei artikuluko honetako 2. c) eta 3. puntuak hertsiki betetzea eskatuko zaie, eta sarrerak bisitarien eremuan kokatzen badira, sarrera horiek eskuratu dituztenen zerrenda izenduna ere eskatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

BAKARRA.- IDENTITATEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO NEURRIAK

Denboraldiko abonauk edota sarrerak formalizatzeko agirietan, horiek erosi dituztenen identitatearen jarraipena eta kontrola egiteko neurriak hartzen direnean, ikuslea identifikatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa sartu beharko da, baita identitate hori egiaztatzeko prozedurei buruzkoa ere. Nolanahi ere, tratamendua datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren mende geratuko da.

